



1 - Biografiak



AGIRRE EGAÑA, Jose Maria (LIZARDI, Xabier)

[Zarautz (Gipuzkoa), 1896.04.18 – Tolosa (Gipuzkoa), 1933.03.12]

Hamar urte zituela Tolosara aldatu zen familiarekin eta bertan egin zuen batxilergoa. 1913an hil zitzaion aita eta, anaietarik zaharrena izanik, senideen ardura hartu behar izan zuen bere gain. 1916an Tolosako Banketxe batean lan egiten hasi zen eta 1917an zuzenbide ikasketak amaitu zituen Madrilgo Universidad Centralean, karrera ikasle libre gisa egin ondoren. EAJko kide eta Gipuzko Buru Batzarreko idazkaria izan zen.

Ikasketak bukatzen ari zen garaian, Aitzol eta Labaien ezagutu zituen eta haiekin batera "Tolosako Taldea" osatu zuen. Hogei urterekin, euskaraz idazten hasi zen Bilboko *Euzko Deya*-n, *Zarauzta Sabin* izengoitia erabiliz.

1923an, oihal metalikoak egiten zituen Perot enpresako gerente gisa hasi zen lanean eta Francisca Eizagirrerekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten. 1927an *Lizardi* izena erabiltzen hasi zen Arrasaten ospaturiko euskararen egunean. Urte horretan ere *Euskaltzaleak* elkartearen sorreran esku hartu zuen. Urte haietan, euskararen aldeko literatura-jai askoren antolatze lanetan aritu zen, hala nola Andoaingoan, Larramendiren ohoretan, eta Erreterian, Euskal Poesiaren Egunean, Jauregiren omenez eginikoan. Maiz idazten zuen prentsan eta euskal egunkari bat argitaratzeko egitasmoa burutu zuen.

1930ean Erretereriako olerki lehiaketan parte hartu zuen hiru poesia aurkeztuz: *Otartxo utsa*, *Parisko txolarrea* eta *Agur*. Harako hartan ez zuen saririk lortu, baina ondoko urtean, Tolosako ekitaldian, lehenengo saria lortu zuen *Urtegiroak* olerkiarekin. 1932an *Biotz-Begietan*, Giacomo Leopardi italiar olerkariaren bertso batetik ateratako izenburua daraman liburua argitaratu zuen Bilbon. Urte berean, Kirikiño saria lortu zuen *Etxe barne bizi*a artikuluaगतिक eta bi antzerti-lan, *Laño ta izar* eta *Bi aizpak* argitaratu zizkioten *Antzerti* aldizkarian. Lizardi hil eta urtebete geroago, *Umezurtz-olerkiak* eta *Itz Lauz* argitaratu ziren Donostian. 1953an *Ezkondu ezin ziteken mutila* antzerti-lana argitaratu zuen *Egan* aldizkariak.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Lehen Irakaskuntza saileko batzordekidea izan zen Eduardo Landetarekin batera, 1930etik 1933ra bitartean.

Eusko Ikaskuntzak euskarari buruz antolaturiko Udako Ikastaro batean esku hartu zuen. 1927an, Arrasateko *Euskeraren Egunean*, Jose M^a Agirre, Bengoa eta Arcelusek eskatu zioten Eusko Ikaskuntzari, babesa emateaz gainera, euskararen aldeko elkarte guztiak bere baitan har zitzan. Halaber, Eusko Ikaskuntza zatibitzea eskatu zuen: *Goi-Lan*, akademia saila, eta *Erri-Lan*, herri saila. 1930ean "Eusko Ikaskuntza'ren bostgarren batzarra" argitaratu zuen *Gure Herria* aldizkarian.

Argitalpenak

Olerkia da, segurki, Lizardiren literatura produkziozirik oparoena, eta idazle gisa gehien ezagutarazi duena, baina horretaz gain antzerti, prosa eta kazetaritza lanak ere idatzi zituen. Haren

poesia hiru alditan banatu izan da. Hasierakoa, gaztarokoa (1916-1925), Sabino Aranaren eraginak markatua; *Umezurtz olerkiak* aldi horretakoa da. Bigarren aldia, heldutasun-aroa (1925-1931), olerki landuarena da eta horri dagozkie olerkirik onenak: *Xabiartxoren eriotza* (1926), *Bultzi-leiotik* (1929), *Biotzean min dut* (1930), *Urte-giroak ene begian* (1930), *Asaba zaarren baratza* (1931). Azkenik, herri esaren erabilera da hirugarrenaldiaren (1932-1933) ezaugarria: *Egamin*.

Prensa artikulua asko idatzi zuen, gehienbat *Euzkadi* egunkarian. Adibide gisa, euskararen auzia ukitzen dutenak: "Unificación de esfuerzos. El euskera y el niño euskaldun" (1927-X-8 eta 9); "La escuela vasca de Tolosa" (1927-X-22); "La moda del euskera" (1927-X-26); "Traductores de Cervantes" (1928-VII-20); "Traducciones en diccionarios" (1928-VIII-7); "Respetuosamente a Euskaltzaindia" (1928-VIII-14); "Día del euskera" (1928-IX-21); "El escritor euskérico. El proyecto premio será llamado de Kirikiño" (1928-X-11); "El futuro premio de Kirikiño. Elección realmente acertada" (1928-X-12); "Cómo decaen las lenguas culturales" (1928-XI-3).

Bibliografía

AGUIRRE, E., "Lizardi'tar Xabier", *Euskera* (1933); ARIZTIMUÑO, J., "El poeta José María de Aguirre", *Yakintza* (1933); ARRESE, E., "Lizardi", *Yakintza* (1933); ORMAETXEA, N., "Lizardiren azken olerkiak", *Yakintza*, (1933); LABAYEN, A. M., "Lizardi'tar Xabier", *BSEV* (1933), 18-21. orr.; ARTECHE, J., "El poeta de la concisión", *Caminando* (1947); IBARTZABAL, Lizardiren, Xabier", *Euzko Gogoia* (1950), 9-11. orr.; ORMAETXEA, N., "Lizardi Ameriketan", *Euzko Gogoia* (1950), 6-8. orr.; ZAITEGI, G., "Lizardi ta euskal-idazleak", *Euzko Gogoia* (1954), 22-24. orr.; ORIXE, "Axular, Mendiburu, Lizardi", *Euskera* (1958); ORMAECHEVARRIA, "Lizardi", *Euskera* (1959), 263-266. orr.; MICHELENA, L., *Historia de la literatura vasca*, Madril, 1960; LETE, ZELAIE-TA, LERTXUNDI, *Xabier Lizardi, olerkari ta prosista*, Oñati, 1974; *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura*, II. libk., Donostia, 1978, 455-487. orr.; [MUJICA, L. M., *Lizardiren lirika bideak*, 1983; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbao, 1984, I. libk., 119. or.; AULESTIA, G., "Lizardi, poeta lírico y culto", *Muga* (1990), 35-36. orr.; OTEGI LAKUNTZA, K., *Lizardi lectura semiótica de Biotz-Begietan*, Donostia, 1993; AULESTIA, G., "Un siglo de literatura vasca", *Revista Sancho el Sabio* 5 (1995), 17-47. orr., 6 (1996), 13-47. orr.; 7 (1997), 13-77. orr.

A.G.G.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba

[Bilbo, 1953.02.27]

644 Posta kutxa
48080 BILBO
Fax. 944648299
E-mail: hcpagzij@lg.ehu.es



Filosofia eta Letretan lizentziatua, Geografia e Historia atalean Deustuko Unibertsitatean 1976an. Lehen ikerketa saioa 1972an abiarazi zuen On Jose Migel Barandiaranen zuzendaritzapean (Busturiako etnografia). Doktoratu aurreko bekaduna izan zen *Comité Conjunto Hispano Americano*aren programan (Nevada eta Deustuko Unibersitateak) eta 1985ean Historian doktoratu zen, Julio Caro Baroja tesi-zuzendaria zuela. 1980tik Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da eta 1995ean Unibertsitateko katedra lortu zuen Gaur egungo Historia arloan. 1989-1990 ikasturtean, *Basque Visiting Fellow* izan zen Oxford Unibertsitateko St. Antony's College-an, eta 1993an *Visiting Fellow* izan zen Florentziako European University Institute-an. Ikertzaile buru izan da Espainiako Gobernuko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren hiru urteko proiektu bitan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren bi urteko proiektu bitan eta EHUKo urteko hiru proiektutan. Lehenatasunezko ikerketa arloak: biografiak eta prosopografia, Antzinako Erregimenaren krisia eta iraultza liberalak, kultura soziabilitatea, antolaketa sistemak eta gestio politiko-administratiboa, parlamentu batzarrak, eguneroko bizitza, ahozko historia.

Egungo egunean, Bilboko Udaleko *Biblioteca Bidebarrieta Kulturgunea* biziberritzeko egitasmoa kudeatzen du eta *Bidebarrieta. Anuario de ciencias sociales y humanidades de Bilbao* aldizkariaren zuzendaria da. Halaber, hainbat zientzia aldizkaritako idazketa batzordekidea da: *RIEV (Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria)*, *Vasconia. Eusko Ikaskuntzako Historia Koadernoak* (Donostia), *Ernaioa* (Bilbo), *Historia, Antropología y fuente Oral* (Bartzelona). EHUKo *Historia Contemporánea* aldizkariaren idazkaria da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1985-1992 bitarteko urteetan Historia eta Geografia saileko lehendakaria izan zen, bai eta Bizkaitik Elko lehendakariordea 1991tik 1997ra. Historia Saileko lehendakari-aldian, tokiko ikerketak sustatzeko prestakuntza ikastaroa antolatu zuen Bilbon eta Iruñean eta Tokiko Historia Jardunaldiak sustatu zituen. Orobat, saileko aldizkaria indarberritu eta nazioarteko zientzia aldizkarien irizpideen arabera egituratu zuen.

On Jose Migel Barandiaran hil ondoren, lehendakariordea zenez, lehendakaritza kolegiatuan esku hartu zuen. Halaber, Eusko Ikaskuntzen XII. Kongresuko Antolaketa Batzordekoa, *Asmoz ta Jakitez* berripaperaren sortzaile eta zuzendaria eta Elren sorreraren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldi batzordekoa izan da. Bilbo 700 urteko oroimena Symposium-en antolaketa hasi zuen. Elko Gaur egungo Historiaren Dokumentazio Zentroaren gestioan esku hartu du. Egun, *Jakitez*, graduazio ondoko ikasturtearen zuzendaria da, bai eta Mediatekako zuzendaritza batzordekidea ere.

Argitalpenak

Honako liburu hauen egilea da: *Vizcaya en el siglo XIX: las finanzas públicas de un Estado emergente*, Bilbo, 1987; *Bizkaiko errepedigintza (1818-1876)*. *Hazkunde ekonomikorako azpiegi-*

tura lanak, Bilbo, 1987; *Gerra eta bakea Euskal Herrian. Politikagintza lege zahararen krisialdian*, Donostia, 1993; *Iraultza industrialaren abiatu ezinik. 1789-1876*, Donostia, 1993; *Euskal gizartearen barrena euskaltzaletasun politikoaren sorrera garaian: zaldunak, matxinoak, enpresariak, langileak eraketa (1789-1876)*, Bilbo, 1995; *La articulación político institucional de Vasconia. Actas de las Conferencias entre los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente Navarra*, Bilbo, 1995. Hainbat talde-libururen argitaratzaile eta zuzendaria: *Estudios de historia local*. Bilbo, 1987. *Perspectives on English Local History*. Bilbo, 1993, *Gran Atlas histórico de Euskal Herria*, Donostia, 1995.

Ondoko liburuen egilekidea: *Historia de Euskal Herria*, I eta II. liburukia, Bilbo, 1980; *150 años del Convenio de Bergara y de la ley del 29-X-1839*, Gasteiz, 1990. *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia 1898-1876*, Gasteiz, 1993; *Diccionario biográfico de los Diputados Generales, burócratas y patricios de Bizkaia*, Bilbo, 1995.



AGUIRRE LOPEZ, José de

[1884-1940]

Arte Ederrak ikasi zituen Madrilen eta Munich-en. Gero etnografiari lotu zitzaion. Donostiako San Telmo Museo Etnografikoko zuzendaria izan zen 1936a arte. 1920an galdera-sorta batzuk burutu zituen Eusko Ikaskuntzatik euskaldunen herri kultura ezagutzeko eta katalogatzeko helburuarekin, bereziki etxeko eta lanbideko tresnen izenen ingurukoak; tresna horien artean, goldea eta artilea lantzeko artzainek erabilitako tresneria zeuden, bai eta gaztagintzari eta artaldea zaintzeari zegozkienak ere.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako diruzainordea izan zen 1920tik 1936ra. 1921ean Batzorde Iraunkorrek Eusko Ikaskuntzaren ordezkari izendatu zuen Ameriketako euskaldunak bisitatzeko.

Argitalpenak

Haren liburuen arteko bi nabarmentzen dira: *Pensamiento sobre el amor* eta *Museo Municipal de San Sebastián*, Donostia, 1926. Liburuez gainera, artikulua asko argitaratu zituen *Eusko Folklore Urtekaria*, *RIEV* eta *Euskalerrriaren Alde* aldizkarietan eta *Libro de Oro de la Patria* izenburukoan. Euskal terminologia agertzen duen eta irudi anitzez horniturik dagoen euskal katalogo etnografiko baten egilea da (*RIEV*, 1922, 1926, 1927). Orobat, etnografiaren inguruan: "Errota Txiki. Molino movido por agua de mar en San Sebastián", *Euskalerrriaren Alde* (1921); "Establecimientos humanos y casa rural del valle de Juslapeña", *Eusko Folklore Urtekaria* (1925); "Casas de labranza", *Eusko Folklore Urtekaria* (1925); "Roncesvalles. Empinamiento en las techumbres", *Eusko Folklore Urtekaria* (1926); "Cochas y cabañas", *Eusko Folklore Urtekaria* (1926); "Escape de humos y algunos de sus tipos", *Eusko Folklore Urtekaria* (1927); "La ampliación en la casa de labranza", *Eusko Folklore Urtekaria* (1928).

Bibliografia

AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbao, 1984, I. libk., 118. or.

A.G.G.



AISENSEN BRONSTEIN, Laura

[Buenos Aires (Argentina), 1948.01.11]

Bermingham, 33-5. A
20001 DONOSTIA

Buenos Airesen ikasi zuen arkitektura eta 1974an arkitekto titulua lortu zuen. 1978tik 1984ra hainbat lan burutu zuen hirigintzaren alorrean eta Gipuzkoako historia eta arkitektura ondarearen katalogazioan. Bestalde, Donostian egin beharreko eraberritze, eraiste eta hirigintza inguruko hainbat txostenetan esku hartu zuen. Orobat, 1985etik 1898ra, profesional libre gisa lan egin zuen Gipuzkoako ondarearen inbentarioan Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat, kontserbazio, eraberritze eta zaharberritze lanen alorrean. Haren egintzen artean, nabarmentzekoa da Pasai Donibane, Altzo-Azpi, Alegia, Oñati, Bolibar, Eskoriatza, Tolosa eta Bergarako elizetako estalkien konponketa, Altzo-Azpi eta Beasaingo gangen sendotzea eta Bergarako Ozaeta jauregiaren eta Zenarruzako Colegiataren zaharberritzea.

1989tik 1990era bitartean, *Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro* delakoaren Zuzendaritza Batzordeko idazkaria izan zen, elkargoaren Gipuzkoako ordezkari izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1985etik 1990era bitartean Arte Plastiko eta Monumentalen saileko lehendakaria izan zen.

Argitalpenak

"Análisis arquitectónico del torreón de Vista Alegre, Zarautz (Guipúzcoa)", *RIEV* (1986);
"Plaza de la Constitución de San Sebastián, una plaza mayor", *Artes Plásticas eta Monumentales*. Saileko Koadernoak (1995), 9-38. orr.

AJURIAGUERRA ALBERTI, Isabelle de

[Boulogne-Billancourt (Seine-Paris) 1953.07.31]

Hegoa
64990 MILAFRANGA
Tel. 0559449297 Fax 0559449159
Collège Ursuia
64990 HAZPARNE



Julian de Ajuriaguerra eta France Alberti-ren alaba. Madrilgo *Universidad Autónoma* abiatu zituen ikasketak, eta Paris I-Panthéon-Sorbonne-koan amaitu. 1976an Letretako lizentziatura lortu zuen (*Section Archéologie et Histoire de l'Art, option archéologie antique et médiévale*), bai eta 1979an *Maîtrise d'Histoire de l'Art et Archéologie* delakoa eta 1980an Historiako lizentziatura eta *Diplôme d'Etudes Approfondies d'Antiquités Nationales et Protohistoire Européenne* deritzana. 1995ean *Udako Euskal Unibertsitateko* irakaslea izan zen.

Ikergai nagusiak: Erdi Aroko Historia, Frantziako Iraultzaren Historia Euskal Herrian, Quebec-en eta Euskal Herriaren arteko harremanak.

Association Ikas eta *Association culturelle Lauburu* elkarteetako kidea da eta Uztaritzeko ikastolako idazkaria izan da. 1985etik *Conseil d'Administration de la Société des Amis du Musée Basque*-ko kidea da, 1995etik 1997ra Elkarte horretako lehendakaria izan da, 1997tik aurrera lehendakariordea delarik.

Baionako Merkataritza eta Industria Ganberak antolatutako erakusketa bitan esku hartu du: *Voyage au Pays Basque à la veille de la Révolution Française de 1789* (1989) eta *Les Basques et l'Amérique* (1992).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Iparraldeko sailaren kide sortzaileetarikoa izan zen 1992an eta urte hartan berean Iparraldeko lehendakariorde hautatu zuten 1995eko uztaila arte.

Koordinatzaile lanetan aritu zen *Iparraldeko Arkeologia* jardunaldietan (Donostia, 1993). Eusko Ikaskuntzen XII. Kongresuan esku hartu zuen (Gasteiz, 1993), bai eta Iparraldeko Unibertsitate Garapena jardunaldietan (Baiona, 1994) eta 1994an Xabier Diharce, "Iratzederri" Manuel Lekuona Saria eman zion batzordean ere.

Argitalpenak

1994ko Manuel Lekuona Saria ematea Xabier Diharce "Iratzederri", Baiona, 1994 (Jean Haritschelhar, Gregorio Monreal eta Xabier Diharce "Iratzederrekin" batera) *RIEV*, (1994), 483-512. orr.; "Société des Amis du Musée Basque", *Bulletin du Musée Basque*, 143 (1996), 50-52. orr.



ALKAIN MARTIKORENA, Jesús María

[Donostia, 1922.01.27]

Pakea. Dr. Camino, 1-1.

20004 DONOSTIA

Tel. 943426500. Fax 943430153

E-mail: jesusmaria.alkain@clientes.euskaltel.es

Donostiako Merkataritza Eskolako bitarteko katedra laguntzailea izan zen 1942ko azaroaren 26tik 1965era; ondoren, ikastetxe bereko zenbait klaseren ardura hartu zuen bere gain. Bestalde, merkataritza intendentzia ikasi zuen Bilboko Merkataritza Goi Ikasketen Eskolan (egun Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea) eta bertan graduatu zen 1955eko irailaren 29an. Hiru urte lehenago, 1952ko uztailaren hamaikan, Espainiako *Instituto de Censores Jurados de Cuentas* delakoan sartu zen; 1956ko ekainaren 19an, *Colegio nacional de doctores y licenciados en ciencias económicas y comerciales* izenekoan, bai eta Kontu-ikuskarien Erregistro Ofizialean, 1989ko uztailaren 27an. Pakea, istripu eta aseguruaren mutualitatean Zuzendari-albokoa izan zen (1966.02.02), bai eta Gerentea (1970.04.10) eta gaur egun Lehendakaria (1998.04.20).

Donostiako Alkatea 1979ko apirilaren 19tik 1983ko maiatzaren 22ra arte, Euzko Alderdi Jeltzalearen zerrenda-buru gisa eta Prokuradorea Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Donostiako eskualdetik. Bestalde, Gipuzkoako Diputatua izan zen Eusko Legebiltzarrean, 1984ko martxoaren 22tik 1986ko irailaren 30era arte, alderdi berarekin. 1987-1991 bitartean, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko kidea. Euskal Herriaren Adiskideen Gipuzkoako Batzordeak Adiskide oso izendatu zuen. Kondekorazio ugari jaso du: *Encomienda de la Orden del Mérito Civil* (1991.05.02), *Gran Cruz de la Orden del Mérito Civil* (1983.06.22), *Medalla de oro al Mérito en el trabajo* (1986.04.25), Donostia Hiriak Hiritar Merituari emandako domina (1986.09.05) eta Euskadiko Gurutze Gorriaren Zilarrezko Domina (1986.12.12).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1992ko abenduaren 12an Elkarteko Diruzain aukeratu zuten eta, horren ondorioz, Batzorde Eragileko eta Batzorde Iraunkorrekiko kidea da. Karguaren indarraldia amaiturik, berriro hautatu zuten kargu berean, 1997ko ekainaren 21ean. Eusko Ikaskuntzak Jose Migel Barandiaran Fundazioan dituen lau ordezkarietako bat da eta 1997ko maiatzaren hamabostean Fundazio horren diruzain izendatu zuten.



ALLENDE SALAZAR ZARAGOZA, Juan

[Gernika (Bizkaia), 1882 - Madril, 1938]

Gernikan jaio zen 1882an, familia ahaltsu baten barnean. Aitaren aldeko aitona, Manuel María Allende Salazar Loizaga, Montefuerteko III. Kondea (1814-1891), Bizkaiko Senadorea izan zen (1876), bai eta foruen auzirako irtenbidea Gobernuarekin negoziatu behar zuen batzordeko kidea Jaurreriaren aldetik. Rosa Angela Muñoz de Salazar Martorellekin ezkondu-rik, hiru alaba eta lau seme izan zituen: Mariana; Isabel; Jesusa; Juan Manuel, artilleriako buruzagia; Nicolás, Montefuerteko IV. Kondea; Angel (1855-1885), Juanen aita, Simancasko eta *Archivo Histórico Nacional*eko Artxibaria, Gorteetako Diputatua eta *Biblioteca del Bascófilo* obraren egilea, eta Manuel (1856-1923), Ministroen Kontseiluko Burua eta Ogasun, Heziketa eta Estatu Ministroa.

Juanek Madrilen eman zuen bizialdi gehiena, baina sorterriari guztiz loturik egon zen beti. Bonifacio Echegaray Cortaren adiskide mina izan zen lehen gaztarotik, eta bera bezala Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrekoa ere. Juanek, Madrilen Elkartearen ekintzak aurrera eramateaz gain, Euskal Herriaren historia eta artea aztertu zituen. Madrilgo *Centro de Estudios Históricos* eta *Real Academia de Bellas Artes de San Fernandoko* kidea izan zen. Alejo Fernández, Tintoretto, Greco, Velázquez, eta Goyari buruzko klaseak eman zituen Pradoko Museoa. Halaber, arte gaien inguruko hitzaldiak eman zituen Pradon, Bartzelonako Arte Modernoaren Museoa, Bilboko Ateneoa eta Sociedad Filarmónica, Donostiako Kasino Handian eta Bergarako Udaletxean. Museo Románticoaren Bibliotekaren eraketa kudeatu zuen. Iconografía Nacionalen eta Pradoko Museoko Batzordekidea. Elías Tormoren dizipulu aurreratuenetarikoa izan zen eta ospe handia bildu zuen Alemaniako kultura giroan; horri esker, herrialde hartako hainbat talde-lanetan parte hartzeko gonbitea jaso zuen, hala nola *Klassiker der Kunst* izenekoan, aleman autoreek bakarrik parte hartzen zutelarik, edota *Allgemeines Lexikon der Bildenden Künnetter* delakoan, aldi eta alde orotako artisten hiztegi erraldoian. Barandiaran, Donostia, Aranzadi, Lekuona, Ariztimuño eta beste hainbat autorerekin lan egin zuen Bernardo Estornés Lasaren zuzendaritzapean Auñamendi Datu Bankua osatzen, 1933ko bigarren erdialdetik aurrera.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Jarduera bizia eta luzea izan zuen Eusko Ikaskuntzaren barnean, bai eta kargu asko ere. 1918tik Historia saileko batzordekidea izan zen Carmelo Echegarayekin batera. Euskal etnografia aztertzeko 1919an sorturiko Herri Ohiturak Batzordeko Burua izan zen. Eusko Ikaskuntzaren Madrilgo ordezkari izan zen sortu zuen Echegaray eta Zaragüetarekin batera eta, behin eratu gero, ordezkari izan zen Buru izendatu zuten 1926ko martxoan. Udako Ikastaroetako irakasle, bibliografiari buruzko klaseak eman zituen haietan. 1927an zabaltzekoa zen Gerra Zibilei buruzko erakusketaren antolaketa batzordeko kidea. 1934an Pintura eta Eskultura saileko batzordekide izendatu zuten. Eusko Ikaskuntzen lehen Kongresuan bibliografiari buruzko txosten guztiz dokumentatua aurkeztu zuen (1918), eta bosgarrenean, jatzkiei buruzko beste bat (1930).

Argitalpenak

Retratos de personajes ilustres. Índice ilustrado, Madril, 1914-1924; Sánchez Cantón-ekin lankidetzan, *Retratos del Museo del Prado*, Madril, 1919; "Velazquez des Meisters Gernälde", Stuttgart, 1925, in *Klassiker der Kunst*; Enrique Lafuenterekin lankidetzan, *Catálogo ilustrado de la exposición de pintura de Goya, celebrada para conmemorar el primer centenario de la muerte del artista*, Madril, 1928; *Discurso leído en el acto de su recepción pública en la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, y contestación del Sr. D. Elias Tormo*, Madril, 1930.

Artikulu asko idatzi zituen hainbat aldizkaritan: *Archivo Español de Arte y Arqueología*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *Juventud Escolar*, *Euskal Erria* eta *Euskalerrriaren Alde*, bai eta *Boletín de la Sociedad Española de Excursiones*. Landazuri Romarate-ren *Treviño Ilustrado* obraren hitzaurrea, 1921. *Allgemeines Lexikon der Bildenken Künetter*-eko 1929. urteko liburukian, XIX. mende aurreko espainiar artistei buruzko artikulu gehienak idatzi zituen, bai eta, Espainiari zegozkien biografia guztiak berrikusi ere.

Bibliografia

QUADRA SALCEDO, F., "Figuras vascongadas. Allendesalazar. (De nuestra colaboración)", *El Pueblo Vasco*, 1920-I-7; ECHEGARAY, B., "Nuestros colaboradores. Un vasco ilustre. Juan Allende Salazar", *La Gaceta del Norte*, 1930-VI-10; GALLO RENOVALES, J., *Allendesalazar, Medio Siglo de Historia. Los Presidentes del Consejo de la Monarquía, 1874-1931*, Bildumako IX. liburukia, Madril, 1946; LOPEZ, C., *Cien Vascos de proyección universal*, Bilbao, 1980, 517-518. orr; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbao, 1984, I; *DICCIONARIO biográfico de los Parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*, Gasteiz, Eusko Legebiltzarra, 1993.

J.A.M.A.



ALTUBE LERTXUNDI, Sebero

[Arrasate (Gipuzkoa), 1879.11.08 - Gernika (Bizkaia), 1963.08.27]

Musikari, filologo eta euskaraz, gaztelaniaz zein frantsesezko idazlea. Gizon politikoa ez bazen ere, Gernikako alkate hautatua izan zen 1931tik 1935era. Dultzainarekin abiatu zuen musika jarduera, bere anaia Benigno eta Cristobalekin Euskal Herriko herrietako jaietan jotzen zuela. Gero, Gernikako Musika Bandako zuzendaria izan zen Sebero 1902tik 1912ra; 1903an Gernikako Orfeoia sortu zuen eta 1922a arte haren zuzendaria izan zen. 1920an Euskaltzain izendatu zuten, Txomin Agirre zenduaren lekuan. Abenduaren 28an egin zuen bere sarrera "Izkuntz jakintzia eta euskeriaren bizitzia". Gernikako "Alkartasuna" arma-fabrikako gerentea izan zen 1915etik 1936ra. Azken urte horretan, gerra zela eta, erbestera joan behar izan zuen, Argentinara lehenik eta Pauera gero, non 22 urte eman zituen harik eta 1958an berriro Gernikara itzuli ahal izan zen. Pauen *La fonction de la douleur* liburua argitaratu zuen; saiakera horretan giza oinazea ikertzen zuen, Gerra Zibila sorturiko izu-laborrian oinarri harturik. EAJko kidea izan zen.

1977ko otsailaren 17an, Arrasateko udalak Sebero Altube Plaza inauguratu zuen eta 1979ko uztailaren 27an Euskaltzaindiak eta Gernikako udalak omenaldi bat egin zioten Gernikako Juntetxean.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzaren sortzailea, 1932tik 1936ra bitartean Hizkuntza saileko batzordekidea izan zen. Eusko Ikaskuntzaren Autonomia Batzordekoa 1931n. 1933ko Udako Ikastaroan esku hartu zuen Donostian.

Argitalpenak

Filologia alorrekoak dira Altuberan lanik garrantzitsuenak eta hainbat gai ukitzen dute: sintaxia, euskararen bizia, euskararen batasuna, euskararen azentua, euskal morfologia eta euskal hiztegia.


Haren obren artean nabarmentzekoak dira: *Literatur euskera, Laztantzua eta Betargi, Euskaltzaindiar*; "De música vasca. El compás del zortzico", *Euskal Herriaren Alde* (1916); *De sintaxis euskérica*, Donostia, 1920; "De fonética vasca" *RIEV*, (1924); *Erderismos*, Bermeo, 1929; *El acento vasco (en la prosa y el verso)*, Bermeo, 1932; *Notas sobre el santoral vasco o Deun Ixendegi euzkotarra de Arana Goiri'tar Sabin*, Bilbo, 1933; *La vida del euskera*, Bilbo, 1934; *Observaciones al Tratado de Morfología Vasca de Azcue*, Bermeo, 1934. Frantsesez oinazeari buruzko saiakera bat idazi zuen: *La fonction de la douleur*, Pau, 1958. Gainera, artikulua ugari ondu zuen hainbat aldizkaritan: *Euskera, Eusko Gogoa, Eusko Jakintza, Euskal Herriaren Alde, Alderdi, Gernika, Euskal Esnalea, Euzkadi*; "Noiz S eta noiz Z?", *Euskal Esnalea* (1914); "De sintaxis euskérica", *Euskal Esnalea* (1919); "De fonética vasca", *RIEV* (1923); *Erderismos*, Bermeo,

1929; "La unificación del euskera literario", *Eusko Jakintza* (1949). Zenbait abesti ere: "Bagera zazpi probintzi", "Aita San Antonio", "Boga", "Marijesiak", "Zezenak dira".

Bibliografia

SAN MARTIN, J., *Escritores euskéricos*, 21. or.; ALTZOLA, N., "Altube'tar Seber", *Egan* (1963), 194-196. orr.; ARANA MARTIJA, J. A., "Seber Altubereren bizitza, musika, lana eta bibliografia", *Euskera* (1974), 249-255. orr.; Z.A., "Seber Altunereren omenez", *Euskera* 2 (1979), 577-626. orr.; VELEZ DE MENDIZABAL, J., *Sebero Altube*, Donostia, 1979; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1984, I. libk., 178. or.

A.G.G.



ALTUNA ETXABE, Jesus

[Berastegi (Gipuzkoa), 1932.07.27]

Filosofia eta Teologia ikasketak egin zituen Gasteiz eta Donostiako Apaizgaitegietan. Gero, Biologia Zientziak karrera egin zuen Madrilgo Universidad Complutensean. 1960an lizentziatura eskuratu zuen, eta 1971n doktoretza, Gipuzkoako historiaurreko aztarnategietako Ugaztunen Faunari buruzko tesia zela bide. Doktore tesia egiterakoan, egonaldiak egin zituen hainbat zientzia gunetan: Bordeleko Unibertsitateko *Département des Sciences de la Terre*, Basileako *Naturhistorisches Museum*, Stuttgart-eko *Museum für Naturkunde*, Bonn-eko *Paläontologisches Institut* eta Londresko *British Museum of Natural History*. Tesia 1972an argitaratu zen. 1957tik 1972ra lankide izan zen J. M. Barandiaranek zuzenduriko indusketa arkeologikoetan. 1973tik gaur arte 21 indusketa kudeatu ditu Gipuzkoan. Gainera, beste ikertzaileek egindakoetan parte hartu du, hala nola UNESCOren babespean Nubiako altxorak uretatik salbatzea helburu zuena (1963).

Iker jarduerarekin batera, irakas lanetan aritu da hainbat ikastetxetan: praktika laguntzailea Madrilgo Universidad Complutensean (1960-1961), Donostiako Apaizgaitegiko irakaslea (1961-1965), irakasle agregatua Irungo Batxilergo Institutuan (1965-1967), katedraduna Donostiako J. M. Usandizaga Institutuan (1967-1980), katedraduna Donostiako EHUKo Irakasle Eskola Unibertsitarioan (1980tik) eta Historiaurreko irakasle gonbidatua Bergarako UNEDen (1979-1981). Aranzadi Natur Zientzien Elkarteko Historiaurrea Saileko zuzendaria (1961etik) eta *Munibe* aldizkariko zuzendaria (1966tik), bai eta elkarteko Lehendakaria ere (1979-1985 eta 1991-1998). Barandiaran Fundazioaren Zuzendaria (1997tik), eta haren Patronatuko kidea (1998tik). Orobat, hainbat zientzia erakundetako partaidea da edo izan da: *International Council for Archeozoology*-ko Nazioarteko Batzordekidea (1978tik), Espainiako *Comisión Nacional de Arte Ruprestre*-koa (1979-1985), Eusko Jauriaritzako Arkeologika Ondarearen Kontserbaziorako Batzordekidea (1980tik), *Conseil Général de l'Ariège*-ko Zientzia Batzordekidea historiaurreko gaietarako (1988tik), Frantziako Chauvet haitzuloa ikertzeko Nazioarteko Batzordekidea (1995etik) eta Arte Paleolitikoaren Kontserbazio eta Balioespenerako Europako Foroko kidea (1995etik). Halaber, hainbat aldizkaritako Idazketa Batzordeko kidea da: *Doñana. Acta Vertebrata* (1980tik), *Archaeozoologia* (1990etik), *Archaeofauna* (1992tik), *RIEV* (1992tik), *Antropozoologica* (1994tik), *Fervedes* (1994tik).


Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1978tik 1988ra arte, Historiaurre eta Arkeologia saileko Lehendakaria izaki, Elkarteko Batzorde Iraunkorreko kidea ere izan da. Euskal Herriko arkeologia ikerketen egungo egoerari buruzko txosten bat aurkeztu zuen 1978ko Batzar Nagusian. Gipuzkoako monumentu megalitikoak seinaleztatzeko proiektuaren zuzendari izan zen eta lan bera egin zuen Ekain eta Amaldako aztarnategietan. Halaber, bi omenalditan esku hartu zuen: J. M. Barandiaranena bata (Oñati, 1979), eta M. Laborerena bestea (1989). Hainbat sari jaso ditu, hala nola Espainiako *Premio Ibáñez Martín a la Investigación Científica* (1972), Basauriko Arkeologia Ikerketari eskainitakoa

(1975), Bilboko *Galería del Libro* (1975), *Correo saria* Ikerketa eta Zientzian (1988), Xabier María de Munibe (1996) eta Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Giza eta Gizarte Zientziak Saria (1998).

Argitalpenak

Gaur arte 12 liburu argitaratu ditu, 160 ikerketa-artikulu Espainiako eta kanpoko aldizkarietan, 42 zabalkunde artikulu eta hainbat hitzaldi eman ditu unibertsitateetan eta bestelako ikerketa zentroetan. *Fauna de Mamíferos de los yacimientos prehistóricos de Guipúzcoa. Con catálogo de los Mamíferos Cuaternarios del Cantábrico y del Pirineo Occidental*, (doktore tesia), *Munibe*, 24, 1972, 1-464. orr. + 28 lamina. J. M. Apellánizekin lankidetzan, *Las figuras rupestres paleolíticas de la cueva de Altxerri (Guipúzcoa)*, *Munibe*, 28, 1976, 1-242. orr. *Historia de la domesticación animal en el País Vasco desde sus orígenes hasta la romanización*, *Munibe*, 32. zk., 1980, 1-164. orr. "The mammalian faunas from the Prehistoric Site of La Riera", *Anthropological Research Paper*, 36, 1986, 237-274., 421-479. eta 481-497. orr. *Ekain und Altxerri bei San Sebastian. Zwei altsteinzeitliche Bilderhöhlen im spanischen Baskenland*, Thorbecke Verlag, Simaringen, 1996.



AMANN AMANN, Calixto Emiliano

[Bilbo, 1882.10.14-1942.06.07]

Alemaniar jatorriko familia batean sortua, berarekin hasi zen Bilboko arkitektoen segida luze bat, Emiliano Amann Puente semeak jarraitu zuena. José Amman, Emilianoren aita, *Sociedad de Terrenos de Neguri* elkartearen promotoreetariko bat izan zen.

1904an arkitektura ikasi zuen Madrilen. 1907an lizentziatura lortu zuen eta Neguriko Karmengo eliza eta zenbait txalet eta instalakuntza proiektatu zituen "La urbanización" deiturikoan. Urte berean, Areetako *Club Marítimo del Abraren* egoitza eraikitzeko lehiaketa irabazi zuen. 1910ean Londresera joan zen Hirigintza Kongresuan esku hartzeko, Bizkaiko arkitektoen ordezkari gisa.

Batez ere Bilbon lan egin zuen arkitekto honek garai hartan boladan zeuden estilo guztiak landu zituen baina bereziki eklektizismo eta *neovasco* moldeetan nabarmendu zen, bai eta etxe merkearen eredu berri bat ekarri zuelako. Harenak dira Bilboko eraikuntza esanguratsu asko: *Olimpia* zinearen eraberritzea (1909), *La Sociedad Bilbaina* (1910), Salestarren Ikastetxea (1920), Deustuko Merkataritza Unibertsitatea (1921), Ercilla kaleko 8.a (1933), Colón de Larreateguiko 8.a (1934) eta 2.a (1936); Torremadariagako etxebizitzak (1943), Delclaux bulegoak (1953) (semeak amaituak) eta Solokoetxeko etxe merkeak (1931). Azken horiek mugarri bat izan ziren etxebizitza merkearen garapenean. Udalak deituriko lehiaketa irabazi zuen Amannek bere proiektuarekin: gela guztiak egongela baten inguru jarriak zeuzkaten etxebizitza merkeak, espazio guztia aprobetxatu eta pasabideak baztertzen zituztenak. Pentsan etxebizitza horien balio tradizionalak eta familiarrak aipatzen ziren, haien kostu txikiarekin batera –60 etxebizitza, 1.059.000 pezeta–.

Bilbotik kanpoko eraikuntza nabarmenenak: "Casa de la Dinamita" izenekoa Tximilarren (Galdakao), José María Basterrarekin elkarlanean; Getxoko "Casa Longa" (1913-1914) "neovasco" deitu iritzien arabera; Ondategiko txaletak (1916) Areetan (Getxo); Casa Llaguno Orduñan; Barrueta dorrearen zaharberritzea Markinan; "Villa Pepita de Ambasaguas" Karrantzan; 1940an, Gerra Zibilean hondaturiko San Pedro eliza berreraiki zuen Mungian eta Amorebietako Herriko Plaza trazatu zuen. 1925ean Darío de Regoyosen ohoretan eraikitako monumentuaren eragileetako bat izan zen; Smith ibarra adiskideak burutu zuen oroigarri hura.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1927an Arkitektura saileko Lehendakaria izan zen, Esparzaren orde. 1927aren amaieran, Eusko Ikaskuntzako Batzar batean, A. Baeschlin-ek Euskal Herriko eraikuntza tipikoen planoak egitea proposatu zuen Amannek, lehen katalogazio bati ekin ahal izateko.

Bibliografia

RODA, D., *Bastida y Amann*, Madril, 1935; FULLAONDO, D., *La arquitectura y los arquitectos de la región y el entorno de Bilbao*, Madril, 1971; PALIZA, M., *Manuel María Smith Ibarra, arquitecto. 1879-1956*, Bilbo, 1988; Z.A., *Bizkaia. Arqueología, urbanismo y arquitectura histórica*, 3 libk., Bilbo, 1991; GARCIA DE LA TORRE, B. eta GARCIA DE LA TORRE, F., *Bilbao. Guía de arquitectura*, Bilbo, 1993, 38. or.

A.G.G.



AMEZAGA ARREGI, Ibone

[Bilbo, 1963.01.16]

Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Arrosadia Kanpua
31006 IRUÑEA
Tel. 948169115 Fax 948169187
E-mail: gvzamari@lg.ehu.es

Biologia ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. 1987an *Master of Science* titulua lortu zuen Londreskoan, izurriteen gestioa gaiarekin. Ondoren doktoretza prestatu zuen Oihaneko Ekologia unibertsitate bereko *Imperial College of Science, Technology and Medicine* zentroan eta 1993an amaitu zuen. Ordurako lanean ari zen Euskal Herriko Unibertsitateko Landare Biologia eta Ekologia Departamentuan, Miren Onandia irakaslearekin lankidetzan. Egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Nekazaritza Ingeniaritzako Goi Fakultatean irakasten du.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1995eko urtarrilean Elkarteko Natura Zientziak sailean sartu zen eta ingurugiroari buruz antolaturiko hitzaldi askotan esku hartu zuen. Eusko Ikaskuntzak eta zientzia kultura sustatzeko Jakitez Programaren ingurugiro arloa koordinatzen du abiatu zenetik (1996).

Argitalpenak

"Monterrey pine (*Pinus radiata* D. Don) suitability for the Pine Shoot Beetle (*Tomicus piniperda*) (Col. Scolytidae)", *Forest Ecology and Management*, 86, 1996, 73-79. orr; Onandia, M.-rekin, "The effect of evergreen and deciduous coniferous plantations on the field layer and seed bank of native woodlands", *Ecography*, 20 (3), 1997, 308-311. orr; Gonzalez, A., Domingo, M., Echeandia, A. eta Onandia, M.-rekin, "Atmospheric deposition and canopy interactions for conifer and deciduous forests in northern Spain", *Water, Air and Soil Pollution*, 97, 1997, 303-313. orr.

ANSOLA LARRAÑAGA, Gurutz

[Azpeitia (Gipuzkoa), 1924.05.02]

Villa Amalia
Paseo de Ulia, 52, 3º
20013 DONOSTIA
Tel. 943273879




Ekonomia Zientzietan lizentziatua Deustuko Unibertsitatean eta Zuzenbidean Valladolidekoan. Ekonomia irakaslea izan da Deustuko Unibertsitatean, Donostian. Ikerlan gai nagusiak: Euskal Herriko ekonomia egiturak eta haien aldaketa, nazioarteko sistema monetarioa dolarraren mende eta ongizate-estatuaren krisia eta etorkizuna.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Gizarte eta Ekonomia Zientziak saileko Lehendakaria 1978tik 1980ra bitartean.

Argitalpenak

“Euskal Herriko ekonomiaz”, Donostia, 1971; “Usa-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia”, 1972; “Ongizate estatuaren krisaldia eta etorkizuna”; “Europear banku zentralaren moneta politika bakarra”.



ANSORENA MIRANDA, José Luis

[Donostia, 1928.05.02]

1953an apaiztu zen eta biziro ekin zion abesbatzen inguruko jarduerari, bai abesbatzen zuzendaritzan eta bai musika korala egiten. Abesbatzak sortu zituen Iruñean, Zaragozan eta Erreterian. Herri horretan Andra Mari Abesbatza sortu zuen 1966an, bai eta Haurren Koroa 1968an eta Oiñarri Gazteen Koroa 1976an. Agur-omenaldia jaso zuen 1994an Andra Mari Abesbatzaren zuzendaritza utzi zuenean. MUSIKASTE, Euskal Musikarien Astea sortu zuen 1973an Erreterian, eta gaur ere haren zuzendari teknikoa izaten jarraitzen du.

Erreteriako Fatimako Andre Mariaren parrokiako organojolea da eta jarduera bizia mantentzen du hizlari eta musikologo gisa. Orobat, zenbait partituren egilea da.

Jarduera Eusko Ikaskuntza.

Musika Saileko lehendakaria 1978tik 1980ra eta 1987tik 1988ra.

Argitalpenak

Liburu eta artikulu asko idatzi du. Musikarien biografiak, txistua eta haren ingurua, euskal abesbatzen mugimendua izan dira lan horien gaiak. Hona nabarmenenak: *Musikaste 25 urte*, Donostia, 1997; *Erreteriako Andra Mari Abesbatza: 1966-1991*, Erreteria, 1991.

APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin

[Ataun (Gipuzkoa), 1949.02.17]

Euskal Herriko Unibertsitatea-Ibaeta Campusa

Tolosa hiribidea, 70

20018 DONOSTIA

Postakutxa 1249

20080 DONOSTIA

Tel. 943448000 Fax 943311056

E-mail: yvpapbem@sf.ehu.es



1969an "Filosofia Lizentziatura" lortu zuen Donostiako Apaizgaitegi Nagusian, bai eta "Licence en Sociologie" titulua Paris VIII Unibertsitatean 1972an. 1979an "Licence en Philosophie" titulua Parisko Institute Catholique-an eta Parisko "Ecole des Hautes Etudes"-ko "Diplôme des Etudes Approfondies (DEA)" ikasketa aurreko titulu agiriak eskuratu zituen. 1980an Filosofia Lizentziatura Valentziako Unibertsitatean lorturik, 1984an Kultura Antropologian doktoratu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Tesia Julio Caro Barojaren zuzendaritzapean egin zuen, Jose Migel Barandiaran mahaiburu zela. Beste titulu batzuk: Paris VIII Unibertsitateko "Maîtrise en Sociologie" 1984an eta Oñatiko "International Institute for the Sociology of Law-ko" "Master of Sociology of Law" 1998an. 1981etik Euskal eta Atzerritar kulturen antropologoa eta irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean. 1984tik 1985era *Université de Pau et des Pays de l'Adour*-ean irakatsi zuen.

Ikerketa jarduera guztia Antropologiari eskaini dio eta hauek ditu ikerketa alorrak: herriaren ahozko produkzioa, antropologiaren historia, komunitateak (mendi eta kostaldekoak, industrieta-koak eta hirigunetakoak), pertsona taldeak, pertsonen arteko harremanak eta giza espeziea, etnografia, disziplinartekotasuna, giza espeziearen teoria, kultura et kulturak amaierarik gabeko bilakabidean.

1984an, zuzendarikide gisa, Teresa del Valle eta Joanne Crawford-ekin batera egin zuen lan ikerketa proiektu batean, Eusko Ikaskuntzaren Jose Migel Barandiaran beken lehen deialdian; 1994an, lehen saria lortu zuen *Lekeitioko Euskal Herriko Bideoa* lehiaketan *Manuel Lekuona: 1894/1987* bideoarekin, gidioa Juan Mari Lekuona, Joseba Goñi eta Edorta Kortadirekin batera burutua izanik; 1986tik 1989ra, 32 ale kaleratu zuen *Antropologiaren Euskal Bilduma. Barandiaran Joxemiel* liburu bildumaren sortzaile eta zuzendaria Haranburu Altuna argialetxean. 1989an Barandiaran Fundazioaren zientzia batzordeko kidea izendatu zuten. 1990ean "Pertsona eta sozietatea" bilduma sortu zuen Elkar argialetxean, non liburu bi argitaratu diren. 1990etik aurrera Lazkaoko II. *Gerriko Ikerlan Sariketa* izeneko zientziako lehiaketa honetako zuzendaria da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1991tik 1993ra Gipuzkoako lehendakariordea izan zen. Euskararen erabilera bultzatu zuen Eusko Ikaskuntzako zientzia jardueran. Jose Migel Barandiaran hil ondoren, zuzendaritza taldekoa izan zen eta lehendakari berria hautatu behar zuen Oñatiko Batzar Nagusian lehendakari gisa aritu zen. Halaber, biziro lan egin zuen Eusko Ikaskuntzako Iparraldeko lehendakariordetza sortzen eta haren lehen burua, Isabel Ajuriagerra, hautatzen.

Argitalpenak

Mujer vasca. Imagen y realidad. (Elkarlanean), 1985, Eusko Ikaskuntzaren Jose Miguel de Barandiaran beken lehen aldiko ikerlana jasotzen duena; *Introducción a la historia oral.*

Kontzaharrak, Bartzelona, 1987; *Antropologoa hirian, Bilbon*, Donostia, 1987; *Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa. Ataungo herria, auzoak, pertsonaltaldeak eta pertsonak*, 4 libk. Donostia, 1988; 3 *etnografiako galdeketa elikapenaz: Gasteizen, Meñakan, Zumaian*, Donostia, 1988; 5 *etnografiako galdeketa elikapenaz: Zarautzen, Lazkaun, Larrabetzun, Bilbon, Sondikan*, Donostia, 1988; 3 *etnografiako galdeketa elikapenaz: Orozkon, Leiona, Donostian*, Donostia, 1988; "Acercamiento al pensamiento paletnológico de Joxemiel Barandiaran", *Anuario de Eusko-Folklore* (1981), 71-80 orr. "Introducción a la historia crítica de la producción oral popular vasca", lehen zatia, 5-47 orr., 1982an *Ethnica* 18an, eta bigarren zatia, 7-27 orr., 1983an *Ethnica* 18an.



APRAIZ BUESA, Angel

[Gazteiz-Vitoria, 1885.25.07 - A Coruña, 1956.22.06]

Gasteizen hasi, Deustuko Unibertsitatean jarraitu eta Salamancan bukatu zuen Filosofia eta Letrak ikasketak eta zuzenbidezkoak. Doktoradutza Madrilen burutu (1905) eta 1911an, Literatura eta Arteen Teoriaren Katedraduna Salamankako Unibertsitatean. Miguel Unamunorekin ikasle zela jadanik, harreman hestua. 1914an Europako (Frantzia, Ingalterra, Holanda) eta Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitateetan egonaldia egin zituen. Ezagutza hau Eusko Ikaskuntzak antolatu zuen Euskal Unibertsitatearen oinarritzko proiektuan ageriko da. 1919an Bartzelonako unibertsitatera aldatu zen. Bertan Institut d'Estudis Catalans izenekoak ezagutu zuen eta etnologia eta antropologia elkarrekin jardun zen. 1939an Unibertsitateetik kanporaturik, soldata gabe utzi zuten baina gero berriz Salamancara itzultzea lortu zuen. 1945an Valladolidera aldatzea lortu zuen eta dekanoa ere izan zen. 1955an erretiratu zen eta 1956an A Coruña hil zen, tribunal bateko lanetan ari zela. Gasteizko Ateneo aldizkariko idazkaria izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzaren eragile eta ideologo nagusizat har daiteke Angel de Apraiz. 1918ko urtarrilaren 5ean, Bizkaiko Euskal Kultura Batzordeak antolaturiko hitzaldi saila inauguratu zuen Euskal Unibertsitateaz hitz eginez. Foro hartatik aterako ziren 1918ko Oñatiko Kongresuaren proiektua eta Eusko Ikaskuntzaren sorrera. 1918ko apirilean, Carmelo de Echegarayekin batera, "Oñatiko Kongresutik atera behar duen erakunde iraunkorraren araudia" burutu zuen. Eusko Ikaskuntzako Idazkari Nagusia izan zen 1918tik 1936ra. Oñatiko Eusko Ikaskuntzen Kongresuan esku hartu zuen 1918an eta han Elkarteko Idazkari Nagusi hautatu zuten, bai eta Arte Saileko batzordekide ere, José Oruetaekin batera. Ondoko udako ikastaroak eta Eusko Ikaskuntzen lehen kongresuak antolatu zituen. 1922an Pintura eta Eskultura saileko ordezkari izendatu zuten. Gernikan egindako Eusko Ikaskuntzen III. Kongresuan *Unibertsitateko* mahaiburu izan zen Aranzadi, Eguren eta Zaragüetaekin batera, eta ondoren Unibertsitateak saileko batzordekide hautatu zuten.

Argitalpenak

Haren bibliografiak arte, euskal kultura, unibertsitate eta historia gaiak ukitzen ditu. Artikulu ugari idatzi zituen hainbat aldizkaritan: *Archivo Español de Arte*, *Ateneo*, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, *Euskal Erria*, *Euskalerrriaren Alde*, *Euzkadi*, *El Herald Alavés*, *Hermes*, *La Libertad*, *RIEV*, *Vida Vasca*.

Arteari buruzko lanen artean nabarmentzekoak dira: "El románico en Alava", *Euskal Erria* (1911); "Notas de un viaje. De las imágenes-relicarios de la parroquia de San Vicente de Mendoza", *Ateneo* (1914); "Acerca de uno de los relieves de Armentia", *Ateneo* (1915); "Notas de un viaje. La vista de Pamplona: pintura de un aurreku atribuida a Velázquez", *Ateneo* (1915); "Vista de la batalla de Vitoria y dos retratos del general Alava en casa del duque de Wellington",


Ateneo (1915); "La historia del arte del País Vasco", *Hermes* (1918); "Problemas en la historia del Arte del País Vasco", *Eusko Ikaskuntzen I. Kongresua*, Oñatin 1918; "El arte popular en la vida vasca", *Eusko Ikaskuntzen V. Kongresua*, Bergaran 1930; "La representación del caballero en las iglesias de los caminos de Santiago", *Archivo Español de Arte* (1940-41); *Origen de la advocación a las imágenes de la Virgen Blanca*, Valladolid, 1947; *Exposición de estampas de la provincia de Alava y cuadros de rincones vitorianos*, Gasteiz, 1947; *De nuevos sobre el origen de la advocación de la Virgen Blanca*, Gasteiz, 1948; "Los estudios sobre el arte popular vasco", *Vida Vasca* (1948); "Las artes plásticas en el País Vasco", *Estudios Universitarios* (1950); "Acerca del tímpano románico de Santurce", *Homenaje a Julio de Urquijo*, 1951; *La cerámica de Busturia*, Valladolid, 1952; *La casa de los Escoriaza Esquivel en Vitoria*, Valladolid, 1954; "La expansión de los temas decorativos en el arte navarro", *Boletín del Seminario Estudios de Arte y Arqueología* (1954).

Kultura, unibertsitate eta historiari buruzko lanen arteko batzuk aipatuko ditugu: "La labor del pueblo vasco ante la cultura universal", 1918ko Oñatiko Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuan, Historia Sailean aurkeztua; "Organizaciones estudiantiles. Residencias. Sociedades y otros complementos de la vida univesitaria" Eusko Ikaskuntzen II. Kongresuan aurkeztua. Gainera, honako hauek aipa daitezke: "Fray Francisco de Vitoria", *Euskal Erria*, 1912; "Homenaje a Serafín Alvarez Quintero", *Ateneo*, 1913; "La guerra y la universidad de Salamanca", *Ateneo*, 1915; "De cultura vasca. La universidad", *Ateneo*, 1917; "La universidad vasca y Vitoria", *Ateneo*, 1917; "D. Carmelo de Echegaray y Eusko Ikaskuntza", *Euskalerraren Alde*, 1925; *Las disciplinas estéticas y sus métodos en la Universidad*, Bilbo, 1931; *Universidad de Barcelona*, Bartzelona, 1931; "Los idiomas nacionales dentro de la universidad" (*Euzkadi* 1931-X-2); "Notas hispánicas sobre la cultura de las peregrinaciones", *Bulletin Hispanique*, 1938; "La cultura de las peregrinaciones", *Las Ciencias* (1942); "Notas bilbaíno-vitorianas sobre la época de los Reyes Católicos", *BRSVAP*, 1952; "Sobre el vitorianismo del músico Albéniz", *Vida Vasca*, 1954.

Bibliografía:

AROCENA, F., "Don Angel de Apraiz. In memoriam", *Boletín Real Sociedad Vascongada Amigos del País* (1956), 223. or.; ARALAR, J., "Angel de Apraiz y Buesa" *Boletín Instituto Americano Estudios Vascos* (1956), 157-160. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbao, 1984, I libk. 1, 239-240. orr.; GOMEZ GOMEZ, A., *El arte románico en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Perpespectivas historiográficas*, Bilbo, 1996, 17-29. orr.; GOMEZ GOMEZ, A., "Los inicios de la investigación sobre el Arte Románico en el País Vasco", in *Ondare* 16 (1997), 167-174. orr.

A.G.G.



ARANA MARTIJA, José Antonio

[Gernika (Bizkaia), 1931.03.10]

1937an, Gernikako bonbardaketaren ondoren Frantziara erbesteratu behar izan zuen. Bi urte geroago itzuli zen. 1942tik aurrera Gordexola, Bergara, Artea eta Gasteizko apaizgaitegietan ikasi zuen. 1947an apaizgaitegia utzirik, 1948an batxilergoa amaitu zuen. 1949an "Estatuko azterketa" pasa zuen Valladolideko Unibertsitatean. Zuzenbide ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean eta Valladolidekoan lizentziatu zen 1954an. 1957an Ekonomia Zientziak ikasi zituen Bilboko Fakultatean. 1959an lanean hasi zen *Formica Española S.A.* enpresaren Euskal Herriko ordezkari gisa. 1960an *Brisas Guerniquesas* aldizkariaren zuzendaria izan zen. 1963an *Astra-Unceta y Cia.* enpresako idazkari nagusi izendatu zuten. 1966an Seber Altube ikastola sortu zuen Gernikan. 1968an Basauriko kartzelan sartu zuten eta urtebete geroago abokatu bulegoa zabaldu zuen Gernikan. 1971n berriro kartzeleratu zuten, Jaengo presondegian oraingoan. 1973an *MPI Compañía de Inversiones* enpresan lan egin zuen. 1976an *Euskal Sozialisten Biltzarra (ESB)* alderdiaren sorreran partaide izan zen eta 1977an zinegotzi hautatu zuten Gernikako udalean. Urte horretan berean *Sakonki* euskal kultura ikastaroa antolatu zuen. 1978an Andra Mari abesbatza sortu zuen eta haren zuzendari egon da hamar urtez. 1978an Euskaltzaindian lan egiten hasi zen liburutegia antolatzen eta 1979an euskaltzain urgazle izendatu zuten. 1979an Bizkaiko Batzar Nagusietako diputatu hautatu zuten. 1980an *Nazioarteko euskalarien jardunaldiak* antolatu zituen Euskaltzaindian eta Azkue Bibliotekaren arduradun izendatu zuten. 1985ean bidaia bat egin zuen EEBBetara hango bibliotekak aztertzeko eta Parisen euskararen standa antolatu zuen *Expolangues* erakusketan. 1988an euskaltzain oso izendaturik, J. Gorostiagarena izan zen aulkia beretu zuen. 1991n, Euskaltzaindiaren egoitza berriaren inaugurazioa zela eta, Dialektologiari buruzko Nazioarteko Jardunaldiak antolatu ziren eta haien hasiera-hitzaldia egin zuen L.L. Bonaparteri buruz. 1996an Euskaltzaindiko liburuzain lanaz jubilatzen baina diruzain izaten jarraitu du. Euskaltzaindian, sarrera-hitzaldien erantzuna egin die Xabier Kintanari 1994an eta Andres M^a Urrutiari 1998an.

Euskalerraren Adiskideen Elkarteko eta Eusko Ikaskuntzen Amerikar Institutuko kidea da.


Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1987tik 1990era Musika sailaren lehendakaria izan zen.

Argitalpenak

Música vasca, Donostia, 1976; *Opera vasca en Vizcaya*, Bilbo, 1977; *Bernardo Gabiola*, Bilbo, 1980; *Canciones de Navidad. Gabon Kantak*, Bilbo, 1981; *Resurrección M^a de Azkue*, Bilbo, 1983; *Catálogo de los manuscritos de L.L. Bonaparte*, Bilbo, 1984; *Catálogo del archivo y biblioteca de Juan Carlos Guerra*, Bilbo, 1984; *Eresoinka. Embajada Cultural Vasca 1937-1939*, Gasteiz, 1986; *Gernikako Andra Mari Eliza*, Bilbo, 1988; *Bibliografía Bonapartista*, Bilbo, 1991.

Gainera artikulu ugari argitaratu du hainbat aldizkari eta liburutan: *Brisas Guerniquesas*, *Tesoro Sacro-Musical*, *Jakin*, *Txistulari*, *Aranzazu*, *Vasconia Expres*, *BRSBAP*, *La Gran Enciclopedia Vasca*, *Anaitasuna*, *Cuadernos de Etnografía de Navarra*, *Argia*, *Auñamendi*, *Cuadernos de Sección de Folklore y Música*, *Euskor*, *Boletín Estudios Históricos de San Sebastián*, *Zutabe*, *Uztaro*, *Minima*, *Bidebarrieta*.



ARANBURU URTASUN, Mikel

[Iruñea, 1955.10.29]

Nafarroako Gobernua
Carlos III, 4.
31002 IRUÑEA

1966tik 1969ra musika eta txistu ikasketak egin zituen Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan. 1978an Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatu zen, eta 1991n Zuzenbidean. Bi alor paralelotan garatzen du bere jarduera, ogasun publikoa alde batetik eta kultura tradizionalaren sustapena bestetik. 1980an Nafarroako Gobernuako Ogasun Teknikari plaza lortu zuen oposizio bidez. Ogasun ikuskatzaile lanean lau urte iragan ondoren, Ikuskaritza Buru izendatu zuten, Zerga Gestioaren Zuzendari 1987an eta Fiskalitate Zuzendari 1996an. Ekonomia Hitzarmena Negoziatzeko Batzordearen aholkularia izan zen. Kultura jarduerari dagokionez, dantza tradizionalak aztertzea eta berreskuratzea izan da haren ardura nagusia. 1974an Ortzadar elkarte sortu zuen Iruñean. Bestalde, Iruñeko Txistulari Bandako kidea da 1975etik. Partaidetza eraginkorra izan zuen Euskal Dantzarien Biltzarra Nafarroan eratzen eta elkarte horren Zuzendaritza Batzordekoa da. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkariaren zuzendaria izan zen eta *ELERIA*ko (Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria) batzordekidea da. Gainera, Nafarroako Euskara Batzorde eta Kultura Batzordeko kidea izan da (1987-1991).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Bazkidea da 1981etik eta Ekonomia zein Folklore sailetan esku hartu du, ikerketa egitasmo zenbait burutuz. 1994an Elko Idazkariorde hautatu zuten, eta 1996an Nafarroako Lehendakariorde. Egitasmo nagusietarikoak dira: Elko sailak bizkortzea bere lurraldeak, lankidetz hitzarmenak sinatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Nafarroako Unibertsitatearekin eta kultura elkarte, udal eta bestelako erakundeekiko lankidetz suspertzea.

Argitalpenak

Ttuntuneros de Iruña, Iruñea, 1993. *Las Danzas y bailes*, Iruñea, 1998.

“La atenuación de la progresividad en la acumulación de rendimientos de trabajo en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Física”, *Revista de Hacienda Autónoma y Local*, 48. zk., 1986. “El dance o paloteado en la Ribera de Navarra”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 47. zk., 1986. “El Folklore Musical” y “Las Danzas tradicionales” in *Etnografía Navarra*, Diario de Navarra, 1997.



ARANZADI UNAMUNO, Telesforo

[Bergara (Gipuzkoa), 1860.01.04 - Bartzelona, 1945.02.12]

Bergaran sortu bazen ere, Telesforok hiru urte zituela haren gurasoak Bilbora aldatu ziren. Miguel de Unamunoren lehengusua zen. Madrilen Farmazia lizentziatura lortu zuen 1881ean. Ordurako aparteko sari bat irabazia zuen intsektuei buruzko lan batengatik (*Estudio de los insectos vesicantes con sus aplicaciones a la farmacia*, Madril, 1882). 1882an farmazia doktoretza eskuratu zuen eta Natura Zientziak ikasteari ekin zion. Madrilen egon zen bitartean, Arte eta Lanbide Eskolan marrazkia, eta aleman zein ingeles hizkuntzak ikasi zituen. 1889an Natura Zientzietan doktoratu zen. 1891n, 31 urte zituela, Parisko Antropologia Elkarteko Paul Broca saria irabazi zuen, *El pueblo euskalduna* lanagatik (Donostia, 1889), Natura Zientzietako doktore tesia alegia. Urte horretan berean zientzia marrazkilaria plaza lortu zuen Natura Zientzietako Museoa. 1895ean Granadako Farmazia Fakultateko Mineralogia eta Zoologiako katedra eskuratu zuen, eta 1899an Botanika deskribatzaileko katedra Bartzelonako Unibertsitatean. Bertako Farmazia Fakultateko dekanoa izan zen 1905 eta 1907 bitartean. 1897an *Real Academia de Ciencias*-ek emandako saria eskuratu zuen *Setas y hongos en el País Vasco* (Madril, 1897) lanagatik. Moskuko Natura Historia, Antropologia eta Etnografiaren Adiskideak Elkarte Inperialak bazkide izendatu zuen, bai eta bi urte geroago *Asociación Dactiloscópica Argentina*-k ohorezko bazkide. 1917an hasi zen lanean Barandiaran eta Egurenekin Aralarko indusketa batean. Guztiz emankorra gertatu zen hiru ikertzaileen arteko erlazioa eta indusketak egiten jarraitu zuten hainbat tokitan: Aizkorri, Altzania, Ataun, Atxurra, Aurizperri, Autiz, Balabieta, Basagaña, Bolinkoba, Entzia, Lumentxa, Santimamiñe, Silibranka, Urbasa, Urtiaga. 1919an Portugalgo Antropologia eta Etnografia Elkarrekin bere bazkide egin zuen. 1920an Antropologia katedra lortu zuen Bartzelonako Unibertsitatean. 1923an *Sociedad Argentina de Estudios Geográficos* eta *Sociedad Cubana de Historia Natural Felipe Poey*-k beren elkarteetako bazkide izendatu zuten. Geroago, hainbat erakundek kide izendatu zuten: *Real Academia de la Historia* (1924), Berlingo Arkeologia Institutua (1926) eta Bartzelonako *Real Academia de Ciencias* (1927).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzaren sortzailea. Oñatiko Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuan, 1918, Batzorde Iraunkorreko kide izendatu zuten Arraza sailetik, Diego Egurenekin batera. 1922an Geografia eta Natura Zientziak sailean sartu zen eta bertan jarraitu zuen 1936a arte. Eusko Ikaskuntzen III. Kongresuan Unibertsitateko mahaiburua izan zen Apraiz, Eguren eta Zaragüetarekin batera. 1927az geroztik, modu eraginkorrez esku hartu zuen Eusko Ikaskuntzak antolatutako Udako Ikastaroetan.

1920. urteko Eusko Ikaskuntzen II. Kongresuan goi irakaskuntzari buruzko lan bat aurkeztu zuen: "Los diversos fines a que debe tender la Universidad Vasca: el profesional, el educativo, el de investigación. Organización de estudios". Bergaran, 1930ean, Euskal Herriko herri artearen inguruan egindako Eusko Ikaskuntzen V. Kongresuan, erakusketa paraleloan aurkezten ziren nekazaritza lanabesei buruzko hitzaldia eman zuen.

Barandiaran eta Egurenekin batera hainbat Txosten aurkeztu zuen Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorrean. Hona horietariko batzuk: *Exploración de seis dólmenes de la Sierra de Urbasa* (1923), *Grutas artificiales de Alava* (1923) edo *Los nuevos dólmenes de la sierra de Encia* (1922).

Argitalpenak

Aranzadiren ikerketen emaitza izugarri zabala izan zen. Hirurehun argitalpen baino gehiago kontatu daitezke, gehienbat Euskal Herriko antropologia, etnografia eta historiaurreari buruzkoak. Artikulu ugari argitaratu zuen hainbat aldizkarietan: *RIEV*, *Euskal Erria*, *Euskalerrriaren Alde*, *Yakintza*, *Hermes*, *Boletín de la Real Sociedad Española de Historia Natural*, *Asociación Española para el progreso de la Ciencia*, *Anuario de Eusko Folklore*, *La Basconia*, *Munibe*.

Liburuen artean honako hauek aipa daitezke: *Estudio de los insectos vesicantes con sus aplicaciones a la farmacia*, Madril, 1882; *El pueblo euskalduna. Estudio de antropología*, Donostia, 1889; *Fauna Americana*, Madril, 1892; *Setas y hongos del País Vasco*, 1897; *Etnología*, Madril, 1899; *Etnografía: Razas negras, amarillas y blancas*, Madril, 1900; *Antropometría*, Bartzelona, 1903; *La flora forestal en la toponimia euskera*, Donostia, 1905; *¿Existe una raza euskara? Sus caracteres antropológicos*, Donostia, 1905; *El yugo vasco comparado con los demás*, Donostia, 1905; *Memorandum de botánica descriptiva*, Bartzelona, 1905; "Antropología y etnología", in *Geografía del País Vasco-Navarro*, I. libk., Bartzelona, 1911; *De antropología de España*, Bartzelona, 1915; *Etnografía: sus bases, sus métodos y aplicaciones en España* (Hoyos Sainz-ekin lankidetzan), Madril, 1917; *El tipo y la raza de los vascos*, Madril, 1919; *Cráneos de Vizcaya*, Bilbo, 1919; *Los gentiles de Aralar*, Bilbo, 1919; *Atlas de hongos comestibles y venenosos*, Bartzelona, 1923; *Etnografía Vasca*, Iruñea, 1923; "Espantajos de ingenio y monigotes de superstición", *Homenaje a Carmelo de Echegaray*, Donostia, 1923; *El yugo*, Bilbo, 1926; *Exploraciones prehistóricas de las provincias vascas*, Donostia, 1928; *Aperos de labranza*, Bartzelona, 1930; "Nombres de peces en euskera", *RIEV* (1933).

Enciclopedia Espasa-n lan egin zuen Natura Zientziak eta Antropologia ataletan. Humboldt-en obrak itzuli zituen ["Diario del viaje vasco de 1801" *RIEV* (1922, 1923, 1924); "Examen de las investigaciones sobre los aborígenes de España mediante la lengua vasca", *RIEV* (1934)], Staffe ["Contribuciones a la monografía del ganado vacuno vasco", *RIEV* (1926)], Schulten ["Venus marina" *RIEV* (1927)], Frizzi [*Antropología*, Bartzelona, 1923], Haberlandt [*Etnografía*, Bartzelona, 1923], Schuchardt ["El supuesto parentesco del euskera y el berberisco" *Euskal Erria* (1902)] eta Haddon [*Las razas humanas y su distribución*, Madril, 1924].

Bibliografía

HOYOS SAINZ, L., "Recuerdos de Aranzadi. Sesenta años de amistad", in *Bol. Real Sociedad Vascongada Amigos del País* (1948), 235-252. orr.; BARANDIARAN, J. M., "De mis recuerdos de Aranzadi", *Munibe* (1951), 84-93. orr.; CARO BAROJA, J., "Telesforo de Aranzadi (1860-1945) o un hombre de ciencia apasionado", *Revista de dialectología y tradiciones populares* (1961), 136-144. orr.; "Telesforo de Aranzadi Unamuno. Curriculum Vitae", *Munibe*, 14 (1962), 5-8. orr.; BARRIOLA, I., "Aranzadi, Azkue, Barandiarán, y Eguren", *Homenaje a J. M. de Barandiaran por la Academia errante*, Donostia, 1963, 213-226. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1984, I libk., 285-290. orr.; GOICOETXEA MARCAIDA A., "Telesforo de Aranzadi, antropólogo y naturalista", in *Bidebarrieta. Anuario de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, 3 (1998).

A.G.G.

ARDAIZ LOYOLA, Iosu

[Obanos (Nafarroa), 1950.08.05]

Carlos III, 36, 2º
31003 IRUÑEA
Tel. 948427213 Fax 948423428
E-mail: iardaizl@cfnavarra.es



Ekonomia Zientzietan lizentziatua 1972an Bilboko Unibertsitatean, Lurralde Antolamenduan diplomatua Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan, bai eta Europako Komunitateetan Diplomazia Eskolan ere.

Nafarroako sektore zein eskualdeko ekonomia izan da haren ikerlanen helburu nagusia. "Estudio de Prospectiva. Navarra Año 2000" da haren lanetarik nabarmenena, koordinazio eta zuzendaritza lanak egin dituelarik bertan. Eskualdeko Ekonomia eta Sistemen Dinamikaz egindako ikerketen ondorioz, kongresu askotan esku hartu du. 1974an ekonomialari gisa hasi zen lanean Nafarroako Foru Diputazioan (Koordinazioa, Planifikazioa eta Garapena eta Azterlan eta Planifikaziorako Kabinete Teknikoa), eta 1985az gero Nafarroako Gobernuan Merkataritza eta Turismo Zuzendaria, Pirinioetako Lan Elkarteko Idazkari Nagusia eta Ekonomia Zuzendari Nagusia izan da. Egun, Nafarroako Estatistika Institutuko Zuzendaria da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Bazkidea 1987tik. 1983an Nafarroako lehendakariorde izendatu zuten. Hainbat egitasmo eta ekimenetan esku hartu du, hala nola Nafarroako Merindadeen Astea, Eusko Ikaskuntzen Kongresuak, J. M. Barandiaran Beka, Manuel Lekuona Saria, Agustin Zumalabe Beka.

Publicaciones

Navarra: elementos para su estudio regional, Burlata, 1980; *Estudio de Prospectiva. Navarra 2000*, Iruñea.



ARLABAN MATEOS, Francisco Xabier

[Iruña, 1942.01.07]

Aoiz, 35, 1. C
31004 IRUÑA

Ekonomia Zientzietan lizentziatua Madrilgo Universidad Complutensean. Oso gaztetatik arduratu zen zineaz eta hiru zine-klub unibertsitario sortu eta zuzendu zituen Madrilen (1962-1970). Gero, Iruñean, *Cinematógrafo Juventud* izenekoaren zuzendari gerentea (1972-1981), Irudi Filmseko zuzendari gerentea (1977-1985) eta Irrintzi Zinemaren gerentea (1978-1983) izan da. 1985etik *Javier Arlaban Distribuciones Cinematográficas* filme banakuntzarako enpresaren jabea da. Bestalde, Donostia, Valladolid eta Gijongo zinemaldietako mahaikidea, Benálmadenako Autore-Zinearen Astearen antolaketa batzordekoa eta euskal zinegileen elkartearen sortzailea izan da. Gainera, Elbarrientzako Kiroletarako Nafar Federazioko burua izan da, bai eta Europako Mugimenduaren Nafar Batzordeko burua ere (1990-1992).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako bazkidea izan da elkartearen bigarren aldiaren hasieratik (1978). Ekonomia eta Zinematografia sailtako partaidea izan da, bai eta Zinematografia saileko lehendakaria 1985tik 1994ra. Haren agintaldian saileko lehen koaderno argitaratu zen, "El Cine y los vascos" izenburupean, eta Eusko Ikaskuntzari buruzko filmea egin zen.

Argitalpenak

Artikulu asko idatzi du pilotari buruz *Marca*, *Informaciones*, *Madrid* eta *Deia* egunkarietan eta Iruñeko *Norte Deportivo* aldizkarian. Halaber, zineari buruzko artikuluak egiten ditu eta *La Voz de Navarra* irratiarekin ere lan egin du.



ARMENDARIZ Y EQUIZA, Claudio

[Iruñea]

Medikuntza doktorea. 1908an *Asociación Médica de Navarra*ko buruorde izendatu zuten, bai eta Nafarroako Medikuntza Elkargoko buru ere 1917an.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Oñatiko 1918ko Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresuaren ondoren, Medikuntza saileko batzordekide izendatu zuten Modesto Huicirekin batera. 1932an Justo Garate Medikuntzako batzordekide izendaturik, Claudio Armendariz Elko Diruzain bilakatu zen 1936a arte. Iruñeko 1920ko Eusko Ikaskuntzen II. Kongresua antolatzeke ardura hartu zutenetarikoa izan zen. Eusko Ikaskuntzaren Nafarroako Sailaren ingurura jendea erakarri eta bildu zuen pertsona da Armendariz y Equiza.

A.G.G.



AROCENA ARREGUI, Fausto

[Donostia, 1896.07.16 - Donostia, 1980.12.16]

Historialaria. Serapio Mugicarekin lan egiten hasi zen eta 13 urte iraun zuen beti maisutzat hartu zuen haren aldamenean, harik eta 1927an ikasleak maisua ordezkatu zuen arte Gipuzkoako Aldundiko Artxibozain eta Kronikari karguan. 38 urte zituela, *Real Academia de la Historiá* akademiko izendatu zuen; sarrerako gai gisa Frantziako Frantzisko I.aren atxiloketan Juan de Urbietak izandako eskuhartzea erabili zuen. Julio de Urquijoren Biblioteka eskuratu zuen Gipuzkoako Aldundirako. *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (BRS-BAP) aldizkariaren sortzaileetarikoa. *Archivo de Protocolos de la Universidad de Oñati* deritzana sortu zuen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Gregorio Mugica 1931n hiltzean, idazkariorde kargua egokitu zitzaion 1934a arte. Eusko Ikaskuntzaren Autonomia Batzordekoa izan zen Gipuzkoaren aldetik.

Argitalpenak

Gipuzkoa izan zen batez ere Arocenaren ikerlanen gaia, nahiz eta eleberrri bat eta olerkiak ere argitaratu zituen, erdaraz eta euskaraz. Haren liburuen artean nabarmentzekoak dira: *Narraciones folklóricas*, Donostia 1924; *Doña Blanca Garcés, novela legendaria*, Córdoba, 1925; *Don Carmelo de Echegaray y la historia del País Vasco*, Donostia, 1926; *Síntesis de la historia interna de Guipúzcoa*, Donostia, 1929; *Reseña histórica de Rentería*, Donostia, 1930; *Guía de Guipúzcoa*, Donostia, 1930; *Gregorio Múgica*, Donostia, 1931; *Guipúzcoa por San Ignacio*, Donostia, 1940; *Los protocolos guipuzcoanos*, Donostia, 1948; *La casa de Zumalacarregui*, Donostia, 1948; *El País Vasco visto desde fuera*, Donostia, 1949; *Garibay*, Zarautz (Gipuzkoa), 1951; *Brumas de nuestra historia*, Zarautz (Gipuzkoa), 1952; *Ramón de Iznagary*, Donostia, 1952; *Juan Bautista de Erro y Azpiroz*, Donostia, 1954; *Problemas históricos guipuzcoanos en la vida de San Ignacio*, Donostia, 1956; *Nuestra pequeña historia*, Zarautz (Gipuzkoa), 1961; *Diccionario biográfico vasco*, Donostia, 1963; *Guipúzcoa en la historia*, Madril, 1964; *Índices y documentos del Archivo Municipal de la Villa de Hernani*, Donostia, 1974. Euskaraz honako hauek ondu zituen: *Urte berri* (1920), *Unibersidade edo irakaskuntza orokorra*, *Echegaray jaunaren eriotza*, *Paper zaarretan begira*. *Guda-kontu*.

Nekrologia eta euskal munduko pertsona ospetsuei buruzko ohar ugari idatzi zuen: "Don Carmelo de Echegaray y la historia del País Vasco", *Euskalerrriaren Alde* (1926); "Notas necrológicas. Don José de Orueta", *RIEV* (1932); "Don Serapio Múgica", *El Bidasoa* (1947); "In memoriam. Don Julio de Urquijo e Ybarra", *BRSVAP* (1950); "Angel de Apraiz. In memoriam", *BRSVAP* (1954); "Don Bonifacio de Echegaray. In memoriam *BRSVAP* (1957); "Don Juan Zaragüeta, miembro del Instituto de Francia", *BRSVAP* (1959); "Don Miguel Herrero García. In memoriam" *BRSVAP* (1961); "Don Juan Zaragüeta y nosotros" *BRSVAP* (1963); "In memoriam. Julian Elorza"

BRSVAP (1964); "In memoriam. Mariano Ciriquiain-Gaiztarro" *BRSVAP* (1964); "In memoriam. Dionisio Azcue", *BRSVAP* (1964); "El primer centenario del nacimiento de Carmelo de Echeagaray", *BRSVAP* (1965); "Don Manuel Lecuona Echaveguren", *BRSVAP* (1967); "In memoriam. Don Sebastián Gómez Izaguirre", *BRSVAP* (1969); "In memoriam. Ignacio Errandonea", *BRSVAP* (1970); "In memoriam. José Arana", *BRSVAP* (1971); "In memoriam. José de Arteche", *BRSVAP* (1971).

Horietaz gain artikulu ugari argitaratu zuen hainbat aldizkaritan: *RIEV*, *BRSBAP* (etengabe 1945etik 1967ra), *El Bidasoa*, *La Voz de España*, *Txistulari*, *El Día*, *Munibe*, *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, *Boletín de la Real Academia de la Historia*.

Bibliografia

ARTECHE, J., "Despedida a Don Fausto Arocena", *BSVAP* (1966), 475-477. orr.; ZUMALDE, I., "In memoriam. Fausto Arocena", *BSVAP* (1981), 587-589. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, I libk., Bilbo, 1984, 338-341. orr.

A.G.G.



ARRAIZA BALEZTENA, Francisco Javier

[Iruñea, 1888.04.28 - Ibero (Nafarroa), 1937.01.27]

Abokatua. Nafar politiko eta enpresari-familia garrantzitsuan sortua. Haren aita, Pedro José Arraiza Osambela, Iruñeko Udal zinegotzia izan zen 1867, 1871, 1879, 1881 eta 1889 urteetan, bai eta *Asociación Euskara* elkarteko Zuzendaritza Batzordekoa ere. Bost senide izan zituen: Pedro José (probintziako diputatua 1892an), María (Joaquín Garjón diputatuarekin ezkondua), José Joaquín, Eugenio, (Iruñeko Udaleko alkateordea 1899an) eta Juan Pedro (foru diputatua 1935ean).

Jaimisten herrialdeko batzordekidea eta Iruñeko alkatea (1918-1920) izan zen Francisco Javier. 1921ean Alianza Foralaren programaren aurka azaldurik, baja eskatu zuen talde karlista hartan. *Somatén*-ekoa eta *Unión Patriótica* taldearen probintzia batzordeko idazkaria, Primo de Riveraren diktadura garaian. 1928tik 1929ra, foru diputatua, Lizarrako barrutiaren aldetik. Orobat, *Bellas Artes de San Fernando*ko akademikoa, Nafarroako Monumentuen Batzordeko kidea eta *Orfeón Pamplonés* abesbatzeko burua izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako batzordekidea 1920 eta 1922 bitartean.

Begarako Eusko Ikaskuntzen Kongresuan, 1930ean, "La cocina navarra" lana aurkeztu zuen. Eusko Ikaskuntza Nafarroan benetan finkatzea lortu zuen pertsona da. Claudio Armendárizekin batera, Iruñean 1920an egindako Eusko Ikaskuntzen II. Kongresuaren eragile nagusia.

Argitalpenak

1929an Iruñeko Probintziako Erakusketa Batzordeak Arraizaren *Guía turística de Navarra* argitaratu zuen. Bestalde, "Recetario de plantas de navarra" baten egilea da, Eusko Ikaskuntzak 1930ean argitaratua. Hala berean, Nafarroako literatura gastronomikoaren aitzindaria den liburua argitaratu zuen: *La cocina navarra. Recetario de plantas navarras. Nomenclatura euskérica de los principales utensilios de la cocina navarra* (Bergara, 1930). 1920an "Los bailes regionales, un festival de danzas navarras" argitaratu zuen *Boletín de la Comisión de Monumentos de Navarra* aldizkarian. Maiz idatzi zuen agerkari jakin batzuetan: *La Tradición Vasca*, *El Correo de Guipúzcoa* eta *Diario de Navarra*. Azken egunkari horretan nafar gaien inguruko artikulua ugari ondu zuen: "El monumento de Mayo (1922-IV-27); "El principado de Viana" (1923-III-27); "Recuerdos y comentarios" (1927-V-22); "Por Santa María de la Oliva" (1936-IX-16).

Bibliografía

IRIBARREN, M., *Autores navarros*, Iruñea, 1970, 37. or.; SAROBE PUEYO, V. M., GEN, Iruñea, 1990; GARCIA-SANZ MARCOTEGUI, A. et ali., *Diccionario biográfico de los Diputados Forales de Navarra (1931-1984) y de los secretarios de la Diputación (1834-1984)*, Iruñea, 1998, 162. or.

A.G.G.

ARRAIZA RODRIGUEZ-MONTES, Eugenio

[Iruña, 1936.08.14.]

Joaquín Beunza, 13 bis
31014 IRUÑEA
Tel./Fax 948141812



Zientzia Zehatzak eta Marrazki artistikoa ikasi zituen Madrilgo unibertsitatean (1953 eta 1954), eta Filosofia eta Letrak lizentziaturaren konbalidazio zibilerako ikasturte komunak Zaragozako unibertsitatean (1956, 1957 eta 1958). Loiolan, Eliz Filosofia ikasi zuen (1959, 1960 eta 1961). Ingeles eta Gaztelera-zko Literatura irakasle izan zen Industri Peritaje eta Maisutzan, Gijóngo lanbide unibertsitatean (1962 eta 1963). Azkenik, Teologia ikasi zuen Deustuko unibertsitatean (1964, 1965, 1966 eta 1967). 1973 eta 1974an Alcor argitaletxearekin eta *Andalán* aldizkariarekin lan egin zuen eta ondoren *Servicio de Información Bibliográfica* eta *Librería IBI* sortu zituen (Zaragoza). 1986tik Udako Euskal Unibertsitateko Talde Eragileko kidea izan da. 1989an, F. Lacabek zuzenduriko *Euskarazko egunkari bati buruzko inkesta soziologikoa* koordinatu zuen Eusko Jaurlaritzarentzat CIES etxearekin. Halaber, Ateneo Navarro elkarteko Literatura eta Hizkuntzalaritza eta Euskara eta Euskal Kultura sailetako batzordekidea izan da (1991-1994 eta 1994-1997 hurrenez hurren). Gaur egun, karguotan dihardu: Nafarroako Bertsozaleen Elkarteko Lehendakariordea (1983tik), Euskalerría Irratiaren jabe den Iruñeko Komunikabideak S.A.ko Idazkaria (1984tik) eta Euskal Kantuzaleen Elkarteko Nafarroako Lehendakaria (1991tik).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elko bazkidea 1979tik eta jarduneko kidea Historia eta Hizkuntza eta Literatura sailetan. Eusko Ikaskuntzako Idazkaria Nafarroan, 1980an ordezkari-tza zabaldu zenetik 1993ra arte. Bere kargualdian Elkarteak antolaturiko hainbat ekitalditan esku hartu zuen, haien artean toponimia-ren bilketa nabarmenezkoa delarik. 1996an Nafarroako Lehendakariorde izendatu zuten eta urte t'erdia iraun zuen karguan.

Argitalpenak

Allí he de llegar andando, Editorial Estudium, 1968. "Ain-ez bukatzen diren euskal toponimoak", *Fontes Linguae Vasconum*, 48. zk., 1986. "Eusko Kultur Gaiak", *Uztaro*, 13. zk., 1995.



ARREGI AZPEITIA, Gurutz

[Lemoa (Bizkaia), 1936.11.12]

Politika eta Gizarte Zientzietan (Soziologia) lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. Unibertsitate horretan berean doktoratu zen, "Función de la ermita en la vecindad tradicional de Bizkaia" izenburuko tesiarekin. Etnografia ikerketan lan egin du Jose Migel Barandiaranekin 1972tik 1985era. 1973tik Etniker egitasmoarekin lan egin du; proiektu horrek Euskal Herriko material etnografikoen bilketa sistematikoa du helburu. Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateak babesturiko Euskal herriko Atlas Etnografikoaren ikerketak koordinatzen ditu. Kultura Antropologiari buruzko ikastaroak eman ditu Eskoriatzako OHOk irakasle Eskolan. Bilboko Labayru Ikastegiko Etnografia Saileko Zuzendaria da. Bilboko Euskal Arkeologia, Etnografia eta Historiako Museoaren Patronatuko kidea izan da (1981-1989), bai eta Jose Migel Barandiaran Fundaziokoa ere. Gaur egun Durangon bizi da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako Idazkariordea (1979-1994), Antropologia-Etnografia saileko Lehendakaria (1979-1986) eta Idazkari kudeatzailea (1982-1990) izan da.

Argitalpenak

"Auzoa (La Vecindad)", in *Euskaldunak*, Donostia, Etor, 1983, III. liburukia. *Ermitas de Bizkaia*, Bilbo, Labayru Ikastegia - Bizkaiko Foru Diputazioa, 1987, 3 libk. José Angel Barrio Loza eta Ander Manterolarekin lankidetzan, *Anteiglesia de Izurza. Tradición y Patrimonio*, Izurza, Udala, 1990; "Funciones de la Cofradía en las Anteiglesias de Bizkaia. S. XVIII- XIX", *Eusko Ikaskuntzen IX. Kongresua. Egungo Euskal Gizartearen sorburu hurbilak*, Donostia, 1984, 353-357. orr.; "Etnografía de Durango", *Contribución al Atlas de Euskalerría. Investigaciones en Bizkaia y Gipuzkoa*, Donostia, 1988 307-402. orr.

ARRIEN BERROJAEHEVARRIA, Gregorio

[Kortezubi (Bizkaia), 1936.10.28]

Lauaxeta Ikastola
48290 EUBA-AMOREBIETA
Tel. 946730486 Fax 946732772



Filosofia eta Teologia ikasketak egin zituen pasiotarren ikastetxeetan, Tafallan eta Urretxun. 1962ean apaiztu zen. Ondoko urtean Gabiriako pasiotarren Apaizgaitegiko irakaslea izan zen, gero Euba-Amorebietako San Gabriel Ikastetxera pasa zen eta, azkenean, bertako Lauaxeta Ikastolan lan egin du. Hirurogeita hamargarreneko azken urteetatik Ibaizabal argitaletxearekin lan egin du euskarazko eskola liburuak moldatzen. Filosofia eta Letrak karrera ikasi zuen Madrilgo Universidad Complutensean eta 1985ean doktoratu zen, "Educación y escuelas de barriada de Bizkaia. Escuela y Autonomía, 1898-1936" izenburuko tesiarekin. *Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoaren* kide sortzaileetarikoa da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1984tik 1992ra Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza saileko lehendakaria izan zen. Haren agintaldian saileko lau koaderno eta bi biografia argitaratu ziren, eta Hezkuntza Euskal Herrian (1800-1876) gaiaren inguruko erakusketa bat prestatu zen II. Euskal Mundu Biltzarraren barne (1987).

Argitalpenak

La generación del exilio. *Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares, 1932-1940*, Bilbo, Onura Arg., 1983. *Educación y Escuelas de Barriada de Bizkaia. Escuelas y autonomía, 1898-1936*, Bilbo, Bizkaiko Foru Diputazioa, 1987. *Los Pasionistas en el primer centenario de la Provincia del Sagrado Corazón de Jesús, 1887-1987*, Bilbo, 1987. *Los colegios pasionistas. Cien años de historia, 1887-1987*, Euba-Amorebieta, 1987. *Niños vascos evacuados en 1937. Album Histórico*, Bilbo, 1988. *Niños vascos evacuados a Gran Bretaña, 1937-1940*, Bilbo, 1988. *Juan Lezika y Torrezuri, fundador de la Villa de Luján, 1707-1784. (Historia del encuentro de dos pueblos)*, Gasteiz, 1991. *Bizkaiko ikastolak, 1957-1972. Beren hasiera eta antolaketa. Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972. Sus orígenes y organización*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1992. *Una esperanza en la Amazonía. Los Pasionistas en la Selva peruana, 1913-1992*, Bilbo, 1993. "El Gobierno vasco y las evacuaciones de los niños (1936-1937)", *Muga*, 56. zk., 196, 60-73. orr. "Kepa Andoni Ormaetxea, AGAKIAREN egilea. Haur didaktikari buruzko lan honen azterketa", *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 1988, 223-235. orr. "En el cincuentenario de las evacuaciones. Los niños vascos enviados a la Unión Soviética", *Ernao*, 4. zk., 1987, 257-272. orr.



ARRIZABALAGA VALBUENA, Alvaro

[Oviedo, 1965.07.26]

Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea
Avd. Universidad, 5
01006 VITORIA-GASTEIZ

Geografia eta Historian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean 1988an. Doktoretza unibertsitate berean 1995ean. Egun bitarteko irakasle titularra da EHUko Historiaurrea departamentuan. Gipuzkoa eta Arabako Diputazioek, Oñatiko Udalak eta Aranzadi Zientzi Elkarteak babesturiko hainbat arkeologi ikerketatan esku hartu du.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Historiaurrea saileko lehendakaria da 1991tik, bai eta Jakitez graduazio ondoko ikastaroen idazkaria.

Argitalpenak

Orain dela 30.000 urte. Labeko Koba. Hace 30.000 años, Arrasate, 1989; *Informe del oleoducto Zaragoza-Pamplona-Ribavellosa a su paso por Alava*, Gasteiz (E. Pérez Olmedorekin elkarlanean); "Técnicas de modelización tipométrica en series líticas. Nubes de puntos, análisis de superficie de tendencia y de agrupamiento", *Isturitz* (1997), 165-192. orr.; "Arqueología y Prehistoria en el País Vasco peninsular: 1985-1995", *RIEV* (1996); "Hallazgo de un bifaz y otros restos líticos en el monte Jaizkibel (Hondarribia, Gipuzkoa)", *Munibe* (1994), 23-31. orr.

ARTOLA GALARDI, Víctor

[Donostia, 1884 – Bilbo, 1954]

Zuzenbidean lizentziatu zen Salamancako Unibertsitatean. Doktore gradua beretu zuen *El problema jurídico de la persona social* tesiarekin. Banco Guipuzcoanoko zuzendari nagusia izan zen, eta gero Banco de Bilbaokoa. Orobat, Gipuzkoako Aldundiko Udal Ogasun Saileko burua izan zen. Euskal Herriko Udalen Batzarrean esku hartu zuen 1919an. Euskaltzale joerakoa, baina alderdi gabea.


Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elren bazkide sortzaileetarikoa, Oñatiko 1918ko Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresuaren ondoren diruzainorde izendatu zuten, bai eta Gizarte eta Politika Zientziak saileko batzordekide ere Santiago Cunchillosekin batera. 1922a arte iraun zuen bere karguan. Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuan "Política tributaria municipal del País Vasco" lana aurkeztu zuen Gizarte eta Politika Zientziak sailean, eta Eusko Ikaskuntzen V. Kongresuan (Bergara 1930) "La política tributaria municipal del País Vasco" izenburukoa. Eusko Ikaskuntzaren Autonomia Batzordeko partaide izan zen.

Argitalpenak

1908an bere doktore tesia argitaratu zuen Donostian: *El problema jurídico de la persona social*. Abokatu Espainiarren I. Kongresuan parte hartu zuen (Donostia, 1917) eta hartaz idatzi zuen *Euskalerraren Alde* aldizkarian (1917). Haren argitalpen nagusiak ekonomia alderdiei buruzkoak izan ziren: "La Hacienda de los pequeños municipios vascos", *Asamblea de Administración Municipal Vasca*, Donostia, 1920; "La crisis económica mundial", *El Día* 1913-I-9; "Ante el Estatuto Vasco. La fórmula económica", *Euzkadi* 1931-VI-16. 1944an Bilbon egindako I. Kongresu Ekonomiko Sindikalean esku hartu zuen: "La actividad de la Banca de Vizcaya", Bilbao, 1944, 249-262. orr.

A.G.G.



AZKOAGA ETXEBARRIA, Gilen

[Zarautz (Gipuzkoa), 1941.09.03 – Donostia, 1990.07.11]

Politika eta Ekonomia Zientzietan lizentziatua Madrilgo Unibertsitatean eta Garapen eta Lurralde Politikan Maîtrise-a lortu zuen Lovainako Unibertsitatean. Fagor Kooperatibako prestakuntza burua izan zen. Egonaldi bat egin zuen Europako Ekonomia Elkartean (Brusela). Goi Debako Mankomunitateko gerentea eta Donostiako *Centro de Estudios Europeos*-ko zuzendaria.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Gizarte eta Ekonomia Zientziak saileko lehendakaria izan zen 1983tik hil zen arte (1990). Haren heriotzaz gero, Gizarte eta Ekonomia Zientziak saileko koadernoak haren izena hartu zuen.

Aldizkariak

Aldizkari ugarian idatzi zuen, bereziki Eusko Ikaskuntzaren Gizarte eta Ekonomia Zientziak saileko koadernoan eta *Punto y Hora*-n.

BAGÜES ERRIONDO, Jon

[Errenteria (Gipuzkoa), 1955.06.15]

ERESBIL-Archivo de Compositores Vascos
Martín Echeverría, 15
20100 ERRETERIA
Tel. 943521418 Fax 943529706
E-mail: eresbil@sarenet.es



Musika ikasketak egin zituen Donostia, Bartzelona eta Madrilgo Kontserbatorioetan. Antzinako musikan espezializatu den Capilla Peñafloidaren sortzailea eta egungo zuzendaria.

Filosofia eta Letrak ikasketak egin zituen Donostian eta Bartzelonan, Musikaren Historia arloan, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Arte Departamentuaren barne. Bartzelonan, *Josep Ricart i Matas* Musikologia Institutuarekin lan egin zuen, Kataluniako artxiboen katalogazio lanean. 1976 eta 1977an Santiago de Compostela eta Granadako Nazioarteko Ikastaroetan esku hartu zuen eta 1982-1983an Artxibistika eta Dokumentazioan espezializatu zen Madrilan. 1990ean doktoratu zen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, *La música en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* izenburuko tesiarekin.

Sociedad Española de Musicología eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteetako kidea da. Bestalde, Nazioarteko Musika Biblioteken Elkartearen barne dagoen *Asociación Española de Documentación Musical*-eko lehen lehendakaria izan da.

Gaur egun, ERESBIL-Euskal Musikagileen Artxiboko artxibozain tekniko burua da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1978tik Musika saileko partaidea izan da. Sail horretako lehendakaria izan zen 1989 eta 1990ean eta 1993tik 1996 arte. Saileko Koadernoaren arduraduna izan zen 4. aletik 9.era, bai eta Musika Koadernoak bildumaren lehen bi aleetakoa ere. Eusko Ikaskuntzaren hainbat egitasmo, kongresu eta ikastarotan esku hartu du, bereziki Euskal Kantutegiak datu-basearen proiektuan.

Argitalpenak

Catálogo del antiguo archivo musical del Santuario de Aránzazu, Donostia, 1979; *Ilustración musical en el País Vasco*: I. libk. *La música en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Donostia, 1990, II. libk. *El Real Seminario Patriótico Bascongado de Vergara*, Donostia, 1991; *Errenteria musikala* (koordinazioa), Errenteria, 1991; "El coralismo en España en el siglo XIX", in *España en la Música de Occidente*, Madril, 1987, 173-198. orr.; "La música teatral en Euskal Herria", in *De Musica Hispana et Aliis*, Santiago de Compostela, 1990, 431-450. orr.; "Institutions of Musical Documentation" (Miquel Angel Plaza-Navas-ekin elkarlanean), in *Fontes Artis Musicae* (1998), 3-20. orr. José Rada, "In Memoriam" diskoaren egilea, Capilla Peñafloida, zuzendaritza, Donostia, 1993.



BANDRES AZCUE, Antonio

[Tolosa (Gipuzkoa), 1874.06.13 - Bilbo, 1966.07.30]

1896 eta 1908 artean *Electra de Bolueta* konpainiako zuzendaria izan zen. Gero kargu bera izan zuen Santa Ana de Bolueta-n 1934a arte. Aldi berean, 1920tik 1935era arte, *Unión Eléctrica Portuguesa* eta *Electra de Lima* konpainietako aholkularia izan zen. Halaber, *Sociedad Hidroeléctrica Ibérica*-ko Administrazio Batzordekoa eta Lehendakaria izan zen. 1944an, *Iberduero* eratu zenean, enpresatik bota zuten, nahiz eta *Militar* eta *Nacional* zeritzaten auzitegiek berriro administrazio lanetan aritzeko baimena eman (kargu politikoetan jarduteko hiru urte eta egun bateko debekua jarri zioten).

Kirolak ezagutarazi zuen herritarren artean. *Club Náutico*-ko kidea zela, 1910ean erregeari atxikimendua erakustearren *Club* horrek prestaturiko oturuntza batean elkartetik egotzi zuten Askatasuna eta Errepublika goratzeko oihuekin erantzun zuelako.

Hainbat kirol elkartetako kide eta sortzailea. *Sociedad Gimástica Zamacois*-eko kidea (1894) izan zen. Gero, elkarte horretatik sorturiko *Club Deportivo*-ko lehendakaria izan zen 1913tik 1915era eta 1920tik 1921era, bai eta bertako *Sección Alpina*-ko lehendakaria ere. 1917an *Federación Vasco-Navarra de Alpinismo* zeritzanaren sortzailetarikoa eta lehen lehendakaria izan zen. *Pyrenaica* aldizkaria sortu zuen eta Tarin Iturriak inauguratu zituen Pagasari eta Gorbeia mendietan. 1915eko Mendi Lehiaketan sortzailea eta "100 Mendiak" lehiaketaren antolatzailea. 1912an, Gorbeiarako lehen herri irteera antolatu zuen. 1923an Aneto eta Monte Perdido-ko igoeira eginik, 1926an Mont Blanc-eko gailurra zapaldu zuen. 1922an *Club Deportivo*-ko bazkideek omenaldi bat egin zioten.

1924an Eibarko *Fiesta del Pedal* izeneko antolatzen lagundu zuen eta urtebete geroago, 51 urte zituela, *Vuelta Ciclo Turista al País Vasco* izenekoan hartu zuen parte (196 km 8 etapetan). 1914an Goitibeheren lehen lasterketaren antolatzailea. Orobat, Bilbo *El Sitio*-ko lehendakaria izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1922tik 1932ra Kirolak Saileko batzordekidea izan zen.

Argitalpenak

Sociedad Hidroeléctrica Ibérica-tik bota zutenean liburuxka batzuk argitaratu zituen: *Exposición de su intervención en el Consejo de Administración de la Sociedad Hidroeléctrica Ibérica*, Bilbo, 1944, eta *Cincuentenario dedicado a sus contemporáneos y compañeros de trabajo y en memoria de los que pasaron a mejor vida* (1896-1946), Bilbo, 1946. Orobat, beste liburuxka bat kaleratu zuen *Club Náutico*-tik zergatik egotzi zuten adieraziz: *A los Señores socios del Club Náutico. Cómo ocurrió un incidente*, Bilbo, 1911.

Bere bizitzaren gertakariak adierazten dituzten idazki horietaz gain, zenbait artikulua argitaratu zituen Bilboko bizimoduaz eta kirol gaien inguruan, *El Pueblo Vasco* eta *La Noche* agerkerietan: "Ampliación y embellecimiento de Hurtado de Amézaga" (*El Pueblo Vasco* 1918-4-10); "La Casa Galera" (*El Pueblo Vasco* 1918-7-20), "El embellecimiento del Campo Volantín" (*El Pueblo Vasco* 1919-12-14); "La cultura física" (*El Pueblo Vasco* 1918-7-10); "Alpinismo. El pico del Fraile ha doblado la cerviz" (*La Noche* 1924-3-18).

Bibliografía

BANDRES AZCUE, A., *Club Náutico: A los Señores socios del Club Náutico. Cómo ocurrió un incidente*, Bilbo, 1911; BANDRES AZCUE, A., *Exposición de su intervención en el Consejo de Administración de la Sociedad Hidroeléctrica Ibérica*, Bilbo, 1944; BANDRES AZCUE, A., *Cincuentenario dedicado a sus contemporáneos y compañeros de trabajo y en memoria de los que pasaron a mejor vida (1896-1946)*, Bilbo, 1946; APRAIZ, E., "De Unamuno a Anthon Bandrés y la Sierra de Kodes", *Vida Vasca* (1957); ELOSEGUI, P., "Don Antonio Bandrés", *Pyrenaica* (1966); AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbao, 1987, II. libk., 164-165. orr.; TUTOR LARREA, A., *Bodas de Diamante de la Federación Atlética Vizcaína (1917-1992)*, Bilbo, 1993; IBAÑEZ, M., RUIZ IDARRAGA, R., y ZABALA, M., *Club Deportivo, 100 años de historia*, Bilbo, 1994.

A.G.G.



BANDRES UNANUE, Luis

[Pasaia (Gipuzkoa), 1944.02.18]

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoako enparantza z/g.
20004 DONOSTIA
Tel. 943482342 Fax 943423963

1965ean Industria Peritu titulua lortu zuen, Ingeniarena 1970ean eta Industria Ingeniaritzako Doktore gradua 1976an. 1965etik zientzia eta teknika gaiak irakatsi ditu, hala euskaraz nola erdaraz, hainbat ikastegitan: Ciudad Laboral Don Bosco, Donostiako Kimika Zientzien Fakultatean, Donostiako Industria Ingeniaritza Teknikoaren Unibertsitate Eskolan, Udako Euskal Unibertsitatean eta Bergarako UNEDen. Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroetako, Bergarako UNEDeko eta Industria Ingeniaritza Teknikoaren Unibertsitate Eskolako Zuzendaria izan da. *Elhuyar* zientzia taldeko eta haren aldizkariko kidea izan da, bai eta Kimika Zientzien Fakultateko Idazkaria ere. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailburu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Alduna izan da. Zientzia eta teknikaren premietara euskaraz egokitzeko lanetan dihardu 1972tik. Ingeniaritza elektrikoaren katedraduna da 1991tik. Hainbat elkartetako bazkidea da: Euskalerrriaren Adiskideak, Euskal Idazleen Elkarte, Aranzadi Natur Zientzien Elkarte, UZEI. Orobat, Txistulari Elkarte kide eta haren musika aldizkariaren zuzendaria izan da. *Ez dok amairu* musika taldearen sortzailea eta kidea izan zen taldea desegin arte.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elko bazkidea da 1978tik, elkarte berriro abiatu zenetik, eta Agustin Zumalaberekin lan egin zuen. 1980tik 1985era arte, Zientziak Saileko lehendakaria izan zen; haren agintaldian euskaraz egindako zientziari buruzko bibliografia bildu zen eta horren emaitza Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkarian (RIEV) argitaratu zen.

Argitalpenak

Fisika, Iruñea, 1977. *Algebra Bektoriala*, Iruñea, 1978. *Elektromagnetika (I)*, Iruñea, 1980. *Elektromagnetika (II)*, Iruñea, 1980. *Fisika eta Kimika. Lanbide heziketa 2.1*, Donostia, 1983. *La causa del Pueblo Vasco. Adaptación de la obra de Fco. X. de Landaburu*, 1988. *Euskal Abertzaletasunaren historia. 1936ra arte*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1991. *Zientziaren historiografia I: Aurrehistoriatik erdi aroarte*, Gaiak, 1992. *Zientziaren historiografia II: Errenazimendutik XIX menderarte*, Gaiak, 1992. *Zientzia XIX. Mendean*, Gaiak, 1998. *Nuestro desafío vasco*, 1998. Elkarlanean: *Fisika BUP 2*, Donostia, Elhuyar, 1980, *Fisika BUP 3*, Donostia, Elhuyar, 1981, *Kimika BUP 2*, Donostia, Elhuyar, 1980, *Kimika BUP 3*, Donostia, Elhuyar, 1981.

Zientzia eta teknikari buruzko hirurogei artikulu baino gehiago ondu ditu euskaraz, eta hirurehunik gora hainbat gairen inguruan, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz ere.



BARANDIARAN AYERBE, José Miguel de

[Ataun (Gipuzkoa), 1889.12.31 - Ataun, 1991.12.21]

Gasteizko Apaizgaitegian abiatu zituen Filosofia eta Teologia ikasketak. 1913ko udan Wundt irakaslearekin ikasi zuen Leipzig-eko Unibertsitatean. 1915ean Teologian lizentziatu zen Burgosko Eliz Unibertsitatean. Historiaurrearen alorrean, Eguren eta Aranzadirekin lan egin zuen 1917tik 1936ra bitartean, Euskal Herriko material arkeologikoaren sistematizatzeko eginkizunetan. 1921ean *Eusko Folklore Urtekaria* aldizkaria sortu zuen. 1926an Gasteizko Elizbarrutiko Apaizgaitegiko errektoreorde izendatu zuten. 1936ko Gerra Zibilaren ondoriozko erbesteratze aldirian Lapurdiko Saran bizi izan zen. 1939an *Euskaldunen antzinako erlijioei buruz* izenburuko lana aurkeztu zuen Kopenhage-ko Nazioarteko Antropologia Kongresuan. 1946an *Institute Basque de Recherches Ikuska* sortu zuen eta, azkenik, sorterrian finkatu zen, Ataungo Sara-Etxean. Salamancan eusko ikaskuntzei buruz emandako hitzaldia izan zen itzuli ondoko lehen jardueretariko bat. Historiaurre eta etnografiaren inguruko ikerketekin jarraitu zuen Aranzadi Natur Zientzien Elkartearen baitan. 1965etik 1977ra Euskal Etnologia katedra hartu zuen bere gain Nafarroako Unibertsitatean. Aldi horretan, *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa* egiteko helburua zuen *Etniker* proiektua abiatu zen. 1973an *Etniker Bizkaia* sortu zuen eta Derioko Labayru Liburutegian kokatu zuen haren egoitza.

Ikerkuntza elkarte askoren kidea izan zen: *Real Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria*; *Asociación Catalana de Antropología, Etnografía y Prehistoria*; *Asociación Española para el Progreso de las Ciencias*; *Real Sociedad Española de Historia Natural*; *Sociedad Ibérica de Ciencias Naturales*; *Société Française d'Etnographie*; *Folklore Society*; *Consejo Permanente del Congreso Internacional de Ciencias Antropológicas y Etnológicas*. Halaber, hainbeste aldizkariren zuzendaria izan zen: *Gymnasriuros*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Eusko Jakintza*, *Ikuska* eta *Hojas de Eusko Folklore*.

1963an Akademia Ibiltariak omendu zuen Ataunen, eta 1964an Bizkaiko Aldundiak. 1978an Euskal Herriko Unibertsitateak Honoris Causa Doktore izendatu zuen, 1981ean gauza bera egin zuen Gasteizko Teologia Fakultateak, 1986an Deustuko Unibertsitateak eta 1987an Madrilgo Universidad Complutenseak. 1983an Gipuzkoako Seme Kutun izendatu zuten, 1987an Eusko Jaurilaritzak *Gernikako Arbola Gurutzea* eman zion eta 1990ean Bizkaiko Aldundiak Bizkaiko Seme Kutuna izendatu zuen. Urte horretan berean hainbat kondekorazio jaso zuen: Sabino Arana Kultur Elkargoaren saria, Arte Ederren Urrezko domina, Nafarroako Gobernuaren Urrezko domina, Gran Cruz de la Orden de Carlos III, Donostiako Udalaren Urre eta Diamantezko intsignia eta Arabako Aldundiaren Urrezko domina.

1988an, Jose Migel Barandiaran Fundazioa sortu zuen Eusko Ikaskuntzarekin batera. Bestalde, Euskaltzaina eta Aranzadi Elkarteko Ohorezko Lehendakaria izan zen, bai eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko eta Labayru Ikastegiko Ohorezko kidea ere.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzaren sorrerako bazkidea zen. 1922an Etnografia eta Historiaurre Saileko ordezkari izendatu zuten eta sail horretako batzordekide karguan jarraitu zuen 1936. urtera arte.

Bitxikeria gisa gertakari bat aipa daiteke: 1923an Gasteizko gotzaiak kargu hartu zion Barandiarani, Eusko Ikaskuntzak Peñafloreda y Munibe kondeari egindako omenaldian esku hartu zuelako, erlijio katolikoaren aurkakotzat jotzen baitzuen kondea.

Aranzadi eta Egurenekin batera hainbat Txosten aurkeztu zion Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorrari, hala nola *Exploración de seis dólmenes de la Sierra de Urbasa* (1923), *Grutas artificiales de Alava* (1923), *Los nuevos dólmenes de la sierra de Encia* (1922). Eusko Ikaskuntzen V. Kongresuan (1930) "Algunos casos de Arte rudimentario en la etnografía actual del pueblo vasco" izenburuko lana aurkeztu zuen.

1947an, Miarrizteko Eusko Ikaskuntzen VII. Kongresuko mahaiburu izan zen, bai eta Baionan antolaturiko VIII. Kongresukoa ere. 1976an, beste zenbait pertsona ezagunekin batera, Eusko Ikaskuntza birsortzeko lanari ekin zion. 1978an Oñatiko Unibertsitatean egindako Batzar Nagusian Eusko Ikaskuntzako Lehendakari izendatu zuten aho batez, eta kargu horretan jarraitu zuen hil arte (1991).

Argitalpenak

Berrehun lan baino gehiago argitaratu zituen liburu, artikulua eta liburusken artean. Lehen artikulua 1916koa da, "Ataun Erdi Aroan", Euskalerraren Alde aldizkarian agertua. Artikulua ugari idatzi zuen hainbat aldizkaritan: *Anuario de Eusko Folklore*, *Euzko Deya*, *Euskalerraren Alde*, *RIEV*, *Munibe*, *Eusko Enda*, *Noticiero Arqueológico Hispanico*, *Etniker*, *Estudios de Arqueología Alavesa*, *Euzkadi*, *Vida Vasca*, *Eusko Jakintza*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Kobie*.

La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak Barandiaranen Lan Guztiak argitaratu zituen 1972tik 1984ra bitartean.

Bibliografia

BARRIOLA, I., "Aranzadi, Azkue, Barandiarán, y Eguren", *Homenaje a J. M. de Barandiaran por la Academia Errante*, Donostia, 1963, 213-226. orr.; CARO BAROJA, J., "Barandiaran y la conciencia colectiva del Pueblo Vasco", *Homenaje a J. M. de Barandiaran por la Academia Errante*, Donostia, 1963, 11-27. orr.; ZUMALDE, I., "José Miguel de Barandiarán, pionero de la cultura vasca", *Homenaje a J. M. de Barandiaran por la Academia Errante*, Donostia, 1963, 33-41. orr.; PEÑA BASURTO, L., "Discurso", *Homenaje a J. M. de Barandiaran por la Academia Errante*, Donostia, 1963, 41-59. orr.; ATAURI MANDIOLA, T., "Antaño y hogaño de un infatigable prehistoriador", *Homenaje a José Miguel de Barandiarán*, Bilbo, 1964, 67-85. orr.; GRANDE, M. y ESTEBAN DE GRANDE L., *La obra escrita de D. José de Barandiarán. Bibliografía. Medio siglo de investigaciones arqueológicas y etnográficas (1916-1966)*, 1966; BARANDIARAN, L., *José Miguel de Barandiarán, patriarca de la cultura vasca*, Donostia, 1977; SAN MARTIN, J., *Bidez, gure herriko gauzak*, Donostia, 1981; MANTEROLA, A., "La escuela vasca de etnología. Barandiarán testigo excepcional", *Euskaldunak. La etnia vasca*, Donostia, IV. libk., 1982, 25-158. orr.; MANTEROLA, A. y ARREGI, G., "Bibliografía de José Miguel de Barandiarán (1916-1982)", *Euskaldunak. La etnia vasca*, Donostia, IV. libk., 1982, 299-330. orr.; APALATEGI BEGIRISTAIN, J., "Barandiaran", in *Euskal Herria, Historia eta Gizarte*, Oiartzun, 1985, 56-57. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, II. libk., 171-175. orr.

A.G.G.



BARRIOLA IRIGOYEN, Iñaki

[Donostia, 1906.08.15 - Donostia, 1998.11.02]

Medikuntza ikasketak 1922an Salamancan hasi eta Madrilen amaitu zituen 1928an. Gero Vienara joan zen doktore tesia egiteko *–Extirpación del cáncer rectal por vía sacra–* eta 1936an aurkeztu zuen Madrilen. Garai horretan bere prestakuntza osatu zuen Paris, Heidelberg eta Kolonian egindako egonaldietan. Klinika lana Donostian burutu zuen Ospitale Zibilean, *Instituto Radio-Quirúrgicoan* eta *Nuestra Señora de las Mercedes* klinikan. 1934an Gipuzkoako Medikuen Elkargoko Idazkari izendatu zuten, eta haren lehendakaria izan zen 1978tik. Bestalde, *Academia Médico Quirúrgica*-ko lehendakaria izan zen 1957-1959 biurtekoan. Gaur egun, Medikuntzaren Historiaren Euskal Elkarteko Ohorezko Lehendakaria da. Medikuntza jardueratik at, Iñaki Barriolak zenbait kargu izan ditu, hala nola Euskal Herriaren Adiskideak Elkarteko Zuzendaria (1983-1985). Euskal Herriak bere Unibertsitatea izatearen alde lan egin zuen eta ideia hori azaldu zuen liburu batean: *Gestiones guipuzcoanas por una Univesidad* (1963-1979).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1978tik hil artean, Medikuntza saileko lehendakari hautatu bakarra izan zen, nahiz eta lan hori eten egin zuen zenbait unetan. Bera bertan ez zegoelarik, lehendakaritza hutsik izan zen zenbait urtez, eta bestetan Jose Maria Urkiak koordinatu ditu saileko funtzioak.

Argitalpenak

Medikuntzaren profesional gisa lan asko argitaratu ditu. Horiatariko batzuk bai *Cuadernos de Historia de la Medicina Vasca* eta bai *Estudios de Historia de la Medicina Vasca* agerkerietan aurkitzen dira. Liburuen artean, nabarmentzekoak dira: *El enigma de la muerte de Napoleón I* (1950); *La medicina popular en el País Vasco* (1952); *Los amigos del País y la medicina* (1963); *El curandero Petriquillo* (1983). Beste lan batzuk hainbat aldizkaritan aurki daitezke: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, *RIEV*, *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*. 1978an, Gerra Zibilean bizi izandako esperentzia kontatzen duen liburua argitaratu zuen: *19 condenados a muerte*.

Bibliografia

GRANEL, Luis S., *Diccionario histórico de médicos vascos*, Bilbao, 1993, pp. 42-43.



BASTERRECHEA ZALDIBAR, Francisco

[Bermeo (Bizkaia), 1886.07.18 - 1975]

Zuzenbidea ikasi zuen Valladoliden. Banco de Vizcayaren Bermeoko sukurtsaleko zuzendaria izan zen. *Comunión Nacionalista Vasca* taldeko kidea. Euskal Estatutuaren Aldeko kandidaturan aurkeztu zen Bizkaiairen aldetik 1931ko ekainean eta José Antonio Aguirrerekin batera jaso zuen diputatu akta. Garantia Konstituzinaletarako Auzitegiko kidea izan zen. 1932an, Policarpo de Larrañagarekin batera, arrantzale sindikatu bat sortu zuen: *Eusko Tostarteko Bazkuna*. Itsas gaiez interesaturik, Nautika ikasketak berrantolatzeke plana aurkeztu zuen. Gerra Zibilean Frantziara erbesteratu zen harik eta 1942an Buenos Aires-era aldatu zen arte. Bertan, Euskal Ordezkaritzaren barneko lanari lotu zitzaion eta haren zuzendaria izan zen 1946a arte. 1945ean *Galeuzca* aldizkariko idazketa batzordekoa izan zen eta zenbait artikulu idatzi zituen bertan. Santiago Cunchillosekin batera, *Instituto Americano de Estudios Vascos* izenekoaren sortzailea izan zen, berak hala nahirik, Eusko Ikaskuntzaren antzeko egitura zuena.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako kidea 1921etik. Itsas Arazoak Saileko ordezkarri izendatu zuten 1922an eta kargu orretan iraun zuen 1936a arte. Elk Euskal Itsas Arrantzari buruz 1925ean antolatu Biltzarrean esku hartu zuen. Elren aginduz bidaia bat egin zuen euskal itsasertzean zehar arrantzari buruzko azterlan bat prestatzearen. Parte hartu zuen 1931ko maiatzaren 31n Elk onartu zuen Euskal Estatuaren Estatutua. Eusko Ikaskuntzaren Aurregitasmooaren Bizkaiko Autonomia Batzordean.

Argitalpenak

Erbestean gailego, katalan eta euskaldunen artean sorturiko *Galeuzca* aldizkariko kidea zelarik, ekonomia ukitzen zuten zenbait artikulu idatzi zituen: "Cuestiones políticas fundamentales" I (1945), 44-48. orr. eta II (1945), 66-70. orr.; "El régimen franquista arruinará la economía" 12 (1945), 534-556. orr.

Bibliografia

Asamblea de Pesca Marítima Vasca, Donostia, 1928; ARRESE, D., *El País Vasco y las cartas constitucionales de la República*, Madril, 1931; SAN SEBASTIAN, K., "Francisco de Basterrechea", *Euzkadi* (1986), 235. zk., 27. or. eta 236. zk., 27. or.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbao, 1987, II. libk., 213-214. orr.

A.G.G.

BERGANZA GOCHI, Eduardo

[Bilbo (Bizkaia), 1946.04.18]

I.E.S. Antonio de Trueba
Aldapa, 5
48901 BARAKALDO
Tel. 944375948 Fax 944379101



1973an Geografia eta Historian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Arkeologia indusketa askotan esku hartu du eta 1976tik ikerketa programak kudeatu ditu hainbat arkeologia aztarnategitan: El Montico de Charratu (Trebiño) eta Kukuma (Araia) Araban eta Baltzola (Dima), Laminak II (Berriatua) eta Santa Katalina (Lekeitio) Bizkaian. Lan horiek gehienbat Paleolitiko eta Epipaleolitikoaren azken aldietako ikerketa dute helburu.

1972tik Aranzadi Zientzi Elkarteko bazkidea da. 1974 eta 1984 artean Arkeologia irakaslea izan zen Deustuko Unibertsitatean. Batxilergoko irakasle agregatu numerarioa 1983tik. 1986tik 1996ra arte Euskal Herriko Unibertsitateko HEZlko Geografia eta Historiako Mintegi Iraunkorreko kidea izan zen. 1996an, Euskal Herriko arkeologia ondarea ikertzea eta zabaltzea eginkizuna duen AOZTA elkarteko lehendakari izendatu zuten.

EHUko HEZlrekin lankidetzan egindako arkeologiari buruzko bideo didaktikoetan esku hartu du eta material didaktikoak burutu ditu Bizkaiko Aldundiarentzat.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako kidea 1977tik. Historiaurrea-Arkeologia Saileko lehendakaria izan zen 1988tik 1999ra bitartean.

Argitalpenak

El yacimiento epipaleolítico de Kukuma. Un asentamiento de cazadores-recolectores en la Llanada Alavesa (Araia, Alava), (A. Baldeón-ekin lankidetzan), Gasteiz, 1997; *El yacimiento de la cueva de Urratxa III* (Orozko, Bizkaia) (M. Muñozekin lankidetzan), Bilbo 1997; "Estudio del yacimiento de "El Montico de Charratu (Albaina, Treviño)" (A. Baldeón eta E. Garciarekin lankidetzan), *Estudios de Arqueología Alavesa*, 11 (1983), 121-186. orr.; "El Epipaleolítico en el País Vasco", *Munibe*, 42 (1990), 81-89. orr.; "Excavación, cronología, análisis de las Industrias Líticas y Oseas de Laminak II. Características de las ocupaciones del Yacimiento de Laminak II" (J.L. Arribasekin lankidetzan), *Kobie*, 21 (1994), 7-83. orr. eta 243-253. orr.



BEUNZA REDIN, Joaquín

[Iruñea, 1872.08.04 - Hondarribia (Gipuzkoa), 1936.09.04]

Abokatu eta legelaria. Errotxapeako nekazari familia xume batean sortua zen. Salamancako Unibertsitatearen beka bat lortu zuen zuzenbidea ikasteko eta 1895ean lizentziatu zen. 1896an Madrilen doktoraturik, laguntzak jaso zituen Parisen ikasketak jarraitu ahal izateko. *Comunión Tradicionalistako* zinegotzia Iruñeko Udalean 1901ean eta bigarren alkateordea 1904tik 1906ra bitartean. Gero Foru Diputatu jaimista izan zen 1909tik 1917ra segidan; ondoren, Aldundiaren, Iruñeko Udalaren eta Banco de Españaren aholkulari lanetan jardun zuen. 1927ko azaroaren 5ean, Nafarroako Seme Kutuna izendatu zuten. 1931n Gorteetarako Diputatu hautatu zuten katolikoan eta foruzaleen arteko koalizioaren aldetik eta Minoría Vasco-Navarra izeneko parlamentu taldean sartu zen. Eusko Ikaskuntzak 1931ko maiatzaren 31n onarturiko *Estatuto General del Estado Vasco. Anteproyecto de la Sociedad* dokumentuaren idazketan esku hartu zuen. Gobernuaren erlijio politikaren eta kulture askatasunaren aurka sinatu zutenetarikoa. 1931ko ekainean parte hartu zuen Iruñeko *Acto de Afirmación Católica*-n. 1936an, Zestoako bainuetxean zegoela, milizianoek harrapatu, Hondarribiko Guadalupeko gotorlekura eraman eta bertan fusilatu zuten.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elren sortzaileetarikoa, Eusko Ikaskuntzen II. Kongresuan esku hartu zuen, "Lehen Hezkuntza Nafarroan" gaiari buruzko lanarekin. 1931tik 1934ra Batzorde Iraunkorrekoko kide izendatu zuten Serapio Huiciren ordean. 1929an Eusko Ikaskuntzaren Udako Ikastaroetan jardun zuen, Estatuaren konstituzio berrian euskaldunek zuten eginkizunaz hitz eginez. Eusko Ikaskuntzaren Autonomiarako Batzordeko kidea izan zen Nafarroaren aldetik.

Argitalpenak

Artikulu ugari argitaratu zuen hainbat agerkaritan: *La Avalanche*, *El Eco de Navarra*, *El Pensamiento Navarro*, *Diario de Navarra*, *Euzkadi*, *El Día*.

Bibliografia

ARRESE, D., *El País Vasco y las Constituyentes de la Segunda República*, Madril, 1931, 52-53. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, II. libk., 280. orr.; ANDRES-GALLEGO, J., *GEN*, Iruñea, 1990.

A.G.G.



BILBAO EGUIA, Esteban

[Bilbo, 1879 - Durango (Bizkaia), 1970]

Politikoa, Justizia ministroa eta Gorteetako Lehendakaria Francoren diktaduran. Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean. Alderdi Carlistako kidea, 1904an Bilboko udaleko zinegotzia izan zen, bai eta senadorea Bizkaia aldetik 1918an eta Gorteetako diputatua 1919an. Primo de Riveraren diktadorekiko (1923-1930) kolaborazioak Bizkaiko Aldundiko buruzagitza ekarri zion (1926-1930). 1921tik 1933ra bitartean, Ekintza Katolikoko presidentea izan zen. Errepublikara iratzen Gorteetako Diputatua izan zen Nafarroaren aldetik. Gero, Gerra Zibilean errepublikarrek preso altxaturik, trukatu egin zuten azkenean. Gerra amaitu ondoren, Francoren diktaduran esku hartu zuen eta Justizia Ministroa eta Gorteetako Burua izan zen. 1947ko abenduan Bilboko Udalak Seme Kutuna izendatu zuen eta Hiriaren Urrezko domina eman zioten. Bi egun geroago, Bizkaiko Aldundiak Bizkaiko Seme Ohoragarria titulua eman zion.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1918an, Oñatiko Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresuaren amaieran jardun zuen eta Eusko Ikaskuntzak Saileko batzordekide izendatu zuten, Javier de Gortazarrekin batera. 1922 eta 1926 artean Gizarte Azterlanak Saileko ordezkari izendatu zuten.


Argitalpenak

Zuzenbideari buruzko lan asko idatzi zuen. Haren liburuen artean nabarmentzekoak dira: *Discursos varios*, Madril, 1940; *Aparisi y Guijarro*, Donostia, 1941; *La idea del orden como fundamento de una filosofía política, singularmente del pensamiento de Vázquez Mella*, Madril, 1945; *Jaime Balmes y el pensamiento filosófico actual*, Bartzelona, 1949; *La idea de la justicia y singularmente de la justicia social*, Madril, 1949. Halaber, prentsa artikulua ugari ondu zuen hainbat agerkaritan: *Diario de Navarra*, *El Fuerista*, *El Diario Vasco*, *El Pueblo Vasco*, *El Correo Español*, *La Gaceta del Norte*, *El Pensamiento Navarro*, *El Día*.

Bibliografia

Homenaje al excelentísimo señor D. Esteban de Bilbao y Eguía, Bilbo, 1947; BLASCO SALAS, S., *Recuerdos de un médico navarro*, Iruñea, 1959, 186-194. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, II. libk., 288-289. orr.

A.G.G.



BROUSSAIN SALAGOITY, Pierre

[Hazparne (Lapurdi), 1859.08.05 - Orthez (Pirinio Atlantikoak), 1920.04.27]

Medikuntza Parisen ikasi zuen eta 1899an doktoratu zen *Les manifestations nerveuses de l'alcoolisme* izenburuko tesiarekin. Urte berean Hazparnera aldatu zen medikuntzan jardutera. 1900. urte hasieran euskarazko dotrinaren alde aritu zen modu eraginkorrez, frantses agintariak euskarazkoa baztertu eta frantsesezkoa ezarria baitzuten; 1903an, Hazparneko prefetaren aurka azaldu zen apaizari bere egitekoa euskaraz burutzea debekatu ziolako. Hainbat kargutarako hautatu zuten: Hazparneko udaleko zinegotzia 1904an, alkatea 1905eko irailaren 24an eta Kontseilu Nagusiko kidea 1905eko urriaren 8an. 1908an berriro hautatu zuten eta hil baino lehentxeago berriz izendatu zuten Hazparneko kantonamenduko hautagai Pirinio Apaletako Kontseilu Nagusirako. Euskaltzaindiko lehen hamabi kideetariko bat izan zen eta euskararen batasunaren defendatzaile nagusietarikotzat hartua izan da. 1912an *Cercle d'Etudes Euskariennes* elkarteko buru hautatu zuten. Abertzale joerakoa, Iparraldeko euskaltzale guztiak biltzen jakin zuen.

1978ko apirilaren 16an, omenaldi bat eskaini zioten Hazparneko udalak eta Euskaltzaindiak.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Oñatiko 1918ko Kongresuan esku hartu zuen eta bigarren lehendakariorde izendatu zuten hil zen arte. Ybarnégaray-k ordezkatu zuen.

Argitalpenak

Arturo Campiónekin batera: *Informe sobre la unificación del euskera. Diferentes cualidades de los ocho dialectos de la lengua vasca* (Bilbo 1920); *Discursos*, Bilbo, 1978. Berak utzitako gutun saila guttiz garrantzitsua da XIX. mendearen amaierako euskararen arazoak ulertzeko. Haren artikulua aldizkari hauetan aurki daitezke: *Eskualduna*, *Eskualdun Ona*, *Almanaka*, *Euskera*, *RIEV*, *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, *Argitzalea*.

Bibliografia


"Gure illak: Pierre Broussain", *Euskera* (1920), 33-34. orr.; URQUIJO, J., "Necrológica. F. Baráibar... Pierre Broussain", *RIEV* (1920), 142-147. orr.; AZKUE, R. M., "Documento interesante manuscrito de P. Broussain", *Euskera*, 1930, 229-238. orr.; Z.A., "Pierre Broussainen omenaldia", *Euskera* (1978), 161-179. orr.; XARRITON, P., "Pierre Broussainen", *Jakin* (1978), 108-110. orr.; SAN MARTIN, J., *Bidez, Gure herriko gauzak*, Donostia, 1981; LACOMBE, G., "Correspondance avec P. Broussain", *Bulletin du Musée Basque*, 1982 eta 1985; CHARRITON, P., *Pierre Broussain sa contribution aux études Basques (1895-1920)*, Paris, 1985.

A.G.G.

CABALLERO BASAÑEZ, Carlos

[Gasteiz, 1945.08.10]

Diputatuen Kongresua
Carrera San Jerónimo, z/g
28071 MADRIL
Tel. 913907670




Industria ingeniaria. Gasteizko Politécnico Jesús Obrero-ko irakaslea izan zen, bai eta matematika irakaslea Gasteizko O.H.O.ko Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolan 1972tik 1976ra. 1976-77 ikasturtetik 1997ra, Goi Industria Ingeniariartzako Irakasle Tutorea izan da Gasteizko UNEDen. 1974 eta 1976 artean Gasteizko Olabide ikastolako zuzendaria izan zen. Gero, Iurretako (Bizkaia) LHko zuzendaria, LHko ikuskatzailea Bizkaian eta Irakaskuntza Ertainen erreformaren lehen saiakuntza-proiektuaren arduraduna izan da. 1983tik 1993ra Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko funtzionaria eta Ikas-ekinezko Prestakuntzaren arduraduna (1986) izan zen. 1992tik 1993ra Kultura ordezkaria Araban eta 1995 eta 1997 artean Industria Saileko funtzionaria izan zen. Egun Arabako Diputatua da Madrilgo Diputatuen Kongresuan EAJren aldetik.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1994tik Eusko Ikaskuntzako Idazkari Nagusia da.

Argitalpenak

Introducción a la Historia de Euskal Herria, Madril, 1981; *Euskal Herria Europako komunitatean*, Gasteiz, 1986; *La reforma de las Enseñanzas Medias*, Bilbo, 1986.



CAMARA IZAGIRRE, Aintzane

[Bilbo, 1958.05.04]

EHUko Irakaslegoaren Unibertsitate Eskola
Musika, plastika eta gorputz adierazpenaren Didaktika
Departamentua
Ramón y Cajal, 72
48014 BILBO
Tel. 944761527 Fax. 944761129
E-mail: tmpcaiza@lg.ehu.es.

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean 1981eko uztailearen hiruan. Musikako goi ikasketak eginak ditu Musikologia, Musika pedagogia eta Solfeoa, Akonpainamendu eta Transposizioa espezialitateetan Donostia eta Bilboko Kontserbatorioetan. Halaber, Piano Irakasle titulua lortu zuen Bilbokoan. Musika irakasle gisa jardun du lehen eta bigarren hezkuntzan. Musika Hizkuntza, Musikaren Historia, Folklorea eta Gregorianoa irakatsi du Musika Eskolan eta Kontserbatorioan. 1994-95 ikasturtetik Euskal Herriko Unibertsitateko Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolako irakaslea da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elko Musika Saileko Lehendakaria eta *Musiker*. *Cuadernos de Música* Eusko Ikaskuntzako Musika Koadernoak bildumako Zuzendaria 1996ko uztailearen hamabitik. Bere agintaldian, Errenteriako Musikastearen 25. urteurrenaren kariaz, Miramar Jauregian egindako hitzaldi zikloaren antolaketan hartu zuen parte. Halaber, 1998ko urtarrilean, Bidebarrietako Liburutegian ospaturiko "Bilbo, oroimenezko 700 urte: Bilbo, musika hiria" III. Symposium-aren zientzia batzordekoa izan da. Bestalde, Euskal Kantutegiei buruzko disziplinarteko zientzia batzordean esku hartu du.

Argitalpenak

Cristina Arriaga eta Covadonga Garaizarrekin lankidetzan, *Musika egiten. DBH 3. maila*, Anaya, 1998; Maravillas Diaz eta Begoña Garamendirekin lankidetzan, *Proyecto Curricular de Educación Musical. Educación Primaria*, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, laster argitaratzekoa.

"La música en la educación primaria y en la escuela de música: una constante interacción", *Eufonia*, 1997; "Musiker. Cuadernos de Música", *Nassarre. Revista Aragonesa de Musicología*, XIV, 1998; "Índices y trayectoria del Cuaderno de Música (1983-1998)", *Musiker. Cuadernos de Música de Eusko Ikaskuntza*, 10. zk., 1998.



CAMPION JAIME-BON, Arturo

[Iruñea, 1854.05.07 – Donostia, 1937.08.18]

Oñatiko Unibertsitatean abiatu zituen zuzenbide ikasketak eta, 22 urte zituela, lizentziatura lortu zuen Madrilgo Unibertsitatean. Jurista gisa foralismoa defendatu zuen. Iruñeko udaleko zinegotzia, diputatua Nafarroaren aldetik Madrilgo Diputatuen Kongresuan eta senadorea Bizkaiairen aldetik. Foruzale eta abertzaleen aldeko joerakoa.

1878an *Sociedad Euskara de Navarra* eta *Euskara* aldizakaria (1878-1883) sortu zituzten hamahiruretariko bat izan zen. Halaber, *El Noticiero Bilbaino* egunkariaren sorreran hartu zuen parte. Euskara ikasi zuen 25 urterekin eta Euskaltzaindiaren sortzaile eta Ohorezko Lehendakaria izan zen. Orobat, hainbat akademiatako kide izan zen: *Real Academia de la Lengua Española* (Sección Vasca), *Real Academia de la Historia* eta *Real Academia de las Ciencias Morales y Políticas*. Nafarroako Monumentuen Batzordeko kidea.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Oñatiko 1918ko Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresuan esku hartu zuen eta Elko Ohorezko Lehendakari izendatu zuten eta kargu horretan iraun zuen 1936a arte. Gernikako Eusko Ikaskuntzen III. Kongresuan (1922) Hizkuntzako mahaiburua izan zen Luis de Eleizalderekin batera.

Argitalpenak

Poligrafo honek antzerki lanak, eleberriak, elezaharrak, liburuen historia, kritika, musika eta biografiak idatzi zituen; bestalde, euskara, euskal kultura eta politika gaiak erabili zituen. Hainbat egileren liburuetakoa hitzaurrea idatzi zuen: Emilia Pardo Bazán, Adrián Loyarte, Francisco de Ulacia, Ignacio López de Mendizabal, Eustaquio Miquelez, M. Orreaga, Julio Altadill, Iturralde y Suit eta Francisco Gascue. Haren *Lan Guztien* 15 liburuki argitaratu dira.

Obra gehienak gazteleraz idatzi zituen baina euskaraz ere baditu zenbait. *Orreaga* (1880) izan zen haren lehen euskarazko lana; ondoren, *Okendoren eriotza* (1883) etorri zen. Euskarari buruzko lan ugari ondu zuen: *Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara* (1883); *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* (1884).

Historia lanen artean nabarmentzekoak dira: *Los orígenes del pueblo euskaldun*, Donostia, 1897; *Navarra en su vida histórica*, Iruñea, 1929.

Campiónen eleberriak historia kutsukoak dira ia beti. Nabarmentzekoak dira: *Contrastes*, Iruñea, 1882 (Donostiako Lore Jokoan sarituriko elezaharra); *García de Almorabid*, Tolosa, 1889; *La visión de don Carlos, Príncipe de Viana*, Iruñea, 1889 (Iruñea Hiria Literatura Lehiaketa); *Blancos y negros*, Iruñea, 1898; *La bella Easo*, Iruñea, 1909; *Grazina, Una noche en Zugarra-murdi*, Pedro Mari, *Narraciones vascas*.

Egunkari eta aldizkari askotan aurki ditzakegu haren artikulua: *Amayur*, *El Aralar*, *La Avalanche*, *La Baskonia*, *Boletín de la Comisión de Monumentos de Navarra*, *Diario de Navarra*, *El Eco de Navarra*, *Euskara*, *Euskal Eснаlea*, *Euskal Herria*, *Euskalduna*, *Euskalerraren Alde*, *Eusko Deya*, *Euzkadi*, *Euzkera*, *La Gaceta del Norte*, *Hermes*, *La Ilustración de Alava*, *Lau Buru*, *El Liberal Navarro*, *El Noticiero Bilbaíno*, *La Paz*, *El Pensamiento de Navarra*, *Príncipe de Viana*, *El Pueblo Vasco*, *El tradicionalista*, *La Unión Vasco-Navarra*, *Vida Vasca*. Orobat, *RIEV* aldizkarian esku hartu zuen modu eraginkorrez.

Bibliografia

ALTADILL, J., "El espíritu de Campión", *Euskalerraren Alde* (1930); ZALBA, "El maestro en su taller. Cómo trabaja Campión", *Euskalerraren Alde* (1920); IBARRA, J., *Ilustres navarros de los siglos XIX y XX*, Iruñea, 1945; GARRIGA, "En el centenario del nacimiento de Arturo Campión", *BIAEV* (1954), 85-89. orr.; IRIGARAY, A., "Arthur Campión", *Euskera* (1953), 32-33. orr.; CLAVE-RIA, C., "Un recuerdo a Don Arturo Campión", *Vida Vasca* (1955); AROCENA, F., "Los seis grandes", *BRSVAP* (1958), 455-457. orr.; MUJICA, G., *Los titanes de la cultura vasca*, I. libk., Donostia, 1962, 155-202. orr.; HUICI URMENETA, V., "Arturo Campión. Aproximación a un vasco desconocido", *Muga* 9 (1980), 56-65. orr.; HUICI URMENETA, V., "Ideología política en Arturo Campión", *Príncipe de Viana* (1981), 641-687. orr.; SATRUSTEGUI, J.M., *Arturo Campión, fundador de Euskaltzaindia*, Iruñea, 1984; GRANJA PASCUAL, J. J., "Arturo Campión y la Sociedad de Estudios Vascos", *Cuaderno de Sección, Hizkuntza eta literatura* (1985), 73-93. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, II. libk., 353-358. orr.; DE ANDRES SORALUCE, J. R., GEN, Iruñea, 1990; AULESTIA, G., "Un siglo de literatura vasca", *Revista Sancho el Sabio* 5 (1995), 17-47. orr.; 6 (1996), 13-47. orr.; 7 (1997), 13-77. orr.

A.G.G.



CARO BAROJA, Julio

[Madril, 1914.11.14 - Bera, 1995. 08.18]

Madriren sortu zen, liburuaren munduarekin loturiko familia batean. Aita, Rafael Caro, liburu argitaratzailea zuen, eta ama, Carmen Baroja, idazle familia baten ondorengoa. Bai amak eta Pío Baroja osabak eragin erabakigarria izan zuten haren prestakuntza intelektualean. Osabaren intuitzioa eta literatura-adierazpidea zientzia paradigma bilakatu zituen Juliok.

Caro Barojaren bitzita, berak idatzitako autobiografiaren arabera, hiru ekitalditan garatu zen. Lehena, 1914-1936 bitartekoa, bigarrena osaba Pío 1956an hil zen artekoa eta hirugarrena 1956tik aurrerakoa. Biziguneei dagokienez, hiru seinalatu zituen: Espainia, Madril eta Bera, Euskal Herriaren irudia. Ikuspegi intelektualetik, beste hiru aldi bereizten dira: prestakuntza akademikoa (1942), landa-lan eta lan teorikoaren leherketa (1956) eta, azkenik, produkzio bibliografiko oparoa, aurrez bereturiko oinarrietan eraikia.

1921ean irakaskuntza ertaineko ikasketak egiten hasi zen Madrilgo Instituto-Escuelan eta hamabost urtetan bere aurreneko artikulua eman zuen argitara J. M. Barandiaranek zuzentzen zuen Eusko Ikaskuntzaren *Eusko Folklore Urtekaria* aldizkarian. 1932an Unibertsitatean sartu zen Filosofia eta Letrak ikasteko, Antzinako Historia espezialitatean. Udaldietan indusketa kanpainetan jardun zuen T. Aranzadi eta J. M. Barandiaranekin batera eta Eusko Ikaskuntzaren harremanak estutu zituen orduan. 1936ko gerra zibilak gerarazi zituen haren unibertsitate ikasketak. Azkenik, 1940an Antzinako Historiako Lizentziatura eskuratu zuen, eta 1942an doktoretza, aparteko sariaz. *Universidad Complutense*ko Antzinako Historia eta Dialektologia katedretako laguntzaile plaza batetik ekin zion Unibertsitateko lanbideari, baina 1945ean alde batera utzi zuen bide hori. Irakasle gonbidatu gisa aritu zen zenbait unibertsitatetan (Coimbra, 1957) eta Gizarte eta Ekonomia Historia Saileko Ikasketa zuzendaria izan zen Parisko *Ecole Pratique des Hautes Etudes* (1960). Azkenik, 1981ean, Euskal Herriko Unibertsitateak Antropologia Filosofikoan Katedraduna izendatu zuen eta bertan jarraitu zuen jubilatuta arte. Halaber, 1943an hasi zen *Consejo Superior de Investigaciones Científicas* erakundearekiko harremanetan. 1944an Madrilgo *Museo del Pueblo Español*-eko zuzendari izendatu zuten.

1948an hasi zuen, G. M. Foster-ekin batera, Espainiako eta Amerika Latinoko herri kulturari buruzko azterlan konparatua. Ondoko urtean bere obra onentsuenetariko bat eman zuen argitara: *Los Vascos*. 1940tik 1956ra arteko produkzioan Espainiako herrien antropologia eta etnologiarekin alderdi teorikoak bildu zituen, Euskal Herria modu berezian aztertuz.

Ondoko zikloan, artxibo eta literatura iturriek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuten haren argitalpenetan, izaera historiko-sozialeko obra anitzek ondo erakusten dutenez. Epistemologia eta filosofia gaiak, aldiz, ugaritu egin ziren Julio Caroren bizitzaren azken aldian. Hain zuzen ere, bizitzaren azken aldi horretan bereganatu zuen jendearen ezagutza.

Hainbat zientzia akademiatako partaide izan zen. Euskaltzaindiak bere kide izendatu zuen 1947an, Bartzelonako *Academia de las Buenas Letras*-ek bezala. 1963an Errege Historia Akademian sartu zen, eta 1985ean Hizkuntzarenean. Bestalde, sari eta ohore ugari jaso zuen: *Asturiasko Printzea, Gizarte Zientzietan* (1983); *Espainiako Letretako Sari Nazionala* (1985), *Vianako Printzea* (1995), *Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Giza eta Gizarte Zientzien Saria* (1995).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Unibertsitateko ikaslea zela, harremanetan jarri zen Eusko Ikaskuntzarekin. 1940ko hamarkadan erlazio intelektuala izan zuen Pirinioetako bi aldeetan bizirik zeuden bazkideekin. 1978an Elren indarberritzean esku hartu zuen eta 1981ean *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren (RIEV)* zuzendari izendatu zuten, segur aski haren arduradun kargu irunkorrena, zuzendaritzan jarraitu baitzuen heriotzaraino (1995).

Argitalpenak

Julio Caroren produkzio bibliografikoa izugarri zabala da, zinez: 60tik gora dira liburuak, eta ehundaka artikulua. Produkzio hori ezagutu nahi duenak Antonio Carreirak 1986an argitaraturiko bibliografia zerrendetara jo dezake, Eusko Ikaskuntzak eskaini zion omenaldian aurkeztuak eta RIEVen argitaratuak. *Lur* argitaletxeak euskal gaiei buruzko lan guztiak argitaratu ditu 5 liburutan. Adibide gisa, ondokoak aipatuko ditugu: *Los Vascos. Etnología*. Donostia, 1949. *Vasconiana (De Historia y Etnología)* Madril, 1957. *La hora navarra del siglo XVIII (personas, familias, negocios e ideas)*, Iruña, 1969. *Etnografía histórica de Navarra*, Iruña, 1971, 3 libk. *Los vascos y la historia a través de Garibay (Ensayo de biografía antropológica)*, Donostia, 1972. *Biografías y vidas humanas*, Donostia, 1986.

Bibliografía

1981eko irailean *Triunfo* aldizkarian argitaraturiko autobiografia, "Una vida en tres actos" izenburukoa, funtsezko testua da. D. J. Greenwood-ek haren obra eta ideien analisisa eskaini zuen 1971n eta geroztik azterlan asko kaleratu dira Julio Caroren obrari buruz. Adibide gisa, *Círculo de Lectores*-en B. Porcel-en *Retrato de Julio Caro Baroja* obraren eranskinean azalduko zerrenda ikus daiteke (Bartzelona, 1994).

J.A.Z.

CASTELLS ARTECHE, José Manuel

[Bilbo, 1943.07.27]

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Manuel de Lardizabal 2
20018 DONOSTIA



Zuzenbidean doktore gradua Madrilgo Universidad Complutensean eskuratu zuen aparteko sariaz. Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna 1984tik. EHUKo Idazkari Nagusia (1984-1987). Orobat, Zuzenbide Fakultateko Dekanoa izan da 1982-1983an eta 1987tik 1993ra, bai eta Konstituzio eta Administrazio Zuzenbide Departamentuko Zuzendaria 1981etik 1984ra eta 1994tik 1997ra. Eusko Kontseilu Nagusiko Tokiko Administrazioiko Zuzendaria, Gipuzkoako Foru Diputatua eta lehen Bitariko Transferentzia Batzordeko kidea.

Revista Vasca de Administración Pública-ko zuzendaria. *Documentación Administrativa*, *Revista del Ilustre Colegio de Abogados de Vizcaya* eta *Revista Internacional de los Estudios Vascos* aldizkarietako Idazketa Batzordeko kidea da, bai eta Mc Graw Hill argitaletxeko Administrazio Zuzenbide Sailekoa ere.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Gipuzkoako Lehendakariordea izan da 1993tik 1995era. Azken urte horretatik Zuzenbide Saileko Lehendakaria da eta bere agintaldian hainbat ekimen bultzatu ditu: *Eleria* aldizkariaren sorrera, Ingurugiro Zuzenbide eta Nazioarteko Merkataritza elkarreraginezko masterrak eta Europaren eta Euskal Herriaren arteko harremanei buruzko azterlanak.

Argitalpenak

Las Asociaciones Religiosas en la España Contemporánea. Un estudio jurídico-administrativo, 1767-1965, Madril, Taurus, 1973. *El Derecho de libre desplazamiento y el Pasaporte en España*, Madril, 1974. *El Estatuto Vasco. El Estado Regional y el Proceso Estatutario Vasco*, Donostia, 1976. *La Euskadi Autónoma y los Funcionarios Públicos*, Donostia, 1980. *Reflexiones sobre la Autonomía Vasca*, Oñati, 1986. *Proceso de construcción y desarrollo de la Función Pública Autónoma*, Oñati, 1988. *Cuestiones finiseculares de las Administraciones Públicas, Cívitas*, 1991.



CELAYA IBARRA, Adrián

[Barakaldo (Bizkaia), 1917.05.10]

Elcano, 30-32
48008 BILBO
Tel. 944222452


Bilboko *Escuela Normal*-ean (Irakasle Eskola) ikasi zuen (1933-1936). Sestaon eta Trapa-garanen maisu, 1941etik 1946ra. Zuzenbidea ikasle libre gisa ikasi zuen Valladolideko Unibertsitatean eta Madrilen doktoratu zen. 1946an epaile karrerari hasirik, jarraian eskualdeko epaile, udal epaile eta lehen instantziakoa izan da, bai eta Botere Judizialeko Magistratua eta Kontseilaria (1985-1990) ere. 1951tik 1992ra Zuzenbide Zibileko irakaslea izan zen Deustuko Unibertsitatean. Euskalerriarren Adiskideen Elkartearen Bizkaiko Batzordeko Burua izan zen (1981-1985), bai eta Zuzendaria biurteko batean. Ohore-sari anitz bildu du, hala nola *Gran Cruz de San Raimundo de Peñafort* izenekoak. Gainera, Bilboko kontsula izendatu zuen Merkataritza Ganberak 1990ean, bai eta Kodifikazio Batzorde nagusiko Kide eta *Bizkaitar argia*, Euskal Zuzenbide Zibilaren kodifikazioagatik. Orobat, 1995eko Manuel Lekuona Saria eta 1996ko Sabino Arana Saria jaso ditu.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1978an, J. M. Barandiaran buru zela, Eusko Ikaskuntza berriro abiaraztea helburu zuen batzordeko kidea eta Zuzenbide saileko Lehendakaria izan zen. 1978ko Araudiaren erreforman esku hartu zuen.

Argitalpenak

Conflictos de leyes civiles en Vizcaya, Iruñea, Aranzadi, 1965. *Derecho Civil y Autonómico Vasco*. Tomo I Derecho Civil. Tomo II Derecho Autonómico, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1983-1985. *Comentarios a la ley Vasca de uno de julio de 1992*, Madril, Edersa, 1997.



CHALBAUD ERRAZQUIN, Manuel

[Bilbo]

Haren aitak 1873an erbesteratu behar izan zuen. Pedro Chalbaud senadorea eta Luis Chalbaud jesuita Manuelen anaiak ziren.

Autonomiaren defendatzaile sendoa, Eusko Ikaskuntzatik lan egin zuen Estatutu bat moldatzen. 1919an autonomiei buruzko lege proiekturako lehen batzorde batean esku hartu zuen; egitasmo hartatik sortu zen *Ley de Estatus Regional* izenekoa. Eusko Ikaskuntzaren Lehen Autonomia Batzordeko partaide izan zen eta, Senante eta Oruetarekin batera, foruak itzultzea aztertzen zuen proiektu bat idatzi zuen. 1930eko Eusko Ikaskuntzaren Autonomia Txostenean esku hartu zuen, bai eta 1931ko Autonomia Batzordean eta horren barneko Bizkaiko Azpibatzerdean. Azkenik, Elk 1936ko maiatzaren 31n onartu zuen *Estatuto General del Estado Vasco. Anteproyecto de la Sociedad* txostenaren egileetarikoa izan zen. EAJko kidea.


Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Udal Administrazioa saileko batzordekidea izan zen 1928tik 1932ra. Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresuan, 1918an, "Estabilización de las clases sociales vascas" gaiari buruz hitz egin zuen Politika eta Gizarte Zientziak sailean. "Bilbotarren taldekoa", denbora batez El utzi zuen Eduardo Landeta eta José Villalongarekin batera 1924an, barne antolaketarekin bat ez zetozelako.

Bibliografia

ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos*, Donostia, 1983.

A.G.G.



CHUECA INTXUSTA, Josu

[Lerin (Nafarroa), 1956.01.01]

Aoiz, 6-1º
31004 IRUÑEA
Tel. 948249909

Geografia eta Historian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean 1981ean eta doktorea unibertsitate berean 1994an. Egun, Gizarte Zientziak eta Informazio Fakultateko irakaslea da (Gaur egungo Historia Dptua.).

Instituto de Historia Gerónimo de Ustariz-eko kidea eta *Boletín del Instituto Gerónimo de Ustariz*-eko idazketa batzordekoa. Kultura ministerioak sariztatu zuen 1985ean "Viaje por el Camino de Santiago, tras los pasos de Aymeric Picaud" lanagatik eta 1986an "Pirineos, una montaña, una historia" izenburukoagatik.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Historia eta Geografia saileko lehendakaria da 1996. urtetik.

Argitalpenak

"XVIII eta XIX mendeetan Bidasoako olaen egitura ekonomikoa eta sozialari buruz, hurbiltasun bat", *Príncipe de Viana* (1986), 303-315. orr.; "La guerrilla en Navarra", *El movimiento guerrillero en los años 40*, Madril, 1990; "Nafar tokiko aginteak eta euskeraren borroka, II Errepublikan barrena", *Cuadernos de Sección de Historia* (1990), 45-54. orr.; "José Agerre Euskaltzale eta Abertzale baten oroimenez", *Instituto Gerónimo Ustariz* (1989), 92-97. orr.; "Euskal Nazionalismoak herri nortasunaren Eraikuntzan folkloerari emandako zeregina", *Cuadernos de Etnología y etnografía* (1990); "Erregimen franquistaren aurkako zenbait ekintza eta erakunderen berri", *Boletín de la Revista Gerónimo Ustariz* (1990), 111-119. orr.; "Jostari antzerti talde Nafarra", *Cuadernos de Etnología y etnografía* (1990); "El diario de Navarra, de la conspiración a la guerra", *Comunicación, cultura y política durante la II República y la Guerra Civil*, Bilbo, 1991; "Mujeres antifranquistas en la retaguardia nacional, el caso de Navarra", *La mujer en la guerra civil española*, Salamanca, 1989.

CILLAN-APALATEGUI GARCIA DE ITURROSPE, María del Coro

[Donostia, 1949.09.08]

Miracruz 7, 4º izq.
20001 DONOSTIA
Tel. 943273591



Zuzenbide karrera ikasi zuen Zaragozako Unibertsitatean eta bertan eskuratu zuen lizentziatura (1970.12.31). Madrilgo Universidad Complutensean doktoratu zen "Historia de los reglamentos parlamentarios en España (1810-1978)" tesiarekin (1983.07.8). Bestalde, hainbat diplomaturaren jabe da: Gizarte Graduatua, Soziologia Politikoak, Europako Erakundeak eta Elkarteko Zuzenbidea. Irakaskuntzaren eta administrazioaren artean banatu du lanbide jarduera. Prozedura Zuzenbideko Irakasle laguntzailea Madrilgo Universidad Complutensean (1971-1972), Politika zuzenbideko alboko irakaslea eta laguntzailea Valladolidekoan (1973-1975), Soziologia irakasgaiaren arduraduna Deustukoan (1973-1974), Administrazio eta Politika zuzenbideko tutoria UNEDeko Meridako Zentro Elkartuan (1975-1976 eta 1977-1979), Gizarte Graduatuetako titularrak Oviedoko Unibertsitateko Gizarte Eskolan (1978-1983), Administrazio zuzenbideko bitarteko katedraduna eta Konstituzio zuzenbideko irakasle titular numerarioa Extremadurakoan (1983-1986 eta 1986-1994). Etxebizitza Ministerioaren probintziako Idazkaria Gipuzkoan (1972-1974), Etxebizitza Ministerioaren probintziako Ordezkarria Badajozen (1974-1977) eta Avilan (1977-1978) eta Herri Lanak eta Hirigintzako (1978), bai eta ordezko Epailea Donostiako 2. Epaitegian (1971-1976) eta ordezko Lan Magistratua. Gaur 4. zenbakiko lehen instantziako Magistratu Epailea da Bilbon.

Elkargo askotako kidea izan da, hala nola Europako Zuzenbidea, Euskal Soziologoaren Elkarteak eta Giza Eskubideak. Halaber, Euskalerrriaren Adiskideak Elkarteko Instituto Ibero-ko Lehendakaria izan da (1979-1982 eta 1988-1994), bai eta Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutuko kidea (Oñati).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Zuzenbide saileko lehendakaria izan da 1989tik 1995era, Araudiak Batzordeko kidea eta Zuzenbide saileko Koadernoaren Idazketa Batzordekoa.

Argitalpenak

Sociología electoral de Alava en la II República, Zarautz, Eusko Ikaskuntza, 1984; *Historia de los reglamentos parlamentarios en España*, Madril, Universidad Complutense, 1985; *Las elecciones en Extremadura, 1810-1931, Asamblea de Extremadura. Sistema político y reglamentos del Senado*.

"Elitismo político en Guipúzcoa, 1812-1846", in *IX Congreso de Estudios Vascos. Antecedentes próximos de la Sociedad Vasca actual. Siglos XVIII y XIX*, Bilbo, 1985, 383-386.orr; "Introducción a la I Jornada de Derecho Privado Vasco", *Cuaderno de la sección de Derecho*, 8. zk.



CUNCHILLOS MANTEROLA, Santiago

[Agoitz (Nafarroa), 1882.01.20 - Buenos Aires (Argentina), 1953.01.16]

Zuzenbidea ikasi zuen Zaragozako Unibertsitatean eta Iruñeko abokatuen elkargoko kidea izan zen. Administrazio zuzenbidean espezializatua. 1907an Diputazioko *Jefe del Negociado de Gobernación* kargua lortu zuen oposizio bidez, 1909an Diputazioko idazkari izendatu zuten eta 1913an Diputazioa utzi eta abokatu lanari ekin zion, nahiz eta Diputazioaren aholkulari juridiko gisa jarraitu zuen.

Iruñeko Batzokiaren sorreran parte hartu zuen eta bertako buru izan zen, bai eta *Napartarra* astekarikoa eta *La Voz de Navarra*-koa ere. *Euskal Esnalea*-ko bazkidea. EAJko kidea eta Iruñeko zinegotzia alderdi horrekin 1918ko urtarrilaren 1etik 1923ra (Primo de Riveraren diktaduraren hasiera); 1930ko otsailaren 26an kargu horretaz jabetu zen berriro eta hartan iraun zuen 1931ko apirilaren lehenera arte. Gorteetarako hautagaia izan zen 1918an, diputatu akta lortu ez bazuen ere. 1921etik 1923ra Napar Buru Batzarreko lehendakari izendatu zuten.

1936an Frantziara erbesteraturik, hasieran Parisko *Société Générale d'Etudes et Entreprises* enpresarako lan egin zuen eta gero hegazti etxalde bat ezarri zuen Landetan. 1938an Buenos Aires-era aldatu zen eta han Eusko Jaurlaritzako ordezkari kide izan zen. Herralde hartan *Euzko-Deya* eta *Instituto Americano de Estudios Vascos* izenekoaren sortzaileetarikoa eta haietako lankide izan zen. Erbestean, itzulpen lanetan jardun zuen, hainbat egileren saio eta eleberriz gazte-leratuz: H. Bremond, M. Troplong, Lamartine, René Biot, Raisa Maritain, Georges Renard, J. T. Delos, Louis Josserand, J. H. Louwyck.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetarikoa eta elkartearen bultzatzailea Nafarroan. Oñatiko 1918ko Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresuan Gizarte eta Politika Zientziak saileko batzordekide izendatu zuten Víctor Artolarekin batera, eta kargu horretan iraun zuen 1922a arte. Eusko Ikaskuntzaren Autonomia Batzordeko kide eta horren barneko Nafarroako Azpibatzerdekoa; azkenean, 1931ko maiatzaren 31n, Elk onarturiko Euskal Estatuaren Estatutua. Eusko Ikaskuntzaren Aurregitasmoaren txosten-emailea izan zen

Argitalpenak

Artikulu asko argitaratu zituen Buenos Airesko *Euzko-Deya* eta *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* aldizkarietan historia, zuzenbide, politika eta euskal kultura alorreko gaietaz, hala nola "Un tema de derecho vasco: los eternos segundones" (1951), 13-18. orr. Arturo Campiónen *Blancos y negros* eleberraren Argentinako argitalpenerako hitzaurrea egin zuen.

Bibliografía

"Dr. Santiago Cunchillos Manterola", *Boletín Instituto Americano de Estudios Vascos* (1954), 1-2. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, II. libk., 441-442. orr.; MARTINEZ-PEÑUELA, A., *GEN*, Iruña, 1990; GARCIA-SANZ MARCOTEGUI, A. et alt., *Diccionario biográfico de los Diputados Forales de Navarra (1931-1984) y de los secretarios de la Diputación (1834-1984)*, Iruña, 1998, 376-387. orr.

A.G.G.



DIAZ DE MENDIVIL Y VELASCO, José María

[Gasteiz, 1879 - Gasteiz, 1967]

Nekazaritza Ingeniaria titulua lortu zuen 1902an eta 1905ean *Cuerpo Nacional de Ingenieros* izenekoan sartu zen. *Instituto de Investigaciones Agronómicas del Estado*-ko burua izan zen Araban 1934a arte. Arabako laborantza krisia zela eta, krisi hori eteteko plana agindu zion Errepublikako gobernuak 1933an; horretarako *Estación de Mejora de la Patata* eratu zuen Iturrietan. Arabako zentro horretaz gain, beste hainbat nekazaritza ikerketarako zentro sortu zituen: Riaño (Leon), Burgos, Escarilla (Huesca) eta Santander. Baseriak zergatik husten ziren aztertzen zuen "Exodo Rural" Batzordeko kidea izan zen. 1941ean *Servicio Nacional de Patata de Siembra*-ko lehen presidente izendatu zuten eta, horretaz bestalde, goi karguak izan zituen hainbat erakundetan: *Instituto de Investigaciones Agronómicas*-eko presidentea, *Cuerpo Nacional de Ingenieros Agrónomos*-eko kontseilaria eta *Consejo Superior Agrario*-ko presidentea 1949a arte.

Eskuin katolikoaren aldeko joerakoa, diktadura aldiko Arabako Diputazioko lehen Lehendakaria izan zen 1940tik 1943ra bitartean.

Diputazioko lehendakari izan zen garaian Probintziako Museoa sortu zen eta Arriagako ermita berri zuen. Halaber, *Arte eta Lanbidetako Eskola* eta *El Pensamiento Alavés* egunkariaren eragilea izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Oñatiko 1918ko Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresuan hartu zuen parte Politika eta Gizarte Zientziak sailean, "La ganadería y sus aprovechamientos" lanarekin. 1922tik 1936ra bitartean Nekazaritza Arazoak saileko batzordekide izan zen, eta Eusko Ikaskuntzaren Arabako ordezkari-tzako burua 1922tik 1925era. Alde batera utzi zuen Eusko Ikaskuntzaren Autonomia Batzordeko partaide izateko gonbitea.

Argitalpenak

Nekazaritza gaiez interesaturik, Arabari buruzko artikulu ugari idatzi zuen: *Reconocimiento de los viñedos de la Rioja Alavesa*, Madril, 1917; *Plan de fomento de la riqueza agrícola, forestal, mejora de la vida campesina y protección a la cultura intelectual y física*, Gasteiz, 1940; "La apicultura alavesa en el transcurso del siglo actual", Banco de Vizcayako *Financiera* aldizkarian, 72 zk. (1948), 9-12. orr.; "El progreso de la agricultura en Alava. El cultivo de la patata", *Vida Vasca* (1950), 62-64. orr.; *Ensayos sobre la patata*, Madril, 1954. *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* aldizkarian "Recuerdos del Vitoria de antaño" izenburuko artikulua argitaratu zuen (41-54. orr.), 1945.

Bibliografia

MARTINEZ DE ARTOLA, Alberto, "Mendivil Velasco, José María Díaz de", *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Auñamendi argit.

A.G.G.

DIAZ NOCI, Javier

[Gasteiz, 1964.09.07]

Euskal Herriko Unibertsitatea
Sarriena Auzoa, z/g.
48940 LEIOA
Tel. 946012000 Fax 944648299
E-mail: pdpdinoj@lg.ehu.es



Informazio Zientziak ikasi zituen (Kazetaritza saila) Euskal Herriko Unibertsitatean, 1987an lizentziatura lortuz. 1985etik 1992ra bitartean kazetaritza lanetan jardun zuen hainbat komunikabidetan: *La Gaceta del Norte*, *Deia*, *Radio Vitoria*, *Radiocadena Española*, *Radio Nacional de España* eta *Radio Popular de San Sebastián*, besteak beste. 1992an Historiako doktoretza burutu zuen, horretarako 1834tik 1936ko Gerra Zibila arteko historiari buruzko tesia idatziz. Ondoren Zuzenbidea ikasi zuen aipatu Unibertsitatean, lizentziatura 1996an lortuz. Irakaslea da 1993tik aurrera Gizarte Komunikazio Zientzien Fakultatean, non kazetaritza idazketarekin zerikusia duten gaiak irakasten dituen. 1997az geroztik bere bigarren doktore tesia ari da prestatzen kazetaritza lanaren egile eskubideei buruz, bai eta teknologia berriek horien gain duten eragina aztertuz. Oxford-eko Unibertsitatean *Basque Visiting Fellow* aukeratu dute 1998-1999 ikasturterako.


Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1997az geroztik, Eusko Ikaskuntzako Komunikabidea saileko lehendakaria da. Bere aginte garaian Komunikabide saileko koadernoak, *Mediatika* izenarekin, berrargitaratzeari ekin zioten. 1998an udako ikastaro bat antolatu du Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz, Europako hizkuntza estandarren eraketan komunikabideek duten eragina aztertzeko.

Argitalpenak

Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959), Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1994. *Kazetaritza idazkuntzarako eskuliburua Informazio-generoak*, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1995. *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, Arabako Foru Aldundia, 1995.

Emy Armañazasekin elkarlanean *Periodismo y argumentación. Géneros de opinión*, Bilbo, EHU, 1996. Emy Armañanzas eta Koldo Mesorekin elkarlanean *El periodismo electrónico. Información y servicios multimedia en la era del ciberespacio*, Bartzelona, Ariel, 1996. Koldo Mesorekin elkarlanean, *Medios de comunicación en Internet*, Madril, Anaya, 1997. "Gerra aurreko kazetaritza eta hizkuntza-ereduak", *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, 1994, 791-835. orr. "Los inicios de la prensa vasca: primeros pasos y formas protoperiodísticas (siglos XVII-XIX)", *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 1994, 245-275. orr. "Sociedad y medios de comunicación en lengua vasca en el periodo de entreguerras (1919-1937)", *Revista de Historia Contemporánea de la Universidad de Murcia*, 263-278 orr.



DUO E IZAURIETA, Aniceto

[Plentzia (Bizkaia), 1878 – Bilbo, 1960]

Gurasoak Aniceto Duo Gastañaga, Merkataritza Flotako kapitaina eta Karmen Izaurieta Igartua, Simon de Izaurieta Sertucha, Merkataritza Flotako kapitainaren alaba, izan ziren. Aitagarreba eta suhia kapitainak izan ziren. Aitak nabigazioa utzi eta Bilbon DUO Y CIA merkataritza etxea jarri zuen, bere adiskide Emiliano de Arriaga lagun zuela. Gainera, Bilboko Merkataritza Ganberako sortzaileen arteko bat izan zen.

Aniceto Duok merkataritza ikasketak egin zituen, horiek hamalau urte zituela burutuz, notarik onenekin, eta Espainiako Merkataritza maisurik gazteena gertatu zen. 1915ean "La Aurora, S.A." aseguru konpainiako zuzendari izendatu zuten eta Lehenengo Munduko Gerra zela eta, berraseguruen kalte ordainei inolako arazorik gabe egin zien aurre. Ramon de la Sotak, Bizkaiko Aldundiko Lehendakariak, Bizkaiko Aurrezki Kutxa sor zezan eskatu zion eta erakunde hori bere garaiko gizarte onurarik aurreratuenak lortzeko bidean ipini zuen. Bertako Ohorezko Kontseilari izendatu zuten eta postuari zegozkion lansariak erakundeko funtsetan uzten zituen. Aurrezki Kutxaren eraginez Plentziako zabalunearen betelana egin zen eta, ondoren, frontoia egiteko orubea eskaini zitzaion herriari. Primo de Rivera Diktaduraren garaian Plentziako alkate izateko aurkeztu posibilitateari uko egin zion, Konstituzioa indargabeturik zegoelako.

Hogei eta hogeita hamargarreneko hamarkadetan lehiatz jardun zuen Itun Ekonomikoaren, Merkataritza Ganberaren eta Prebisioko Institutu Nazionalaren gestioetan, bai eta Hiri Jabego Ganbera, Garantia, Kreditu eta Kauzioa tokiko erakundeenetan eta Mexikoko Anahuak-i zegozkionetan ere.

1937ko ekainean Miarritzera erbesteratu zen. Bere ondasun guztiak besterendu zituzten eta milioi bateko isuna ezarri zioten. 1945ean birgaitu zuten. Ondoren, Aurora, S.A. konpainiaren kudeaketa hartu zuen bere gain eta Bigarren Munduko Gerrak sorturiko kalteak ordaindu beharri egin zion aurre, berriro ere. Bilboko frankistak Duo bereganatzen saiatu ziren eta horretarako 1947ko Seguruaren Omenaldiaren kariaz estatuko domina ederra eskaini zioten, baina berak ez zuen horrelakorik onartu.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1922tik aurrera Elkarteko kidea izan zen. 1932tik 1936ra arte, Mea eta Fabrika Arazoak sailleko batzordekidea, lehenago Polikarpo Elosegik eta Joakin Beunzak beteriko postuan alegia. Euskal Estatuaren Estatutu Nagusia idazterakoan partaide izan zen, zeregin horretan Bizkaiko Eusko Ikaskuntzako Batzordean lan eginuz.

Bibliografia

Gonzalo Duok, Eusko Ikaskuntzako Dokumentazio Zentroaren bitartez, eskainiriko informazioa. Gonzalo Duo artxiboa; ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos*, Donostia, 1983.

A.G.G.



ECHEGARAY CORTA, Bonifacio

[Zumaia (Gipuzkoa), 1878 - Durango (Bizkaia), 1956]

Joaquín María de Echegaray Echeandía, Zumaia portuko kapitainaren eta Josefa Corta Eizaguirrenen seme. Carmelo anaiak, bera baino hamahiru urte zaharragoak, aita hiltzean bere gain hartu zuen bi urte besterik ez zituen anaia gaztea. El Escorialen zuzenbidea ikasi ondoren Idazkari Judiziala izateko oposizioak gainditu zituen. Gai Kriminaletako Aretoan, Auzitegi Gorenean, aritu zen idazkari lanetan. Foru Zuzenbideko espezialista egin zen, gai juridikoei buruzko lan ugari idatziz. Euskaltzaindiako euskaltzain oso izan zen, non *Euskal Erriko etheen izenak* hitzaldia emanaz sartu zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Bazkidea 1920tik. 1922an Euskal Zuzenbidea saileko batzordekide izendatu zuten eta horretan jardun zuen 1936a arte. Zuzenbide Saileko ordezkari moduan, 1930ean Eusko Ikaskuntzako Batzar Iraunkorrari bere *Moción sobre el Apéndice Civil del Código Civil* aurkeztu zion. Eusko Ikaskuntzako Autonomia Batzordeko kide izan zen eta, horren barruan, Gipuzkoako Azpibatzerdekoa.

Argitalpenak

Txandaka literatura eta saiakera historikoa landu zituen. Gaztetandik hasi zen *Euskal Erria* eta *Euskalzaile* aldizkarietan idazten, euskaraz poesiak argitaratuz ("Bi choriyak", "Irakurgai chiki bat", "Gaitz-aldea", "Baserriyan", "Malko bat", "Chori gaisoa", "Euskal Erria. Bere oiturak", "Beti, beti euskaldun", "Euskalduna", "Intza", "Gabon", "Birjiña Maria", "Madalen Larraldekoaren azken itzak"). Saiakerak *El Noticiero Bilbaino*, *La Voz de Guipúzcoa* eta *Novedades* agerkarietan publikatu zituen. *Biblioteca Bascongada de Fermín Herrán*-enean ipuin sail bat argitaratu zuen *Cuadros* izenekoa (Bilbo, 1900).

Euskara etengabe landu zuen gaia izan zen. Hori dela eta Euskaltzaindiko kide izan zen eta hainbat lan egin zituen: "Euskaldunak, euskeraz", *Itzaldiak* (1920), Donostia; "Algunas voces vascas usadas en el Fuero General de Navarra", *Euskeraz* (1927); "La pérdida del euskera en Navarra", *Vida Vasca* (1933); "Los supuestos precedentes de los vocablos Euzkadi y Euskaria", *RIEV* (1934), 128-130. orr.; "Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco", *Yakintza* (1924).

Gai juridiko eta historikoei dagokienez titulu andana argitaratu zuen: *La delincuencia infantil*, Bilbo, 1909; *El proceso de la Zamacolada*, Bilbo, 1921; *Aspectos jurídicos de la Zamacolada*, Bilbo, 1921; "La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas", *RIEV*, (1923); "Moción sobre derecho vasco", *Eusko Ikaskuntzaren Deya* (1923); "Significación jurídica de algunos ritos funerarios del País Vasco", *RIEV*, (1925); "Estudio jurídico de los contratos entre copropietarios, patronos, tripulantes y fogoneros", *Asamblea de Pesca Marítima Vasca*, Donostia, 1925; "Algunos aspectos relacionados con la patria y apellido de San Martín de la Ascensión",

Conferencias sobre San Martín de la Ascensión, Vergara, 1928; "Moción sobre Apéndice al Código Civil", *Eusko Ikaskuntzaren Deya* (1930); "Proyecto de creación de un Instituto de Derecho Vasco", *Eusko Ikaskuntzaren Deya* (1932); "Preparación de una historia del País Vasco", *Eusko Ikaskuntzaren Deya* (1932), 15-18. orr.; "La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco", *RIEV* (1933); "Vascos y vascongados", *Bulletin Hispanique* (1943); *Derecho Foral privado*, Donostia, 1950; *Los ritos funerarios en el derecho consuetudinario de Navarra*, Pamplona, 1951; "Notas al margen de la Ordenanza de 1477", *Oñate* (1953); "Eficacia de la Carta Puebla de 13 de septiembre de 1256", *Libro Homenaje a Tolosa*, Tolosa, 1956. *Enciclopedia Universal Espasa-k "Vasconia"* sarrera idazteko enkargua eman zion (Madril, 1929, 67. libk., 148-169. orr.).

Artikulu ugari utzi zuen idatzirik, bestalde, honako agerkari hauetan: *Boletín de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, *Bulletin Hispanique*, *El Día*, *Diario de Navarra*, *Euskal Erria*, *Euskalduna*, *Euskalerraren Alde*, *Eusko Deya* (Buenos Aires), *Eusko Ikaskuntzaren Deya*, *Euzkadi*, *La Gaceta del Norte*, *El Nervión*, *El Noticiero Bilbaíno*, *El Pueblo Vasco*, *RIEV*, *La Tarde*, *Txistulari*, *La Vasconia*, *Vida Vasca*, *La Voz de Navarra*, *Yakintza*.

Bibliografía

AROCENA, F., "Don Bonifacio de Echegaray", *RIEV* (1926), 132-136. orr.; ARROSPIDE E., "Echegaray, Bonifacio jaunaren euskaltzain sarreran irakurritako itzaldia", *Euskera* (1926); INTZIGARAY, E., "Etxegarai'tar Bonifazio euskaltzain berri jaunaren itzaldia Erramon Intzigaray euskaltzain jaunak egin zion erantzumena", *Euskera* (1926); LANDABURU, "Don Bonifacio de Echegaray", *Eusko Deya* (1956); AROCENA, F., "Don Bonifacio de Echegaray. In Memoriam", *BRSVAP* (1957), 74-77. orr.; ARTECHE, J., "Don Boni", *Camino y Horizonte* (1960), 83-88. orr.; GARRIGA, G., "Don Bonifacio Etxegaray y Korta", *Boletín Instituto Americano de Estudios Vascos* (1957), 25-26. orr.; SAN MARTIN, J., *Escritores euskéricos*, Bilbo, 1968; AZPEITIA, J., "Bonifacio de Echegaray", *Euskera* (1978); ARANA MARTIJA, J. A., "Bonifacio Echegaray", *Euskera* (1979), 45-59. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1988, 3. libk., 140-144. orr.

A.G.G.



ECHEGARAY CORTA, Carmelo

[Azpeitia (Gipuzkoa), 1865.07.03 - Gernika (Bizkaia), 1925.11.04]

Joaquín María de Echegaray Echeandía eta Josefa Corta Eizaguirreren semea. Consuelo Echegaray Abascal del Prado bere iloba txikiarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten: Fernando, María Concepción eta Joaquín. Bere anaia Bonifacio Echegaray zen.

1880an aita, Zumaiaiko portuko kapitaina, hil zitzaien eta familia egoera ekonomiko nahiko larrian geratu zen. Urtebete beranduago aitaren anaia batek Santanderrera eraman zuen eta hemen ingeles hizkuntza eta ekonomia politikoa ikasten jardun zuen 1881-1882 ikasturtean; hurrengo urtean frantsesa ikasten aritu zen. 1882an osaba hil zitzaion eta ondoren Zumaiaara itzuli zen, ikasketak etenik utzita.

Zumaiaiko udaletxean idazkari moduan lan egiteko saio batek huts egin ondoren, Gipuzkoako Aldundiko Artxiboan hasi zen lanean. Artxiboaren Eskuliburu bat prestatzeari ekin zion eta ondoren liburutegiko katalogoa erredaktatu zuen, bikoizturik zeuden liburuak banatuz, Idazkaritzako zortzi mila espediente baino gehiago sailkatuz, bestalde. 1891ko apirilean lan mailaz igo zuten Idazkaritzako ofizial izendatuz. Lan horiek egiten ari zela, zenbait ikerlantxo historikori ere ekin zion eta, hori jakinda, Aldundiak Madrilgo artxibo eta liburutegietan zeuden euskal gaiak arakatzeko enkargua eman zion. 1892an Liburutegi Nazionalean, Historia Akademiako Liburutegiko Vargas-Ponce Bilduman ikerketak egiten jardun zuen, hala nola El Escorialen ere, Euskal Herriarekin zerikusia izan zezaketen dokumentuen bila. Ikerketa guzti hauen ondorio izan zen bere lehenengo liburua *Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa*, Gipuzkoako Aldundiak 1893an argitaraturikoa.

Garai horretan Lehiaketa eta Lore Joko zenbaitetan hartu zuen parte. 1882an eskuratu zuen sari bat lehen aldiz, ohorezko aipamena alegia, euskal kondaira bat eta Bilintxen aipamenak egiten zituen sonetoa idazteagatik; ondoren, 1891. urtera arte hainbat sari jaso zituen Iruñea, Markina, Donostia, Bilbo, Aranguren eta Urnietan.

1896an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiek, Bizkaiko Aldundiaren ekimenari jarraikiz, *Cronista de las Provincias Vascongadas* izendatu zuen, bere zereginak honako hauek izanik: Aldundiak jakinaren gainean edukitzea Euskal historiari zegozkion gaiiei buruz, artxiboak eta liburutegiak ongi eraturik mantentzeko behar ziren bitartekoak proposatzea, Euskal Herriarekin zerikusia zuten ikasketak egitea eta Fidel de Sagarmingaren ondorengoek Bizkaiko Aldundiari emaniko liburutegia ikuskatzea.

Euskaltzaindiak 1922ko azaroaren 22an euskaltzain oso izendatu zuen eta 1925ean jabetu zen karguaz *Mogeldarrak eta euskera* hitzaldia emanez.

Marcelino Menéndez Pidalen testamentu-betearazle izan zen eta horren heriotzaren ondoren Santanderreko Menéndez Pidal Liburutegia sortzeari ekin zion.

Jainkoarengan fede handiko gizona, frantziskotar hirugarrendarra izan zen.

Hil ondoren *Euskalerraren Alde* aldizkariak monografiko bat eskaini zion eta ale horretan hainbat idazlek hartu zuten parte: Gregorio Múgica, Arturo Campión, Julio de Urquijo, Serapio

Mújica, Darío de Areitio, Miguel Artigas, Angel de Apraiz. Juan Carlos Guerra, Tomás Gillin eta Bonifacio Echegaray anaia. 1928an Gipuzkoako Aldundiak omenaldi bat eskaini zion eta horren berri *Homenaje a Don Carmelo de Echegaray. Miscelánea de estudios referentes al País Vasco* argitalpenean azaldu zen. 1982an Eusko Jaurilaritzak, Gernikan, Echegarayren liburuekin antolatutako erakusketa prestatu zuen: *Karmelo Etxegarai eta Korta jaunaren lanekin egindako erakusketaren katalogoa*.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Bazkide sortzailea izanik, 1918an "Oñatiko Kongresutik atera behar duen erakunde iraunkorraren araudia" prestatu zuen Angel Apraizekin batera. Historia Saileko batzordekide izendatu zuten, Juan de Allende-Salazarrekin batera. 1922an Literatura Sailera pasa zen eta bertan batzordekide karguan jarraitu zuen, 1925ean heriotza iritsi zitzaion arte.

Oñatiko Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuan, 1918an, hitzaldi bat eman zuen Historia sailaren barne, "Edad Media" izenburukoa.

Argitalpenak

Bere lehen argitalpenak euskaraz idatziriko poemak izan ziren, 1882an *Euskal Herria* aldizkarian agerturikoak, (*Eguzkiya'ren irteera* eta *Bioltxoa*) eta urte horretan berean irabazi zuen lehenengo literatura saria. Euskarazko poesia idazteari ekin zion bizitza osoan zehar, etengabe, eta baditu hamar sari baino gehiago Poesia Lehiaketetan jasoak: *Bilintx biursariaren doaindigoan* (Donostiako Lore Jokoak, 1882); *Pedro Bereterrakoa, gizon illezkorra eta Euskalerrriaren sortzen, Ameriketan iltzen* (Iruñeko Lehiaketa, 1883); *Euskaldunak eta kartagotarrak eta Arrigorriaga* (Donostiako Lore Jokoak, 1883); *Erronkal* eta *Ama Euskerari* (Iruñeko Lehiaketa, 1884); *Itxas gizonen kanta Ama Birjiña Iziarkoari* (Itziarko Beila Lehiaketa, 1884); *Laramendi'ri ikuskera bat* (Donostiako Lore Jokoak, 1884); *Euskalerrria'ri* (Iruñeko Lehiaketa, 1885); *Amabirjiñari Aranzazukoari* (Arantzazuko Amabirjinaren Koroatzea, 1886); *Menditar baten kantua* (Urnietako Euskal Jaiak, 1886); *Nafarroa'ri* (Iruñeko Lehiaketa, 1889). Beste sari literarioak ere irabazi zituen, bai prosan bai saiakeran: *Aitor'en etorrera edo Euskalerrria'ren asiera* (Donostiako Lore Jokoak, 1882); *Andeka* (Donostiako Lore Jokoak, 1883); *Gurasoaren zigorra* (Donostiako Lore Jokoak, 1884); *Malko bedeinkatuak* (Donostiako Lore Jokoak, 1887); *Antxiñako gertaerak* (Donostiako Lore Jokoak, 1888); *Euskaldun bikain bat* (Donostiako Lore Jokoak, 1890); *Kontu zarrak* (Donostiako Lore Jokoak, 1891); *Donostia'ko fueroa* (Donostiako Euskal Jaiak, 1906); *Indalezio Bizkarrondo, Bilintx* (Donostiako Lore Jokoak, 1906); *Donostia'ko Euskal-itx-jostaldien batzarrea* (Donostiako Lore Jokoak, 1908); *Otaegi, euskal-olerkaria* (Hondarribiako Euskal Jaiak, 1925).

Hala ere, eite historikoa duten lanak dira oparoenak eta garrantzitsuenak bere emaitza intelektualean. Izan ere hainbat alor landu zituen: historia, artxiiboak eta liburutegiak, biografia, artea, erlijioa, zuzenbidea. Lehenengoen artean honako liburuak ditu: *Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa*, Donostia, 1893; *Las provincias vascongadas a fines de la Edad Media. Ensayo histórico*, Donostia, 1895; *Trabajos de un cronista*, Bilbo, 1898; *De mi país. Miscelánea histórica y literaria*, Donostia, 1901; *Pablo Gorosabelen "Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa"* obrari egindako erakina, Tolosa, 1901; *Villafraanca de Guipúzcoa. Monografía historikoa* (Serapio Mujikarekin elkarlanean), Ordizia, 1908; *Donostia-ko fueroa (Antso Jakitunak, Nafarroako Erregeak, Donostiari emaniko jendeztatze forua)*, Donostia, 1909; *José María de Iparraguirre*, Gernika, 1913; *Trueba*, Bilbo, 1914; *Trueba, el hogar y los niños* (Tomas Guillénekin elkarlanean) Bilbo, 1925; *De mi tierra vasca*, Bilbo, 1917; *Los bertsolaris*, Ordizia, 1921; *Nacimiento, patria y peregrinación de Juan Ramón de Iturriza*, Donostia, 1920; *Vizcaya en la Geografía general del País Vasco-Navarro*, Bartzelona, 1921; *La Casa de Juntas de Guernica*, Bartzelona, 1922;

Compendio de las Instituciones forales de Guipúzcoa, Donostia, 1924; *Epítome de las Instituciones forales de Guipúzcoa*, Donostia, 1925.

Artxiboei dagokienez honako lanak argitaratu zituen: *Archivos municipales de Guipúzcoa. Orden en que han de ser arreglados y sistema definitivamente adoptado para la organización de los mismos*, Donostia, 1898; *Memoria sobre el archivo municipal de Asteasu*, Donostia, 1902; *Los archivos municipales como fuentes de la historia de Guipúzcoa*, Donostia, 1905; *Informe acerca de los documentos referentes a la historia vasca que se contienen en los Archivos públicos*, Donostia, 1919; *Nacimiento, patria y peregrinación de Juan Ramón de Iturriza y memoria de los archivos y papeles ordenados por él mismo*, Donostia, 1920; *Informe acerca de los documentos referentes a la historia vasca que se contienen en los Archivos de Brujas*, Donostia, 1929; *Inventario del Archivo de Avellaneda*, Bilbo, 1931; *Manuscritos procedentes de la Biblioteca del príncipe Luis Luciano Bonaparte*, Bilbo, 1931.

Erliziozko gaiak ere landu zituen. Bere erlijio joera agerian ipini zuen gaztaroko olerkietan eta, geroago, hainbat hitzaldi eta artikulutan: "Guipuzcoanos ilustres devotos de Nuestra Señora de Aránzazu. Miguel López de Legazpi"; "La democracia cristiana y la Orden tercera de San Francisco"; "El pobre de Asís"; "A María! Traducción de plegaria euskaras"; "Galería de vascongados ilustres en Religión"; "San Francisco y la humildad".

Euskara bera gai izan zuen itzulpen, hitzaldi eta argitalpenetan. Azken hauen artean aipatu beharrekoa *Nuestra protesta* (Euskal Esnalea, 1916), hor euskarak nozitzen zuen jazarpena aldarrikatzen baitzuen.

Aipatu beharra dago, baita ere, Carmelo Echegarayk gai artistikoei buruz zuen interesa. 1908an, hitzaldi bat eman zuen Eibarren, *Artistas Vascos* titulupean. 1914an, *Caligrafos vascos: Juan de Iciar* eta 1914an, Bartzelonan *Monumentos religiosos de Guipúzcoa* eta *Monumentos civiles de Guipúzcoa* argitaratu zituen, geroago, monumentuei buruz, beste artikulua piloa idatziz: "La torre de Mendoza", "Los pasos de Semana Santa en San Sebastián"; "La iglesia de San Salvador de Guetara"; "Pintores vascos: José Ignacio de Echenagusia"; "Relieves de Santa María de Tolosa"; La portada románica de Santa María de Tolosa"; "Una imagen admirable de San Ignacio de Loyola que existe en el Real Seminario de Vergara"; "El Museo del Libro en Bilbao. Adhesión a una idea de fundarlo"; "La riqueza arquitectónica de la tierra guipuzcoana".

Gainera, kulturaren alor ezberdinetako autoreen lanei ere hitzaurre asko egin zien; honako hauei, besteak beste: Francisco de Iturribarria, Martín Aramburu, Antonio Trueba, Juan María Pérez Arregui, Julian Arbulo, Serapio Mújica, Fermín de Uncilla, Tomás Guillín, Juan Iturralde y Suit, Darío de Areitio, Emiliano de Arriaga, Juan Ramón Iturriza, Luis Martínez Kleiser, Lizarralde, Arturo Campión.

Aipatu ditugun lan anitz horiei erantsi beharko litzazkieke egunoroko prentsan eta aldizkarietan azaldutakoak: *El Almanaque*, *La Atalaya*, *El Ateneo de Vitoria*, *Boletín de la Comisión de Monumentos de Vizcaya*, *Boletín de la Real Academia de la Historia*, *Boletín de la Sociedad Española de Excursiones*, *Diario de Navarra*, *La Esfera*, *Euskal Eснаles*, *Euskal Erria*, *Euskalduna*, *Euskalerraren Alde*, *Euzkadi*, *La Fe*, *La Gaceta del Norte*, *El Herald de San Sebastián*, *Hermes*, *El Liberal*, *Movimiento Católico*, *El Nervión*, *El Noticiero Bilbaíno*, *Novedades*, *El Pensamiento Navarro*, *El Pueblo Vasco*, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *La Tarde*, *La Unión Vasconavarra*, *La Vasconia*, *Vida Vasca*, *La Voz de Vizcaya*.

Bibliografia

APRAIZ, A., "D. Carmelo de Echegaray y Eusko Ikaskuntza", *Euskalerraren Alde* (1925), 436. or.; MUGICA, S., "Don Carmelo de Echegaray y la ordenación de Archivos", *Euskalerraren Alde* (1925), 423-424. orr.; CAMPION, A., "Don Carmelo de Echegaray y la historia", *Euskalerraren Alde* (1925); MUJICA, G., "Don Carmelo de Echegaray y el idioma vasco", *Euskal Esnalea* (1925);

MENDIUR, U., "Carmelo de Echegaray", *RIEV* (1925), 558-562. orr.; AROCENA, F., *D. Carmelo de Echegaray y la historia del País Vasco*, Donostia, 1926; GURRUCHAGA, I., "Carmelo de Echegaray. Su influencia en los estudios vascos", *Euskalerraren Alde* (1928), 127. or.; MUJICA, G., "Don Carmelo de Echegaray", *Karmelo Etxegarairi eginiko omenaldian*, Donostia, 1928, 677-688. orr.; AROCENA, F., "Los seis grandes", *BRSVAP* (1958), 455-457. orr.; AROCENA, F., "El primer centenario del nacimiento de Carmelo Echegaray", *BRSBAP* (1965), 419-420. orr.; CALLE ITURRINO, E., *Carmelo Echegaray. Una vida ejemplar y una obra perdurable*, Bilbo, 1966; *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Literatura*, Donostia, 1978, 2 libk., 296-298. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, 3. libk., 144-149. orr.; *Carmelo de Echegaray. Cartas a Serapio Múgica (1899-1925)*, (sarrera eta hitzaurrea Ignazio Telletxea Idigorasena), Donostia, 1987; GOMEZ GOMEZ, A., *El arte románico en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Perpespectivas historiográficas*, Bilbo, 1996, 17-20. orr.; GOMEZ GOMEZ, A., "Los inicios de la investigación sobre el Arte Románico en el País Vasco", *Ondare* 16. (1997), 170. or.

A.G.G.



EGUREN BENGOA, Enrique

[Gasteiz, 1888, - Oviedo, 1944.07.13]

Irakaskuntza Ertaineko Institutuan eta Gasteizko Aita Marianisterenean egin zituen ikasketak. Natura Zientzietako lizentziatura lortu zuen Madrilgo Unibertsitatean eta 1913an doktoretza eskuratu honako tesi honen bitartez: *Estado actual de la Antropología y Prehistoria Vasca. Estudio antropológico del Pueblo Vasco. La Prehistoria en Alava*. 1913an Gasteizko Institutuan irakasle laguntzaile bezala jardun zuen eta 1915ean oposizio baten bidez Botanika eta Mineralogiako katedra lortu zuen Oviedoko Unibertsitatean. 1915etik 1924ra Mineralogia, Botanika, Zoologia Orokorra, Geologia eta Biologiako katedraduna izen zen aipatu Oviedoko Unibertsitatean. Gainera Zientzia Fakultateko dekanu postua bete zuen, bai eta errektore eta errektoreordearena ere, guzti hori Oviedoko Unibertsitatean.

Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria-ko kide sortzailea izan zen. Arabako Historiaurre, Mineralogia eta Petrografiako bilduma sailkatu zuen, Arabako Arte eta Lanbideetako Eskolan, eta Arabako Natura Zientzia Museoaren eraketan parte hartu zuen. 1942tik 1944ra bitarte Asturiasko Aldundiko lehendakariorde izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1918an Oñatiko Biltzarrean partaide izan zen eta Arraza Sailean batzordekide izendatu zuten Telesforo de Aranzadirekin batera, 1934a arte. 1918tik 1920ra arteko Eusko Ikaskuntzen Kongresuetan esku hartu zuen, azkenekoan "Régimen autónomo económico-administrativo de la Universidad Vasca" gaia jorratuz. 1922an Gernikan eginiko Eusko Ikaskuntzen III. Kongresuan, Unibertsitateko mahaiko partaide izan zen Aranzadirekin, Zaragüetarekin eta Apraizekin batera.

Aranzadi eta Barandiaranekin batera hainbat *Memoria* aurkeztu zizkion Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrari, hala nola: *Exploración de seis dólmenes de la Sierra de Urbasa* (1923), *Grutas artificiales de Alava* (1923), *Los nuevos dólmenes de la sierra de Encia* (1922).

Argitalpenak

Bere ikerketak Barandiaran eta Aranzadirenen maila berdinekoak dira, hain zuzen ere horiekin jardun baitzuen 1921etik 1931ra arte: *Exploración de ocho dólmenes en Alzania* (1921), *Exploración de diez y seis dólmenes en la Sierra de Elosua-Plazentzia* (1922), *Grutas artificiales de Alava* (1923), *Exploración de cuatro dólmenes en Belabieta* (1923), *Exploraciones en la caverna de Santimamiñe (Basondo-Cortézubi)* (1925 eta 1931).

Bere argitalpenak etengabekoak dira, 1914an doktore tesia azalduz geroztik: "De la época Eneolítica en Asturias", *Bol. R. Ac. Hª Natural* (1917); "Avance al estudio de algunas de las cuevas artificiales de Alava", *Bol. R. Ac. Hª Natural* (1918); *Régimen autónomo económico-administrativo de la Universidad Vasca*, Donostia, 1921; "El horreo en el País Vasco", *RIEV* (1922), "Los dólmenes clásicos alaveses", *RIEV* (1927); "A propósito de la estirpe vasca de D. Ignacio Boliva y

Urrutia", *Bol. R. Acad. Hª Natural* (1929); "El dolmen de Larraoil y otros datos para la Prehistoria alavesa", *Anuario Eusko Folklore* (1929); "Un motivo etnográfico que puntualiza conceptos", *Euskal-Zaleak* (1934); "Sobre algunos nombres de pájaros", *Euskal-Zaleak* (1935). 1962an azaldu-riko *Estudios geológicos y las derivaciones prácticas* hil osteko argitalpena da.

Bere lanak honako aldizkari hauetan aurki daitezke: *Boletín de la Real Sociedad Española de Historia Natural*, *Real Academia de la Historia*, *REIV*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Euskal Zaleak*, bai eta *La Tarde*, *El Heraldo Alavés* eta *Euzkadi* egunkarietan ere.

Bibliografia

BARRIOLA, I., "Aranzadi, Azkue, Barandiarán, y Eguren", *Homenaje a J.M. de Barandiarán por la Academia errante*, Donostia, 1963, 213-226. orr. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, 3. libk., Bilbo, 1988, 204-206. orr.

A.G.G.



ELEIZALDE BRENOSA, Luis

[Bergara (Gipuzkoa), 1873.06.09 - Bilbo 1923.07.24]

Ikasketak Bergaran hasi zituen eta batxilergoa Zaragozan bukatu. 1899an Zientzietan lizenziatu zen Madrilén. Bizkaiko Aldundiaren Auzunetako Eskolak sortzen lagundu zuen Eduardo Landeta, Praxedes Aransolo eta Juan Gallanorekin batera. Ondoren, oposizio bat gaudituz, matematikako katedra irabazi zuen Gasteizko Institutuan eta bertan segitu zuen lanean Bizkaiko Aldundiak Lehenengo Irakaskuntzako Ikuskari izendatu zuen arte. 1907an RIEVekiko kolaborazioari ekin zion, zeregin hori urte bete beranduago utziz, Julio de Urquijorekin izandako gorabehera batzuk zirela medio, nahiz eta honekiko adiskidantzari eutsi eta elkarri idazten luzaro jardun bazuten ere. 1918an Euskaltzain oso izendatu zuten.

Karlista izatetik euskal nazionalismorako bilakaera izan zuen, Sabino Aranaren eraginez. *Patria*-n kolaboratu zuen eta 1912an *Euzkadi*-ko zuzendari izan zen, batzuetan Iturraín, Azkain eta Axe izengoitiekín sinatuz. 1919an, Araban, EAJko hautagai bezala aurkeztu zen. 1920an, *Aberri* astekariarekin nazionalismoaz eta separatismoaz polemika biziak zeuden boladan, *Euzkadi*-n "Nacionalismo vasco e independencia vasca" artikulua argitaratu zuen, bere burua jarrera separatistetik aldentuz.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1918ko Oñatiko Kongresuko partaide izan zen eta, Julio de Urquijorekin batera, batzordekide izendatu zuten Hizkuntza Sailean. *I. Kongresu* hartan parte hartu zuen Irakaskuntza sailean "El problema de la enseñanza en el País Vasco" lanarekin. 1922an berriro izendatu zuten sail bereko ordezkari. Eusko Ikaskuntzen III. Kongresuan, Gernikan, Hizkuntza Bilkurako mahaiburua izan zen, Arturo Campiónen ondoan. 1930eko irailaren 7an, Bergarako Kongresuan, Euskararen Eguna kari, omenaldia eskaini zioten Euskaltzaleak eratu ekintzen barne.

Argitalpenak

Bere lehen izkribuak Zientzietako ikasketei buruzkoak dira. Hala, 1914an, *Apuntes para una teoría de las figuras circulares* argitaratu zuen Madrilén. Ondoren bere nazionalismoaren aldeko oldarrak euskal mundurantz bultzatu zuen eta, beraz, bere ekintzak euskal kulturari, politikari eta euskarari eskaini zizkien. Azken esparru honi dagokionez hainbat lanen egilea da: "Apuntes de filología comparada", *Euzkadi* (1901); "Acerca de una supuesta irregularidad del verbo euskérico", *Euzkadi* (1915); "Breves notas acerca del euskera de Bergara", *Euzkadi* (1905); "Notas acerca del léxico y de las flexiones simples del OR. Mendiburu en su obra Otoitzgayak", *RIEV* (1907); "Revisión del verbo egoki", *Euzkadi* (1909); "Tratado elemental de la conjugación euskérica de síntesis", *Euzkadi* (1910); *Morfología de la conjugación vasca sintética* (1913); "Metodología para la restauración del euskera" (*Euskal Ikaskuntzako Igo. Biltzarra*, 1918), *La lucha por el idioma propio* (Bilbo, 1919); *Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas* (1922). Sabino Aranaren *Deun-ixendegi euzkotarra edo deunen ixenak euzkeratuta ta ixentzat ezarten dira jayetako ixenan*

(Bilbo, 1919) izenburuko liburuaren hitzaurrea ere berea da. Hainbat lan euskaratu zituen, 1918an elaberri bat ondu zuen *–Landibar–* eta zenbait olerkiren egilea da.

Nazionalismoaren gaiak ere zenbait argitalpen egitera bultzatu zuen: *El nacionalismo vasco y los origenes de la raza vasca*, Bilbo, 1911; *Raza, lengua, nación vasca*, Bilbo, 1911; *Países y razas*, Bilbo, 1914 (*Euzkadi-n azalduko artikulua multzoa*); *Nacionalismo vasco y regionalismo hispano*, Iruña, 1916.

Gainera, artikulua asko argitaratu zituen honako agerkari hauetan: *La Baskonia, Bizkaitarra, Euzkadi, Euskal Etnalea, La Gaceta del Norte, Hermes, RIEV, La Tarde*.

Bibliografia

CAMPION, A., "Raza, lengua y nación vascas, por don Luis de Eleizalde", *RIEV* (1912), 247-261. orr.; URQUIJO, J., "Luis de Eleizalde", *RIEV* (1923), 395-397. orr.; ALTUBE, S., "Eleizalde'tar koldobika'ren", *EID* (1923), 10-12. orr.; VILLASANTE, L., *Historia de la literatura vasca*, Bilbo, 1960, 367-370. orr.; MICHELENA, K., "Mitxelena Jaunaren hitzen laburpena Eleizalde", *Euskera* (1971), 73-76. orr.; AMEZAGA, E., *Nómina de Euskal Herria*, Bilbo, 1975; ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos*, Donostia, 1983; ARRIEN, G., *Pensamiento escolar y autonomía en Vizcaya: escuela vasca y sistemas educativos (1898-1936)*; ARRIEN, G., *La generación del exilio*, Bilbo, 1983; FUSSI AIZPURUA, *País vasco: pluralismo y nacionalidad*, Madril, 1984; CAMINO, I., *Nacionalistas*, Bilbo, 1985, 51-54. orr.; DE PABLO-SANZ LEGARISTI, "El primer nacionalismo en Alava", *Muga* (1986), 66-75. orr.; GARATE, J., "Don Luis de Eleizalde", *RIEV* (1986); GARATE, J., "Don Luis de Eleizalde", *J. Caro Barojari eginiko omenaldia*, Donostia, 1986, 713-718. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1988, 3. libk., 210-213. orr.; GRANJA PASCUAL, J. J., *Koldo Eleizalde (1872-1923)*, Gasteiz, 1993.

A.G.G.

ELETA LARUMBE, Alejo

(Iruñea, 1884.07.17 - Iruñea, 1938.03.21)

Katedraleko Kalonjea eta Iruñeko Elizbarrutiko Ekintza Sozialen zuzendaria. Nafarroako Federazio Katoliko-Sozialeko kide eta Nafarroako Aurrezki Kutxako kontseilaria izan zen, azken honetatik Batzorde kudeatzaile errepublikarrak 1931.ean egotzi zuen arte, berriro 1935ean onartua izateko. Antonio Yoldiren ondorengoa izan zen Seminario Kontziliarreko Soziologiako katedran eta Nafarroako kooperatiben mugimenduaren defendatzailearik sutsuenetariko bat izatera iritsi zen. *Agrupación católica social de patronos y obreros "La Conciliación"* erakundeko zuzendaria ere izan zen. 1912an. Seigarren Aste Sozialeko propaganda batzordeko idazkari izan zen eta bere gain hartu zuen, bai Nafarroako Federaziokio aldizkaria *-La acción social navarra-* bai eta Caja Rural deiturikoen Asanbladan urtero aurkezten zen memoria ere. 1931n, Emilio Román Torioren heriotzaren ondoren Aholkulari postua betetzen hasi zen (apezpikuak izendaturiko apaizarena, alegia, haren ordezkotza izateko laborantza erakundeetan) Nafarroako Federazioan.

1931ko Euskal Estatuko Estatutu Nagusiaren prestatuntzan hartu zuen parte.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1930etik 1934raino batzordekide izan zen Esteban Bilbaorekin batera, Gizarte Azterlanak saillean. Iruñean 1920an eginiko Eusko Ikaskuntzen II. Kongresuan Ibilaldien Batzordea zuzendu zuen. Biltzar horreketan "Bancos populares y cajas de ahorros. Su orientación para mayor ayuda de la clase trabajadora" izeneko lana aurkeztu zuen.


Argitalpenak

Kazetaritzako artikuluak argitaratu zituen: *El Pensamiento Navarro*: "El amigo pobre" (1915-04-02); "Bases y principios del socialismo y socialismo rojo" (1920-03-19); "Las Cajas Rurales" (1920-10-05). 1935ean Nafarroako Federazioko aldizkarian "La Historia del movimiento agrario en Navarra" artikulua idatzi zuen Nafarroako Federazioaren 25. urteurrena ospatzeko.

Bibliografia

AMEZAGA, E., *Autores Vascos*, Bilbo, 1988, 3. libk., 214. or.; PEJANTE GOÑI, J., *GEN*, Iruñea, 1990.

A.G.G.



ELORZA AIZPURU, Julian

[Azpeitia (Gipuzkoa), 1879.01.28 - Donostia, 1964.02.13]

Azpeitian jaio zen 1879ko urtarrilaren hogeita zortzian, familia karlista baten altzoan. Juan José aita, Zuzenbidean Lizentziatua, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Idazkaritzan Ofizial lehena izan zen, bai eta Batzar Karlistetako Idazkaria ere. Fructuoso anaia, jaioterriko Alkatea izan zen (1910-1912 eta 1914-1916), bai eta Idazkaria ere. Julianek seme bakarra izan zuen, José Ignacio.

Julianek batxilergoa Urduñan ikasi zuen, jesuiten Ikastetxean. Ondoren Madrilgo unibertsitatera joan zen eta han Zuzenbideko ikasturte bat burutu zuen, ikasle libre bezala. 1897an, Fructuoso anaiarekin batera, Euskal Herrira itzuli zen ikasketei segida emateko Oñatiko Unibertsitate ireki berrian, hau bigarren gerra zibil karlistan kendua baitzuten eta berriro irekia zen bi urte lehenago. Zentro honetan hiru ikasturte egin zituen eta 1900ean lizentziatura eskuratu zuen bikain notarekin. Ikasketak bukatu ondoren abokatu lanean jardun zuen. Herriko epaile izan zen jaioterrian. Aita bezala karlista izan zen (Jaime de Borbón berak bere erretratua eskaini zion) eta probintziako Diputatua izan zen 1911tik 1919ra arte eta Gipuzkoako Diputazioko Lehendakaria 1919tik 1924ra arte, bai eta 1930ean ere. Izaerari dagokionez elkarrizketarako eta negoziatziarako gaitasun bikainez nabarmendu zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Bere jarduera Eusko Ikaskuntzan ezin garrantzitsuago izan zen 1918-1936 aro osoan. 1918an Eusko Ikaskuntzako Lehen Kongresuaren antolaketan, ordurako hila zen Landáburu, Bizkaiko diputatu probintziala, ordezkatu zuen eta Kongresu honetan aukeratu zuten Elko Lehendakari. Harez geroztik Elkartearen ekintza nagusi guztietako partaide izan zen. Aipagarria da, batez ere, *Estatuto General del Estado Vasco. Anteproyecto de la Sociedad* dokumentuaren erredakzioa lortzeko egin zituen ahalegin nabarmenak. Aurreproiektu hau Elk onetsi zuen 1931ko maiatzaren 31n.

Argitalpenak

Ez zuen monografiarik idatzi, *Euskalerrriaren Alde* eta *Euskal Esnalea* aldizkaritan artikulua argitaratu bazituen ere. Aldiz, Zabala Allende, *El Concierto económico. Qué ha sido. Qué es. Qué debe ser* (Bilbo, 1927) lanaren hitzaurrea berak egin zuen.

Bibliografía

ARCHIVO DE LA UNIVERSIDAD DE OÑATI, Sección C, Cancelaria, Negociado segundo, lista de matrículas. AROCENA, F., "In Memoriam Julian Elorza Aizpuru", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, XX, 1964, 161-163. orr. ARTECHE, J., *La Voz de España*, 1964-II-14. CIRIQUIAIN, *Diario Vasco*, 1964-II-14. LOPETEGUI, L., "Intervención en el homenaje celebrado el día 28 de enero de 1979 en la casa torre de Emparan (Azpeitia), organizado por el Ayuntamiento de Azpeitia y la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, a la memoria de D. Julian Elorza Aizpuru (1897-1964)", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, XXXV, 1979, 229-250. orr. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1988, III.

J.A.M.A.

ELOSEGUI ALDASORO, Jesús

[Tolosa (Gipuzkoa), 1940.06.19]

TERRA, SC
Pl. del Castillo, 28, 4º A
31001 IRUÑEA
Tel. eta Fax 948221773



Biología Zientzietan lizentziatua, 1976an, Nafarroako Unibertsitatean. Lan jarduna bere gain hartuz zoologiaz, naturaren babesaz eta lurraldearen antolamenduz egin ditu azterketak, batez ere Nafarroako Foru Administrazioarako.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Natura Zientziak saileko lehendakaria izan zen 1978tik 1982ra bitarte.

Argitalpenak

Navarra. Atlas de aves nidificantes, Iruña, 1985 (argitaratzaile eta zuzendaria); Guerendiain, OR. Ollo P. eta Redón, F.rekin elkarlanean, *Navarra. Guía ecológica y pasajística*, Iruña, 1980; Ollo, F.rekin elkarlanean, *Navarra, naturaleza y paisaje*, Iruña, 1982.



ELOSEGUI ANSOLA, Policarpio

[Tolosa (Gipuzkoa), 1870 - 1948]

Tolosan jaio zen 1870ean industria lanetan ziharduen familia ezagun baten barnean. Osaba, Antonio Elosegui Lizargarate (1834-1905) "La Casualidad" izeneko txapel fabrika sortu zuen industria gizon ospetsua izan zen. Ideia karlistak zituen, Foru Diputatu eta Tolosako Alkate (1867) hautatu zuten. Senideak, Policarpio bezala, egoera ekonomiko lasaian bizi izan ziren. Antonio (1854-1948) urte askotan txapel fabrikako kudeatzaile izan zen. Hogeigarreneko hamarkadan Gipuzkako Diputazioko Lehendakariordea izan zen. 1934an beste zenbait pertsona ezagunekin batera *El Diario Vasco* sortu zuen eta beste enpresa batzuetako administrazio kontseiluko partaide izan zen. Joaquin (1875-1967), *Banco de Tolosako* Kontseilu sortzaileko kide izan zen. Juan (1867-1952) osabaren txapel fabrikaren zuzendaritzako partaidea izateaz gain, Tolosako Alkatea izan zen. Niceto (1856-1882), bigarren gerra karlistaren garaian, armada karlistaren barnean borrokatu zen, bai eta ofizial maila erdietsi ere. Gainera, poesia landu zuen, bai euskaraz bai erdaraz.

Maria Irazustarekin ezkondu eta hiru seme izan zituzten: Jesús Ramón (1907), *Catálogo dolménico del País Vasco* (1953), idatzi zuena, bai eta *Juan Ignacio Iztueta Echeverría, 1767-1845* (1969) izenburuko ikerlana. Julian, futbolari ezaguna. Eta Pedro (1906), Tolosako historialaria.

Policarpio, bere anaietariko zenbait bezala, osabaren txapel fabrikaren zuzendaritzako partaidea izan zen. Kulturen eta politikagintzan ere jardun zuen. Orfeoiaren (1901) eta Tolosako Ski Clubaren (1909) sortzaileetariko bat izan zen. Ideologiaren aldetik euskaltzaletasunerako joera handiago zuen karlismorako baino. 1913an Tolosako udaletxeko zinegotzia izan zen eta orduan hiri horretan ospatutako euskal jaiak prestatzen lagundu zuen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1992tik 1929ra arte Elko Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen, Mea-Fabriketarako Egitasmoak Saileko batzordekidea izatearen ondorioz. Orientazio eta lanbide irakaskuntza aztertu behar zuen Eusko Ikaskuntzen IV. Kongresuko (Gasteiz, 1926) antolaketa batzordeko kidea izan zen.

Argitalpenak

Berak egindako lana *Euskalerrriaren Alde* obran azaltzen den artikulua batean jasotzen da, Gregorio Mujicaren alde egindako omenaldiaren kariaz argitaratu zena.

Bibliografia

ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983. CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herria*, Donostia, 1991, III, 134-136. orr.

J.A.M.A.

ERKOREKA BARRENA, Anton

[Bermeo (Bizkaia), 1950.11.17]

6.026 Posta kutxa
48080 Bilbo
Tel. 946012000 luz. 2647 eta 2160
E-mail: wtperbaj@lg.ehu.es



Euskal Herriko Unibertsitatean Medikuntza eta Kirurgia lizentziatura lortu zuen 1977an, Salamancako Unibertsitatean Medikuntza eta Kirurgia Doktoretza 1983an eta Madrilgo Sanitateko Eskola Nazionalen Sanitateko Diplomatura eskuratu zuen 1981ean. 1983an unibertsitate ondoko ikasketak egin zituen neurokupunturaren alorrean, bai eta MESTHOKoak medikuntza prebentiboan eta osasun publikoan. 1994az geroz medikuntza familiar eta komunitarioan sendagile espezialista da. Gainera, 1998an ondare historikoaren, artxiboen, liburutegiaren eta museoaren dokumentazioan eta kudeaketan diplomatura lortu zuen, Deustuko Unibertsitatean.

EHUn Osasun Publiko gaiaren irakaslea (1979-1986) eta Medikuntzaren Historiako irakaslea 1986az geroztik. Medikuntzan jardun izan du erakunde publiko eta pribatuetan 1977tik 1997ra arte.

Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren Eskualdearteko Batzordeko kidea da 1987az geroztik, bai eta Medikuntzaren eta Zientzien Historiaren Euskal Museoko zuzendaria 1998tik aurrera. 1983ko Barandiaran bekaren talde irabazlearen zuzendaria izan zen.

Honako aldizkari hauetako Idazketa Batzordekoa da: *Bermeo*, *Etniker-Bizkaia* eta *Cuadernos de Sección Antropología-Etnografía*.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Antropologia eta Etnografia sailekoko lehendakaria izan zen 1988tik 1992ra arte. 1997tik aurrera Bizkaiko lehendakariordea da.

Argitalpenak

Hamabiren bat liburu ditu argitaratuak eta ehunen bat artikulu aldizkari espezializatuetan. Gainera beste zenbait autorerekin batera honako obretan hartu du parte: *El mal de ojo en Euskal Herria*, Salamanca, 1984; *Análisis de la medicina popular vasca*, Bilbo, 1985; *Euskal antropologoak, etnologoak eta etnografoak gaur*, 2 libk., Donostia, 1988; *Contribución al Atlas Etnográfico de Euskalerría. Investigaciones en Bizkaia y Gipuzkoa* (zuz.), Donostia 1988; *Los vikingos en Euskal Herria*, Bilbo, 1995; *Izaro. Historia y tradiciones*, Bilbo, 1997; *Libro de los milagros de la virgen de Orito* (argit.), Alicante, 1998.



ESPARZA SAN JULIAN, Serapio

[Iruñea, 1880 -1968]

Iruñeko udaleko hiri arkitekto izendatu zuten 1914ko apirilaren 15ean. Nafarroako EAJko kidea. 1911n alderdi horretatik aurkeztu zen Iruñeko udal hauteskundeetan. Campión eta Altadillen oroitarrria eraikitzeko proiektua sinatu zuen, Nafarroako independentziaren alde azken babesleku izan zen Baztango Amaiurko gazteluaren defendatzaileen alde. Iruñeko bigarren zabaluneak, 1917an onartu eta 1920an egiten hasitakoak, bera du egile eta horko lanetan etxadi karratuak zituen sare oktagonalararen ohiko eskemari jarraitu zion. Hainbat eraikuntza eraiki zituen Iruñean. Azpimarratzekoak dira: Jai Alai izenekoak, San Agustin kalean, joera eklektikokoa (1908); itxura erregionalista duen txalet multzoa, *Sociedad de Abonos Químicos*-entzat (1912); Salesianoen ikastetxea (1923); Ama Josefinen komentua, ertaro berriko kutsuduna (1924); San Ignacio basilika (1924); Vázquez de Mella ikastetxea, Teobaldo karrikaren 13an, tankera erabat arrazionalistakoa (1934). Iruñeko Gobernu Zibilaren eraiketan ere parte hartu zuen, Victor Eusa eta José Alzugarayekin batera. Iruñeko San Lorenzo karrikan zegoen kapera bat, bestalde, 1923an birmoldatu zuen; eta Iruñeko Aita Erredentoristen eliza Esparzaren proiektuari jarraikiz obratu zuen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1922tik 1926ra arte Arkitekturako batzordekidea izan zen.

Bibliografia

ORBE SIVATTE, A., *Arquitectura y urbanismo en Pamplona a fines del siglo XIX y comienzos del XX*, Iruñea, 1985; ORDEIG CORSINI, J.M., *Diseño y normativa en la ordenación urbana de Pamplona (1770-1960)*, Iruñea, 1992, 104-114. orr.; ORBE SIVATTE, A., "La ciudad de Pamplona, formación y desarrollo", *Arte en Navarra*, Iruñea, 1995; BALDELLON, M. A., *Arquitectura española del siglo XX, Summa Artis*, XL. libk., Madril, 1995, 286. or.; *Catálogo Monumental de Navarra*, Pamplona, 5. libk., Iruñea, 1997.

A.G.G.



ESTORNES LASA, Bernardo

[Izaba (Nafarroa), 1907.05.11]

Izaban jaio zen 1907ko maiatzaren hamaikan. Gurasoak Bernardo Estornés Anaut eta Eleuteria Lasa Anaut izan ziren, beste hiru seme-alaba ere izan zituztenak: Mariano (1909.11.19), José (1913.04.17) eta María del Pilar (1921.04.28). Ignacia Zubizarreta Echaverekin ezkondu zen Bernardo eta bi haur izan zituzten: Idoia (1940) eta Mikel Garikoitz (1947).

Lehen ikasketak jaioterrian egin zituen, ondoren Zaragozara joan zen Merkataritza Irakasle karrera egitearren eta han zegoela euskara ikasi zuen liburuen bitartez. 1929an Donostiara etorri zen bizi izatera eta hemen Eusko Ikaskuntzako Bulego eta Liburutegi Buru karguan jardun zuen. Bere kezka kulturalak, bestalde, Estornés Ikastetxea sortzera bultzatu zuten, non ikasketa komertzialak egiten ahal ziren. 1934an Beñat Idaztiak argitaletxea sortu zuen, bertan emanez hasiera Colección Zabalkundea sailari. Gerra hasi zenean Frantziara joan zen, ondoren Txilera. Bertan, Santiago hiriburua aukeratu zuen bizi tokitzat. Hiri honetan, *Batasuna*, euskal kultura hedarazteko aldizkaria sortu eta kudeatu zuen, honen lehenengo zenbakia 1941ean argitaratuz.

1958an erbestetik itzuli eta berriro Donostiara etorri zen *Auñamendi* Argitaletxea sortuz. Hamar urte geroago *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* sortu eta bizkortu zuen, publizista moduan lan gaitza burutzen zuela. Gaur egun Euskaltzaindiako urgazlea da, bai eta Buenos Airesko *Instituto Americano de Estudios Vascos* erakundeko ikertzailea ere. Donostian bizi da. 1992an Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman zion. Berak sorturiko Auñamendi argitaletxeak badu ituna sinaturik Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean jarduteko.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Bernardok 1929ko irailean José Arana, Idazkaritzako Burua ordezkatu zuen behin-behinekoz eta ondoren, abenduaren 21tik aurrera, behin-betiko Bulego Buru gisa, eta lan horretan jarraitu zuen 1936ra arte. 1933an ikusiz Idazkari Nagusiarentzat ezinezkoa zela zeuden sail guztiak behar bezala koordinatzea, Erakundeak Idazkari Kudeatzailearen kargua sortu zuen eta honek bere gain hartu zuen ordura arte Bernardok zeramatzan funtzio eta zereginen parte bat.

Argitalpenak

Hiru ekinalditan bana daiteke bere argitaratze zeregina. Lehenengoan obra hauek kaleratu zituen: *Erronkari. El Valle del Roncal*, Zaragoza, 1927, *Euskal Idazlastera. Taquigrafía Vasca*, Zaragoza, 1929, *Artistas Anónimos. La talla de la madera y especialmente la de boj*, Donostia, 1930, *El Valle de Erronkari. Arte popular infantil*, Donostia, 1930, *Sabin Euskalduna. Eusko umeei euskaraz irakurtzen erakusteko bigarren liburua*, Zarautz, 1931, *Historia del País Vasco*, Zarautz, 1933, *Resumen bibliográfico vasco*, Zarautz, 1933, *Historia vasca. Euskal edestia*, Zarautz, 1935, *Indumentaria vasca*, Donostia, 1935.

Erbestean hasitako bigarren ekitaldian honako hauek argitaratu zituen: *Estética Vasca. Paisaje-Arte-Belleza*, Buenos Aires, 1952, *Eneko Arista, fundador del reino de Pamplona*, Buenos

Aires, 1959, *El Ducado de Vasconia*, Donostia, 1959, *Orígenes de los Vascos. I. Civilizaciones primitivas. Albores históricos*, Donostia, 1959, *II. Romanización. Testimonio y orígenes de la lengua vasca*, Donostia, 1961, *III. El nombre étnico. Las huellas de los vascos primitivos por el mundo*, Donostia, 1965. *IV. Mensajes orales de las generaciones pasadas. Conclusiones particulares y generales*, Donostia, 1966. *Geografía histórica de la lengua vasca*, 2 libk., Donostia, 1960 eta 1961. *Diccionario gráfico de la Costa Vasca*, Mariano anaiarekin batera egina, 1961. *Antología literaria*, 3 libk., 1964 eta 1967. *Diccionario Auñamendi Español-Vasco*, lehenengo bost liburukiak, Donostia 1965-1975. Marianorekin batera eginak, *Recuerdo de Erronkari (del valle de Salazar y del Almiradío de Nabaskues)*, Donostia 1966 eta *¿Como son los vascos? Estudio comparativo*, Donostia, 1967. *Mundua Euskal Erriaren gogoan. El mundo en la mente popular vasca. Aoz ao gogoratutako kondaira aurea. La Prehistoria contada de viva voz*, Donostia, 1975.

Hirugarren ekitaldian bere lana *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* obraren zuzendaritzan, sustapenean eta artikulu idaztean ezartzen da. Obra horren barne, lau liburuki euskal literaturaren ingurukoak dira: *Literatura*, Donostia, 1969-1974; beste lau *Historia General de Euskalerría* izenburupean biltzen dira. Entziklopedia horretan bere eskuz idatziriko gaiak: "Bilbao", "Euskalerría", "Euskara", "Euskaldunak". Bere azken liburuen izenburua: *Memorias. Recuerdos y andanzas de casi un siglo*. Donostia, 1996.

Bibliografía

ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983. AMEZAGA, E., *Autores Vascos*, Bilbo, 1988, III libk., 295-298 orr. ESTORNES, I., *Premio Manuel Lekuona*, Donostia, 1995.

ETXEBARRIA LEJARRAGA, José Mari

[Amorebieta-Etxano (Bizkaia), 1942.12.19]

Easo, 75
20006 DONOSTIA
Tel. 943474432




Teologian lizentziatu zen Erroman 1968an, eta Filologia Erromanikoan Deustuko Unibertistatean 1975ean. *Etniker Bizkaia*-ko kidea da 1973tik eta *Euskal Herriko Atlas Etnografikoan* parte hartu du. Euskaltzaindiako dialektologia batzordekoa da 1981etik, eta batzordeko idazkaria 1983tik. Urte horretan berean *Euskal Herriko Atlas Linguistikoa* bere ardura-pean hartu zuen taldean sartu zen. 1979-1980 ikasturtetik klaseak ematen ditu Deustuko Unibertsitatean. Ahozko euskara eta euskalkiak izan dira haren ikerketen gai nagusiak.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1987an Hizkuntza eta Literatura saileko idazkaria izan zen, bai eta sail horretako lehendakaria ere 1992tik 1995era.

Argitalpenak

Euskal dialektologiarako testu eta ariketak, 1983; *Euskararen oinarrizko hiztegia*, 1987; *Plentziako bizkaiera 1860an, J. Kruz de Renteriaren liburu ezezagun baten arabera, Hizkuntza eta literatura* (1991), 81-128 orr.; *Léxico rural vasco de Amorebieta, Aingeru Irigarayri omenaldia* (1985), 145-194 orr.; "Euskalerriko atlas etnolinguistikoa deritzan lanari ohar batzuk, RIEV (1986), 147-158 orr. Orobat, hainbat artikulua argitaratu ditu *Eusko Folklore Urtekaria*, *Mundaiz* eta *Enseiucarrean* aldizkarietan.



ETXEBERRIA MONTEBERRIA, Juan José

[Donostia, 1935.10.23]

Juan José Etxebarria y Asociados S. L.
Villa Algorta
Avenida de Satrustegi, 2
20008 DONOSTIA

Deustuko Unibertsitate Komertzialean lizentziatua Ekonomia Zientzietan. Zuzenbide Lizentziatura ere eskuratu zuen Deustuko eta Valladolidideko Unibertsitateetan. Elgoibarko Makina-Erreminten Elkargoko Zuzendaria (1960-1961), *Banco de Bilbao* banketxeko Zerbitzu Zuzendari eta Azpikontadore Nagusia (1961-1969), Bilboko Banku Industrialeko Zuzendari Nagusia (1969-1975), Bankoako Kontseilari Delegatu eta Lehendakaria (1975-1988), Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipaleko Lehendakaria (1988-1990), Txandakako Lehendakari Kutxan (1991) eta Orfeoi Donostiarrako Lehendakaria (1984-1990). Gaur egun Luzaro erakundeko Lehendakaria da (1992), Bankoako Lehendakariordea (1997), ESTEko MBAren Zuzendaria, Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean (1994) eta enpresen estrategian aholkulari.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1978tik 1991ra Elkarteko Diruzaina izan da eta hainbat egitasmo eta ekintzetan partaide, hala nola Joxe Migel Barandiaran bekaren sorrera, Manuel Lekuona saria, Agustin Zumalabe beka. Araudiaren gaurkotze lanetan ere jardun du, hala nola Kongresuen definizioan ere.

FAGOAGA, Jean

[Sara (Lapurdi), 1928.10.20]



Medikuntza Bordeleko Fakultatean ikasi zuen. 1947tik 1957ra xisterako pilotari profesionala izan zen, "joko garbian". 35 urtez medikuntzako lanetan jardun zuen Donibane Lohizunen, jubilatzen arte. Telesforo Monzón hil ondoren errefuxiatuen laguntzarako Anai Artea elkargo humanitarioaren lehendakari izendatu zuten. Sarako alkatea izan da 1971tik 1997ra arte.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1995etik aurrera Eusko Ikaskuntzako lehendakariorde da Iparraldean. Urte horietan lan ederra egin du Eusko Ikaskuntza ezagutarazten eta horri esker sinatu dira hainbat hitzarmen iparraldeko udalekin. Esate baterako hileru antolatzen da hitzaldi publikoa Baionarekin lankidetzan. Denbora gutxi duela Radio France-rekin eta Gure Irratiarekin elkarlanerako hitzarmenak sinatu dira irrati programak prestatzeko. Faculté Pluridisciplinaire de l'Université de Pau et Pays de l'Adour-en dagoen Eusko Ikaskuntzako bulegotik aholkua eta laguntza eskaintzen zaizkie ikasleei.



FERNANDEZ DE LARRINOVA Y DE PABLOS, Kepa

[Bilbo, 1958.04.16]

Escuela Universitaria de Trabajo Social
Los Apraiz, z/g
01006 GASTEIZ
Tel. 945 318 000

Soziologiako Lizentziatura lortu zuen 1980an Madrilgo Unibertsitate Complutensean. 1987tik 1989ra bitartean antropologia sinbolikoan espezializatu zen *University of Western Ontario*-ko (Ontario, Kanada) Antropologia Departamentuan, *Master of Arts* titulua lortuz ondoko tesi honekin: *Basque festivals in the american west: images and identities*. 1992an, *Nekazal gizartea eta antzerki herrikoia Pirinioetako haran batean* doktoretzako tesia defenditu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Zuberoako antzerkia aztertu du Frantziako *Centre de Recherches Sociologiques, Université de Pau et des Pays de l'Adour* ikergunean (1992-1993), bai eta *London School of Economics and Political Science*-an Londresko Unibertsitatean ere (1993-1994). Gaur egun antropologiako irakasle titularra da Euskal Herriko Unibertsitatean eta kultura agerpideei eta landa-garapenari buruzko ikertzenak egiten dihardu Oxfordeko Unibertsitateko *Gizarte eta Kultura Antropologiako Institutuaren Pitt-Rivers Antropologia Museoa*n. Erakunde hauetako kidea da: *European Association of Social Anthropologists; European Society for Rural Sociology*; bai eta *Sociologia Rural* lantaldekoa ere *Asociación Española de Sociología*-ren barne.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Antropologia-Etnografia Saileko lehendakaria izan zen 1995etik 1998ra bitartean eta epe horretan eratu ziren, hain zuzen ere, honako ekitaldi hauek: *Introducción a la antropología del bosque y la montaña* (1995); *Sociedades de montaña* (1996); *Introducción a la antropología de las sociedades pesqueras* (1996); *Introducción a la antropología urbana* (1997); *Antropología de las comunidades pesqueras* (1997); *Antropología del bosque y de las sociedades de montaña* (1997); *Religión y símbolos* (1998). 1991n Angel Apraiz beka lortu zuen Zuberoako antzerkia ikertu ahal izateko.

Argitalpenak

Sociedad rural, desarrollo y bienestar, Iruñea, 1998; *Mujer, ritual y fiesta: género, antropología y teatro de carnaval en el valle de Soule*, Iruñea, 1997; *Intervención y diseños rurales*, Iruñea, 1996. Bere ikerlanean gainera, zenbait literatura sari ere eskuratu ditu: Gabriel Aresti, *Poesía euskaraz*, Bilbo, 1983; San Juan *Poesía Literatur Saria*, Tolosa, 1985; Udaberria, *Poesía euskaraz*, (akzesit), Bilbo, 1986; Bizkaiko Foru Aldundia, *Poesía euskaraz*, Bilbo, 1991. Becerro de Bengoa, 1996, gaztelerazko saiakera saria ere eskuratu du.

FORNELLS ANGELATS, Montserrat

[Gerona, 1953.03.15]

Avda. Sancho el Sabio 21, 9.
20010 DONOSTIA
Tel. 943450872



Artearen Historian lizentziatua, Madrilgo Universidad Complutensean. Artearen Historiako doktoretza eskuratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta museologia ikasketak egin zituen Florentziako Unibertsitatean. Errenazimenduko arteari eskaini dizkio bere ikerlanak, bai eta XIX. mende bukaerako eta XX.aren hasierako Espainiako pinturari ere.

San Telmo Museorearen Adiskideen Elkarteko lehendakaria da, bai eta *International Council of Museums* (ICOM) eta *Comité Español de Historiadores del Arte*-ko kidea ere.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Arte Plastiko eta Monumentalak Saileko lehendakaria izan da 1995az geroztik.

Argitalpenak

Los lienzos de José M^a Sert en la iglesia de San Telmo, Donostia, 1985; *La Universidad de Oñati y el Renacimiento*, Donostia, 1995; *Antonio Ortiz de Echagüe. El pintor y su obra*, Madril, 1991.



FUENTES PASCUAL, Joaquín

[Tutera (Nafarroa)]

Tuteran jaio zen. Bere anaia Francisco (Tutera, 1893-1959), historialari trebe eta apaiz izanak Tutera Santa Ana Seminarioan egin zituen eliz ikasketak (1917), eta geroago Zaragozako Unibertsitatean Filosofia eta Letretako lizentziatura eskuratu zuen (1917). Lanbidez Franciscok irakaskuntzan jardun zuen eta, azkenik Tutera artxibozaina izan zen; lana eta ikerketa historikoak tartekatzen zituen eta horri esker hautatu zuten Real Academia de la Historia kide.

Joaquínek Natura Zientziak ikastea aukeratu zuen, Kimikako Doktoretza eskuratuz. Iruñean bizi izan zen, Galán y G. Hernani hiribideko 15.-2.ean, eta kimika irakatsi zuen hiri horretan.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elko Batzorde Iraunkorreko kide izan zen 1922tik 1932ra, Zientzia Saileko batzordekide gisa. 1931n propaganda eskatu zion Elkarteari, Iruñeko kide kopurua handitu asmoz eta lurralde horretan Elren Ordezkaritza eratu ahal izateko.

1935ean Cilveti jaunak eginiko proposamena onarturik, Ordezkaritza horretako Batzordekide aukeratu zuten; Ordezkaritza hori aipatu urteko maiatzaren 27an eratu zen era formalean. Donostiako *Centro de Estudios Científicos*eko kide izan zen, erakunde hori 1932an sortu baitzen Eusko Ikaskuntzaren babespean asmo jakin batekin, etorkizuneko Euskal Unibertsitateko Zientzietako fakultate bihur zedin, alegia.

Bibliografia

ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1988, III; LLOMBART, J., "El Centro de Estudios Científicos de San Sebastián", *Cuaderno de Sección de Eusko Ikaskuntza de Ciencias Físico-químicas y matemáticas*, 3. zk., 1995, zenbaki monografikoa.

J.A.M.A.

GAINZARAIN CORRES, José

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialeko Aurrikuspen Saileko Buruzagia izan zen. 1926an lanaren domina eskuratu zuen. Donostian bizi izanik ere Bilbora joan behar izan zuen, Bizkaiko Aurrezki Kutxako Zuzendariorde aukeratu baitzuten, bigarren Errepublikaren garaian

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Francisco Horn-ek Ekonomia Azterlanak Saileko batzordekide izendapena onartu ez zuelarik, Gainzarain hautatu zuten horretarako eta, ondorioz, Batzorde Iraunkorrean parte hartzeari ekin zion 1934tik 1936ko gerra hasi zen arte. Eusko Ikaskuntzen Kongresuan (Iruñea, 1920) haur mutualitateei buruzko txosten bat aurkeztu zuen.

Argitalpenak

Bi lan argitaratu zuen guztira: Eusko Ikaskuntzen II. Kongresuan aurkezturiko txostena, "Las Mutualidades infantiles. Seguro dotal y militar", 400-421. orr., eta beharturiko langabeziaren arazoari eta arrantzaleen aseguruari buruzko beste bat, Arrantzaren Batzarrean aurkeztu zuena.

Bibliografia

ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1988, III.

J.A.M.A.



GALARRAGA ALDANONDO, Xabier

Valladolideko Unibertsitatean Ekonomia eta Merkataritza Zientzietako Lizentziatura lortu zuen 1969an. Eskualde Ikerketarako *Master of Arts* baten jabe da, Sussex-Brighton Unibertsitatean (Erresuma Batuan), 1960-1970 ikasturtean eskuratua. Eskualde eta Hiri Plangintzaren Alderdi Ekonomiko eta Sozialak izeneko *Master of Science* bat, Londresko *University College*-n, 1970-1971 ikasturtean lortua. Teoria Ekonomikoan *Master of Arts* bat eskuratu zuen Providence-ko Brown University-n, Rhode Island (U.S.A.), 1974-1975 ikasturtean. Doktoretza Euskal Herriko Unibertsitatean lortu zuen, Politika, Ekonomia eta Merkataritza Zientzietan (Ekonomia Zientzietako adarra) 1980an. 1971tik aurrera Bilboko Enpresa Zientzietako fakultatean irakaskuntzan jardun du eta 1984az geroz Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra da. Bere lan esparruaren jardueran EGINAI, S.A.ko aholkularia izan da, Eskualde eta Hiri Ekonomia eta Garraioa gaiari buruzko ikerketak eginez (1975-1981), hala nola Eusko Jaurlaritzako Plangintza eta Azterlanen zuzendaria (1981-1984). Bestalde, EHUKo Ikerketa Proiektuetan hartu du parte, bai eta Euskal Ekonomilarien Elkargoak edota AENAK (Aeropuertos Españoles) eginikoetan eta bere lankidetzak eskaini die hainbat erakunderi, horien artean Eusko Jaurlaritza, Ogasun Ministerioa, I.N.E., Ekonomia eta Merkataritzako Ministerioa, Industria eta Energiako Ministerioa, Aduanetako Zuzendaritza Nagusia, Banco de España, Europako Komunitateen Batzordea eta komunitate barneko hainbat herrialdeetako eskualde-gobernu.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Gizarte eta Ekonomia Zientziak saileko lehendakaria izan da 1978tik 1980ra eta 1982tik 1984ra.

Argitalpenak

“Las exportaciones y el Desarrollo Regional”, *Vizcaya ante los mercados internacionales*, Bilbo, 1974; “El sistema urbano en la Región Vasco-Navarra”, *Información Comercial Española*, 1972; “Anotaciones en torno a la Coyuntura del País Vasco. Algunos factores condicionantes”, *Localización Económica y desarrollo regional*, 1975; “El medio ambiente en el País Vasco: el caso de la Comarca del Gran Bilbao”, *Servicio de Estudios del Banco Urquijo*, Bartzelona, 1977; “La demanda de cuidados médicos: conceptos básicos y cálculo empírico”, *Información Comercial Española*, 1981; “El actual Fondo de Compensación Interregional: una visión discordante”, *VIII Reunión de Estudios Regionales*, Bilbo, 1984; “Evaluación de la tecnología (Technology Assessment) para peajes electrónicos urbanos en el Area Metropolitana de Bilbao”, *XXIII Reunión de Estudios Regionales*, Valencia, 1997.



GARATE ARRIOLA, Justo (*Eneko, Eneko Mitxelena, Eneko Zilueta, Lelo, Elorregui, Txeru Arriola, Zaldun de Urralagoitia*)

[Bergara (Gipuzkoa), 1900.08.05 - Mendoza (Argentina), 1994.07.02]

1900eko abuztuaren bostean jaio zen, Bergaran, gizarte maila apaleko familia batean. Aita, Benito (Gipuzkoako Elgoibarren jaioa eta Gipuzkoan 1928an hila), Elgoibarko Galburunsoro base-riko morroi zela Ameriketara emigratu zuen eta han hogeitau urte eman ondoren itzuli, aipatu base-riari jaiotako Benita Arriolarekin (Elgoibar, 1878-1920) ezkontzeko. 1901eko abenduan familia Tandil-era (Argentina) joan zen, non aitak abelzaintzan jardun zuen.

Argentinan zenbait urte egin ondoren, 1906an jaioterrira itzuli zen Justo hiru senideekin batera. Bergaran lehen mailako ikasketak egin zituen (1907-1910) Angel Elustiza irakaslearekin eta batxilergoa Bergarako Errege Mintegian kokaturik zegoen Domingotarren Ikastetxean burutu (1911-1917). Hala ere, kontuan hartuz zentru hori pribatua zela, azterketak publikoa zen beste batean egin beharrak zeuzkan eta horretarako Bilboko bigarren irakaskuntzako Institutua aukeratu zuen. Bigarren mailako ikasketa horiek burutu ondoren, Medikuntza ikasteari ekin zion Valladolideko Unibertsitatean. Karrerako lehen bi urteak gairitu ondoren Bartzelonara joan zen 1919an, eta bertan geratu bi ikasturte, garai horretan Angel Apraiz, Aingeru Irigaray eta Telesforo Aranzadirekiko ezagueria eginez. 1921ean Eusko Ikaskuntzan sartu zen bazkide-ikaskale modura. Bitartean bere formazioa osatzen ziharduen Santiago de Compostela eta Madrilgo unibertsitateetan, ikasle libre bezala, lizentziatura 1923an lortuz. Ondoren espezializatzeko zenbait ikasketa egin zituen, Friburgon (1924), Parisen (1925), Berlinen (1926) eta Heidelberg-en (1927) eta, azkenik, Madrilgo Unibertsitatean bere tesi doktora, Berlingo Minbizi Institutuan egina, aurkeztu zuen: "Dos variantes de la reacción de Aberhalden". Medikuntza lana Bilboko Eritegi Zibilean egiten zuen eta hor, 1921ean, barneko ikasle plaza lortu zuen 1924ra arte. 1928an *El Liberal*-eko orrietatik eztabaida gogorra izan zuen *La Gaceta del Norte*-rekin aita Labururi buruz eta honek biologiari eginiko ekarpenaz. Azken urte horretan ohorezko agregatu egin zuten Klinika medikoan eta Itziar Arósteguirekin ezkondu zen. 1933an laguntzaile plaza lortu zuen eta hiru urte beranduago Patologia Orokorra eta Semiologiako irakaslearena, Euskal Unibertsitateko medikuntza fakultatean, bera izanik, bestalde, Unibertsitate horretako sortzaileetako bat.

1931n Eusko Abertzale Ekintzako hautagai izan zen sozialisten eta errepublikarren taldeak aurkezturiko zerrendan. Indar frankisten aurreratzearekin batera erbestaratu beharra izan zuen, Bruselara lehenik (1937.06.17) eta ondoren, Rotterdam-en itsasontzia hartuz, Argentinara. 1937ko abenduaren hamarrean iritsirik, Argentinan doktore titulua onar diezaioten bigarren doktore tesia, "Glucopenias endógenas", aurkeztu behar izan zuen eta hori gairitu eta gero (1938.07.19) bere zeregin profesionalen jardun ahal izan zuen La Platako unibertsitatean. Mendozakoan Patologiako irakasle izan zen, 1954an hasi eta 1965ean erretiratu zen arte, Irakasle Emeritu bezala. Oso gaztetatik, bestalde, txandakatu zituen bere zeregin profesionala euskal historia eta kultura lantzearekin eta, azken alor honetan, bere argitalpenen interes eta trinkotasunari esker, entzute handia erdietsi zuen, epagarriz izanik W. von Humboldt-i buruz egindako analisia. Aberastasun handiko bere liburutegi pribatua Euskal Herriko Unibertsitateak erostu du orain dela gutxi. Erakunde horrek, hain zuzen, lehenago ere aitortua zion bere ikerlana eta horregatik 1982an *Honoris Causa* Doktore tituluz ohoratu zuen. 1987an Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona Saria eman zion. 1991ko urriaren 18an *Caballero de la Orden de Isabel la Católica* izendatu zuten.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrekota partaide izan zen 1932tik aurrera, Medikuntza sail-eko batzordekide aukeratu zutenetik aletia. Erakunde barneko zereginetik ez zuten mugatu bere sailarekin erlazioaturiko gaitara soilki, zeren eta Euskal Unibertsitatea ezartzeko egin ahalegine-tan ere partaidetza garrantzitsua izan baitzuen. 1978ko Biltzarrean sendoturik geratu zen Elren indarberritze zereginetik Garateren partaidetza izan zuten, Agustin Zumalabek eskaintakoarekin batera, bai eta bizirik zirauten 1936ko Batzar Iraunkorrekota beste bost kideenarekin ere, hots, Barandiarán, Lekuona, Irigaray, Irizar e Irujo.

Argitalpenak

Polémica entre El Liberal y La Gaceta del Norte. El padre Laburu en la biología, Bilbo, 1930. *Guillermo de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Bilbo, 1933. *Viaje a Navarra durante la insurrección vasca (1835) por Joseph Augustin Chaho*, Bilbo, 1933. *Ensayos euskarianos*, Bilbo, 1935. *La época de Pablo de Astarloa y Juan Antonio Moguel*, Bilbo, 1936. *Viajeros extranjeros en Vasconia*, Buenos Aires, 1942. *Cultura biológica y arte de traducir*, Buenos Aires, 1943. *El viaje español de Guillermo de Humboldt (1799-1800)*, Buenos Aires, 1946. *Cuatro ensayos sobre España y América*, Buenos Aires, 1951. *Reflexiones críticas acerca de Freud*, Buenos Aires, 1954. *Los colegios de las Vizcainas y Vergara en el siglo XVIII*, Mendoza, 1972. *El carlismo y los vascos*, Donostia, 1980. *La covada pirenaica. Patrañas y fantasías*, Donostia, 1984. Tellechea Idógorasekin elkarlanean, *El Colegio de las vizcainas de México y el Real Seminario de Vergara*, Gasteiz, 1992. *Un crítico en las quimbambas. Autobiografía y escritos*, Bergara, 1993.

Aipatu ditugun liburuak ezezik kontatzen ezinak dira jarraian doazen aldirietan argitaratu zizkioten artikuluetan ere: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *Boletín Americano de los Estudios Vascos*, *Eusko Jakintza*, *Munibe*, *Gernika*, *Príncipe de Viana*, *Fontes*, *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Euskal Etnalea*, *Euzko Gogoia*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Vida Vasca*, *Gure Herria* eta beste.

Bibliografia

GOTI ITURRIAGA, J. L., "Aportación al conocimiento de la vida y obra del Dr. Don Justo Gárate", *Cuadernos de Historia de la Medicina Vasca*, 6, 1988, 25-33. or. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1988, III. CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herria*, Donostia, 1991, V, 142-143. or. *DICCIONARIO histórico de médicos vascos*, Bilbo, 1993. GARATE, J., *Un crítico en las quimbambas. Autobiografía y escritos*, Bergara, 1993. AMEZAGA, E., *El Doctor Justo Gárate, crítico de críticos*, Bilbo, Bilbo Bizkaia Kutxa, 1996.

J.A.M.A.



GARATE GOÑI, Guillermo Alberto

[Donostia, 1943.02.14]

Ekonomia Zientzietan lizentziatua Deustuko Unibertsitatean eta Zuzenbidean lizentziatua Valladolideko Unibertsitatean.

Axular Liburudendaren sortzailea eta Administrazio Kontseiluko lehen lehendakaria da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1993tik Eusko Ikaskuntzako diruzainordea da.

Argitalpenak

El itinerario del recaudador de San Millán, Arabako Aldundia.



GARCIA PEREZ, Mercedes

[Barakaldo (Bizkaia), 1968.10.07]

Grupo Zuberoa, 1, 3gn. eskub.
48980 SANTURTZI
Tel. 944831775-929819418
E-mail: mgarpe@grn.es

Oviedo Unibertsitateko Lizentziatura du Musikologian eta Euskal Herriko Unibertsitatean doktoretza honako tesi honekin eskuratu zuen: *Catalogación y análisis de la producción musical de Resurrección María de Azkue y Aberasturi*. Etnomusikologian zenbait ikastaro egin ditu eta horien graduondoko tituluen jabe da.

Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioan irakaskuntza lanetan jardun du, bai eta Portugaleteko Musika Eskolan, Barakaldoko Kontserbatorioan eta Gasteizko Geografia eta Historia Fakultatean ere. Gaur egun Musika irakasle da Laredoko Bernardino Escalante I.E.I. zentruan. Gainera, Portugaleteko Sorozabal Musika Eskolako zenbait mintegitan "Didaktika musika-la" gaia irakatsi du, bai eta hitzaldiak eman etnomusikologiari eta musikologiari.

Federación Internacional de Juventudes Musicales-eko kidea da, bai eta *Música y Educación* aldizkariako kolaboratzailea eta erredakzio batzordeko kidea Eusko Ikaskuntzako *Jentilbaratz Cuadernos de Folklore* aldizkarian.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Folklore Saileko lehendakaria da 1998ko uztailatik aurrera. Graduazio ondoko *Jakitez* programan hartu du parte 1997an eta 1998an, hala nola "Música-Danza y pedagogía" eta "La danza en la Escuela" ikertze proiektuetan ere.

Argitalpenak

Temas clave en el desarrollo de la Educación Musical para la Enseñanza Primaria, Bilbo, 1997; *Didáctica Musical. Manual para profesorado de Enseñanzas secundarias*, Bilbo, 1997; *Recopilación y análisis de los escritos sobre música popular de Resurrección María de Azkue y Aberasturi*, Bilbo, 1997; "La música popular como materia de composición en la música culta", *Jentilbaratz Cuadernos de Folklore*, 1996; "Propuesta metodológica para la realización de estudios etnomusicológicos sobre el mar en Euskal Herria", *Jornadas sobre el mar y los vascos*, Donostia, 1997; "Encanto y desencanto del trabajo etnológico: hacia una antropología de la música", *Letras de Deusto*, 1997

GARCIA RAMOS, Alfredo

[Donostia, 1950.07.15]

Tel. 943335310 Fax 943332586

E-mail: donostia@araldi.es



Madrilgo Eskolan Estatistika ikasi zuen, eta Universidad Complutenseko kalkulu zentruan ordenagailuen programazioa. Estatistika lanaren industrializazioan metodologia garatu nahirik ikerketa askotako partaide izan da. Maila Ertaineko Teknikoa (1973-1974) eta Invéntica-ko, Azterlanen Zuzendaria (1975-1977) eta Informatika Saileko Zuzendaria (1978-1980) izan da. 1980ko uztailaz geroz Araldiko Zuzendari Nagusia da. 1981etik aurrera *Asociación de Ciencia Regional del País Vasco y Navarra* erakundeko kidea da, eta bertako Zuzendaritza Batzordekoa hurrengo urtetik aurrera. *Sociedad Europea de Proyéctica*-ko kidea 1996az geroz.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Bazkidea da 1982tik, eta 1994tik aurrera Gizarte eta Ekonomia Zientziak saileko Lehendakaria. Bere agintaldian azpimarratzekoa da Zamudion, 1995ean, Zientzia, Teknologia eta Euskal Herriko gizarte aldaketaren ikerketari eskainitako Eusko Ikaskuntzen XIII. Kongresuan izan zuen partaidetza, non lehendakari gisa jardun baitzuen antolaketa lanetan.

Argitalpenak

Evaluación de las estadísticas en Educación, INCIE, 1976. *Estudio sobre la situación de la Mujer en Euskadi*, Kultura Saila, 1982. *Caracterización del flujo de transeúntes que atraviesan España*, Organización Mundial del Turismo, 1997.



GARCIA RAMOS, José Ignacio

[Donostia, 1946.08.23]

Def & Def, Edificio CEIA, 133
Parque Tecnológico de Alava
01510 MIÑAO (Araba)
Tel. 945298800
E-mail: jigr@defdef.com

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua ESTEn (gaurko Deustuko Unibertsitateko Fakultatea) (1972). Aholkularitza lanetan ihardun du hainbat enpresatan. 1980an Eusko Jaurlaritzako Estatistika Zuzendari izendatu zuten eta estatistika produkzio ofiziala diseinatu eta abiarazteari ekin zion EAEn. 1986an EAeko Estatistika Legearen proiektua landu eta defendatu zuen. Hura onarturik, Euskal Estatistika Erakundea, EUSTAT, sortu zen Organismo Autonomo gisa. EUSTATEko Zuzendari eta Euskal Estatistika Kontseiluko Lehendakariorde izendatu zuten (1987-1990), erakunde horrek lehen Estatistika Euskal Egitasmoa onartu zuelarik.

1988an Justizia Lehendakariorde izendatu zuten eta kargu horretan iraun zuen 1991a arte; ondoren, Herri Administrazioarako Lehendakariorde izan zen (1991-1994).

Azken urteotan, Kongresu askotan esku hartu du partaide, txostengile edo antolatzaile gisa.

Egun, Def & Def-eko Bazkide-Zuzendari karguan, edozein motatako enpresetako administrazio lana automatizatzeke teknologia berrien ikerketan dihardu eta horien erabilera bultzatzen du.

International Statistical Institute izenekoaren barne dagoen *International Association for Official Statistics* elkargoko bazkide sortzailea izan zen (1985-1987); *II. Euskal Mundu-Biltzarreko Biztanleriari buruzko Kongresuaren* Antolaketa Batzordeko burua, Gasteiz (1987); Oñatiko Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutuko Batzorde Nagusiko Lehendakaria (1988-1991); *Giza Eskubideak European Kongresuaren* Antolatzailea, Deklarazio Unibertsalaren 40. urtemugan, Eusko Jaurlaritza - Europako Kontseilua, Donostia (1988).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Bazkidea 1978tik. Gipuzkoa ordezkatu zuen Gizarte eta Ekonomia Zientziak Sailean zenbait urtez. 1995ean Elkarteko Dokumentazio Zentroaren Batzorde Nagusiko Lehendakari izendatu zuten 1997a arte eta harez geroztik Eusko Ikaskuntzako Mediatekaren Batzorde Nagusiko burua da. Halaber, Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorreko Akademia Batzordeko kidea da.

Informazioaren Gizarteari eskaini Eusko Ikaskuntzen XIV. Kongresuaren (1997) Antolaketa Batzordeko kidea izan zen.

Argitalpenak

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Ofizialeko hainbat argitalpen bildumaren diseinua eta abiaraztea, 1980-1987 bitartean.

Justizia Administrazioaren alorrean, zenbait obraren koordinatzaile eta egilekidea da: *Modelo Alternativo para la Organización de la Administración de Justicia y Estatuto Profesional de los Cuerpos a su servicio*, Justizia Ministerioa (1990); *Propuesta de Modernización de la Administración de Justicia*, Eusko Jaurlaritza (1991).

GARMENDIA ELOSEGUI, Juan Antonio

[Donostia]

Plaza Zaragoza, 2, 3º
20007 DONOSTIA
Tel. 943426044



1954an Deustuko Unibertsitatean hasi zen ikasten eta Abokatu-Ekonomilari eta Zuzendari lizentziaturak amaitu zituen 1960an Deustuko eta Valladolideko Unibertsitateetan. 1963tik 1964ra bitarte doktoretzako ikastaroak burutu zituen Universidad Complutensean. 1965-67ko tartean Unibertsitate Complutenseko Irakasle Laguntzaile izan zen Zientzia Politikoetako Fakultatean. Kazetaritza ikasi zuen Elizaren Kazetaritza Ikastetxeko *Instituto Social León XIII* erakundearen eta hango zuzendaria izan zen *Unibertsitateko Graduatuaren Egoitzan*. 1967tik 1969ra bitartean *Pío XII.a* izeneko Unibertsitate Ikastetxe Nagusiko zuzendaria izan zen. Donostiako Aurrezki Kutxa Muzicipalaren *Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones* argitaletxeko zuzendaritzaren ardura hartu zuen 1971tik aurrera, lan horretan hogeita bi urte betez. Bestalde, *Biblioteca Dr. Camino* eta *Grupo Dr. Camino de Historia*-ko arduraduna izan zen. 1975ean Zuzendaritzako *Staff* izendatu zuten kultura harremanetarako, bai eta Donostiako Aurrezki Kutxako ekintza kulturaren buru ere. Gipuzkoako aurrezki kutxa biak, 1990ean elkartu eta gero, kutxa berria kultura harremanetarako buru berretsi zuten eta horretan jardun zuen, 1994an jubilatatu zen arte.

1972tik Euskalerriko Adiskideen Elkarteko Adiskide Osoa da. 1997tik Gipuzkoako Sailaren lehendakaria da. Donostiako Orfeoianen Ohoretzko Bazkidea da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1978az geroztik bakidea izanik, 1985an Gipuzkoako lehendakariorde hautatu zuten. Bere lankidetzaren eman zuen Julio Caro Barojari 1987an eginiko omenaldian, bai eta 1988an Manuel Laborderi eskainitako Manuel Lekuona sarian ere.

Argitalpenak

Argazkiak-Fotografías, 5 libk. Donostia, 1986-1990; *Medalla de oro de la Ciudad a la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián*, Donostia, 1975; *100 años al servicio de Guipúzcoa. La Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. 1879-1979*, Donostia, 1979; *Bere eriotzaren mendeurrenean, Iparragirre en el centenario de su muerte*, 1981; *San Sebastián-Donostia. 175 aniversario (1813-1988)*, Donostia, 1988; *Homenaje a José Berrueto*, 1989; "Ignacio Tellechea. Biografía afectiva" *Homenaje a Ignacio Tellechea Idígoras*, Donostia, 1982-83; "Jugos familiares", *Julio Caro Baroja omenaldia*, RIEV (1986), 299-325. orr.; "Un ilustrado vizcaíno en la constitución de Bayona. Gabriel Benito de Orbegozo y Goyoaga. Entorno familiar y social. Sus descendientes" *V Seminario de Historia de la RSBAP*, Donostia, 1996.



GARMENDIA GOYETCHE, Pedro

[Donostia - Bilbo, 1945.11.29]

Donostian jaio zen. Aita, Germán, nafarra zen, Oroz-Betelukoa eta ama Sarakoa (Lapurdi).

Ikasketak Gipuzkoan burutu zituen eta marrazkilaria eta grabatzaile bikaina da. Egin dituen ilustrazio asko bere artikulu batzutan eta Oxobi poetak idatziriko liburuetan aurki daitezke, bai eta beste zenbait obratan ere: Carpentier-en *Tales of a basque grand mother*, Blazy-ren *La pelote basque*, Dop-en *St. Jean de Luz, Petit Paris...* eta Argainen *L' incursion espagnole du 8 octobre 1812 dans le village de Sare*. Aipatu lan horietaz bestalde, oso ezaguna da artxibozain eta liburu-zain bezala buruturiko zeregin profesionallean. Baionako Museoa eta Liburutegia sailkatu eta katalogatu zituen. Luis Luziano Bonapartek bere testamentuan Gipuzkoako Aldundiari utziriko dokumentazioaren katalogoa erredaktatu zuen.

Gerra zibila piztean Sarara (Lapurdi) joan zen, baina 1937an berriro Bilbora itzultzeko, Teófilo Guiardek, udal artxibozain eta liburuzainak, zituen zereginetan laguntzeko asmoz. Guiard jubilatu zenean haren hutsunea bete zuen. Bilboko Alkatearen idazkari izan zen, bai eta Bizkaiko Kultura Batzordekoa, Monumentuen Komisiokoa eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak Bizkaian zuen ordezkariakoa, zeinaren berriztatze lanetan, 1944an, gogor jardun baitzuen. *Real Academia de la Historiako* kidea izan zen (1944). Garai horretan *El Correo Español-El Pueblo Vasco*-ko lankide izan zen eta, igandero zenbait lan argitaratzen ari zela, heriotzak eraman zuen. Bilboko ermitei buruzko lan bat prestatzen ari zen orduan eta, hil ondoren, bere adiskide Javier Ibarra Bergék eman zuen argitara.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Ikusiz Angel Apraiz, Idazkari Nagusiari sail guztiak behar bezala koordinatzea ezinezkoa zitzaiola, Elk Idazkari Kudeatzailearen postua sortu zuen eta Pedro Garmendiak bere gain hartu zuen, eguneroko jardunean Bulegoko Buruak ordura arte betetzen zituen zereginak burutuz. 1933ko urtarrilaren 16an hartu zuen lan berriaren ardura, bai eta horretan segitu gerraren eztanda iritsi artean. Idazkari Kudeatzaileak egiten zuen lanaren garrantzi garbia honetan datza, alegia 1935ean Eusko Ikaskuntzan hobekien ordainduriko pertsona bera izan zela, Idazkari Nagusiak jasotzen zituen urteko 6.000 pezetak, 4.000tan gainditu baitzituen. Euskara ongi menderatzen zuenez, 1934an epai mahaiko kide aukeratu zuten, Eusko Ikaskuntzaren izenean euskal hizkuntzaren ezaguera ziurtagiriak eman zitzaizkion.

Argitalpenak

Bibliografía de las obras de D. Telesforo de Aranzadi, Donostia, 1935.

Hainbat artikulu argitaratu zituen ondoren aipatzen diren aldizkarietan: *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País*, *Yakintza*, *Bulletín du Musée Basque*, *Gure Herria*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Vida Vasca* eta *Revista Internacional de los Estudios Vascos*.

Gainera, *La Voz de Navarra*-n ere idatzi zuen, baina bereziki *El Correo Español-El Pueblo Vasco*-n.

1950ean Javier Ybarra Bergék lagunaren lanak jasotzen zituen liburua argitaratu zuen *La obra de Pedro de Garmendia*, Bilbo, 1950.

Bibliografia

VEYRIN, PH., "Pedro de Garmendia", *Bulletín du Musée Basque*, 1931, VIII, 73-77. orr.
"Pedro de Garmendia y Goyetche", *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1945, I, 441-442. orr. IBARRA BERGE, J., "Pedro de Garmendia", *El Correo Español*, 1945-XII-6. –*La obra de Pedro de Garmendia*–, Bilbo, 1950. A. M. de I., "Nota necrológica", *Boletín Americano de los Estudios Vascos*, 1951, 5, 46. or. ALZOLA, N., "Sarako Piarres Garmendia", *Egan*, 1966, XXV, 132-133. orr. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, IV.

J.A.M.A.



GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan

[Tolosa (Gipuzkoa) 1926.07.12]

Nagusia, 1, 1º
20400 TOLOSA
Tel. 943670919

1943an Merkataritza Peritajea bukatu zuen Donostian eta 1983an Geografia eta Historiako lizentziatura lortu zuen Deustuko Unibertsitatean. 1984an Euskal Herriko Unibertsitatean doktoretza lortu zuen Antropologia Filosofikoan. Deustuko Unibertsitate horretan doktoretzako ikastaro batean (1987-1988) jardun du honako gaia irakasten: "Etnografia vasca: ritos, celebraciones, profesiones". Lizardiri eta Orixeri Tolosan eginiko omenaldietan, 1961ean eta 1963an, hurrenez hurren, Antolaketa Batzordeko kide izan zen. 1979an Pío Caro Barojak zuzenduriko *Guipúzcoa* dokumentaleko kolaboratzaile nagusia izan zen.

Laskurain (1967) ikastolako eta *Lizardi Kultura Elkartea* (1968) Erakundeetako, biak ere Tolosakoak, bazkide sortzailea da. Gipuzkoako Aldundiko Kooperazio Batzordean Artisautza Saileko Lehendakaria (1971), Akademia Ibiltariko kidea (1972), Euskaltzaindiko Urgazlea (1975), Aranzadi Zientzi Elkarteko kidea (1978), Eusko Kontseilu Nagusian Artxibo eta Liburutegien Idazkaritza Teknikoaren partaidea (1978), bai eta San Telmoko eta Okendo Etxeko Udal Museoaren Patronatuko Batzordeko kidea ere (1980).

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Adiskide Osoa (1981). Bestalde, batzordekidea da hainbat erakundetan: RSBAPeko Gipuzkoako Batzordea (1985), Euskal Idazleen Elkartea (1982). "Loyola 91" Elkarteko Zuzendaritza Batzordea (1989), Euskal Herriko Gaur egungo Historiaren Dokumentazio Zentroko Aholku Batzordea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Lurralde Kontseilua (1996), Gipuzkoako Foru Aldundiko Artisautza Gipuzkoarraren Kontseilua (1997) eta Barandiaran Fundazioko Patronatua (1997).

Jarraian doazen Idazketa Batzordeetako partaidea da: *RIEV*, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, *Sancho el Sabio: revista de investigación y cultura vasca*, *Egan: suplemento literario del Boletín de la RSBAP* eta *Anuario de Eusko Folklore*.

Tolosako *Sociedad Txinpartak* urrezko domina eman zion 1973an eta 1977an Tolosako Udalak omendu zuen. 1985ean C.I.T. erakundeak eta Tolosako Sozietate eta Peñek *Iñauterietako Bikaina* izendatu zuten. 1995ean *Euskal Idazleen Elkarteko* Ohorezko Batzordekide izendatu zuten, ondorengo urtean Eusko Ikaskuntzako eta 1998an *Tolosako Seme Kutun* izendatu zuten.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1981etik 1993ra arte Idazkari Kudeatzailearen kargua bete zuen. Donostiako Aurrezko Kutxa Muzipaleko partaidea izan zen Gizarte Ekintzetako Batzordean, Elko ordezkariarekin, 1981ean. Eusko Ikaskuntzen IX. Kongresuan Antolaketa Batzordeko partaidea izan zen: *Gaurko euskal gizartearen sorburu hurbilak (XVIII eta XIX. mendeak)* (Bilbo, 1983); gauza bera Eusko Ikaskuntzen X. Kongresuan: *Artxiboak, Bibliotekak eta Museoak* (Iruñea, 1987); eta berdin Eusko Ikaskuntzen XI. Kongresuan ere: *Kultura antolabide berriak: Euskal Herria y Europa* (Donostia, 1991).

RIEV barruan honako postu hauek bete ditu: Koordinatzailea (1981), Idazkari Teknikoa (1994), Zuzendaria (1996) eta Idazkari Aholkuemailea.

1996an Eusko Ikaskuntzako Ohorezko Bazkide izendatu zuten.

Argitalpenak

Berrogei liburu baino gehiago eta lauhun eta berrogeita hamar artikulua eman ditu argitara. 1997 eta 1998an *Haranburu Editor* etxeak bere obra guztia osatuko duten zortzi liburukietatik zazpi argitaratu dizkio: *Euskal Herria. Etnografia, historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa*.

Bere lanen artean honako hauek daude: *Monografía histórica de la villa de Tolosa* (Federico Zavalarekin elkarlanean), Donostia, 1969; *Euskal esku-langintza*, 1, 2, 3, 4, 5 eta 6. libk., Donostia, 1970-1980; *Iñauteria*, Donostia, 1973; *Gremios, oficios y cofradías en el País Vasco*, Donostia, 1979; *Ritos de solsticio de verano. Festividad de San Juan Bautista*, Donostia, 1987; *Léxico etnográfico vasco*, Donostia, 1987; *Costumbres y ritos funerarios en el País Vasco: del siglo XVI a nuestros días*, Donostia, 1991.



GIL ZUBILLAGA, Eliseo

[Gasteiz, 1961.08.02]

Lurmen S.L.

Domingo Beltrán, 17-5º ezk.

01012 GASTEIZ

Tel. 945-289781 eta 608-285278

Geografia eta Historian lizentziatua (Historia Saila) Euskal Herriko Unibertsitatean. Arkeologia, Historia eta Arte Ondareari buruzko Masterra lortu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Indusketa eta ikerketa proiektuak zuzendu ditu Euskal Herriko arkeologia gune zenbaitetan, hala nola, Atxako (Gasteiz) bizitoki indigena eta erromatar kanpamendua, Albako egoitza (Albeiumendi, Durruma Donemiliaga), Uraldeko (Trebiño) zabortege multzoa, Biasteri landa asentamendua, bai eta Iruña/Veleiako (Oka Iruña) bizitoki indigena eta erromatarren garaiko hiria. Arkeologia zuzendari lanetan jardun du, baita ere, Gasteiz eta Dulantzi barruan erdi aroko zenbait orubetan; landa ingurune esparrutan, erdi aroko San Martingo (Fontetxea) nekropolisean; hobi itxurako Brontze Aroko biltegietan, Peratxon (Kripan); eta San Juango (Buradon Gatzaga) Brontze Aroko asentamenduan. Komisarioa izan da Arabako Arkeologia Museorentzat eginiko erakusketa hauetan: "Atxa: poblado indígena y campamento militar romano" eta "Alava en época romana". *Instituto Alavés de Arqueología*-ko lehendakariordea da; *Tabula-Estudios de la Antigüedad*-eko lehendakaria; *ICOM-Consejo Internacional de Museos*-eko kidea; *SFECAG-Société Française d'Étude de la Céramique Antique en Gaule*-ko kidea; *Instrumentum-European Working group on ancient crafts and manufactured products of Antiquity*-ko kidea.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Arabako Lehendakariorde aukeratu zuten 1993-1995ko tartean eta 1995-1996koan ere. Onda Cerok eta Radio Vitoriak eginiko irratsaioetan Eusko Ikaskuntzak burutzen duen irrati programaren koordinatzailea da. Micaela Portilla doktorea hautagai aurkeztu zuen Lekuona Sarirako. Euskal Herriko erromanizazioari buruzko Lehen Nazioarteko Solasaldiaren koordinazioaz arduratu zen, hala nola, hortik sorturiko Aktak editatzeaz ere (Isturitz bilduma, 1998). 1997tik aurrera Eusko Ikaskuntzako Idazkariorde izendatu zuten. *Jakitez* programan, Eusko Ikaskuntzak eraturiko Euskal Kulturaren graduazio ondoko ikastaroetan irakasle bezala parte hartzen du, erromatar arkeologiari buruzko ikasgaiak emanez.

Argitalpenak

Atxa. Memoria de las excavaciones 1982-1988, Gasteiz, 1995; *La romanización en Alava. Catálogo del Museo de Arqueología de Alava*, Gasteiz, 1998; "Algunos elementos metálicos de equipo militar romano en Alava", *Estudios de Arqueología Alavesa* 17. (1990) 145-165. orr.; "Protohistoria y Antigüedad", *Vitoria-Gasteiz en el Arte*, Gasteiz, 1997; "Las producciones de G.Val.Verdullus y las relaciones entre Calahorra (La Rioja) y Viana (Navarra) en época romana", *Kalakorikos* 2 (1997), 23-42. orr.

GOIRIENA DE GANDARIAS Y DE GANDARIAS, Juan José

[Gasteiz, 1947.07.27]

Hurtado de Amezaga 20, 6°
48008 BILBO
Telf. 944419328




Medikuntza eta Kirurgia ikasi zituen Salamancako Unibertsitatean (1965-1970) eta han esku-ratu zuen lizentziatura 1970eko uztailean. Bere doktore tesia prestatzen ziharduela Genebako (Suiza) Beckman zentroan egon zen, Sussman doktorearekin, Bilboko Unibertsitatean eskuratzuz doktoretza (hain zuzen ere, 1978an jaiotako EHUKo gun zentrallean). 1970etik gaur arte irakas-kuntzan eta ikerketa lanetan jardun du Oviedoko, Murziako eta Euskal Herriko unibertsitateetan. 20ren bat tesi doktoral zuzendu ditu eta zuzentzen ari da. Euskal Herriko Unibertsitatean, irakasle izateaz kanpo kargu kopuru handia bete du: Medikuntza Fakultateko Idazkaria (1974-1975); Errektoreordea Antolaketa Akademikoan (1980-1984); Errektorea (1991.10.30-1996.01.17) eta gaur egun Medikuntza Fakultatean Fisiologiako Katedradun Numerario da. 1984ko uztailetik 1987ko maiatz arte, bestalde, Osasun eta Kontsumo Kontseilarioordea izan zen Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Segurantzako Sozialako Sailean. Gainera, gaur egun Zientzia Medikoen Akademiako Diruzaina da (1974tik). Euskal Herriko Medikuntzako Errege Akademiako kidea da, bai eta Europako Zientzia eta Arteen Akademiako (Salzburgo, Austria) kidea ere.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1996an Elko Lehendakari hautatu zuten eta gaur egun ere kargu hori betetzen dihardu.

Argitalpenak

Bartolozzi eta Barahonarekin elkarlanean: *Enzimopatias Genéticas en Oftalmología*, Madril, OR.C.S.A., 1971; Ainz, F-rekin elkarlanean, *Hematies*, 1975; *La salud del año 2000: Discurso para la recepción pública del Académico electo*, Bilbo, Real Academia de Medicina del País Vasco, 1992; Gandarias, J. M.rekin elkarlanean, "Pletismografía de impedancia en TVP", *Beckman Information*, 1977, 77. libk., 19-26. orr.; Gandarias, J. M. eta beste zenbaitekin batera, "Efecto de algunos derivados de adenina sobre la secreción gástrica", *Revista Española de Fisiología*, 1985, 41 libk., 83-85. orr.; Gandarias, J. M. eta beste zenbaitekin, "Effect of thyroid hormones on Nucleotidase of isolated rat fail cells", *Enzyme*, 1992, 46. libk., 229-233. orr.



GONZALEZ DE DURANA ISUSI, Javier

[Bilbo, 1951.01.11]

Sala Rekalde
Alameda de Recalde, 30
48009 BILBO
Tel. 944208755 Fax 944208754

Deustuko Unibertsitatean Filosofia eta Letretako lizentziatura lortu zuen 1975an eta doktore-tza 1983an Madrilgo Universidad Complutensean. *Real Academia de Bellas Artes de San Fernando*-ko Akademikoa 1996. urtetik.

REKALDE Erakusketa Aretoko Zuzendaria da eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra Gaur egungo Historian. Erakusketa anitzetako komisario eta editorea izan da. *REKarte* aldizkari-ko zuzendaria izan da (1992-1997), baita *Kobie-Bellas Artes* aldizkari-ko Idazketa Batzordeko kidea ere. Bilboko Arte Ederretako Museoko Patronatu Batzordeko batzordekidea, 1985-1986 eta 1991-1998 urteetan. Bilboko Guggenheim Museoko Bilduma Artistikoa osatzearren dagoen Erosketarako Batzorde Aholkulariko kidea (1993-1995). Guggenheim-Bilbao Kontsorzioko Administrazio Kontseiluko kidea (1993-1997), bai eta Guggenheim-Bilbao Museoa duen Artelan Jagole Sozietateak kontratatutako kontsultorea (1996-1998). *Bidebarrieta* aldizkari-ko Idazketa Batzordeko kidea, bai eta Arco'97 eta Arco'98 Arte Garaikideko Azokako (Madril) Ohorezko Batzordeko kidea.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Arte Plastiko eta Monumentalak Saileko Lehendakaria izan zen 1983tik 1984ra.

Argitalpenak

Berak argitaraturikoen artean honako liburu hauek daude: *Adolfo Guiard. Estudio biográfico, análisis estético y catalogación de su obra*, Bilbo, 1984; *Cartas íntimas. Epistolario entre Miguel de Unamuno y los hermanos Gutiérrez Abascal*, Bilbo, 1986; *Nervión. A propósito de los tiempos de las intenciones y las intenciones de las palabras*, Bilbo, 1986; *Puente de hierro para la ría de Bilbao de D. Pablo de Alzola*, Bilbo, 1986; *Historia social de la pintura vasca*, Gasteiz, 1986; *Arte en el País Vasco*, Madril, 1987; *Lazkano. Paisajes para miradas agónicas*, Bilbo, 1988; *Francisco Iturrino. Lan grafikoa. Obra gráfica*, Gasteiz, 1988; *La cerámica de Busturia*, Bilbo, 1989; *Metro de Bilbao. Proyectos de arquitectura*, Bilbo, 1989; *Delclaux. Alameda de Recalde, 30. La tipología de edificios de oficinas en Bilbao*, Bilbo, 1992; *Ideologías artísticas en el País Vasco de 1900. Arte y política en los orígenes de la modernidad*, Bilbo, 1992; *El Coitao. Mal llamo*, Bilbo, 1995. Argitaratuak ditu, gainera, narratibako bi liburu: *El jardín de Marte* (eleberria), Bilbo, 1990 eta *Relatos y arrebatos* (narrazio laburrak), Bilbo, 1993.

Ikerketa artikuluen artean honako hauek idatzi ditu: "Arte y coleccionismo. Territorios para la objetivación del yo", *Procedencia: Colección privada (...) País Vasco*, Bilbo, 1997, 9-23. orr.; "Vista de Fuenterrabía, de Luis Paret y Alcázar, y su contexto de la serie pictórica de 'vistas de la Mar Océana'. Una pintura dividida y el feliz reencuentro consigo misma", *Luis Paret Alcázar y los Puertos del País Vasco*, 27-63. orr., Bilbo, 1966; "La imagen de Bizkaia. Arquitectura y pintura en el Palacio de la Diputación Foral de Bizkaia", *Bidebarrieta. Anuario de Humanidades y Ciencias Sociales*, 1 (1996), 237-275. orr.

GOÑI AUZMENDI, Miren Arantzazu

[Tolosa (Gipuzkoa), 1925.02.24]

Urdangarin pasealekua, 1 - Zubiartea
20570 BERGARA
Tel. 943761561



Donostiako Merkatariza Eskolan Peritu ikasketak egin zituen. J. M. Barandiaran Gipuzkoara itzulri ondoren Aranzadi Elkarteko Etnografia Sailean aritu zen. Jakintsu horrek zuzenduriko ikastaroan hartu zuen parte 1968an eta ondoren, bi urte geroago, Etniker-Gipuzkoa taldeko partaide izan zen; talde horren esku zegoen kanpo ikerketa egitea, Barandiaranek prestatu galdeketa aurrera eramateko. 1991n Etniker-Gipuzkoako lehendakaritza hartu zuen bere gain.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Antropologia eta Etnografia saileko Lehendakaria izan da 1993tik 1995ra arte eta, beraz, Elko Batzar Iraunkorreko kidea. Saileko Koadernoaren Idazketa Batzordekoa ere izan da.

Argitalpenak

Askoren artean eginiko *Atlas Etnográfico de Vasconia* osatzerakoan partaide izan zen; lan hori, bestalde, 1990etik aurrera Etniker Euskalerrriak argitaratzen dihardu. Beste lan batzuk: "Estudio Etnográfico de Elosua, Guipuzcoa", *Anuario de Eusko Folklore*, 1979, 28. libk., 83-218. orr. "Elosu-Bergarako Etnografía. II. Etxe-Alorra", in *Contribución al Atlas Etnográfico de Euskal Herria. Investigaciones en Bizkaia y Gipuzkoa*, 1988. "III. Ekintza Sailak. Elosua", in *Anuario de Eusko Folklore. Homenaje a José Miguel de Barandiarán*, 35. libk., 1988.



GORTAZAR MANSO DE VELASCO, Javier

[Bilbo, 1878.12.02 - Bilbo, 1977.01.14]

Bilbon jaio zen 1878ko abenduaren bian, Bizkaiko familia aberats eta sona handiko baten altzoan. Aitaren aldeko aitona, José Gortázar Loizaga, Bilboko Zinegotzia izan zen, bai eta Kontsulatu eta Aldundiko kidea ere. Amona, Carmen Munive Aranguren, Peñaflorida kondearen alaba zen. Aitak, Manuel Mariak (1824-1896), Jaurerriko jabe nagusienetarikoa, honako kargu hauek izan zituen: Alkateordea (1859 eta 1860) eta Zinegotzia (1861, 1862, 1865 eta 1866) Bilboko Udalean; Jaurerriko Lehen Aldun Nagusia (1872-1876); Bizkaiko Senadorea (1877); eta Probintzia Aldundiko Lehendakaria (1877-1880). Aitaren ildo politikoa foruzale transigentea zen, hots, foruen suntsitzailea izan zen 1876ko legea indarrean jarri ondoren Gobernuarekin hitzarmena lortzearen aldekoa.

Javier hamar senideen arteko zortzigarrena zen, aita bi aldiz ezkondu baitzen; lehenik Catalina Manso de Velascorekin (1836-1859) eta honekin seme bakarra izan zuen; gero, emaztea 1859an hil ondoren zenbait urte igarota, Susana Manso de Velasco koinatarekin esposatu zen eta honekin bederatzí seme-alaba izan zituen. Horien artean, Juan Carlos (1864-1926), musiko eta musikologo ospetsua eta, anaia bezala, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen; Ignacio (1881), Superundako Kondea; eta Ricardo (1885), *Sociedad Bilbainako* Lehendakaria (1947 eta 1948).

Javier hala industrian nola politikan aritu zen. Aitak utziriko ondasun gaitza kudeatzen jardun zuen, Ignacio eta Ricardo anaiekin batera, horretarako *Gortázar Hnos.* meatze instalazioetako industria laguntzailea ustiatuz. Euskal nazionalismoaren militantzia gogotsu bilduz, bestalde, Ceferino Jemeinekin batera, *Sabindar Batza* sortu zuen, bai eta Bilboko Eusko Gaztediren lehen batzordea ere. Euzkadi egunkariaren Kontseilu sortzaileko kidea izan zen, bai eta EAJren Bizkaí Buru Batzarrekoa (1916 eta 1917). Mola eta Franco asaldatu ondoren, erbestera joan zen eta, 1940tik 1959ra bitarte Euzkadiko Jaurlaritzaren ordezkartza hartu zuen bere gain, Baionan.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzaren sortze lanetan Bizkaiko ordezkartzako kidea izan zen. Batzar Iraunkorreko kidea, gainera, Erakundea sortu zenetik 1922ra arte, batzordekide moduan Eusko Ikaskuntzak sailean. 1924an aurre egin zion, sendotasun osoz, Bizkaiko Aldundiak hartu erabakiari, Diputazioak Elkarteari ematen zion laguntza murriztu edo eten egin nahi baitzuen.

Argitalpenak

Bere obrari dagokionez artikulu bat, soilki, aurkitu dugu, frantsesez idatzia, eta *Bulletin du Musée Basque*-an argitaratua gerra zibila gaitzat harzen duena.

Bibliografia

ALONSO, E. J., *El Concierto Económico (1878-1936). Orígenes y formación de un derecho histórico*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1995. *DICCIONARIO biográfico de los Diputados generales, Burócratas y Patricios de Bizkaia (1800-1876)*, Bilbo, 1995, 231-234. orr.

J.A.M.A.



GORTAZAR MANSO DE VELASCO, Juan Carlos (Ignacio de Zubialde)

[Bilbo, 1864.08.19 - Biasteri (Araba), 1926.Azaroa]

Bilbon jaio zen 1864ko abuztuaren hemeretziaren, Bizkaiko familia aberats eta sona handiko baten altzoan. Aitaren aldeko aitona, José Gortázar Loizaga, Bilbo Udaleko Zinegotzia izan zen, bai eta Kontsulatu eta Aldundiko kidea ere. Amona, Carmen Munive Aranguren, Peñafloz kondearen alaba zen. Aitak, Manuel Mariak (1824-1896), Jaurerriko jabe nagusienetakoak, honako kargu hauek izan zituen: Alkateordea (1859 eta 1860) eta Zinegotzia (1861, 1862, 1865 eta 1866) Bilboko Udalean; Jaurerriko Lehen Aldun Nagusia (1872-1876); Bizkaiko Senadorea (1877); eta Probintzia Aldundiko Lehendakaria (1877-1880). Aitaren ildo politikoa foruzale transigentea zen, hots, foruen suntsizalea izan zen 1876ko legea indarrean jarri ondoren Gobernuarekin hitzarmena lortzearen aldekoa.

Juan Carlos hamar senideen arteko bigarrena zen, aita bi aldiz ezkondu baitzen; lehenik Catalina Manso de Velascoekin (1836-1859) eta honekin seme bakarra izan zuen; gero, emaztea 1859an hil ondoren zenbait urte pasata, Susana Manso de Velasco koinatarekin esposatu zen eta honekin bederatzi seme-alaba izan zituen. Anaien artean, Javier (1878-1977), Juan Carlos bezala, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen; Ignacio (1881-), Superundako Kondea zen; eta Ricardo (1885-), *Sociedad Bilbainako* Lehendakaria (1947 eta 1948).

Javier, Ignacio eta Ricardo ez bezala, ez zen industria gizon nabarmena izan. Musika bokazioa, agian aitaren eraginez, hau Nicolás Ledesmarene ikasle izana baitzen. Gazte gaztetatik Juan Carlos musika ikasten aritu zen, bere piano eta solfeoko irakasle izanik Antolín Saenz eta José Luis Muguerza, San Nicolas Parrokiako organo jolea. Oso gaztea zela, beste zaletuekin batera, kuarteto bat osatu zuen eta Bilboko parrokiaren zehar ibili ohi ziren elizkizunak alaitu asmoz. Musikoa ezezik musikologoa ere izan zen eta, hortaz, kritika musikalean jardun zuen berak sorturiko *Revista Musical* aldizkarian (1909-1913). Ahalegin bereziak egin zituen, bestalde, bere herrian musika giroa bizkortzeko. *El Salón* izeneko elkartearen berpizten saiatu zen, *Sociedad de Cuartetos* izenekoak sortu zuen, bai eta *Filarmónica* ere, E. Arriaga, José Orueta, Lope de Alaña eta Javier Arisquetarekin batera. Bere laguntza eskaini zuen, gainera, Koru Sozietatea eta Musika Akademia sor zitezela. Bere ahaleginei esker, Jesús Guridi bezalako gazteek musikarako zuten joera garatu ahal izan zuten. Historia eta kulturarekiko zuen interesak bultzatu zuen Euskal Kulturaren Batzordean eta Museoen Batzordean parte hartzerako. Bilboko Erruki Etxean lehendakari postua bete zuen. Juan Carlos hil ondoren, bere izenean sorturiko Patronatuaren Batzorde Kudeatzailea eratu zen, hiri honetan, pentsioak eta ikasbursak banatzeko agindurarekin.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1922tik bere heriotzaraino, Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen Eusko Ikaskuntzan, Musika eta Dantza saileko batzordekide gisa. 1926an proposamen bat aurkeztu zion Batzorde Iraunkorrari Iztuetaren *Gipuzkoako dantzak* berrargitara zedin eta onartu egin zioten ideia. Bere heriotzaren ostean, Aita Donostiak, José Gonzalo Zulaicak, bete zuen sorturiko hutsunea.

Argitalpenak

Bilbao a mediados del siglo XIX según un epistolario de la época, Bilbo, 1920. Guridiren *Así cantan los muchachos* kantuaren testua idatzi zuen. Ignacio anaiarekin batera, eta M.M. Smith Ibarra izenez, idatzi zuen: *Bajo los Puentes*, Bilbo, Editorial Vasca, 1955.

Bibliografía

ORUETA, J., "Don Juan Carlos de Gortázar", *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 1927, XVIII, 181-188. orr. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, IV. ALONSO, E. J., *El Concierto Económico (1878-1936). Orígenes y formación de un derecho histórico*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1995. *DICCIONARIO biográfico de los Diputados generales, Burócratas y Patricios de Bizkaia (1800-1876)*, Bilbo, 1995, 231-234. orr.

J.A.M.A.

GRANJA PASCUAL, José Javier

[Sodupe-Guenes (Bizkaia), 1955.02.27]

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Duque de Wellington, 2
01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945188346 Fax. 945188336



1977an Filologia Romanican lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Hizkuntza eta Literaturako Irakasle agregatua da Julio Caro Baroja Institutuan (Getxo, Bizkaia), 1978tik aurrera. 1989an ekin zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ikuskatzaile lanari, Getxoko esparruan jardunez. 1993az geroz Hizkuntza eta Literaturako Katedraduna da Bigarren Hezkuntzako Irakasle Kidegoan; eta 1996tik aurrera Ikuskatzailea, Euskal Jaurlaritzako Hezkuntza Ikuskatzaile Kidegoan. 1995etik aurrera Batxilergoaren Ikuskatzaile Koordinatzaile moduan betetzen du bere lana, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Ikuskatzailetza Nagusian.

Egin dituen ikerketa literarioen kezka nagusia, Miguel de Unamunoren, Arturo Campiónen eta Manuel Aranaz Castellanosen lanetan finkatu da batez ere, hau da, XIX. eta XX. mendeetan gaztelaniaz aritu ziren euskal autoreak. Eskola euskalduna berpiztu zutenen aitzindarien azterketan finkatzen dira heziketa gaien inguruan egin dituen lanak, esate baterako Julene de Azpeitiari (1988), Federico Belaustegigoitiari (1989) edota Luis de Eleizalderi (1991) buruz gauzatutakoak. Azken jarduera hori Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza sailarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkaritzarekin lankidetzan burutu du.

Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituen literatur sarietan, Unamuno saiakera saria eskuratu zuen 1981ean, *El problema de la personalidad en el teatro de Unamuno* izenburuko lanari esker.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1992tik 1995era bitartean Hezkuntza saileko lahendakaria izan zen. 1993. urtean Hizkuntza eta Literatura esparruko zuzendaria izan zen, *Eusko ikaskuntzak Hezkuntza Sistematan* gaiaren inguruan buruturiko Eusko Ikaskuntzen XII. Kongresuan. 1994an lankide izan zen *Kalitatea hezkuntzan* gaitzat zuten jardunaldietan, hezkuntza zentroetako buru, orientatzaile eta ikuskatzaile-ek, bai eta Euskal Herriko eta Deustuko Unibertsitateetako HEZlek ere, parte hartzen zutela.

Argitalpenak

Honako aldizkari hauetan argitaratu ditu artikuluak: *RIEV*, *Príncipe de Viana*, *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, bai eta Eusko Ikaskuntzako Hizkuntza eta Literatura saileko koa-dernoetan ere.

Azken honetan aipagarrienak: "El problema de la personalidad a través del teatro de Unamuno", *Letras de Deusto* (1977), 105-127. orr.; "Arturo Campión y la Sociedad de Estudios Vascos", in *Hizkuntza eta Literatura*, 5 (1985), 73-93. orr.; "Taxonomía comparativa de Gustavo Adolfo Bécquer y Juan Iturralde y Suit", in *II Congreso Mundial Vasco. Congreso de Literatura*, 1989, 383-393. orr.; *Haur liburu didaktikoen errolda, 1800-1976. Catálogo de obras didácticas infantiles 1800-1976*, II Euskal Mundu-Biltzerra. Bilbo, 1987; *Federiko Belaustegigoitia*, Eusko Jaurlaritzak. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1990; *Koldo Eleizalde (1878-1923)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz, 1993.



GUTIERREZ MARQUEZ, Juan Miguel

[Errenteria (Gipuzkoa), 1945.12.08]

HABE - Eusko Jaurlaritza
Vitoria-Gazteiz, 3-5
20018 DONOSTIA
Tel. 943412600 Fax 943412601
E-mail: HABE@ej-gv.es

1969. urtean Elizaren Filosofiako ikasketak egin zituen, *Saint Ignace de Kimwenza*-n (Kongoko Errepublika Demokratikoa). Bestalde, 1975ean Bruselako (Belgika) I.N.S.A.S. izeneko Eskola Nagusian lizentziatura lortu zuen Komunikabide Sozialetan, Zinema, Irrati eta Telebista Errealizazioaren adarrean.

Donostiako Herri Irratian jardun zuen lanean, informazio programak prestatzen eta ikerketa musikaleko programa "Pueblo que canta..." ondu zuen (1975-1981). 1980tik aurrera HABEn lan egiten du, Laguntza Pedagogikoen saila barruan eta ikus-entzunezko lanak prestatzen helduei euskara irakasteko. Ikus-entzunezko zenbait prestatu ditu, telebistan euskara irakatsi ahal izateko: "Bai Horixe" (1985), "Gurtegikoak" (1988), "Izurungoak" (1992), "Barrene" (1998), "Barrenet" (1998). Bideo irakasle da Donostiako Udaleko Kultura Patronatuaren bereak dituen Intxaurren eta Okendo Kulturetxeetan.

Euskaldunok erabili ohi ditugun adierazpide plastikoak, musikalak eta jestualak, zinema narrazioari nola aplika dakizkiokeen ikusteko zenbait ikerketa egin ditu.

Berak zuzenduriko "Izaba Rosa" filmeak euskal filme onenari eskaintzen zaion Mauro Azkona saria jaso zuen 1978ko Donostiako Zinemaldian.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1995etik aurrera Eusko Ikaskuntzako Zinema Saileko lehendakaria da. Elkarrekin ikus-entzunezko lanak burutzearren, behar zituen lanabes erdiprofesionalak eskuratzen lagundu du. Elren bizitzan zehar jasotzen diren gertakizunak jasotzen ditu, modu horretara elkarrekin oroitzen, bai begientzat eta bai belarrientzat, ziurtatzen delarik.

Argitalpenak

Hona berak prestatutako lanak. Film luzeak: *Balantzatxoa*, 1977 eta *Los emigrantes*, 1975. Film laburrak: *Viudas de vivos e muertos*, 1976; *Izaba Rosa*, 1978; *Ikuska 15*, 1982; *Fiestas de Invierno*, 1972; *Ay pena, penita, pena...*, 1973. Bideoak: *Bai Horixe*, 1985; *Gurtegikoak*, 1988; *Izurungoak*, 1992; *Argazkilari baten memoriak*, 1996; *Barrene*, 1998; *Barrenet*, 1998.

Berak egin dituen liburuen artean nabarmentzen dira: *El cine como arma social* (Lizentziatura tesia, André Delvaux zinemagileak zuzendurikoa), 1975; *Taller de vídeo*, 1992; *Sombras en la caverna. El tempo vasco en el cine*, 1997; "Historia del Cine vasco", *Enciclopedia Planeta*; "En busca del Tempo vasco", *RIEV*; "El cine y Teatro guipuzcoanos" *Historia de Gipuzkoa*, *El Diario Vasco* egunkariko argitaratzen diren faszikulak.



HUICI LAZCANO, Serapio

[Atarrabia (Nafarroa), 1868.09.03 - Madril, 1953.12.11]

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari Lizentziatura lortu zuen Madrilgo Unibertsitatean. Nafarroan hainbat industria enpresa sortu zituen: *Azucarera Navarra de Falces*, *Sociedad Anónima La Eléctrica*, *Cementos Portland-El Cangrejo*. Lehendakariordea izan zen *Papelera Española*-n. *Espasa-Calpé* sortu zutenen artekoa eta argitaletxe horretako zuzendaria izan zen, baita *El Sol* egunkariko kontseilari kidea ere. Bere jardueran enpresa gizon eta ingeniari lanak zeregin historikoekin txandakatu zituen. Izan ere, berak burutu Erdi Aroko Artearen Historiari buruzko ikerketek arras ezaguna egin zuten.

Nafarroako Aldundiak, Nafarroako Seme Kutun izendatu zuen, 1953ko Abenduaren 12an, haren heriotzaren biharamunean.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elko kidea 1920. urtetik. Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kide hautatu zuten 1930ean, baina zenbait hilabeteren buruan, familiako arazoak zirela medio, postua utzi beharra izan zuen. Eusko Ikaskuntzak eraturiko Autonomia Batzordeko partaidea izan zen.

Argitalpenak

Lanik aipagarrienak: *Marfiles de San Millán de la Cogolla y esculturas de Santo Domingo de Silos*, Madril, 1925; *El Santuario de San Miguel de Excelsis (Navarra) y su retablo esmaltado. Estudio comparativo entre los esmaltes de San Miguel y los más importantes que existieron en España y en el extranjero*, Madril, 1929, Victoriano Juaristirekin batera idatzia eta Cámara Oficial del Libro sariztatua; "Arqueología navarra. La iglesia de Gazólaz", in *Euskalerrriaren Alde* (1923); "Arqueología vizcaína. Ermita de San Miguel de Zuméchaga", in *Euskalerrriaren Alde* (1924); "Iglesia de templarios de Torres del Río", in *Boletín Comisión Monumentos de Navarra*, (1923).

Bibliografía

IRIBARREN, M., *Autores navarros*, Iruñea, 1970, 113. or.; TANCO LERGA, J., *GEN*, Iruñea, 1990; GOMEZ GOMEZ, A., *El arte románico en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Perperspectivas historiográficas*, Bilbo, 1996, 21-29. orr.; GOMEZ GOMEZ, A., "Los inicios de la investigación sobre el Arte Románico en el País Vasco", in *Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales* 16 (1997), 171-172. orr.

A.G.G.



HUICI ZALACAIN, Modesto

[Andoain (Gipuzkoa), 1878 - Donostia, 1919.01.13]

Andoainen jaio zen 1878an, familia apal baten barne. Ikasle ona zela eta, latina, geografia eta historia jaioterriko parrokoarekin ikasi zituen eta, ondoren, Donostiara joan zen batxilergoa ikastera. Medikuntza Madrilen ikasi zuen, han Kirurgiako barneko ikasle bezala jardunez Madrilgo Ospitale Nagusian, eta Lizentziatura 1902an lortu zuen. Doktoretza medikuntza espezialitateetako Eskola praktikoan burutu zuen, Kirurgia orokorra Cospedal doktoarekin ikasiz, Ginekologia Recasens irakaslearekin eta Oftalmologia García Mansillarekin. Jaioterrian ekin zion lanbideari, sendagile titularren ordezkotza lanak eginez. Ondoren Amezketako sendagilea izan zen eta, geroago, Azpeitiko. 1906an Donostiara aldatu zen eta hor *San Antonio Abad* ospitalean jardun zuen, kirurgia eta ginekologia lanak ezin hobeki burutuz. 1907an bere lehenengo zesarea egin zuen. Egaña doktorea eta biok Ategorrietako *Nuestra Señora de las Mercedes* klinika sortu zuten, Huici doktoreak bertan eta Donostiako Ospitalean betetzen zuela bere zeregina. Zangarrek gaitz larria pairatu zuen eta adindutakoan ikasteari eman zion. Gipuzkoako Akademia Mediko-Kirurgikoa abiarazi eta bultzatu zuen, eta akademiako aurreneko Lehendakaria ere bera izan zen. Ospitale Probintzialeko Zuzendaria izan zen, bai eta Gurutze Gorriko irakaslea ere, eta bertako erizainei eskolak eman zizkien.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Batzorde Iraunkorrekotza kidea izan zen Eusko Ikaskuntzaren sorreratik beretik, Medikuntza Saileko batzordekidea zelako, baina ez luzaz, zeren eta 1919ko urtarrilean zendu baitzen eta, ondoren, Jose Madinabeitiak bete zuen haren postua.

Bibliografia

ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983. *DICCIONARIO histórico de médicos vascos*, Bilbo, 1993.

J.A.M.A.



IBARBIA MAIZ, Martín

[Beasain (Gipuzkoa), 1943.07.29]


Maisutza ikasi zuen eta, ondoren, Masterra lortu Komunikazio eta Irudi Korporatiboan. 1977an *Kilometroak* ideiarekin sortzailea izan zen, bai eta Euskal Telebistaren Sortzailetariko eta Programa Zuzendaria ere (1981-1985). Geroago, Eresoinka, S.A.ko Zuzendaria (1985-1988) eta Euskal Filmotekako Lehendakaria (1988-1995). *Association Européenne Inédits* elkargoko Lehendakariordea (1992-1995), hain zuzen, Charleroi hirian (Belgika) egoitza duen erakunde horrek Europako zinematekak elkartzen ditu. 1988tik aurrera, Orio Produzioak, S.A.ko Zuzendari Nagusia da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako Zinema Saileko lehenengo lehendakaria eta Batzorde Iraunkorreko partaidea izan da.

Argitalpenak

Gidoilari bezala hainbat lan prestatu ditu, horien artean Alguis Arlauskasekin egindako biak dira azpimarratzekoak: *Bakearen Soka* eta *Laugarren Mundua*. Halaber, Iñigo Urreagak errealizaturiko *José Miguel de Barandiaran. 100 urte* gidoiaren egilea da.



IDARRETA GABILONDO, Juan María

[Donostia, 1951.01.26]

Núñez de Balboa, 14
28001 MADRIL
Tel. 915782781

Zuzenbidean lizentziatua Nafarroako Unibertsitatean 1974an. Egun epaitegi-prokuradorea da. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kidea eta Francisco de Ibero Institutukoa.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Arte Plastiko eta Monumentalak Saileko Idazkaria izan zen 1979-1982 aldian, bai eta Lehendakaria 1982tik 1984ra.

1980an Arte Ondarearen Kontserbazioari buruzko zikloan parte hartu zuen "Arkitektura Ondarearen kontserbazioaren lege alderdiak" gaiarekin.

IDIAZABAL GORROTXATEGI, Itziar

[Gaintza (Gipuzkoa), 1949.09.05]

Euskal Herriko Unibertsitatea
Paseo de la Universidad, 5
01006 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945183148 Fax. 945144290
E-mail: fvpidgoi@vc.ehu.es.



Filosofia eta Letretako lizentziatura lortu zuen Bartzelonako Unibertsitatean 1971an, eta Hezkuntza Zientzietako doktoretza Genebakon 1982an, Jean Paul Bronckart-ek zuzenduriko honako tesiarekin: *“La compréhension des structures à fonction casuelle en Basque”*. Erreneriako Orereta Ikastolako irakasle izan da (1971-1974), baita Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (1976-1978), Derioko Irakasleen Eskolan eta Euskal Herriko Unibertsitatean ere (1982tik gaur arte), hor betetzen duen postua euskal filologiako katedraduna delarik (1992tik aurrera). 1991az geroztik Euskaltzaindiko urgazlea. Hainbat argitaratze kontseilutako kidea: *Lenguaje Comunicación y Educación, Textos eta Huarte de San Juan*. Parte hartu du, bestalde, II. Euskal Mundu-Biltzarraren antolaketan eta Estatu espainiarreko hizkuntzen jabetzea ikertzeko Santiago de Compostela eta Bartzelonan egindako nazioarteko bilkuretan (1995 eta 1998).


Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1996tik aurrera Hezkuntza saileko lehendakaria da. Bere agintaldian Paulo Freire pedagogo handiari omenaldia eskaini zaio eta, Euskal Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, sailak zuen asmo zahar bat mamitu da, hots, Euskal Eskola Museoa sortzearena.

Argitalpenak

Lan hauek argitaratu ditu: *Hizkuntzaren Psikopedagogia. Testu motak. Funtzionamendua eta didaktika*, Bilbo, Labayru, 1990. *Adquisición del lenguaje en niños, bilingües y monolingües. Hizkuntzaren jabetuntza haur elebidun eta elebakarretan*, Bilbo, Unibertsitatea, 1990. *Pedagogía del texto. Textuaren pedagogía*, Bilbo, Labayru, 1992. A. Kaifer-ekin batera: *Hezkuntzaren eraginkortasuna eta irakaskuntza elebiduna Euskal Herrian. Eficacia educativa y enseñanza biligüe en el País Vasco*, Gasteiz, HAEE-IVAP, 1994.

J.P. Bronckart-ekin elkarlanean: *“La compréhension des énoncés transitives en Basque”*, *Journal de Psychologie Normal et Pathologique*, 1982, 4. zbk., 357-388. orr. *“First stages in the acquisition of noun phrase determiners by a Basque-Spanish bilingual child.”*, in Silva-Corvalán (Arg.) *Spanish in Bilingual Context*, Georgetown University Press, 260-278. orr. L. M. Larringan-ekin elkarlanean: *“Transfert de maîtrises discursives dans un programme d’enseignement bilingue basque-espagnol”*, *Acquisition et Interaction en Langue Etrangère*, 10. zbk., 107-125. orr.



IRIGARAY IRIGARAY, Aingeru (Apat-Etxebarne)

[Bera (Nafarroa), 1899.03.01 - Donostia, 1983.11.28]

Beran sortu zen 1899ko martxoaren lehen egunean. Aitona maisua zuen eta seme-alabei euskara mintzatzea eta ikastea debekatu zien eta, hala ere, gutxienez horietako batek, Aingeruren aita izango zena, hain zuzen Pablo Fermín Irigaray Goizueta "Larreko" goitzeneko sendagilea (Auritz, 1869.01.25 - Iruñea, 1949.09.03), bere kabuz ez bakarrik ikasi, baizik eta euskarazko idazlea ere izan zen eta Euskaltzaindiko kidea. Ama, Felisa Irigaray Apat (1956an zendua), Auritzekoa hura ere. Agustin (Auritz, 1873.06.15 - Iruñea, 1942.10.17), *El Pensamiento Navarro*-ko erredaktorea izan zen. Pablo Fermin eta Felisak izan zituzten bost umeetariko lehena izan zen Aingeru. Haren haurrideak Iruritan jaio ziren, aita bertako mediku izendaturik, 1902an familia osoa herri hartara aldatu zelako.

Maria Rosa Imaz Arangurenekin (1952an hila) ezkondu zen Aingeru, 1934ko irailaren 19an. Lau seme-alaba izan zituzten: Javier (1935ean jaioa), industria ingeniaria eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea; Juan Miguel (1938an jaioa), kantari eta euskal kantuen egilea; eta Jose Angel (1942.10.09), kantari eta poeta; gazteena Maite alaba da.

Oinarrizko heziketa Iruritako eskolan jaso zuen eta, ondoren, Aita Kaputxinoen Lekarozko Ikastetxera joan zen, batxilergoa egiteko. Berriro, 1915ean, familia osoa Iruñera aldatu zen, aita Nafarroako Ospitaleko kirurgilari izendatu zutelako. Urte horrexetan, Aingeruk aitaren karrera, Medikuntza alegia, ikasteari ekin zion Zaragozako Unibertsitatean. Zaragozan bi urte pasa zituen eta ondoren Bartzelonara joan zen. Doktoretza eta praktikak burutu ahal izateko Euskal Herrira itzuli zen berriro, horiek Bilboko Basurtoko Ospitalean eginez (1922-1923). Ikasketak amaitu ostean, espezializazio ikastaro batzuk egin zituen, Parisen lehenik (1924ko udaberrian eta 1927an) eta Friburg-en (Alemania) ondoren, non lau hilabete eman zuen. 1924ko udazkenean Iruñera itzulirik, medikuntza jarduerari ekin zion, lehendabizi Sorosle Etxean eta 1927tik aurrera Udal Benefizentziaren Etxez etxeko Laguntza Publikoan. Beste zenbait lankide eta adiskidek bezala, hala nola Justo Garatek, elkarrekin lotu zituen bere langintza, historia eta euskal kulturari buruzko azterlana eta zeregin politikoa ere. Ideologiaz liberala izanik, euskal abertzaleasunarekiko atxikimendua erakutsi zuen, Eusko Langile Abertzalean afiliatuz, non zerbitzu medikuak doan eskaini zituen. 1929an Euskaltzaindiko urgazle izendatu zuten.

Gerra zibila pitzearekin batera, amaierarik gabeko zailtasun mordo baten aurrean aurkitu zen. 1937an Udal Benefizentziako mediku izatetik egotzi zuten, bere joera politikoa zela eta. Ikusirik arazoak gero eta handiagoak zirela, lortu zuen sorterrira itzultzea. 1941ean Euskaltzaindiko oho-rezko euskaltzain izendatu zuten, Nafarroako ordezkari bezala, R. M^a de Azkuek horrela eskatu ondoren. Urte bete beranduago Hondarribiko mediku izatea lortu zuen. 1945ean Donostiara joan zen bizi izatera. 1952an Iruñeko Udalak, bere kargutik egozteko 1937an hartu erabakia deuseztatu egin zuen, nahiz eta beste hamar urte gehiago pasa arte ez zuen lortu berriro Iruñeko Udal Benefizentzian zegokion karguan ari izatea. Berrogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, areagotu egin zituen euskal kulturari buruzko ikerketak, hainbat alorretan. 1953tik aurrera, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak argitaratzen zuen *Egan* euskarazko literatura eranskinaren Zuzendari izan zen, Arruerekin eta Mitxelenarekin batera. 1954an Gipuzkoako Aldundiko Julio de

Urquijo Mintegiko batzordekide izendatu zuten eta sarritan bildu ohi zen F. Arocenak zuzenduriko artxibo haren literatura girora. Partaide izan zen, sarritan, euskararen batasun literarioa dela eta, sorturiko gorabeheretan eta beti saiatu zen irizpide ezberdinen arteko erdibidea bilatzen. Bizitzaren azken urteetan hainbat artikulu argitaratu zuen, dela hizkuntzaren geografiari buruz, dela euskararen soziologia historikoari buruz, horiek baitzituen izan ere, bere ikerketa eta dibulgazio jarduera zabaleko gai kutunenak. 84 urterekin hil zen eta Iruñeko hilerriko familiaren panteoian dago ehortzirik.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Euskeraren Adiskideak elkarteko ordezkaria izan zen Eusko Ikaskuntzan. Elkarre hori Nafarroan euskara sustatzeko asmoz 1925ean sortu zuen lurralde horretako bazkide talde batek: I. Baleztena, D. Inza, L. Olivier, J. M. Hurte eta beste. 1933an Oinarrizko Hezkuntza saileko batzordekide aukeratu zuten, bidenabar Batzorde Iraunkorreko kide bihurtzen zela. Bi urte geroago Idazkariorde hautatu zuten, Arocenaren hutsunea betetzeko. Urte horretan (1935), bestalde, Iruñean Elkarrearen ordezkaritza eratu nahi zutelara eta, horretarako lanetan hartu zuen parte eta Batzorde Eragileko batzordekide eta partaide izan zen. 1978ko Biltzarrean Erakundearen bizkortze lanei bere bultzada eman zien, 1936ko Batzorde Iraunkorreko Agustin Zumalabe eta bizirik zirauten beste bostekin, Barandiaran, Garate, Lekuona, Irizar eta Irujorekin, alegia. 1936ko Batzordeko bizirik zirautenetakoa izanik, Elkarteko Zuzendaritzako biziarteko eta berezko kide bihurtu zen.

Argitalpenak

Primitae linguae Vasconum, (Hugo Schuchardt-en originaletik espainolez paratua, *Einführung ins Baskische*, Halle, 1923), Salamanca, 1947. *Euskalherri-ko ipuiñak*, (Euskal herri ipuinak, gaztelezarako bertsiorekin), Zarautz, 1957. *Prosistas navarros en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, Iruñea, 1958. *Poesías populares vascas*, (F. Michel-en *Le Pays Basque*, Paris, 1857 liburuaeren lehenengo itzulpena gaztelezaraz), Donostia, Auñamendi, 1962. OR. Berrondo, S. Garmendia eta J. A. Irigarayekin batera: *Jostatuz mintzaira ikas*, (Andrés Méndez Garcíaeren lehenengo ikaskuntzarako metodo ilustratuaren euskaratzea, *El Mundo de las Palabras*, Salamanca, 1969. *Noticias y viejos textos de la 'lingua navarrorum'*, Donostia, 1971. *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*, Iruñea, 1974.

Aldizkari anitzetan idatzi zuen, bai euskaraz, bai gaztelezaraz: *Gure Herria*, *RIEV*, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, *Yakintza*, *Príncipe de Viana*, *Euskera*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Egan*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Fontes Linguae Vasconum* eta *Príncipe de Viana*. Egunkari nafar hauetan ere hainbat artikulu idatzi zituen: *La Voz de Navarra* (1923tik 1936ra bitartean) eta *Diario de Navarra* (1966-1982).

Bibliografia

HOMENAJE de Eusko Ikaskuntza. Cuaderno de la sección de Lengua y Literatura, 4. zbk., Donostia, 1985. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, V. CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herria*, Donostia, 1991, V, 127-129. orr. *DICCIONARIO histórico de médicos vascos*, Bilbo, 1993.

J.A.M.A.



IRIONDO GABILONDO, Carmen

[Ondarroa (Bizkaia), 1948.01.03]

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zientziak Fakultatea
644 Posta kutxa
48080 BILBO

1970ean Kimika Zientzietako Lizentziatura lortu zuen Valladolideko Unibertsitatean, hango Kimika Analitikako departamentuan aurkeztuz tesina. Ondoren, Bilboko Unibertsitatera etorri zen, Kimikako laguntzaile bezala eta, 1982an, Euskal Herriko Unibertsitatean doktoretza lortu zuen honako tesi honekin: *Síntesis de derivados Isoquinolíticos*. Gaur egun, Kimika Organikako irakasle titularra da Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Fakultateko Kimika Organikoaren departamentuan.

Alkaloide Isokonolitiko eta eratorrien Sintesi eta Determinazio estrukturalari buruzko hainbat proiektutan hartu du parte. Gaurko egunean, ikerketa proiektu bateko zuzendaria da, horren gaia honako hau delarik: *Determinación de los componentes orgánicos volátiles del Txakoli y su relación con el proceso de elaboración*. *Real Sociedad Española de Química* erakundeko kidea da, bai eta *Grupo Especializado de Química Orgánica*koa ere.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Fisika, Kimika eta Matematika Zientziak saileko lehendakaria da 1995az geroztik, bai eta Sail horrek urtero antolatzen dituen Zientzien Jardunaldien koordinatzailea ere.

Argitalpenak

"Azido azetikoa Bizkaiko txakolinean eta beraren zerikusia *Botrytis cinerea*-rekin", *Elhuyar* (1996); "Caracterización Química y estudio comparativo correspondiente a las cosechas de 1990, 91, 92 y 93", *Alimentaria* (1995); "Oxidation of 2-(2-(3,4-dimethoxybenzylhydroxymethyl)-4,5-dimethoxyphenyl)ethanol using chromium (VI) reagents", *Bulletin Société Chim. Belg.* (1989).



IRIZAR BARNOYA, Joaquín

[Azkoitia (Gipuzkoa), 1893 - Donostia, 1978]

Azkoitiko familia aberats batean jaio zen 1893an. Anaia Pedrok (1910ean jaioa) euskal hizkuntzalaritza landu zuen.

Joaquínek Arkitektura ikasi zuen Madrilen eta, gerra ostean, Eskoletarako Arkitekto postua lortu zuen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioan.

Bere eite liberala eta euskalzaletasuna elkar lotzen jakin zuen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrek kidea izan zen, 1934an Arkitektura Saileko batzordekide aukeratu baitzuten. Kargu horretan jarraitu zuen, harik eta gerra piztu arte. Gerra ondoan eta Elkarteari inposatu zitzaion isiltasun aroa pasa eta, Joaquín 1978an hasitako berpizte ahaleginetan saiatu zen, bizirik zirauten Batzorde Iraunkorrek beste bost lagunekin batera, hots, Barandiaran, Garate, Lekuona, Irigaray eta Irujorekin.

Argitalpenak

Las casas vascas. Torres, palacios, caseríos, chalets, mobiliario, Bilbo, 1965. Fausto Arocenarekin elkarlanean, *La casa de Zumalacarre*, Donostia, 1948.

Artikulu anitz idatzi zituen aldizkari hauetan: *RIEV*, *Boletín de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, *Arquitectura*, *Euskalerrriaren Alde*, *Vida Vasca* eta *Aranzázu*. Gainera, Eusko Ikaskuntzako bostgarren Biltzarrerako txosten bat prestatu zuen.

Bibliografia

AROCENA, F., *Boletín de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 1965, XXI, 438-439. orr.; IRIGARAY, A., "Joakín de Yrizar il", *Egan*, 1978-1979, XXXVIII, 326. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, V.



IRUJO OLLO, Manuel

[Lizarra (Nafarroa), 1891.09.25 - 1981.01.01]

Lizarran jaio zen 1891ko irailaren 25ean karlismoarekin lotura zuen familia baten altzoan. Aitonak, Manuel Irujo Apastegui (1803-1871), abokatua eta Tafallako alkateak, 1839an Lizarrara bizi izatera joan behar izan zuen, karlisten alde jardun zuelako. Engracia Urra Jordanekin (1825-1885) ezkondu zen 1850ean. Aita, Daniel Irujo Urria (1862-1911), 1890ean Aniana Ollo Elordirekin ezkondu zen, liberalen aldeko familia batekoa. Deustuko Zuzenbide irakaslea (1886-1903) izan zen Daniel Irujo eta Sabino Arana defendatu zuen 1895 eta 1902ko epaiketetan.

Manuel hamar senideen arteko lehena izan zen. Hona hemen besteen xehetasunak: Eusebio (1893), Rosario (1894-1925), Juan Ignacio (1897), Delfín (1900), Josefina (1902), Maria Luisa (1904-1905), Ignacio Javier (1905-1907), Andrés María (1907) –Gobernazioko Komisarioa EAJren izenean, Donostian 1936ko altxamenduaren ondoren sorturiko Defentsa Batzordean eta Argentinako Ekin argialetxearen sortzaileetarikoa– eta Pello Mari (Lizarra, 1910.02.23 Iruñea, 1983.02.24), Eusko Abertzale Ekintzako buru eta Euskadiko Jaurilaritzak Sofian eta Bukaresten zituen ordezkarietzeko Agregatu Kulturala (1947). Manuel 1916ko urriaren 27an ezkondu zen Aurelia Pazueta Aristizabalekin (1918an zendua) eta Miren izeneko alaba izan zuten.

Hurtzaroa Bilbon pasa zuen eta batxilergoa Jesuitek Urduñan zuten ikastetxean ikasi zuen, 1907an bukatuz. Ondoren Deustura joan zen Filosofia eta Zuzenbidea ikasteko asmoz eta EAJko kide egin zen. Doktoretzako ikasketak Salamancako Unibertsitatean burutu zituen. Hiru urte beranduago aitaren heriotzak Lizarrara itzultzea behartu zuen eta hemen Batzokia sortu zuen, abokatutza lanean hastearekin batera. Foru diputatu hautatu zuten (1921-1923). Bere agintaldian lur erreforma egiten saiatu zen, baina lurjabeen oposizioak ez zion bere nahia mamitzen utzi. Bere eta Eusko Ikaskuntzaren eraginari esker, 1921ean Nafarroako Aurrezki Kutxa sortu zen. 1930ean berriro diputatu aukeratu zuten. 1933an Parlamentari hautatu zuten, Gipuzkoa ordezkatzeko.

1936ko altxamendu militarrekiko zuen erabat kontrakoa jarrerak Fronte Popularreko indarren errespetua erakarri zion. Errepublikako Gobernuan karterarik gabeko ministro izendatu zuten, ondoren Justiziako kartera esleitu zitzaion eta 1937ko uztailean dimisioa aurkeztu zuen. 1941ean, Londresen, Euskal Kontseilu Nazionala sortu zuen. Hurrengo urtean Europako Mendebaldeko Herrialdeen Kultura Elkartearen sortzailetarik izan zen. 1945ean Industria Ministro izendatu zuten, erbesteko gobernu espainolean, eta ondorengo bi urteetan Justizia ministro izan zen. 1972an, Penintsulako Kontseilu Federaleko ohorezko lehendakari izendatu zuten, Mugimendu Europarrean. 1977an erbestetik itzuli eta Senadore hautatu zuten Nafarroan. Bi urte geroago, Iruñea ordezkatzuz, Nafarroako Parlamentari hautatu zuten. Euskalerriko Adiskideen Elkartearen Merezimenduko kidea zen, bai eta Leireko Herri Unibertsitateko Presidentea ere. Hil eta handik bi urtera, 1981eko martxoaren 29an, Elk omenaldia eskaini zion Iruñean eta han aurkezturiko txostenak *RIEV* aldizkarian argitaratu ziren. Familiak, bere artxibo pertsonala, Eusko Ikaskuntzako Dokumentazio Zentroan jarri zuen eta, harekin "Irujo Fondoa" sortu zen, egun sailkaturik eta ikerlarien esku dagoena.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1932an Administrazio Nagusia saileko batzordekide izendatu zuten eta ordutik aurrera Batzorde Iraunkorreko kide bihurtu zen. Sail hori Irujo Batzorde Iraunkorreko kidea izan zedin sortu zuten. Hori gertatu aurretik, Euskal Unibertsitatea jartzeko sortua zen Batzordeko kide aukeratua zuten jadanik. 1935ean turismoa bidera eta bizkor zezan erakunde baten sorrera bultzatu zuten. 1936ko irailaren 6tik 13ra bitartean, Lizarran ospatu behar zen Historia Batzarra eragotzi zuen altxamendu militarrek, Manuelek hura prestatzeko horrenbeste neke hartu eta gero. 1978ko zuzperraldian hartu zuen parte, 1936an Batzorde Iraunkorrean zeuden Agustin Zumalabe eta bizirik zirauten beste bost lagunekin, Barandiaran, Garate, Lekuona, Irigaray eta Irizarrekin batera.

Argitalpenak


La misión del nacionalismo, Hitzaldia, Tolosa, 1931. *Navarra ante el Estatuto Vasco*, Hitzaldia, Lizarra, 1931. *Nabarra libre dentro de Euzkadi libre*, Solasaldia, Iruñea, 1931. *A los vascos de América*, Hitzaldia, Bartzelona, 1937. *Instituciones jurídicas vascas*, Buenos Aires, 1945. *Inglaterra y los vascos*, Buenos Aires, 1945. *Arana Goiri ante los tribunales*, Mexiko, 1953. *Un vasco en el ministerio de Justicia*, Buenos Aires, 1976. *La guerra civil antes del Estatuto*, Madril, 1978. *Escritos en Alderdi*, Bilbo, 1981, bi liburuki. *Desde el Partido Nacionalista Vasco*, Bilbo, 1982.

Aldizkari hauetan ere idatzi zuten: *Gure Herria*, *Ibérica*, *Gernika* eta *Boletín Internacional Americano de Estudios Vascos*.

Bibliografia

"HOMENAJE a Manuel Irujo Olo. Iruñea 29-III-1981", *RIEV*, XXVIII, 1983, 373-398. orr.; VIGNAUX, OR., *Manuel Irujo. Ministre de la République dans la guerre d' Espagne 1936-1939*, Paris, 1986.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987; V. CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herria*, Donostia, 1991, V, 15-19. orr.; GARCIA SANZ MARCO-TEGUI, A., *Daniel Irujo Urra (1862-1911). El carlo-nacionalismo imposible del defensor de Sabino Arana*, Iruñea, 1995.

J.A.M.A.



JIMENO JURIO, José María

[Artaxona (Nafarroa), 1927.05.13]

Monasterio de Usún, 4, 2º dcha.
31011 IRUÑEA
Tel. 948260572

Zacarías Jimeno eta Cornelia Jurío gurasoen lau haurren arteko zaharrena izan zen. Lehen ikasketak Artaxonako *Misioneros de los Sagrados Corazones* ikastetxean egin zituen, hamabi urte bete ondoren Mallorcako Lluch ikastetxean jarraipena emanez. 1946an, Maisutza amaitu eta gero, lehen mailako hezkuntzako irakasle gisa hasi zen lanean, Noain eta Lergako eskoletan. 1950ean Iruñeko apaizgaitegian sartu zen eta bertan osatu zuen bere prestakuntza humanistikoa. 1956an, apaiztu zen. Apaiz lana Nafarroako zenbait herritan bete zuen (Zangoza, Asiain, Arteta) eta, aldi berean, historia, arte eta etnografiari buruzko lanak egiten hasi zen.

1970ean sekularizatu egin zen eta, bi urte geroago, ezkondu Elena Arangurenekin. J. M. Barandiaranek zuzenduriko Nafarroako Etniker Taldearekin *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* "Datos para la Etnografía de Artajona" izenburuko lanean hartu zuen parte. 1970ean, Iruñeko Aurrezki Kutxak San Pedro auzoan duen Liburutegian hasi zen lanean zuzendari bezala eta zeregin horretan egon zen 1985a arte. 1977 inguruan *Punto y Hora* aldizkarian kolaboratzen hasi zen, Nafarroako egungo historiari buruzko gaiak jorratuz, batez ere Gerra Zibilarekin eta Estatutuarekin zerikusia zutenak. San Pedro liburutegian zuen lana utzi ondoren, Iruñerriko toponimia jasotze proiektuari ekin zion, gerora, 1991n alegia, Nafarroa guztira hedatuko zuena: *Onomasticom Vasconiae*. Gerora, *Navarra. Toponimia y Cartografía. Nafarroa. Toponimia eta Mapagintza* proiektuaren zuzendaria izan zen, dagoeneko berrogeita bost izanik argitaratu diren lan horretako liburukiak.

Euskaltzaindiko Ohorezko Euskaltzaina 1991. urteaz geroztik eta *Medikuntzaren Historiaren Euskal Elkarteko* kide sortzailea (1984), bai eta *Ateneo de Navarra*-koa (1985) eta *Instituto Gerónimo de Ustáriz*-ekoa ere (1985). *Euskal Dantzarien Biltzarreko* Ohorezko Lehendakaria da, Tafallako *Olentzero* sariduna (1991), Tafallako *Orden del Cuto Divino*-ko Ohorezko Kidea (1992), bai eta *Colectivo Arantzadua de Las Ameskoas* elkartearen *Luciano Lapuente* sariduna (1969) eta Iruñeko *Los del Broce* Peñarena ere (1997). 1995ean omenaldi herritarra egin zitzaion, bertan hainbat organismo kultural eta instituzionalek parte hartu zutela. 1998an Sabino Arana Fundazioak, *Bizi oso baten ibilbidea* eskertuz, urtero ematen duen saria eskaini zion. 1998an Eusko Ikaskuntzak *Manuel Lekuona Saria* eman zion.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Nafarroako lehendakariordea izan da 1979tik 1980ra arte, bai eta 1983tik 1987ra arte. Historia saileko lehendakaria 1978tik 1980ra arte. 1998an Manuel Lekuona Saria jaso zuen.

Argitalpenak

Historia, arte, etnografia, toponimia eta euskara izan dira Jimeno Juríok bere ikerkuntzan nagusiki ukitu dituen gaiak. Idatzi duen lan oparoa hogeitaz liburu baino gehiagoz osaturik dago, baditu gainera bestelako berrehun lan, artikuluak eta liburu atalak barne.

Hirurogeiko hamarkadan hainbat gai landu zuen. Artaxonako historia: *La enseñanza y la beneficencia en Artajona*, Iruñea, 1963; *Documentos medievales artajoneses*, Iruñea, 1968; "El

euskera en la toponimia de Artajona", *Fontes Linguae Vasconum* (1969). Santiago-bidea: "Itinerario Jacobeo del Infante Carlos de Navarra", *Príncipe de Viana* (1965); Caminando a Santiago", *Ruta Jacobea* (1963), "Sangüesa en el Camino de Peregrinación", *Ruta Jacobea* (1964). Artea: "Historia y leyenda en torno a la Virgen de Jerusalén de Artajona", *Príncipe de Viana* (1966); "Autores y fecha del retablo de Eguiarreta" *Príncipe de Viana* (1966); "Asiáin. Iglesia parroquial y retablo", *Príncipe de Viana* (1969).

Hirurogeita hamarreko hamarkadan Nafarroako Historiari heldu zion: *¿Dónde fue la batalla de Roncesvalles?*, Iruñea, 1974; *Historia de Pamplona. Síntesis de una evolución*, Iruñea, 1974. Garai horretakoak dira hainbat monografiatan azalduko kolaborazioak, *Temas de Cultura Popular* sailaren barnean, horien artean: Artajona, Ujué, La Oliva, Fitero, Iranzu, Sangüesa, San Miguel de Aralar, Olite, Alsasua. Etnografiari buruzko lanak ere kaleratu zituen, batez ere agerkari hauetan: *Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra*: "Datos para la etnografía de Artajona", *CEEN* (1970); "Ritos mágicos en la Merindad de Tudela", *CEEN* (1976); "Martes de carnestolendas en Pamplona", *CEEN* (1979). Bestalde 1977tik 1978ra biartean, lan anitz argitaratu zituen *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkarian Nafarroako gaur egungo historiari buruz, horien artean: *Navarra jamás dijo No al Estatuto Vasco*, Iruñea, 1977. Hona hemen hirurogeita hamarreko hamarkadan arteari buruz ditugunak: "Autores del sepulcro de Carlos III de Navarra", *Príncipe de Viana* (1974); "Los escultores Imberto y su obra en Garisoain", *Príncipe de Viana* (1975).

Laurogeiko hamarkadan ez ditu bazterreratu ordura arte erabilitako gaiak, baina momentu horretan toponimia ikerketak eta euskarari buruzkoak gailenduko dira, indar handiz. Bolada horretan hasi zen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian, etenik gabe, lanak argitara ematen. Ordukoak dira: *Toponimia en la Cuenca de Pamplona*, Bilbo, 1986, 1987, 1989, 1990; *Vocabulario histórico navarro (Villa de Tafalla)*, Tafalla, 1984; "Erderaz sarrera", José María Esparzari eginiko hitzaurrea, *Tafalla Vascona*, Tafalla, 1980; "Nombres vascos de ermitas en Iruñerria", *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura* (1985); "El campo artajonés habla vasco y bersolaris artajoneses", *Pueblos de Navarra hoy*, 1987. Hamarkada honetan anitz dira, baita ere, historia lanak: *Historia contemporánea de Navarra* (Vicente Huici Urmenetarekin), Donostia, 1982; "La sociedad agraria navarra a fines del siglo XIX", *Langaik* (1982); "Historia de Navarra", *Euskal Herria. Historia eta Gizartea*, Donostia, 1985; *Pamplona. Evolución histórica*, Iruñea, 1985; "Despoblados en el Valle de Garaño", *Príncipe de Viana* (1986); "La guerra de 1512-1522 y su repercusión sobre los territorios de la corona de Navarra", *Cuadernos de Sección Historia-Geografía* (1989).

Laurogeita hamarreko hamarkadan aipatu gaietan sakontzen segitzen du eta garai horretakoak dira *Toponimia y Cartografía de Navarra* bilduman agerturiko liburukiak, berrogeita bost orain arte, eta beste hamazazpi prentsan daudenak. Euskara ere ikerketa gai izan du Jimenok: *Historia de Pamplona y sus lenguas*, Tafalla, 1995; *Navarra. Historia del euskera*, Tafalla, 1997; "Permanencia y vitalidad del euskera", *Signos de identidad histórica para Navarra*, Iruñea, 1996; "Iglesias y euskera en Donostia (siglo XVI)", *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía* (1998). Jarraitzen du, bestalde, Erdi Aro, Aro Moderno eta Gaur egungo historia lanekin: "Eunate y sus enigmas", *Príncipe de Viana* (1995); "Eunate y su cofradía" *Príncipe de Viana* (1997); "Fiestas patronales de Añorbe (siglo XVII)", *Dantzariak* (1994); "El carnaval pamplonés en 1601", *La Ondarra* (1995); "Escuelas de primeras letras en Estella (siglos XVI-XIX)", *Príncipe de Viana* (1993).

Bibliografía

IBARZABAL, E., *50 años de nacionalismo vasco*, Donostia, 1978, 131-147. orr.; GOMEZ GOMEZ, A., "Thomas I. Becker, Eunate (Navarra): Zwischen Santiago und Jerusalem. Jimeno Jurío, Eunate y sus enigmas", in *Ondare (Cuaderno de Sección Artes Plásticas y Monumentales)*, (1997), 325-327. orr.; JIMENO ARANGUREN, Roldán, *José María Jimeno Jurío. Manuel Lekuona Saria*, Donostia, 1998.



KORTADI OLANO, Edorta

[Tolosa (Gipuzkoa), 1946.04.13]

Deustuko Unibertsitatea. Donostia
Apartado 1359
20080 DONOSTIA
Tel. 943273100 Fax 943292635

Humanitateak, Filosofia eta Teologia Donostiako Apaizgaitegian ikasi zituen (1958-1971), Maisutza Irungo Maisutza Eskolan (1968), eta Filosofia eta Letrak, Artearen Historia espezialitatea, Bartzelonako Unibertsitate Zentralean (1971-1976). Deustua-Donostia Unibertsitatean, Artearen Historiako doktoretza eskuratu zuen.

Diseinatzaile grafikoa eta publizista izanik, Euskal Kartelgintza eta Arte Grafikoak (1968-1976) mugimendu kontzeptualean hartu du parte. Haur literatura eta poesiari buruzko hainbat liburu diseinatu eta ilustratu ditu. 1968. urtetik aurrera irakaskuntzaren lana, artearen kritika eta arte erakusketako antolamendu zereginak uztartu ditu. Klaseak Ikastetxe eta Unibertsitate haue-
tan eman ditu: Larramendi Ikastetxea, Donostiako Maisutza Eskola (1978-1983), Udako Euskal Unibertsitatea, Deustua-Donostiako eta Bilboko Unibertsitateak (1979-1998). Gaur egun Artea, Museologia eta Museografiaren Historiako irakaslea da, Deustua-Donostiako Unibertsitatean, bai eta irakasle gonbidatua Bilbokoan.

1974an *Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko* kide supernumerario izendatu zuten eta, 1976an, Donostiako Elizbarrutiko Ondare Historiko Artistikoaren Kontserbatzaile. Eusko Jaurilaritzako eta Araba eta Gipuzkoako Aldundien Ondare Monumentalari dagokionez, Aholku Batzordeko kidea izan da. Donostiako *Catalina de Erauso* Arte Elkarteko lehendakaria da, bai eta Euskal Idazleen Elkarteko kidea. *Etor*, *Gero* eta *Erein* argialetxeen sortzailea izan da. *Sancho el Sabio* eta *Ars Sacra* aldizkarietako kontseilaria da. Donostiako Logia Mazonikoan ohorezko kide izendatu zuten, sinbologia ikertu eta hedatu duelako. Donostiako *Kantil* poesia saria eskuratu zuen, bai eta Tolosako Udalak *Tolosa bere kulturagileei* emandakoa ere. Maria Arrieta eta Murua Balzola Fundazioetako bekaduna izan da. Parte hartu du zenbait Kongresutan bai eta Arteari, Historiari eta Kulturari buruzko Nazioarteko Topaketetan, txostenak eta komunikazioak aurkeztuz.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1978an Arte Saileko lehendakari izendatu zuten eta 1982tik 1994ra Idazkari Nagusia izan zen. Jose Migel Barandiaran Fundazioko Idazkari Nagusia ere izan zen 1979tik 1997ra arte. 1978an Eusko Ikaskuntzaren birmoldaketan hartu zuen parte, bai eta sailak eta argitalpenak sortzen, egoitzak eta ondasun funtsak berreskuratzen, Eusko Ikaskuntzen Kongresuak antolatzen eta Jose Migel Barandiaran Fundazioa sortzen. Elren barnean bizkor jardun zuen ekintza hauek antolatzen: Eusko Ikaskuntzen IX.etik XI.eraingoko Kongresuak, Erdi Aroko Azterlanen Kongresua, Mitologiari buruzko II. Nazioarteko Kongresua, Barandiaran, Apraiz eta Zumalabe Beken Sorrera, Bibliotekonomia eta Artxibistikako Ikastaroak, Euskal Herriko Gaur egungo Historiaren Dokumentazio Zentroa. Bestalde, Euskal Herriko eta Nafarroako Artxibo, Liburutegi eta Museoen Zentsu-Gidak osatzen ere aritu da.

Argitalpenak

Arte, artista, gizartea, Bilbo; *Gipuzkoako pintoreak. 1939-79*, Donostia, 1979; *Arte Vasco. Euskal Artea*. Erein. Donostia, 1979; *Atlas de Euskal Herria. Euskal Herriko Atlas*, Donostia, 1982; *Monumentos Nacionales de Euskadi. Guipúzcoa*, 1985; *Euskal Herria, realidad y proyecto*, Donostia, 1985; *Aránzazu, tradición y vanguardia. Arantzazu, tradizioa eta abangoardia*, Donostia, 1993; *Grafía vasca*, Bilbo, 1994; *Juan Luis Goenaga (1969-1995)*, Donostia, 1995; 1996-98. *Aurelio Arteta en su obra (Bilbao 1879- México 1940)*, Bilbo, 1996-98; *Nuevas Generaciones. Pintores vascos en las colecciones de las Cajas de Ahorro*, Bilbo; *Las raíces telúricas en la obra de Eduardo Chillida*. La Rioja.



LABORDE WERLINDEN, Manuel

[Tolosa (Gipuzkoa), 1899.12.29 - Donostia, 1993.05.12]

Tolosan, 1899ko abenduaren 29an jaio zen. Guillermo Laborde Garate aitarekin eta Eduardo, Jose Maria eta Enrique anaiekin batera, 1926ko ekainaren hamaikan enpresa bat sortu zuten Andoainen. Bertan altzairu bereziak, ebakitzeko lanabesak, daratuluak, fresak, torlojuak, etab. egitera dedikatzen ziren, Sozietate Mugatua bezala hasieran eta gero, 1938tik aurrera, Sozietate Anonimo gisa. 1982an 95 langile ari ziren lanean eta bazituzten biltegiak Bartzelonan, Bilbon, Madrilan, Donostian, Santanderren, Sevillan, Valencian eta Zaragozan.

Manuelek oinarrizko hezkuntza eta batxilergoaren hasiera egin zituen herriko *Escuelas Pías* ikastetxean eta ondoren Santanderreko Industria Eskolara joan zen. 1917an Bilboko Ingeniari Industrialen Eskola Tekniko Nagusian sartu zen eta 1923an lortu zuen Ingeniari Industrialeko titulu. Urte horretan *Compañía Auxiliar de Ferrocarriles* enpresan hasi zen lanean eta laborategi, galda, altzairu labeak eta errodajearen laminazio saileko buruzagitz teknikoaren bere gain. Hiru urte beranduago Zuzendari-Kudeatzaile postua betetzen hasi zen, familiak Andoainen sorturiko enpresan, non ebakitzeko lanabesak fabrikatzen zituzten. Geroago, metal gogorreko fabrika batean Administrazio Kontseiluko kidea izan zen; makina-erremintak fabrikatzen zituen beste batean ere jardun zuen (Billabona). 1963an, Bilboko Ingeniari Industrialen Eskola Tekniko Nagusian, teknologia nuklearraren saileko batzorde eragileko batzordekide izendatu zuten. 1969az geroz, *Instituto Lucas Mallada de Investigaciones Geológicas*-eko batzordekidea da, bertako Kontseilu Teknikoan. Euskalerriko Adiskideen Elkartearen kidea da, bai eta Aranzadi Natur Zientziak taldearen sortzaileetarikoa. Geologia, meataritzaz eta historiaurreari dien zaletasunak artikulu anitz argitaratzera bultzatu du. Gainera hainbat aurkikuntza burutu ditu Gipuzkoan: bi trikuharri, hamalau estela diskoidal eta Marizulo historiaurreko kobazuloa. 1984an, berari eta Leandro Silvani omenaldia eskaini zuten Euskalerriarren Adiskideen Elkartek, Azkoitiako Insausti jauregian. 1986an Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman zion.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Lehendakaria izan da Fisika, Kimika eta Matematika Zientziak sailean 1978tik 1980ra arte.

Argitalpenak

La Real Sociedad Vascongada de Amigos del País y la metalurgia a fines del siglo XVIII, Donostia, Euskalerriarren Adiskideen Elkartea, 1950. *El Real Seminario de Vergara en la historia de las Escuelas de Ingenieros industriales de España*, Donostia, 1966.


Geologiaz, geografiaz, meataritzaz, historiaurreaz eta industrializazioaz hainbat artikulu argitaratu ditu aldizkari hauetan: *Munibe*, *Dyna*, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, *Etor*, *Oriabe* eta *La Revista Industrial y Fabril*. Jose Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, Joaquin Mendizabal eta J. I. Tellecheari eginitako omenaldietan, besteak beste, hartu du

parte. Orobat, elkarlanean eginiko lanetan bere eskua ageri da, esate baterako: *Euskaldunak. La Etnia Vasca*. Donostia, 1979.

Bibliografia

“Azkoitiko Insausti jauregian. Manuel Laborde eta Leandro Silvan jaunei omenaldia egin zitzaizen atzo”, *Deia*, 1984-VI-24; BANDRES UNANUE, L.: “Manolo Laborde”, *Deia*, 1988-IV-9; *HOMENAJE de la Sociedad de Estudios Vascos*, Donostia, 1987; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, V.

J.A.M.A.



LABURU OLASCOAGA, José Antonio

[Bilbo, 1887.06.04 - Erroma, 1972.12.04]

Bilbon jaio zen 1887ko ekainaren lauan. Lehenengo ikasketak *Nuestra Señora de la Antigua* ikastetxean burutu zituen, Aita Jesuitek Urduñan duten ikastetxean. 1902an Zaragozako Unibertsitatean sartu zen, ondoren Madrilgora joateko eta hor bukatu zuen Farmaziako lizentziatura. 1906an Jesusen Lagundian sartu zen. 1914tik 1917ra bitartean Biologia irakasle izan zen, Oñako Ikastetxean eta geroago Loiolakoan egon zen. Beste zenbait ikerkuntza zentrotan ere egon zen, hala nola, Bartzelona, Valkenburg (Holanda) eta Alemanian. 1923tik aurrera San Francisco Javier Ikastetxeko irakasle egon zen. 1928an, Bilboko Zientzia Medikoen Akademiak gonbidatuta, hitzaldi bat eman zuen "Psicofisiologia konparatuaz" eta, horri buruz, Justo Garatek polemika bati ekin zion prentsan, teoria zientifiko horiek zuzenak ote ziren zalantzan jarriz eta, azkenik, Gobernadore Zibilaren aginduz bukatu behar izan ziran eztabaidak, besterik ezinean. 1933az geroz Biologia, Antropologia eta Karakterologiako irakasle emeritua izan zen Erromako Unibertsitate Gregoriarrean. Zientzia Erakunde eta Elkarte anitzeko kidea izan zen, esate baterako *Real Academia Española de Medicina*-koa.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1932an Zientzia filosofiko-moral eta erlijiosoak saileko batzordekide hautatu zuten eta Batzorde Iraunkorreko kide izaten segitu zuen 1936ko altxamendu militarra jazo arte.

Argitalpenak

Manual teórico-práctico de Citología general e Histología animal, Valladolid, 1917; *Origen y evolución de la vida*, Bilbo, 1923; *De evoluciones organismum. De origine vitae*, Innsbruck (Austria), 1924; *Psicología médica*, 1935; *Anormalidades del carácter*, 1937; *Psicología de los sentimientos*, 1938; *El poder de la voluntad*, 1938. Aldizkari hauetan artikulua publikatu zituen: *El Día*, *Razón y Fé* eta *Estudios*. Hitzaldiak ezin konta ahala eman zituen.

Bibliografia

GARATE, J., *Polémica entre El Liberal y La Gaceta del Norte. El padre Laburu en la biología*, Bilbo, 1930; GARCIRRUBIO, C., "En torno a un sabio y jesuita", *Vida Vasca*, 1935, XII, 213. or.; ESPASA, XXIX, VI. Eraskina; BUSCA ISUSI, *El Correo*, 1972-IX-26; LOPEZ, C., *Primer Quién es Quién en Vizcaya, Diccionario de Vizcainos, naturales o adoptivos, de destacada proyección pública en distintas actividades y profesiones*, Bilbo, 1975, 212. or.

J.A.M.A.

LANDETA ABURTO, Eduardo (*Argacha, Sakona, Ito, Veritas vinciris y Don Higinio*)

[Bilbo, 1862.07.03 - Bilbo, 1957]



Bilbon jaio zen 1862ko uztailearen hiruan. Aita sendagilea zuen, baina berak Ekonomia ikasketak hobetsi eta horiei eman zien hasiera Bilbon eta Ingalaterran jarraipena. Ramón de la Sota Llanoren ahaidekoa izanik, beronen harreman publikoak hartu zituen bere gain, bai eta, bidena-bar, ideia abertzale berdinak ere. Abertzale mugimenduan ahal zena egitearen aldekoa zen. 1912an, Melquiades Alvarezen errepublikazaleekin harremanak ezartzeko asmoz sorturiko batzordeko partaidea izan zen. Orobat, Bizkaiko Aldundiko Euskal Kultura Batzordean hartu zuen parte. 1920-1921ean sortu ziren auzo eskoletako sortzaileetarik izan zen; horietan eskolak eman behar ziren Bizkaiko baserri giroko esparruetan, euskara erabiliz berezko hizkuntza zen tokietan. 1921ean *Liga Monárquica* delakoak Batzordetik egotzi zuen. Gerra Zibileko garaian erbestera etorri zen, ondoren jaioterrira itzuli bertan 1957an hiltzeko.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Nabarmena izan zen Eusko Ikaskuntzan egin zuen lana. Irakaskuntza Saileko batzordekide aukeratua izatean, Batzorde Iraunkorreko partaidea izan zen El sortu zenez geroztik 1924ra arte, urte horretan dimisioa aurkeztu baitzuen. Bi urte beranduago Batzorde Iraunkorrera itzuli zen eta bertan jarraitu zuen kide moduan, 1932a arte. Parte hartu zuen, baita ere, ezerezean geratuko zen Gerra Zibilean Erakusketa (1927) antolatzeko Batzordean; partaide izan zen, orobat, Euskal Unibertsitatea eta Euskal Autonomia erakusketetan ere. Euskal autonomiarekiko kezka horrek, hain zuzen ere, Eusko Ikaskuntzaren demokratizazioa eskatzera bultzatu zuen, bere nahiari jarraikiz, seguraski abertzaleek erakundearen zuzendaritzan eragin handiagoa izan zezaten, bereziki une horretan Euskal Herrirako autonomia itunaren proiektua erredaktatzen ari zirelako. Elk 1931. urtean Donostian (abuztuak 25 eta 26) eta Bilbon (abuztuak 28 eta 29), antolatutako Elebitasunaren Kongresuko txosten-emaileetarik bat izan zen.

Argitalpenak

Estado actual de la Escuela Primaria en Vizcaya y sus remedios inmediatos y organización de la escuela vasca de conformidad con las condiciones locales, Bilbo, 1919. *La Escuela Primaria actual debe tender hacia las realidades de la vida de conformidad con el ambiente en que funciona. Necesidad de atender a la educación de la voluntad*, Bilbo, 1920. *Antecedentes relativos a la reorganización de la Escuela de Náutica de Bilbao*, Bilbo, 1920. *El bilingüismo escolar*, Bilbo, 1922. *Los errores del nacionalismo vascos y sus remedios*, Bilbo, 1923. Bonifacio de Etxegaray, Aniceto Olano eta José de Ariztimuñorekin elkarlanean, *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, Donostia, Euskaltzaleak, 1935.

Etengabe jardun zuen *Hermes* eta *Yakintza* aldizkarietan lanak argitaratzen eta txostenak igorri zituen Eusko Ikaskuntzen I., II. eta III. Kongresuetara. Artikuluak ere idatzi zituen hainbat agerkaritan: *La Gaceta del Norte*, *El Pueblo Vasco*, *El Nervión*, *La Tarde* eta *Euzkadi*.

Bibliografia


AZAOLA, J. M.: *Vasconia y su destino. II. Los vascos ayer y hoy*, I. libk., Madril, Revista de Occidente, 1976; ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, V; CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herria*, Donostia, 1991, IV, 68 eta 69. orr.

J.A.M.A.

LARRAÑAGA BAJINETA, José Miguel

[Sukarrieta (Bizkaia), 1926.09.17]

Paseo Duque de Baena, 36, 2º izda.
20007 DONOSTIA



Peritu Industriala. Irakasle numerarioa, oposizio bidez, Maestria Industrialeko Eskolan. Gaur egun jubilaturik dago. *Estudio Ecológico y Económico de las repoblaciones de coníferas exóticas en el País Vasco* izeneko ekintzan, jarraipen batzordeko kidea da.

Aranzadi Zientzi Elkarteko Idazkari Nagusia izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Natura Zientziak Saileko lehendakaria izan zen 1978tik 1982ra arte.

Argitalpenak

Mikologian aritu da eta, noizbehinka, historiaurrean ere jardun du. Berak egindako lanen artean, honako hauek aipa ditzakegu: *Las setas del País Vasco* (Donostia) eta "Estación megalítica de Adiko Soroa (Navarra)", *Munibe* 32 (1980), 372-373. orr.



LEIZAOLA SANCHEZ, Carmelo

[Donostia, 1901.05 - 1935.12.15]

Donostian jaio zen 1901eko maiatzan, familia euskaldun aberats baten altzoan. Aita, José Zacarías Leizaola (1869-1902), litografoa eta fotograbatzailea, Barojatarren eta Bonifacio Echegarayren adiskidea zen eta ideia abertzaleak zituen. Ama, Cándida Sánchez izan zen. Guraso horien ondorengoa zazpi haurrez osaturik zegoen eta, horien artean, Carmelo laugarrena zen. Anaia zaharrena, Enrique, 1937an hil zen. Ignaciok kimika ikasi zuen Bavierako unibertsitatean. Jesús María (1896-1989), Euskadiko bigarren lehendakaria, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen, Carmelo bezala. Ricardo anaia, inprimatzaile eta editore donostiarra, aitak sorturiko "San Ignacio" liburudendako zuzendaria izan zen, bai eta Argia (1923-1936) aste-kariaren bultzatzaile eta argitaratzailea; Eusko Ikaskuntzarekin ere lotura handiak zituenez, 1928an, euskal testu klasikoak Julio de Urquijoren gainbegiratuaz argitaratzea proposatu zion Elko zuzendaritzari.

Carmelok, Jesús Mariak bezala, batxilergoa Lekarozko (Nafarroa) Ikastetxean ikasi zuen, curriculum ezin hobea erdietsiz. Bere prestakuntzari Instituto de Química de Sarrián eman zion segida. Zientzia honekiko zuen zaletasunak ireki zion bidea, ikasketak amaitu aurretik, Galdakaoko dinamita fabriketan lanean hasteko, non lanean jardun zuen heriotz goiztiarra iritsi arte. 1924an, Zaragozako Unibertsitatean, Zientzia karrera ikasteari ekin zion eta ondoren Madrilera joan eta Farmazia ikasi zuen. Kimika ez-ezik euskal kultura lantzea ere gogoko zuen, horregatik *Euskeraren Adiskideak* elkartera sortu zuen Galdakaon (1931) euskara gizartearen baitan sustatzeko asmoz. Eusko Alderdi Jeltzaleko kidea izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntza

1932tik aurrera Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen, urte horretan, hain zuzen ere, izendatu baitzuten Matematika, Fisika eta Kimika Zientziak saileko batzordekide. Heriotzak Hego Amerikan harrapatu zuen, Eusko Ikaskuntza sustatzeko egiten ari zen ibilaldi batean.

Argitalpenak

Burutu zituen saio eta azterketak aldizkari berezietan argitaratu zituen, adibidez, *Anales de la Sociedad Española de Física y Química* izenekoan.

Bibliografia

LANDA, C., *Jesús María Leizaola. Vida, obra y acción política de un nacionalista vasco (1896-1937)*, Bilbo, 1995.

J.A.M.A.



LEIZAOLA SANCHEZ, Jesús María (*Jel-Orde*)

[Donostia, 1896.09.07 - Donostia, 1989.03.16]

Donostian jaio zen 1896ko irailaren 7an, familia euskaldun aberats baten altzoan. Aita, José Zacarías Leizaola (1869-1902), litografoa eta fotograbatzailea, Barojatarren eta Bonifacio Echegarayren adiskidea zen eta ideia abertzaleak zituen. Ama, Cándida Sánchez izan zen. Guraso horien ondorengoa zazpi haurrez osaturik zegoen eta, horien artean, Jesús María hirugarrena zen. Anaia zaharrena, Enrique, 1937an hil zen. Ignaciok kimika ikasi zuen Bavierako unibertsitatean. Carmelok (1901-1935), kimiko ospetsua izandakoak, Jesús Mariak bezala Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzan hartu zuen parte. Ricardo anaia, inprimatzaile eta editore donostiarra, aitak sorturiko "San Ignacio" liburudendako zuzendaria izan zen, bai eta *Argia* (1923-1936) astekariaren bultzatzaile eta argitaratzailea; Eusko Ikaskuntzarekin ere lotura handiak zituenenez, 1928an, euskal testu klasikoak Julio de Urquijoren gainbegiratuaz argitaratzea proposatu zion Elko zuzendaritzari.

Jesús María 1924ko apirilaren 21ean ezkondu zen María de Coro Loidi Zulaicarekin (-1967), Ricardo anaiaren emaztea zen Maria Azpiazu Zulaicaren lehengusuarekin alegia. Sei seme-alaba izan zituzten: Koldo (1928.10.04), Begoña (1930.03.26), Koro (1932.10.15), Itziar (1934.05.05), Arantza (1935.05.02) eta Estibaliz (1937.07.29).

1903an, sei urte besterik ez zituela, Jesús María Nafarroara bidali zuten, lehen eta bigarren mailako ikasketak egitearren, Kaputxinoek Lekarozen zuten ikastetxera eta bertan egon zen 1912ra arte. Ikasle ona izan zen, zeren eta han emandako egonaldia ikasturte amaierako aparteko sariarekin bukatu baitzuen eta, gainera, Gasteizko Institutuan lorturiko batxilergo titulua bikain notarekin eskuratu zuen. Euskal Herrian unibertsitate publiko edo ofizialik ez zegoenez, Valladolidera abiatu zen, ikasketak han jarraitzeko. Hiru ikasturtetan Zuzenbide karrera ikasten jardun zuen, bidenabar amari eta Ricardo anaiari lagunduz, aitak ireki berria zuen liburudendan. Azkenik, 1915ean, bere prestakuntza buruturik, lizentziatura eskuratu zuen eta urte bereko maiatzean Gipuzkoako Aldundiko letratu buru lanpostua erdietsi zuen. 1918ko uztailan Gipuzkoako Abokatuen Elkargoan sartu zen. Urtebete beranduago, Bilboko Udaleko Ogasun saileko buruzagi plaza lorturik, hiri horretara joan eta lurralde horretako Abokatuen Elkargoan sartu zen.

Aita bezala, Jesús María ere abertzalea zenez, EAJko kide egin zen. Bere jarduera politikoa etengabea izan zen. Eusko Langileen Alkartasunako lehen Biltzarrean (Eibar, 1929), ordezkaria izan zen Gipuzkoaren izenean, bai eta *Euzkadi*-ko Kontseilaria 1931n eta 1933an, eta, Gorte Konstituziogileetako Batzordean, euskal gutxiengoaren ordezkaria. Lan gogorra egin zuen Estatutua onar zedin. 1936an Euskadiko lehen gobernuko partaidea izan zen, Justizia eta Kultura Kontseilari karguan. Gerra pizturik, erbesteratu egin zen. Agirre Lehendakariaren heriotzaren ostean, haren postua betetzeko karguari zin egin zion, 1960ko martxoaren 28an. 1979an itzuli zen jaioterrira eta hurrengo urtean euskal parlamentari aukeratu zuten, hilabete batzuk geroago jarduera politikoa baztertu bazuen ere. 1988ko urriaren hiruan Euskal Herriko Unibertsitateak honoris causa doktoretza eman zion. Ondoko urteko martxoaren 16an hil zen Donostian.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

El sortu zenetik Jesús Mariak parte hartu zuen Eusko Ikaskuntzako zereginetan. 1918an, Donostiako Zentro Katolikoko Idazkariaenez, Eusko Ikaskuntzako lehen Kongresua antolatzeko laguntza eskaini zuen. Udaleko funtzionarioa ere bazenez, bestalde, parte hartu zuen, udal administrazioa Euskal Herrian gaiari buruz Erakundeak eratu hitzaldi zikloan. Hirugarren Kongresuan (Gernika, 1922) gertaera zalapartatsu baten protagonista izan zen, Euskal Unibertsitatearen aldeko manifestazio batean parte hartzeagatik, hori dela eta kartzeleratu egin baitzuten. Elkarteak bultzaturik eginiko Euskal Herriko mapa fisikoaren indizean lan egin zuen, Villalonga Kondearekin batera. 1934an Gizarte Azterlanak Saileko batzordekide izendatu zuten, eta ordutik aurrera, 1936ko altxamendu militarra gertatu arte, Batzorde Iraunkorrekota parteide izan zen. Euskara hain ongi menperatzen zuelako, Elkarteak hizkuntzaren ezagueraz ematen zituen ziurtagiriak lortzeko, azterketa epaimahaian egon ohi zen

Argitalpenak


Contribución de los vascos a la formación y a la ciencia del Derecho, Donostia, 1935. *La frontera vasca contra moros*, Bilbo, 1937. *Report on the Administration of Justice in the Basque Country during the Civil war*, London, 1938. *Estudios sobre la poesía vasca*, Buenos Aires, 1951. *La Crónica en la poesía popular vasca*, Buenos Aires, 1961. *Líneas generales de la formación de la economía vasca en la historia hasta hoy. Constantes y variables para la economía vasca*, Caracas, 1962. *1808-1814 en la poesía popular vasca y otros estudios*, Buenos Aires, 1965. *Los romances vascos (Üskal khantoriak) y sus relaciones con las reliquias literarias de la prehistoria*, Buenos Aires, 1969. *Acontecimientos del s. XX en poetas euskéricos*, Buenos Aires, 1974. *La marina civil vasca en los siglos XIII, XIV, XV (Iª parte s. XIII)*, Donostia 1984. *Publicaciones completas*, IV liburukitan, Sendoa argitaletxeak argitaratuak, 1981-1985.

Gainera, etengabeko kolaborazioak argitaratu zituen hainbat egunkari eta aldizkaritan, hala euskaraz nola gaztelaniaz: *Gure Herria*, *Euzkadi*, *Argia*, *El Día*, *Yakintza*, *Euzko Gogoia*, *Euzko Deya*, *Alderdi*, *Diario Oficial*, etab.

Bibliografia

LOPEZ, C., *Primer Quién es Quién en Vizcaya, Diccionario de Vizcainos, naturales o adoptivos, de destacada proyección pública en distintas actividades y profesiones*, Bilbo, 1975, 226. or.; JESUS María Leizaola. *Primer Consejero de Justicia y Cultura del Gobierno Vasco*, Gasteiz, 1986; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, V; LEIZAOLA *la lealtad del viejo roble: 46 testimonios le recuerdan*, Bilbo, Fundación Sabino Arana, 1989; CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herria*, Donostia, 1991, V, 90-97. orr.; LANDA, C., *Jesús María Leizaola. Vida, obra y acción política de un nacionalista vasco (1896-1937)*, Bilbo, 1995; RODRIGUEZ RANZ, J. A., *Jesus María Leizaola, denborak garaituz*, Bilbo, Fundación Sabino Arana, 1996.

J.A.M.A.



LEKUONA ETXABEGUREN, Manuel

[Oiartzun (Gipuzkoa), 1894.02.09 - Oiartzun, 1987.07.30]

Kultura giro jatorrean hazi zen, apaiz eta poeta zen osabari esker, Miguel Antonio Iñarria (1864-1898), hau liburutegi eder baten jabe izanik, gainera. Apaiz ikasketak Gasteizko apaizgaitegian burutu zituen eta bertan egon zen irakasle 20 urtez (1917-1936). Bere lanak euskal kulturarekin zerikusia duten alderdi nagusiak ukitzen ditu, historia, artea, literatura, etnografia eta erlijioarekin zerikusia dutenak nabarmentzen direlarik. 1934an *Kardaberaz Bazkuna* sortu zuen Gasteizko Seminarioan.

Gerra Zibilaren garaian, asaldatuak Julian eta Martín anaiak, apaizak haiek ere, fusilatu egin zizkieten. 1936tik 1941era Lasarteko komentu batean egon zen ezkutaturik eta azken urte horretan, bere egoera normaldu zenean, Kalagorriara erbesteratu zuten 1955a arte.

1950ean Euskaltzaindiko kide izendatu zuten eta eman zuen sarrera hitzaldia *Gorozika'tik Gurutzeaga'ra edo Gurutzearen izena gure toki-izendegian* izan zen. 1967tik 1970era arte Euskaltzainburu izan zen. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide osoa zen, bai eta *Textu Liturjikoak Euskaratzeko* itzultzaile taldeko zuzendaria ere. *Facultad Teológica del Norte de España*ko Honoris Causa doktore izan zen. 1978an argitaratu zituzten bere *Idazlan guztiak*, hamabi liburukitan bilduak.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako kidea izan zen 1919tik aurrera. Literatura Saileko batzordekide 1934tik 1936ra, bai eta diktaduraren ostean ere 1979tik 1987ra arte. Bergaran 1930ean eginiko Eusko Ikaskuntzen V. Kongresuan "La poesía popular vasca" izeneko lana aurkeztu zuen eta bertan bere ikertze lanetan, behin eta berriro, azaltzen diren hiru gai ukitzen zituen, hots, euskal poesia dekoratiboa, kopia zaharrak eta bertsolaritza. 1978an Eusko Ikaskuntzak biziarteko kide izendatu zuen. Orobat, bere izena daraman saria sortu zuen Eusko Ikaskuntzak, bizitza intelektual osoko norabidea eta egindako ikerlan guztia eskertzeko, eta 1983an Manuel Lekuonari berari eman zion sari hori.

Argitalpenak

1921ean Martin anaiarekin *Eun dukat* izeneko komedia argitaratu zuen eta 1933an *Gabon kantak*. 1935ean *Literatura oral euskérica* inprimatu zuen, 1948an *Jesu Aurraren bizitza* haur poema eta 1954an *Egan-en Belenen, Bizia Maite-irria, Tanzlied* olerkiak eta *Geroren hitzaurrea* eman zituen argitara. Artearen historiari dagozkion lanen arteko nabarmenenak: *El Monasterio de MM. Brígidas de Lasarte, Parroquia de San Pedro de Lasarte, Fuentes de la M. Rafols, Ciencia Tomista, La Catedral de Calahorra, Iglesia de San Andrés de Calahorra, Iglesia de Santiago de Calahorra, La iglesia de Andoain, Dos grecos en Guipúzcoa*. 1978an *Arte Vasco* lana argitaratu zuen.

Hainbat artikulu argitaratu zituen Euskal Herriko eta Errioxako aldizkari garrantzitsuenetan: *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo*, *Berceo*, *Aránzazu*, *El Bidasoa*, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, *Cuaderno de la Sección de Arte de Eusko Ikaskuntza*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Egan*, *Estudios de Deusto*, *Euskalerraren Alde*, *Euskera*, *Eusko Folklore*, *Eusko Gogoia*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Gure Herria*, *Jaunaren Deia*, *Kardaberaz Bazkuna*, *Munibe*, *RIEV*, *Oiarso*, *Príncipe de Viana*, *Rioja*.

Bibliografia

AROCENA, F., "Don Manuel de Lecuona Echaveguren", *BRSVAP* (1956), 232-233. orr.; MAÑARICUA, A., "Aspectos humanos de Don Manuel", *Manuel Lekuonari omenaldi*, Donostia, 1983, 13-17. orr.; AKESOLO, L., "Manuel Lekuona eta aozko Euskal-literatura", *Manuel Lekuonari omenaldi*, Donostia, 1983, 19-27. orr.; ARRAZOLA, M. A., "Homenaje a Manuel Lekuona", *Manuel Lekuonari omenaldi*, Donostia, 1983, 29-35. orr.; LEKUONA, Juan M^a, "Manuel Lekuonaren literatur kreazioa", *Manuel Lekuonari omenaldi*, Donostia, 1983, 37-46. orr.; ZUMALDE, I., "Manuel Lekuona, historiador y etnógrafo", *Manuel Lekuonari omenaldi*, Donostia, 1983, 47-52. orr.; LEKUONA BERASATEGI, J. M., *Manuel Lekuona Etxabeguren*, Donostia, 1995; GOMEZ GOMEZ, A., *El arte románico en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Perperspectivas historiográficas*, Bilbo, 1996, 21-28. orr. eta 98-99. orr.; GOMEZ GOMEZ, A., "Los inicios de la investigación sobre el Arte Románico en el País Vasco", in *Ondare* 16 (1997), 170-171. orr.; AULESTIA, G., "Un siglo de literatura vasca", *Revista Sancho el Sabio* 5 (1995), 17-47. orr., 6 (1996), 13-47. orr.; 7 (1997), 13-77. orr.

A.G.G.



LEREMBOURE DIHORSUBEHERE, Michel Hyacinthe

[Sara (Lapurdi), 1874 - Sara (Lapurdi), 1959]

Saran jaio zen 1874an, familia euskaldun ospetsu baten altzoan. Augier Hyacinthe Alexandre Leremboire (1798-1868) abokatua izen zen, lehenik Paben eta gero Baionan finkatu zena, non behin-behineko gobernuak Komisariorde izendatu zuen (1848) eta, ondoren, Frantziako Asanblada Nazionalako ordezkari, hemen sozialisten kontrako Alderdi Nazionalaren baitan jardunez.

Michel Hyacinthe Medikuntza karrera ikasi ondoren, Donostian jardun zuen kirurgia lanetan, hemen bizi izanez urte askotan eta beste donostiarrekin batera zenbait ospitale sortuz. Gerraren eztanda gertatu ondoren bere jaioterrira itzuli zen eta bertan Medikuntza Kolegioko Lehendakari postua bete zuen. Euskal abertzaletasunarekiko atxikimendua erakutsi zuen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzan, Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen Michel, Iparraldeko ordezkaritza eskuratu ostean, horrela gertatu baitzen Jean Ibarregarayren hutsunea bete egin zuenean. 1932an berriro aukeratu zuten.

Bibliografia

ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983.

J.A.M.A.



LEZAMA LEGUIZAMON SAGARMINAGA, Luis

[Bilbo, 1933]

Bilbon jaio zen meatze eskualdeko familia ahaltsu baten altzoan. Batxilergoa jaioterrian ikasi zuen, baina Ingeniaritza ikasketak egiteko Bartzelonara joan zen. Musika zale oso handia izanik, Resurrección María Azkuerekin elkarlanean aritu zen euskal operak antzezteko. *Sociedad Filarmónica de Bilbao* erakundeko sortzaile eta Lehendakaria izan zen eta kulturarekiko zuen zale-tasunak bultzatu zuen Bizkaiko Aldundiko Euskal Kultura Batzordea ere kudeatzera. Pentsakeraz eskuindar nabarmena izanik, Bizkaiko *Comunión Tradicionalista*ko buru izan zen, bai eta *Acción Católica*ko Batzordeko kidea ere. 1933an, Bilboko eskuinaren hautagai izan zen, baina arrakastarik gabe.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1920tik 1922ra arte Bizkaiko Aldundiaren ordezkaria izan zen Eusko Ikaskuntzan. 1925ean Literatura saileko batzordekide aukeratu zuten, Carmelo Echegaray zenduaren ordezkari, eta Batzorde Iraunkorrekiko kidea izan zen harez keroztik 1927ra arte, bai eta 1931tik 1933ra arte, berriro ere Elkarteko batzordekide aukeratu zutenean. Gerra Zibilei buruzko mamitu ez zen Erakusketan (1927) ere, Antolaketa Batzordeko kidea izan zen.

Argitalpenak

Informe emitido acerca de la obra manuscrita conocida con el nombre de Crónica de Ibarгүйen, Bilbo, 1921. Juan Ruiz Larrínagarekin elkarlanean, *El Vascófilo franciscano R. OR. Fr. Juan Mateo Zabala: estudio bio-bibliográfico*, Donostia, Diputazioa, 1927.

1924an Juan Mateo Zabalari buruzko artikulua bat idatzi zuen *RIEV* aldizkarian.

Bibliografía


ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, VI; PLATA PARGA, G., *La derecha vasca y la crisis de la democracia española (1931-1936)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Diputazioa, 1991.

J.A.M.A.

LLANOS ORTIZ DE LANDALUZE, Armando

[Gasteiz, 1935.12.03]

Gorbea, 27, 6. esk.
01012 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 226101 Fax 945 270155



Arte Aplikatueta graduatua da, diseinu espezialitatean, Bartzelonan egin zituen ikasketak direla medio. 1957an hasi zen Jose Migel Barandiarani laguntzen hainbat indusketa arkeologikotan. Arkeologia katedrek egindako gonbidapenari erantzunez, hainbat unibertsitateetan eman ditu klaseak: Valladolid, Zaragoza, Bartzelona, Madrilgo Autonomia eta Euskal Herrikoa. Espainian, Frantzia eta Italian egindako indusketetan esku hartu du. Zuzendari edo zuzendarikidea izan da Arabako probintzian egindako hainbat indusketa, ikerketa eta proiektu arkeologikotan, horietan nabarmenena La Hoyako biziguneko indusketan eginikoa.

Aranzadi Zientzi Elkarteak *Aranzadi Ikertze Saria* eman zion 1960an. 1981ean, halaber, *Barandiaran Beka* lortu zuen Euskal Herriko Azken Brontzeari eta Burdin Aroari buruzko lan bat egiteko. *Real Academia de la Historia*ko akademiko urgazlea da eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kide osoa. Bestalde, Bartzelonako Unibertsitateko Historiaurrea eta Arkeologia Institutuko kidea da, baita Aranzadi Zientzi Elkartekoa ere. Gainera, Arabako Arkeologia Institutuaren sortzailea eta lehendakaria (1975-1989), bai eta Euskadiko Arkeologia Ondareko Aholku Batzordekoa eta Arabako Foru Diputazioaren Arkeologia Aholku Batzordekoa. Bera da, orobat, *Estudios de Arqueología Alavesa*, aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elren berpizte lanetan partaide izan zen. 1976tik 1985era arte Lehendakariordea izan zen Arabaren aldetik eta Elkarte berrantolatzeari ekin zion lurralde horretan, haren egoitza antolatuz, gaur egun kokaturik segitzen duen tokian. Jose Migel Barandiaranek izendaturik, J. M. Barandiaran Fundazioko Patronatuko kidea da.

Argitalpenak

Laurogei baino gehiago dira argitaratu dituen lanak. Hona hemen, adibidez, haietariko batzuk: *Carta Arqueológica de Alava 1*, Vitoria-Gasteiz, 1984; "Resumen tipológico del arte esquemático en el País Vasco", *Estudios de Arqueología Alavesa* (1980); "Arquitectura y urbanismo en el primer milenio antes de Cristo", *El habitat en la historia de Euskadi*, Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro, Bilbo, 1989; "Necrópolis del Alto Ebro", *II Simposio sobre los celtiberos*, Daroca (Zaragoza), 1989.



LOIDI BIZKARRONDO, José Antonio

[Errenteria (Gipuzkoa) 1916.08.22]

Farmacia y Optica
Paseo de Colón, 49
20301 IRUN
Telf. 943612678. Fax 943611611
E-mail: JLOIDIB@NEXO.ES

1942an Farmaziako lizentziatura lortu zuen, Santiago de Compostelako Unibertsitatean. Ondoko urtetik aurrera lanean jardun du Farmazia eta Optika dendan. 1956an optikako diplomatura eskuratu zuen Madrilgo Unibertsitatean, eta 1960an Akustikakoa, Santiagokoan berriro. 1960an Farmazia Ikuskatzaileen Taldean sartu zen. 29 urtetan zehar, Irungo Udaleko Farmazia Ikuskatzailea izan da. Gipuzkoako Osasun Mapa moldatzen lagundu du, bai eta Bidasoa ibaiaren arazo sanitarioei konponketa bilatzen ere. 1987an Análisi Klinikoetako botikari espezialista titulua eskuratu zuen. Bere lanbidea eta euskal kultura lantzea uztartu ahal izan ditu eta historiak, linguistikak, toponomiaz, hidrologiaz, biografiaz eta abarrez artikulak ugari idatzi ditu. 1957tik aurrera Euskaltzaindiako urgazlea da eta 1998az geroztik Ohorezko Euskaltzaina. *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria-Boletín de Estudios del Bidasoa-Révue D'Études de la Bidasoa* aldizkaria argitaratzen duen "Luis de Urantz Kultur Taldea" argitaletxeko sortzailea eta lehendakaria da. Hidrologiaz eginduen lanak *Consejo General de Colegios Oficiales de Farmacéuticos de España* erakundeak, bai eta Gipuzkoako Botikarien Elkargo Ofizialak ere sariztatu dizkiote. "Irun bere aurrerabidean", historia saiakeragatik Irun Hiria saria eman zioten.

Parte hartu du, orobat, Agustín Zumalabe Beka nori eman erabakitzen duen Epaimahaian, bai eta Euskal Herriko hainbat erakundek antolatutako literatura zein zientzia lehiaketa anitzetan ere.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1976an parte hartu zuen Elen berpizte lanetan, hasieratik Diruzaina postua betez. Araudi berria idazterakoan partaide izan zen eta horren euskaratze lana ere berea da. 1979tik 1983ra bitartean Diruzainordea izan da.

Argitalpenak

Hamabost egun Urgainen, 1. arg., 1955. *Euskal Jaiak/Fiestas Euskaras*, Irungo Udala, 1983, (edizio elebiduna). *El sexo en la farmacia*, Colegio Oficial de Farmacéuticos de Gipuzkoa, 1990. "Posible aprovechamiento del agua del río Bidasoa para el abastecimiento de las ciudades de Irún y Fuenterrabía", *Asamblea Nacional de Farmacéuticos Titulares*, Cádiz, 1971. "Algunos aspectos de la temática del agua en Irún", *V Coloquio de Investigaciones sobre el agua*, Donostia, 1973. "Algunos aspectos sanitarios de las ciudades de Irún y Fuenterrabía", *Documentos de Investigación Hidrológica*, Bartzelona, 1974.



LOPEZ DE GUEREÑU IHOLDI, Gerardo

[Gasteiz, 1928.02.14 - Donostia, 1989.01.11]

1928ko otsailaren 14an jaio zen Gasteizen. Haren aita, Gerardo Lopez de Guereñu Galarraga (Gasteiz, 1904.04.23-1992.12.02) idazle oparoa izan zen, argitaraturiko obra zabalaren jabe, Euskaltzaina eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko bazkidea. Gerardo aita industria gizona ere bazen: aitonak sorturiko "Sillas plegables Antonio López" familiarteko enpresa heredatu baitzuen. Eragin handia izan zuen seme-alabengan, Gerardo eta María Pilar, eta emaztearengan, Pilar (†1980): guztiok laguntzaile izan zituen bere ikerkuntza jardueran.

Gerardo semeak Gasteizko *Colegio de los Corazonistas* izenekoan burutu zuen oinarrizko heziketa. Gero, Bilbora aldatu zen eta han Merkataritza Eskolan ikasi zuen. Familiaren aulki tolesgarrien fabrikari lan egin zuen eta ondoren makina lanabesak egiteko enpresa sortu zuen. *Ohitura*. *Estudios de etnografía alavesa* aldizkaria sortu eta zuzendu zuen eta *Anuario de Eusko Folklore* eta *RIEV* aldizkariaren Idazketa Batzordekoa izan zen. Bestalde, Manuel Iradier ibilaldi elkarteko burua izan zen, bai eta Etniker-Araba taldeko sortzailea ere 1971n.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elren Arabako Lehendakariordea izan zen 1985eko maiatzatik hil zen arte (1989).

Argitalpenak

Hainbat aldizkaritan idatzi zuen: *Anuario de Eusko Folklore*, *Pyrenaica*, *Ohitura*, *Mendiak*, *Excursionista Manuel Iradier* eta *Boletín del Instituto de Sancho el Sabio*.

Bibliografia

ERKOREKA, A., *Euskal antropologoak, etnologoak, eta etnografoak gaur*, Donostia, Kriselu, 1988, II. liburukia; VELEZ DE MENDIZABAL, J., *Gerardo López de Guereñu Galarraga. Premio Manuel Lekuona*, 8. zk., Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1996.

J.A.M.A.

MADINABEITIA ORTIZ DE ZARATE, José

[Oñati (Gipuzkoa), 1870.10.14 - Bilbo, 1923.01.02]

Oñatin jaio zen 1870eko urriaren 14an. Juan Javier Madinaveitia Oguste, *Propietario y Caballero Maestrante de Ronda*, eta María del Carmen Ortiz de Zárate Orcelay izan zituen gurasoak, Oñatikoak biak.

José familia ugari baten zazpigarren haurra izan zen; aita hil ondoren diruz larri bizi izan ziren. Haren anaia Juan (Oñati, 1861-Bartzelona, 1937) mediku ospetsua izan zen; karrera Valladolid eta Madrilen egin zuen, Espainiako eskola gastroenterologiko modernoaren sortzailea eta egungo Medikuntzaren maisu handietariko; ideologia anarkistakoa.

Josék, anaiak bezala, Medikuntza ikasi zuen. Ikasketak amaiturik, mediku eta kirurgilari bezala jardun zuen Bilbon. Denborarekin ideia abertzaleak alboratu eta sozialistengana hurbildu zen mende hasiera inguruan. Aldaketa politikoak Arana Goirenen etsaigoa ekarri zion eta gehienbat burgesen artekoak zituen Bilboko bezeroek bertan behera utzi zuten haren kontsulta. 1905ean, PSOEren Madrilgo Kongresuan izan zen Eibarko taldearen ordezkari gisa. Hala eta guztiz, iraultzailetzat jo zuen 1917ko lanuzte orokor haren ondoren, arian-arian, aldendu egin zen militantzia politikotik. Amuategui adiskidea 1919an hil ondoren, Eibarrera joateari utzi zion eta Madrilen, Juan anaia bertan bizi baitzen, eta Larrondon (Asua) ematen zuen bizitza. 1923ko urtarrilaren bian hil zen. Heriotzaren ondoren eztabaida gogorra gertatu zen, bai katolikoek eta bai antiklerikalek ere, haren heriotzaz egin nahi izan zuten erabileragatik.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetarikoa, 1919an Medikuntza saileko batzordekide izan zen Huici doktorearen ordezkari, eta harez geroztik Batzorde Iraunkorreko kide izan zen. Arrakasta handia bildu zuen puerikultura liburuska baten egilea da. Gainera, Eusko Ikaskuntzak Euskal Unibertsitatea eraikitzeko helburuarekin egindako gestioetan hartu zuen parte; berak halako unibertsitate ibiltari bat proposatu zuen behin-betikoaren aitzineko gisa.

Argitalpenak

Gizarte eta ekonomia arazoez arduraturik, Eusko Ikaskuntzen Bigarren Kongresuan esku hartu zuen (Iruñea, 1920) eta alde zuzeneko txosten bat egin zuen Mújica, Cunchillos eta Oruetarekin batera.

Bibliografia

ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983; ZULAICA, D., *Vida y obra del Dr. Madinaveitia*, Zarautz, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1985; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, VI.

J.A.M.A.



MANTEROLA ALDECOA, Ander

[Zeanuri (Bizkaia), 1934.05.23]

Arteagako Apaizgaitegian sartu zen 1945ean eta 1957an apaiztu zen. Urte horretan Derioko Apaizgaitegira aldatu zen. Gero Teologia ikasi zuen Lovainako Unibertsitatean (1967-1968) eta Varagnac-ek Parisko *Ecole des Hautes Etudes*-en emandako ikastaroan –“Traditions populaires et prehistoire”– hartu zuen parte (1979-1980). Bere apaiz lana hainbat parrokiatan burutu du: Laukariz-Mungia (1957), Bilboko San Rafael (1957-1958), Zamudio (1958-1964) eta Durangoko Andra Maria (1964-1967). Humanitateak irakatsi ditu Derioko Apaizgaitegian (1957-1964), Goi Teologia Apaizgaitegian (1969-1974), kultura antropologiaren irakaslea Derioko Irakasle Eskolan (1974-1979). Halaber, kultura antropologiari buruzko ikastaroak eman ditu Gasteizko Teologia Fakultatean (1983-1984 eta 1986-1987) eta Bilboko Teologia Institutuan (1985).

Labayru Ikastegiaren sortzaileetarikoa da eta bertako Zuzendaria izan da; Euskara arloaren arduraduna 1985az gero, bertako *Euskal Bibliotekaren* sortzaile eta Zuzendaria da. 1973tik *Etniker-Bizkaia* kudeatzen du. 1987tik aurrera *Atlas Etnográfico de Euskal Herria-ko* zuzendaria da. Halaber, Durangoko Euskal Biblioteka eta Udako Euskal Ikastaroa sortu eta zuzendu ditu eta Bilboko Arkeologia, Etnografia eta Historia Museoko Batzordekidea izan da. *Etniker* aldizkariaren zuzendaria izan da eta Eusko Folklore Urtekaria eta Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria agerkerien Idazketa Batzordeetan parte hartu du. Askoren artean onduriko *Euskaldunak. La etnia vasca* obraren zuzendaria.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntza berriro abian jartzen lagundu zuen 1977. urtetik. 1979an Bizkaiko Lehendakariorde izendatu zuten Gasteizen egindako Batzarrean. 1991a arte egon da karguan.


Argitalpenak

Elkarlanean, *Juegos y canciones infantiles*, Colección Temas Vizcaínos, Bilbo, Caja de Ahorros Vizcaína, 1979 eta *Euskal deklinabidea ariketak*, Bilbo, Labayru Ikastegia, 1981.

Hainbat agerkaritan lan egin du, hala nola *Eusko Ikaskuntzako Antropología-Etnografía Saileko Koadernoak* eta *Boletín Etniker* aldizkarietan. Elkarlanean buruturiko obretan esku hartu du: *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa* eta *Euskaldunak. La Etnia Vasca*, Donostia, 1980.

Bibliografia

ERKOREKA, A., *Euskal antropologoak, etnologoak, eta etnografoak gaur*, Donostia, Kriselu, 1988, II. liburukia.



MONREAL ZIA, Gregorio

[Etaiu (Nafarroa), 1942.03.11]

Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Arrosadia Kanpua, z/g
31006 IRUÑEA
Tel. 948169149

Zuzenbide ikasketak egin zituen Madrilgo Universidad Complutensean; lizentziatura eskuratu zuen bertan 1966an eta 1973ko otsailaren 23an doktoratu zen. Alfonso García Gallo izan zuen Tesi Zuzendaria. 1968tik gaur artean irakaskuntzan aritu da hainbat unibertsitatetan: Deustua, Valladolid, Cáceres, Madrilgo Complutense eta Euskal Herrikoa. Egun, Zuzenbidearen Historiako katedraduna da Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

EHUn hainbat kargu izan ditu: Donostiako Zuzenbide Fakultateko Idazkaria (1972-1973), Bizkaiko Campuseko Errektoreordea (1979-1980), Errektorea (1981.02.24-1985.05.27) eta Historia eta Eliz Zuzenbide Departamentuko Zuzendaria (1992-1995).

Bestalde, hainbat kargu politiko izan ditu: Senadorea Gipuzkoaren aldetik Legegintzaldi Konstituziogilean (1977.06.15-1978.12.29), Euskadiko Autonomia-aurreko erregimena ezartzeko Batzorde negoziatzaileko kidea, Euskadiko Autonomia Estatuturako Idazketa Batzordeko kidea, Nafarroako Parlamentuko kidea (1987-1991) eta Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordea (1992). Azkenik, zientzia erakunde askotako kidea da, hala nola Euskal Herriaren Adiskideak Elkarte, *Association des Historiens des Idées Politiques* eta *Société d'Histoire de Droit*.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1992ko ekainean Eusko Ikaskuntzako Lehendakari hautatu zuten Oñatiko Unibertsitatean, hartarako kandidatura-egitarau handizale bat aurkeztu ondoren. Haren agintaldian, Eusko Ikaskuntak berritatzeko eta zientzia eta akademia erakundeen mapan berriro tokitu beharrari egin zion aurre, eta hartarako erakundearen erreforma organikoa burutu zuen. 1993ko irailean argitara eman zuen memorandum-eko atalek ongi laburbiltzen dute zientzia eta akademia politika berria: 1.- Egungo errealtate organikoa. 2.- Aldaketa soziokulturala Euskal Herrian. 3.- Elren funtzioak eta jarduerak Euskal Herriko esparru soziokultural berrian: Zientzia komunitatearen artikulazioa. - Eusko ikaskuntzen maila goratzea. - Kultura zabalkundea. - Euskal kultura nazioarteko bihurtzea. - Ikerketa egin behar da Eusko Ikaskuntzaren barne? 4.- Elren arazoak: Instituzionalizazioa eta erreforma. Elren jardueraren finantzazioa. Labur, haren agintaldian, Eusko Ikaskuntzaren akademia eta zientzia kontzeptu berria agertu zen eta euskal zientzia komunitateko beste sektore zenbait bildu ziren gure elkartera.

Egun, *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldikariaren* (RIEV) zuzendaria da.

Argitalpenak

Las instituciones políticas del Señorío de Vizcaya hasta el siglo XVIII, Bilbo, Bizkaiko Aldundia, 1974. Castells Arteche eta Jimeno Juríorekin elkarlanean, *Navarra jamás dijo no al Estatuto vasco*, Iruñea, 1977. *Asamblea de administración municipal vasca (1919 San Sebastián)*, biltzailea, Donostia, 1995.

"El Señorío de Vizcaya. Origen y naturaleza jurídica. Estructura institucional", *Anuario de Historia del Derecho Español*, 1973; "Entidad y problemas de la cuestión de los derechos históricos vascos", in *Jornadas de estudio sobre la actualización de los derechos históricos vascos*, 1986; "La libertad de comercio en Guipúzcoa en el siglo XVIII", *Homenaje a Luis Miguel Díez de Salazar*, 1992; "Anotaciones sobre el pensamiento político tradicional vasco en el siglo XVI", *Anuario de Historia del Derecho español*, 50 (1980), 971-1004 orr., ingelesez ere argitaratua: "Annotations regarding Basque traditional Political Thought in the Sixteenth Century" in *Basque Politics: A Case Study in Ethnic Nationalism*, Reno (Nevada), Associated Faculty Press and Basque Studies Program, 1985, 19-51. orr.; "La crisis de las instituciones forales públicas vascas" in *Economía, Sociedad y Cultura durante el Antiguo Régimen. Congreso de Historia de Euskal Herria, II Mundu Biltzarrea*, III. libk., Donostia, 1988, 3-36. orr. 24 zk.; "Sistema foral vasco y derechos humanos". Talde lana, *Los derechos humanos en Europa*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1989, 157-170 orr.; "La oficialidad del euskara en Navarra". *Jornadas sobre la oficialidad del euskara gaiari buruzko argitalpena*, Oñati, Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundea (IVAP), 1990, 115-163 orr. 30 zk.; "Del municipio foral al municipio concertista". *Cuestiones particulares del régimen foral y local vasco talde lanaren barne*, Gasteiz, Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundea (IVAP), 1994, 243-275. orr.; "Historiografía jurídica e institucional de Vizcaya", in *Jornadas sobre el estado de la cuestión del Derecho Histórico de Euskal Herria*, Donostia, Euskal Herriko Unibertsitatea-Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundea (IVAP), 1995, 59-121. orr. 39 zk.; "De los Fueros y la Autonomía posforal a la cláusula de reserva de los derechos históricos" in *Foralismo, Derechos Históricos y Democracia*, Madril, Fundación BBV, 191-209. orr.



MUGICA MUGICA, Gregorio (*J. M. de Ojarbide, G. de Biona, Jeme, Berrizale, Zarzale, J. de Zumuarregui, Bildari y Deñoka 'tar Goserio*)

[Ormaiztegi (Gipuzkoa), 1882.12.24 - Donostia, 1931.07.22]

Ormaiztegin sortu zen 1882ko abenduaren 24an, familia aberats baten baitan. Haren aitona eskribaua izan zen. Haren aita, Serapio Múgica Zufiria (1854-1941) artxibozain eta historialari oparoa, Eusko Ikaskuntzaren zuzendaritzako partaide izan zen, bera bezala. Haren amak Ignacia zuen izena. Bere anaia Josek (1894-) Zuzenbidea ikasi zuen eta Donostiako udaleko abokatua izan zen, futbolista ospetsua gainera, bai eta *El Diario Vasco* sortu zutenetarikoa ere (1934). Haren anaia Isidorok apaizgaiantzako liburu bi moldatu zituen: Logika, Metafisika eta Etikaren laburpen bat eta ikasturte bateko idazketa sakratua irakasten zuena.

Gregorio, familiarekin batean, Beasainera aldatu zen 1885ean. Ondoko urtean Bergarako domingotarren ikastetxean sartu eta bertan jarraitu zuen 1900 arte, batxiler titulua lortu arte alegia. Madrilerara joan eta han Ingeniaritza mekaniko eta Peritaje Industrialeko ikasketak egin zituen. *Instituto Nacional de Previsión*-eko Kudeatzailea izan zen Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzian. Euskararen egoeraz arduraturik agertu zen gaztetandik eta 1907. urtetik *Euskal Eснаlea* elkarteko idazkaria izan zen. Harrigarria da elkarte horretan egin zuen lana. Izan ere, hil zenerako elkarteak hainbat obra zituen argitaratuak: hamaika euskal liburu, 25 euskal antzerki-lan eta 19 liburuska, bai eta berrogei hitzalditik gora antolatu ere. Eta Gregorio izan zen ahalegin horien guztien benetako eragilea. Bestalde, 1907an, euskararen egoerari buruz *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkarian* kaleraturiko lan batek eztabaida handia piztu zuen. Lau urte geroago *Euskal Herriaren Alde* elkarte sortu zuen eusko ikaskuntzen alderako zaletasuna bultzatzeko eta euskara zabaltzeko, landu eta iraunarazteko helburuarekin. Gipuzkoako ordezkaria Euskaltzaindian eta euskal berpizkunde kulturalako zutabe garrantzitsuenetariko bat. 1931n hil zen eta Erreterian ehortzi zuten, familiaren panteoian.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Gutziz zabala izan zen haren jarduera Eusko Ikaskuntzaren barne. Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresutik (Oñati, 1918) hil artean, Elkarteko Idazkariordea izan zen. Heriotzaren ondoren Fausto Arocenak ordezkatu zuen. Euskal Herriko Udal Administrazioaren Batzarrean hartu zuen parte udal funtzionarioen montepioari buruzko lan batekin. Halaber, etnologia eta etnografia alorreko datuak bildu zituen. Euskarazko antzerki-lanen lehiaketa bat ebaluatzeko xedea zuen epaimahaikoa izan zen. 1927tik Elk antolaturiko udako ikastaroetan esku hartu zuen euskarazko irakasle gisa, eta aldi berean Lehen Hezkuntza Batzordeko kidea zen (1930).

Argitalpenak

Euskal Herriaren alde. 1907'ko uztaila' ren 28'an. Elgoibar'ko Euskal jaietan irakurritako itzaldia, Donostia, 1907. *Eibar 'ko seme ospatsuen berri batzuek*. Donostia'ko Euskal itz-Jostaldien Batzarrak, *Eibar'ko euskal-jaietan saritua*, Donostia, 1908. *Monografía histórica de la villa de Eibar*, Irun, 1910. *Ernani 'tar ospetsuak*. Iturriaga. Kardaberaz. Urbieta, Donostia, 1910.

Trueba, su significado en la moderna literatura vasca, Donostia, 1914. *¡Sembrad con amor!. Cuento original*, Madril, 1921. (Euskarazko itzulpena, *¡Maitasunez erein!*, Donostia, 1930). *El espíritu de economía. Sencillas reflexiones destinadas a ser difundidas entre los niños*, Bilbo, 1922. Fernando Amezketarra. *Bere ateraldi ta gertaerak*, Donostia, 1925.

Artikulu ugari idatzi zuen, berak zuzenduriko bi aldizkarietan bereziki –*Euskal Esnalea* eta *Euskalerrriaren Alde*– baina baita beste hainbat aldizkari eta egunkaritan, hala nola *RIEV*, *Euskal Erria*, *Vida Vasca*, Donostiako *El Pueblo Vasco*, *Euzkadi* eta *Argia*.

Bibliografia

“HOMENAJE”, *Euskalerrriaren Alde*, 1931, XXI, 283. or. AROCENA, F, *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1956, XII, 130-131. orr. eta 1957, XVIII, 207. or. ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, VI. CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herria*, Donostia, 1991, IV, 231-233. orr.

J.A.M.A.



MUGICA ZUFIRIA, Serapio (B. Arregui)

[Ormaiztegi (Gipuzkoa), 1854.11.14 - Donostia, 1941.03.16]

Ormaiztegiako Biona etxean jaio zen 1854ko azaroaren hamalauan. Aita eskribaua zuen. Serapio haur bakarra izan zen eta lau zituela umezurtz, aitarik eta amarik gabe, geratu zen kolera zela medio. Ignacia Múgicarekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten gutxienez: Gregorio (1882-1931), José (1894-) eta Isidoro. Lehena, euskararen eta euskal kulturaren bultzatzaile nabarmena izateaz gainera, Eusko Ikaskuntzaren zuzendaritzakoa izan zen 1918tik hil artean. Josék Zuzenbidea ikasi zuen, Madrilen lortu zuen doktoretza eta Donostiako udaleko abokatua izan zen, bai eta futbolista guztiz ospetsua eta *El Diario Vasco* sortu zutenetarikoa ere (1934). Haren anaia Isidorok apaizgaiantzako liburu bi moldatu zituen: Logika, Metafisika eta Etikaren laburpen bat eta ikasturte bateko idazketa sakratua irakasten zuena.

Serapiok latina ikasi zuen Tolosan Bartolomé Zalduarekin, Institutuko katedraduna eta bere osaba. Gero, Bergaran egin zituen bigarren hezkuntzako ikasketak. Zaragozako Unibertsitatean notario karrera burutu zuen. Liberalen alderdian borrokatu zen bigarren gerra karlistan. Horren ondoren, 1892tik erabat jubilatu arte, 1932 arte alegia, Gipuzkoako artxiboan egoera hobetzeaz arduratu zen eta probintzia pertsonalki zeharkatu zuen, hainbat tokitakoak ordenatu ahal izateko: Zestoa, Aizarnazabal, Ezkio, Zumaia, Zumarraga, Donostia, Irun, Hondarribia, Errenteria, Oiartzun, Ordizia, Eibar eta Astigarraga. Laurencingo markesak, Historiako Akademikoak, eredu-garrizat jo zuen lan hori, Espainiako tokiko udalek jarraitu beharreko adibidea zela esanez. Eskualzaleen Biltzarrekoa izan zen: elkarte hori Lapurdin sortu zen 1901ean eusko ikaskuntzak bultzatzearen. Orobat, urte berean Hendaian egindako Kongresu ortografikoan esku hartu zuen. Serapioren ikerketa jarduera atergabe hark balio historiografiko handiko liburu eta artikuluak ekarri zituen. Horiei esker Errege Historia Akademiako kide izendatu zuten Gipuzkoaren aldetik, bai eta Frantziako Akademiako ofiziale eta Gipuzkoako kronikari eta seme berezia ere.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1919an Gipuzkoako udal artxiboei buruzko txosten bat eskatu zion Batzorde Iraunkorrek, gainerako euskal Aldundietako kideek Serapiok egindako lana ereduzkotzat har zezaten. Jubilazio urtean berean, 1932an, Historia saileko batzordekide izendatu zuten eta, bide batez, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kidea izatera pasa zen. 1934ko abenduan Lehendakariorde hautatu zuten.

Argitalpenak

Indice de los documentos del Archivo municipal de la ciudad de San Sebastián, Donostia, 1898. *Indice de los documentos del Archivo municipal de Irún*, Irun, 1898. *Euskaros ilustrés. Don Policarpio de Balzola. Retrato y apuntes biográficos*, Donostia, 1899. *Curiosidades históricas de San Sebastián*, Bilbo, 1900. *Las fiestas de septiembre en Fuenterrabia. Origen y detalles del Alarde*, Donostia, 1900. *Alarde de San Marcial en Irún. Origen y detalles*, Donostia, 1901.

Monografía histórica de la villa de Irún, Irún, 1903. *Ria Bidasoa. Conferencia*, Donostia, 1905. Villafranca de Guipúzcoa, *El blasón de Guipúzcoa*, Bilbo, 1915. *Las calles de San Sebastián. Explicación de sus nombres*, Donostia, 1916. "Guipúzcoa" in *Geografía General del País Vasco Navarro*, 1918. *Elcano y no Cano*, Donostia, 1920. *Relación de Diputados Generales de Guipúzcoa desde 1550 hasta 1877*, Donostia, 1943 (hil ondoren argitaratua). C. Echegarayekin lankidetzan: *Monografía de la Alcaldía Mayor de Aiztondo... precedida de la Memoria sobre el Archivo Municipal de la villa de Asteasu presentada a la Excm. Diputación Provincial por el Cronista de las Provincias Vascongadas*, Donostia, 1902 eta *Villafranca de Guipúzcoa*, 1908. F. Arocenarekin lankidetzan: *Guía de Guipúzcoa* eta *Juan Ignacio Gamón. Noticias históricas de Rentería*, biak 1930ean. Artikulu ugari argitaratu zituen hainbat aldizkaritan: *RIEV*, *Euskal Erria*, *Yakintza*, *Euskalerraren Alde*, *Euskal Esnalea* eta *Aranzazu*.

Bibliografía

RUIZ DE LARRINAGA, J., "Serapio de Mújica y Juan Carlos de Guerra", *Aranzazu*, 1941, XXI, 78-79. orr.; AROCENA, F. en MUGICA, S., *Relación de Diputados Generales de Guipúzcoa*, Donostia, 1943 (hil ondokoa); AROCENA, F., *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1958, XIV, 455-457. orr. eta 1965, XXI, 440. or.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, VI.

J.A.M.A.



NAVAJAS LAPORTE, Alvaro

[Donostia, 1942.05.20 - Donostia, 1989.06.13]


Zuzenbide karrera Madrilgo Fakultatean ikasi zuen, eta ikasle libre gisa Valladolidekoan. 1964an lizentziatu zen. Doktoretza-ikastaroak Zaragozako Unibertsitatean burutu zituen; haietan, "Ordenación Consuetudinaria del Caserío en Guipúzcoa" gaia landu eta bikain cum laude kalifikazioa lortu zuen 1972ko uztailaren 17an. Hamar urtez alboko irakasle izan zen Donostiako Zuzenbide Fakultatean eta Kriminologiarako Euskal Institutuan. Iharduneko abokatua izan zen 25 urtez Donostia, Iruñea eta Madrilgo elkargoetan. Donostiako Abokatuen Elkargoko Dekanordea 1987a arte. 1986an Donostiako *Laboratorio de Sociología Jurídica* sortu zuen, Caballero Harriet irakaslearekin batera. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide numerarioa izan zen, bai eta *Instituto Español de Derecho Foraleko*a ere. Transferentzietarako Bitariko Batzordekidea eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren aurreproiektuaren erredaktoreetarikoa. *Gran Cruz de San Raimundo de Peñafort* saria hartu zuen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Adrián Celaya ordezkatu zuen Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Saileko Lehendakartzan, 1980-1982 biurtekoan. Haren agintaldian Zuzenbide Saileko 1. Koaderno argitaratu zen.

Argitalpenak

La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa, Doktore Tesia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1975; *El concepto del derecho en el Fuero de San Sebastián y su época*, Eusko Ikaskuntza, 1981; "Aproximación a las instituciones jurídicas guipuzcoanas. Siglos XII al XVIII", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*.



OLAIZOLA ETXEBERRIA, Imanol

[Donostia 1920.10.29]

José Olaizola Gabarainen semea. José kongresukide izan zen Oñatin 1918an eta Elko kide eraginkorra (txosten bat aurkeztu zuen 1947an Miarritzen egindako VII. Kongresuan). Imanolek 1939 eta 1945 artean Kimika Zientziak ikasi zituen Salamancako Unibertsitatean eta Madrilen doktoratu zen. Análisi Espektrografikoan espezializatu zen *Consejo Superior de Investigaciones Científicas*-en barne. Zura tratatzeko berak sorturiko enpresaren kudeatze lana izan zuen jarduera nagusia 1979 arte. Urte horretako ekainean Eusko Kontseilu Nagusiko Kultura Saileko Zuzendari hautatu zuten, eta ondoko uztailan Eusko Jaurlaritzakoa. 1982 eta 1986 artean Kultura eta Turismo Saileko Lurralde ordezkaria izan zen Gipuzkoan. Lanbide jarduera hori kultura eta musika alorrekoekin adosten jakin zuen. 1963an Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Adiskide Supernumerario izendatu zuten, eta bazkide oso 1987an. 1965ean *Ediciones y Publicaciones* gipuzkoar argitaletxearen bazkide sortzaileetarikoa izan zen. Musikari dagokionez, 1961ean Gipuzkoako Abesbatzen Jaialdia eta Bach-i eskainitakoa sortu zituen, 1965ean Jazzkoa, 1975ean Organoaren Nazioarteko Astea eta 1978an Antzezaro izenekoa. 1974an Maitea abesbatzeko Lehendakari hautatu zuten, eta hiru urte geroago Easokoa (1982 arte). 1981ean Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren bultzatzaileetarikoa izan zen, eta 1982an haren aurreneko Lehendakaria. Halaber, Gipuzkoa unibertsitate publiko batez hornitzeko gestioetan esku hartu zuen eta hainbat ikastetxeren ezarreraren bultzatzailea izan da: Kimika-Petrokimika Fakultatea, Zorroagako Filosofia eta Letrak Fakultatea eta Gipuzkoako Ospitaleko Erizainen Eskola.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1974an Euskal Herriko lau Aldundientzat erreibindikatu zuen Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren (RIEV) goi-burua eta, modu horretara, haren jabetza argitaletxe pribatu baten esku geratzea saihestu zen. 1976an, Aingeru Irigaray eta Agustín Zumalaberekin batera, El abiaraztea eta indarberritzea lortu zuen. 1978an sorturiko Behin-behineko Batzordeko partaide izan zen Gipuzkoako Aldundiaren izenean. 1979an Gazteizen Eusko Ikaskuntzak egindako Batzar Nagusian Gipuzkoako Lehendakariorde hautatu zuten eta 1985a arte kargu horretan egon zen; urte horretan bizi arteko bazkide izendatu zuen Batzorde Iraunkorrak, bai eta Ohorezko Bazkide hamar urte geroago. 1978an Gaur egungo Historiaren Dokumentazio Zentroaren sorrera bultzatu zuen. 1995ean Barandiaran Fundazioko Lehendakariaren ardura hartu zuen bere gain. Gaur Patronato Batzordekoa da Elren izenean. 1997an *Kantutegia* disziplinararteko programaren prestatetan esku hartu zuen. 1992an Eusko Ikaskuntzako Lehendaritzarako hautagaia izan zen.

Argitalpenak

Ehun artikulutik gora argitaratuak ditu egunkari-aldizkarietan, hainbat gairi buruzkoak, kultur alorrekoak gehienbat.



OLANO GALARRAGA, Aniceto (*P. Miguel de Alzo, Aita Amialde*)

[Altzo (Gipuzkoa), 1896.04.17 - Nueva Pompeya (Argentina), 1965.01.03]

1896an jaio zen Altzoko Olazabalzarra baserrian, nekazari familia batean. Bera bi anai zaharagoek irekitako ildoari jarraitu zitzaion, eliz karrerari alegia. Anai horietako bat, Miguel Angel, Laguinako Apezpiku titularra izan zen eta bestea, Dionisio (Altzo, 1894.02.14 - Lekaroz, 1964.10.20), "P. Diego de Alzo", kaputxinoa, euskal irakasle eta idazlea zen, 1961ean argitaraturiko *Estudio sobre el euskera hablado* azterlanaren egilea.

Anizetok humanitateak ikasi zituen Aita Kaputxinoek Altsasun (Nafarroa) duten Apaizgaitegi Serafikoan. 1911ko abuztuaren hamabian bere lehen erlijioso-botoak egin zituen Kaputxinoen Ordenan. Harez gero, Filosofia ikasi zuen Hondarribiko Komentuan eta 1918ko urriaren 14an batxilerr titulua lortu zuen. Iruñean, Teologia ikasi ondoren, apaiztu egin zen San Frantzisko Xabierren Kaperan, 1920ko apirilaren hiruan. Bere prestakuntza osatuz joan zen Bartzelona eta Madrilgo unibertsitateetan, non Zuzenbide Zibileko eta Filosofia eta Letretako lizentziaturak lortu zituen, Psikologia diplomarekin batera. 1922tik 1924ra bitartean kaperau militarra izan zen Afrikan. Ondoren beste lizentziatura bat eskuratu zuen Erromako Unibertsitate Gregoriarrean, Zuzenbide Kanonikoarena alegia (1926). Prestakuntza amaiturik, Filosofia eta Zuzenbide irakasle eta ikasketa arduraduna izan zen Lekarozko Ikastetxean (Nafarroa); aldi horretan filosofia, pedagogia eta euskal etnografia lanei ekin zien.

Euskal abertzaletasunareen aldeko joera zela eta, gerra piztean Frantziara erbesteratu behar izan zuen 1936. urtean. Baionan finkatu zen lehenbizi eta Bégles-en gero (Bordele aldean); euskal iheslari askori lagundu zien orduan. Bigarren Mundu Gerra abiatuak, Argentinara aldatzea eskatu zien ordenako nagusiei eta haiek Córdoba ezarri zioten bizilekutzat. 1940ko ekainaren hamabian *Croix* ontzira igo zen Bordelen eta, gorabeheraz beteriko bidaia baten ondoren, *Astri* ontzian iritsi zen Buenos Airesera (1940.10.04). Nagusi eta Parrokoa (1942-1948) izan zen Cordoban eta gero Buenos Airesera aldatu zen, non hiru urte iragan zuen kargu berberetan. 1951etik 1957ra Necochea fundazioaren Arduraduna izan zen eta gero Llavallol-eko Euskal Etxea Ikastetxera aldatu zen, eta hiru urte eman zuen bertan. 1960an Nueva Pompeyara erretiratu zen eta han hil zen 1965eko urtarrilaren hiruan. Instituto Americano de Estudios Vascos-eko kide izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1923tik Elk Bartzelonako Solar Vasco-Navarro izenekoan antolaturiko euskarazko klasearen arduraduna izan zen, harik eta 1925ean Solar hura desegin zen arte. 1931n Elkartek antolaturiko Elebitasunari buruzko Kongresuko txosten-emailetriko bat izan zen (Donostia, abuztuaren 25 eta 26 eta Bilbo, abuztuaren 28 eta 29). Hiru urte geroago (1934), Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorreko kide bilakatu zen, Lehen Hezkuntza saileko Batzordekide hautatu baitzuten.

Argitalpenak

Cátedra de ética. Seminario dirigido por el catedrático Dr. Tomás Carreras y Artau. Serie 1. Notas y materiales para la historia de la ética; nº 2. La voluntad moral en San Buenaventura,

Bartzelona, 1927. *Filosofía Vasca*, Donostia, 1934. Bonifacio de Etxegaray, Eduardo de Landeta eta José de Ariztimuñorekin lankidetzan, *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, Donostia, Euskaltzaleak, 1935.

Artikulu gehienak *Yakintza*-n argitaratu zituen. *El Día* egunkarian ere bi artikulu kaleratu zituen, 1934-I-19 eta 1936-VI-38.

Bibliografía

ALZOLA, N., "Fray Diego de Alzo", *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos*, 1964, XX, 461. or. ALZOLA, N., "Fray Miguel de Alzo, O.F.M. Cap.", *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos*, 1966, XXII, 480. or. ATAUN, B., "R. P. Fr. Miguel de Alzo (capuchino)", *Boletín Americano de los Estudios Vascos*, 1966, XVII, 44-46. or. ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1984, I.

J.A.M.A.



OREGI ZARAUTZ, Sabin

[Zarautz (Gipuzkoa), 1959.04.23]


1985ean Informazio Zientzietako lizentziatura eskuratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. 1988an, Bordeaux III Unibertsitateko Informazio eta Komunikazio Zientzietako DEA lortu zuen eta 1997an unibertsitate horretan doktoratu zen. Doktore tesiaren izenburua: *Contributions des médias basques à l'extension fonctionnelle de l'euskera: de l'intérêt des sociotypes linguistiques. Analyse prospective*. 1982tik 1996ra hainbat ikerketa egin zuen prentsa, komunikazioa eta euskararen erabileraren inguruan. Komunikazio alorreko aholkularia izan da hainbat erakundetan: Cabledis, Urola Kosta Komitea, Legazpiko Batx, Andoaingo Udala, Spritel, Eusko Jaurlaritza. Halaber, gonbidatu gisa aritu da Baionako unibertsitatean (1991-1993) eta Bordelekoan (1989-1991) eta, bestalde, bai Udako Euskal Unibertsitatean (1998) eta bai *Université d'été de la Communication* delakoan (1990 eta 1991) esku hartu du.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1986tik 1991ra Komunikabideak saileko lehendakaria izan zen, eta 1992-1995 bitartean sail horretako idazkaria. 1996an Hezkuntza saileko idazkaria izan zen, eta *Ikastaria. Cuadernos de Educación* izenburu duen saileko aldizkariaren zuzendaria da.

Argitalpenak

Coyuntura de la Prensa Vasca. Aproximación al suceso social y al fenómeno lingüístico, Cuaderno de Medios de Comunicación, Donostia, 1984; "El proceso de recuperación del euskera a través de la enseñanza", *Cuaderno de Sección, Hezkuntza*, 1990; "Análisis del lanzamiento de Navarra Hoy" *Cuaderno de Sección, Medios de Comunicación*, 1991; "Bideoa irakaskuntzan", *Cuaderno de Sección, Hezkuntza*, 1991; "Elementos para el estudio y el análisis de la función de los medios en la planificación lingüística", 1997; "Euskarazko Herri prentsa. Banaketa eta finantzaketara hurbilpena", *Mediatika*, 1998; "Alfabetatzea Euskal Herrian (1500-1994)", 1998.



ORELLA UNZUE, José Luis

[Iruñea, 1935.12.10]


Iruñean sortu zen 1935eko abenduaren hamarrean. Haren anaia Alberto José (Iruñea, 1943) obra zabaleko eskultorea da. Filosofia eta Letrak karrera ikasi zuen Zaragozako unibertsitatean, eta Filosofia espezializazioa burutu zuen Bartzelonakoan. Madrilgo Universidad Centralean doktoratu zen. Azkenik, Historia Modernoan lizentziatu zen Erromako unibertsitatean. Egun Historia Moderno Unibertsala eta Erdi Aroko Historia eta Historia Modernoa katedra du Deustuko Unibertsitateko Donostiako Filosofia eta Letrak Fakultatean. *Mundaiz* aldiakariaren Zuzendaria da. Euskalerrriaren Adiskideak Elkarteko kide osoa da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elko Gipuzkoako Lehendakariordea izan da (1989-1991). Euskal Herriko Dokumentazio Iturriak Bildumaren sortzaile eta zuzendaria izan zen.

Argitalpenak

Partidos políticos en el Primer Renacimiento, Madril, Fue, 1976. *Respuestas Católicas a las Centurias de Magdeburgo*, Madril, Fue, 1976. *La Universidad Vasca. Historia. Proyectos actuales para su implantación*, Donostia, Erein, 1977. *Cartulario Real de Enrique IV a la provincia de Guipúzcoa*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1983. *El Delegado del Gobierno central en Guipúzcoa*, Donostia, Mundaiz, 1987. *Documentación Real a la Provincia de Guipúzcoa*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1988. *Instituciones del Reino de Navarra en la Edad Antigua y Media*, Donostia, Haranburu, 1989. "Navarra y su anexión a Castilla: Historia de su incorporación a Castilla en 1515, in *Cultura Vasca*, I. libk., Donostia, Erein, 1977, 157-190. orr. "Régimen municipal en Guipúzcoa en los s. XIII-XIV", *Lurralde*, 1979, 2, 103-267. orr. "Régimen municipal en Vizcaya en los s. XIII y XIV. El Señorío de la Villa de Orduña", *Lurralde*, 1980, 3, 163-245. orr.



ORMAZABAL ALTUNA, José Angel

[Donostia, 1947.05.02]

Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia, Miraconcha 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943310855. Fax. 943213956
E-mail: jao@sk.ehu.es

Gipuzkoako *Federación Mercantil* izenekoan (1962-1963) eta *Abrasivas del Norte S.A.* enpresan (1966-1983) lan egin zuen, Enpresa horretan produkzioaren planifikazio arduraduna eta salmentarako prospekzio burua izan zen. 1983tik Eusko Ikaskuntzan lan egin du. Lana eta kultura jarduera adostu ditu hainbat erakunderekin lan egitean, hala nola Argia Euskal Dantzari Taldea (1969-1988), Ikerfolk (1985-1988) eta Donostiako San Telmo Museoa.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Batzorde Iraunkorreko kidea, Diruzainorde (1983-1991) eta Diruzain (1992) postuetan. Bazkidea 1979. urtetik, Folklore saileko Idazkaria izan zen 1988 arte. Egun, argitalpenerako Idazkari Teknikoa da. Euskal Herriko Museo eta Biblioteken Zentsuak burutzeko lanak koordinatu ditu, bai eta hainbat kongresu, erakusketa eta agerralditan eta Eusko Ikaskuntza argitaletxeko funtsaren katalogazioan.

Argitalpenak

A. Arzamendirekin lankidetzan, *Eusko Ikaskuntza: Catálogo de la actividad editorial, 1918-1993*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1994; *Eusko Ikaskuntza: Argitalpen jardueraren Katalogoa: Catálogo de la actividad editorial = Catalogue de l'activité éditoriale = Catalogue of editorial activity 1918-1998*. Donostia. Eusko Ikaskuntza, 1998.

"Contribución al estudio coreográfico vasco. Las revistas "Dantzari" y "Dantzariak": análisis y bibliografía", *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXXV, 1990, 337-389. orr. "Eusko Ikaskuntza, los Congresos de Estudios Vascos y sus exposiciones: Catálogo de la exposición del XI Congreso de Estudios Vascos. Donostia, 1991", *XI Congreso de Estudios Vascos*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1992, 557-579. orr. "La Asamblea de Administración Municipal Vasca de 1919 en el Archivo de Eusko Ikaskuntza", *Cuadernos de Sección. Derecho*, 10. zk. 1995, 263-269. orr. "La Asamblea de Administración Municipal Vasca de 1919. Catálogo de la exposición en las Jornadas El Municipio en Euskal Herria, 1995", *Cuadernos de Sección. Derecho*, 10. zk., 1995, 271-286. orr.



OROZ ZABALETA, Luis

[Nardoze-Aldunate (Nafarroa), 1885.06.20 - Iruñea, 1962.12. 04]

Urralbeiti haraneko Nardoze-Aldunaten jaio zen, 1885eko ekainaren 20an nekazari dirudunen familia batean. Angel Antonio Oroz Areso eta Petra Urniza San Miguel ziren aitaren aldeko aitonamonak. Amaren aldekoak, Wenceslao Zabaleta, Rocafortekoa, eta Damiana Arbeloa, Aibarkoa. Angel Gregorio zuen aita, eta ama, Victoria (1856-1929), Gabriel Zabaleta Arbeloa Foru diputatuaren arreba zen. Haren osaba Lorenzo Oroz Urniza (1855-1944), abokatu 1898tik eta nafar politikoa gailena, liberal independente gisa probintziako diputatua izan zen, bai eta Nafarroako Diputazioko Buruordea (1919-1923). Eragin handia izan zuten Luisengan osabaren ezagupen eta esperientzia zabalek.

Hamaika anai-arrebetarik laugarrena zen Luis. Bost arrebetarik bi, Vicenta (1881-1954) eta Ramona (1897-1987) moja sartu ziren eta beste hirurak, Antonina († 1939), María (1889-1983) eta Josefina (1895-1981) ezkondu ziren. Silverio (1885-1970) anaia bizkia oinordekoa zen eta berak hartu zuen bere gain familiaren nekazaritza ondarea kudeatzeko ardura. Hilario (1892-1986) mediku oftalmologoa izan zen Bilbon. Angel (1887-1956), mediku bakteriologoa. Luisek María Dolores Goñi Huici (Iruñea, 1900), Francisco Goñi Mayo-ren alaba, hartu zuen emaztetzat. Ez zuten ondorengorik izan.

Madrilera aldatu zen Zuzenbide karrera egiteko eta han eskuratu zuen lizentziatura 1907ko otsailaren 16an. Ondoko urteko urtarrilaren 21ean Iruñeko Abokatuen Elkargoan izena emanik, osabaren bulego berean hasi zen lanean. Estatuaren Abokatueterako oposizioak prestatu zituen, baina azkenik Nafarroako Diputazioan Gobernazio Bulegoko Ofizialburu kargua lortu zuen; 1910eko urtarrilaren hamarrean hasi zen lan hartan. 1913ko abuztuaren zortzian Diputazioko Idazkariorde izendatu zuten Evaristo Solorzano jubilatua ordezkatzeko. Garai horretan euskal abertzaletasunera hurbildu zen eta 1916ko urtarrilaren 23an Batzokiko Zuzendaritza Batzordeko kide izendatu zuten. Zenbait gorabeheraren ondoren, Diputazioko Idazkari kargua eskuratu zuen eta hartan iraun zuen izendatu zutenetik (1921.01.24) jubilatua zen arte (1945.02.21). Haren jarduera guztiz bizia izan zen eta foru Diputaziotik iraganiko diputatu guztien begiramena beretu zuen lan gaitasunagatik eta erakutsitako arduragatik. Jubilatua ondoren Diputazioari laguntzen jarraitu zuen Abokatu Aholkulari gisa, 1923an hasia zuen Nafarroako foru legeen bilketa lana amaituz.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen 1932tik 1936ra, garai horretan Udal Administrazioa saileko batzordekidea izan baitzen. Elk 1931ko maiatzaren 31n onarturiko *Euskal Estatuaren Estatutu Nagusia*. *Eusko Ikaskuntzaren Aurregitasmoaren* idazketan esku hartu zuen. Batzorde Iraunkorreko kidea izan aurretik, Elk 1919an Donostian antolatutako Euskal Herriko Udal Administrazioaren Batzarreko partaide izan zen eta txosten bat aurkeztu zuen bertan: "Organización municipal. Aplicación del principio de autonomía municipal en el Derecho histórico de Navarra y en el régimen actual".

Argitalpenak

Legislación administrativa de Navarra, Pamplona, Artes Gráficas, 1917, tomo II, Iruñea, Imprenta Provincial, 1923. *Legislación administrativa de Navarra. Apéndice de 1928*, Iruñea, Imprenta Provincial, 1928. *Legislación administrativa de Navarra. Apéndice de 1949*, Iruñea, Imprenta de la Diputación, 1952. *Legislación administrativa de Navarra. Apéndice de 1951*, Iruñea, Imprenta de la Diputación, 1952. *Legislación tributaria de Navarra*, Iruñea, M. Falces, 1950.

Bibliografía

ESTUDIOS de Derecho Público de Navarra. Homenaje a D. Luis Oroz Zabaleta. Cuadernos de la Sección de Derecho, 3. zk., Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1986. "HOMENAJE", *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXXII, 1987, 255-273. orr. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, VII. *DICCIONARIO Biográfico de los Diputados Forales de Navarra (1931-1984) y de los Secretarios de la Diputación (1834-1894)*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 1998.

J.A.M.A.

ORTIZ DE ORRUÑO LEGARDA, José María

[Lagran (Araba), 1958.05.19]

Euskal Herriko Unibertsitatea
Avda. de la Universidad, 5
01006 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945183158 Fax 945144290
E-mail: hcporleg@vc.ehu.es



1980an Geografia eta Historiako lizentziatura eskuratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. 1987an doktoratu zen "Fiscalidad y Fueros. La Hacienda foral alavesa en la crisis del Antiguo Régimen (1800-1876)" tesiarekin. Hainbat zientzia aldizkariren batzordekidea, hala nola *Kultura. Historia, Ciencia y Pensamiento, Revista Internacional de los Estudios Vascos, Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía* eta *Sancho el Sabio*. "Valentín de Foronda" Gizarte Historiaren Institutuaren bultzatzailea. Gaur egungo Historia Departamentuko irakasle titularra da Euskal Herriko Unibertsitatean.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Arabako Lehendakariordea izan zen (1990-1994). Bere agintaldian, Elren 75. urteurrena zela eta, oroimenezko liburu baten edizioan parte hartu zuen eta, Bilbon 1995eko martxoan, Irakaskuntzaren kalitatearen inguruan egindako kongresuaren koordinatzaile lanetan aritu zen. Zientzia batzar horretako akten argitaratzailea.

Argitalpenak

Alava durante la invasión napoleónica. Reconversión fiscal y desamortización, Gasteiz, 1983. Elkarlanean, *Alemania. Del Sacro Imperio a la caída del muro (1806-1992)*, Gasteiz, 1994. Biltzailea, *La calidad en la educación*, Hezkuntza saileko koadernoak, 8. zk., 1995. Argitaratzailea, *Historia y sistema educativo*, Ayer, 30. zk., 1998.

Elkarlanean, "Las haciendas forales de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya entre 1800 y 1878", *Ekonomiaz. Revista de Economía Vasca*, 10. zk., 1988. "Las limitaciones de la revolución burguesa en España: El Estado liberal y los fueros vascos", *Trienio. Ilustración y Liberalismo*, 13. zk., 1989. "La foralidad y el poder provincial", *Historia Contemporánea*, 4. zk., 1990.



ORUETA PEREZ DE NENIN, José Antonio

[Bilbo, 1866.05.10 - Donostia, 1934.11.19]

Bilbon sortu zen 1866ko maiatzaren hamarrean. Hogeita bi urte zituela, Aurora Rivero Sagastirekin, Bilboko alkatea zen Alejandro Riveroren alabarekin ezkondu zen San Bizente elizan.

José Antoninok, arteen 7 urteko mutikoa zela, Mont-de-Marsan-era (Frantzia) joan behar izan zuen, bigarren gerra karlista piztean eta han burutu zituen lehen ikasketak. 1874an sorterrira itzulirik, *Instituto Vizcaino* izenekoan egin zituen bigarren mailako ikasketak. Gero, Valladolidera aldatu zen Zuzenbide ikasketak egiteko. Hogei urte besterik ez zituela, Lizentziatura eskuratu zuen. 34 urte bete arte Bizkaian egon zen eta harez gero Donostian finkatu zen. Hiru alorretan jardun zuen: industria, politika eta kultura. Industria gizon gisa, Zorrozako lantegiak, *Sociedad Española de Construcciones Metálicas*, Beasaingo Bagoi fabrika eta Errenteriako *Aceros al Horno Eléctrico* enpresak sortu zituen; bestalde, Bizkaiko Liga de Productores elkarteko partaide izan zen eta izen bereko beste bat sortu zuen Gipuzkoan. Ideologia liberalekoa zen eta modu eraginkorrez esku hartu zuen politikan: Gorteetako Diputatu (1905 eta 1914), probintziako Diputatu Tolosako eskualdetik (1915) eta Donostiakotik (1923). Musikarako zaletasunak Bilboko Sociedad Filarmónica delakoa sortzera eraman zuen, E. Arriaga, Juan Carlos Gortazar, Lope de Alaña eta Javier Arisquetarekin batera. Gainera, marrazkia landu zuen eta San Fernando Akademiako kidea izan zen. Donostiako Polloe hilerrian ehortzi zuten.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrekia izan zen sorreratik, Arte saileko Batzordekide izendatu zutelako (1918-1922). 1922an Ekonomia Azterlanak saileko Batzordekide hautatu zuten eta hil artean kargu horretarako hautatu zuten behin eta berriro. 1930eko abenduan Lehendakariorde izendatu zuten. Ohargarria da Euskal Autonomiari dagokion guztian izan zuen partaidetza. 1919ko abenduan jadanik, Autonomiaren bideragarritasunari buruzko azterlan bat egiteko premia jakinarazi zion Batzordeari. Eusko Ikaskuntzak 1931ko maiatzaren 31n onarturiko *Euskal Estatuaren Estatutu Nagusia*. *Eusko Ikaskuntzaren Aurregitasmoaren* idazketan esku hartu zuen. Horrez gainera, nabarmentzekoa da Estatistika bultzatzeko zuen interesa; ildo horretatik, 1921ean lau euskal probintziarako zerbitzua antolatzeko proiektu bat aurkeztu zuen, Madrilgo *Instituto Geográfico y Estadístico* delakoak onartua zuena, baina egitasmo hark huts egin zuen Bizkaiko finantza sektoreetan sorturiko goganbeharragatik. Hala berean, Donostiko Zientzia Azterlanetarako Zentroaren Batzorde gestiogileko partaide izan zen; Elren babespeko erakunde hura etorkizuneko Euskal Unibertsitatearen hazi gisa ikusten zuten. 1924rako aurrikusitako Autonomiaren Kongresua bultzatu zuen, nahiz eta azkenean horrek ere huts egin zuen estatuko egoera politikoa zela eta.

Argitalpenak

Ante el problema regionalista. El País Vasco. Consideraciones, Madril, 1907. *Impresiones de la vida provincial en Guipúzcoa*, Donostia, 1919. *El concierto económico. Nuestra situación ante la*

futura renovación de cupos del año 1926 y modo de prepararnos para ella, Hitzaldia, Donostia, 1922. *Fragmento de Les Pyrénées de Victor Hugo*, Paris, 1929. *Memorias de un bilbaíno, 1870 a 1900*, 1. argit. Donostia, 1929, 2.a 1952, 3.a Bilbo, 1992. *Fueros y Autonomía. Proceso del Estatuto Vasco*, Donostia, 1934.

Bere artikuluak *Revista Internacional de los Estudios Vascos* eta *Euskal Erria* aldizkarietan agertu ziren.

Bibliografía

LEXARZEGI, Leonardo, "Los estatutos vascos. Un Libro de José Orueta", *Euzkadi*, 1934-V-5. AROCENA, F., "José de Orueta", *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 1934, XXV, 349-351. eta 715-719. orr. ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbao, 1987, VII. LLOMBART, J., "El Centro de Estudios Científicos de San Sebastián", *Cuaderno de Sección de Eusko Ikaskuntza de Ciencias Físico-químicas y matemáticas*, 3. zk., 1995, ale monografikoa.

J.A.M.A.



PAGOLA AIZPURI, Manuel

[Donostia, 1952.07.01]

Donostian sortu eta Elgoibarren hazi bada ere, Bilbon bizi izan da 17 urteetatik eta han gauzatu du gehienbat bere lanbide jarduera, batik bat kultura antolakuntza eta gestioaren ingurukoa. Filosofia eta Letretan lizentziatua (Gaur egungo Historia), zine eta telebista kritikoa da *El Mundo del País Vasco* egunkarian. 1980tik 1985era Bilboko Film Labur eta Dokumentalaren Nazioarteko Lehiaketako zuzendaria izan zen. 1991etik 1995era, Barakaldo Antzokiko arte zuzendaria izan da eta egun antzerki produktore lanetan dihardu Madril eta Bartzelonan, batez ere musikalen alorrean, hala nola *El Hombre de la Mancha*, Paloma San Basilio eta José Sacristánek; horrez gainera, zenbait teatro pribaturen gestioaz arduratzen da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Hezkuntza saileko lehendakaria izan zen 1978-1980 bitartean.


Argitalpenak

Zine, dantza eta antzerki kritikari bezela hainbat artikulu idatzi ditu. Argitaratu dituen liburuak, berriz, hauek dira: *Nemesio Sobrevilla, peliculero bilbaíno* (Bilbo, 1981), *Hablemos de cine vasco* (Bilbo, 1984), *La historia de un arquitecto* (Donostia, 1988), *Cabello de ángel* (Donostia, 1989), *Bilbao y el cine* (Bilbo, 1990).

QUIJERA PEREZ, José Antonio

[Donostia, 1959.05.01]

Urnietako Azkorte B.H.I.



1982an, Industria Kimikako Ingeniari Teknikoa titulua eskuratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Industrian kimiko gisa lanean jardun ondoren, helduen irakaskuntzan aritu zen. 1995-1996 ikasturtean Kimika, Fisika eta Matematika gaietan graduazio ondoko ikastaroa gainditu zuen. Egun Matematika irakaslea da Urnietako Institutuan.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1994tik 1998ra bitartean Folklore saileko lehendakaria izan da. Urte horietan, Hezkuntza sailarekin elkarlanean jardutea bultzatu du, gizartearen premiek hala eskaturik. Antropologia eta Folklore irakaslea da *Jakitez* izeneko Eusko Ikaskuntzaren graduazio ondoko prestakuntza programan.

Argitalpenak

Danzas tradicionales de la Rioja, 1992.

Montaña y Aventura aldizkarian esku hartu du, "Naturaleza y cosmovisión de Euskal Herria" kapitulua idatziz, 1996. "Acerca de nuestro folklore: Los Carnavales", *El Regadío*, 1981. Bestalde, Antropologia eta Folkloreari buruzko artikulua idatzi ditu hainbat aldizkaritan: *Cuadernos de Sección de Antropología de Eusko Ikaskuntza*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Sukil*, etab.



ROTAETXE AMUSATEGI, Miren Karmele

[Bilbo]

Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea
Paseo de la Universidad, 5
01006 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945183137 Fax 945473566
E-mail: feproamk@vc.ehu.es

1967an Filologia Modernoan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta Salamancako Unibertsitatean lortu zuen doktore gradua 1977an. Deustuko Unibertsitatean, 1967 eta 1978 artean, hainbat irakasgairen ardura hartu zuen bere gain: Frantses Hizkuntzalaritza, Gramatika Orokorra, Semiotika eta Komunikazioa eta Frantses Zibilizazioa (Hispaniar saila). 1977an euskararen irakaskuntzaren antolaketaz eta irakasletzaz arduratu zen Bilboko Unibertsitateko HEZIn. Urte horretan Informazio Zientzien Fakultatean sarturik, Lengoiaren Egiturak eta Euskal Hizkuntza irakatsi zituen. 1978an, Gasteizko Filosofia eta Letretako Fakultatean sartu zen, bertan Hizkuntzalaritza Orokorra emateko eta Frantses Hizkuntza Departamentuaz arduratzeko. 1986an Hizkuntzalaritza Orokorreko katedra eskuratu zuen.

Euskaltzain urgazlea da 1979tik. *La Gran Enciclopedia del Mundo*-n lan egin du, Bilboko *Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberako* Kultura Batzordeko kide izan da 1979tik 1985era, Soziolinguistika Katalanari buruzko *Treballs* aldizkariko *Consell Assessor*-ekoa 1990etik 1996ra, bai eta Nancyko (Frantzia) Unibertsitateko *Verbum* aldizkariko Zientzia Batzordekoa 1992 eta 1997 artean. *New York Academy of Sciences*-eko kidea (*Hizkuntzalaritza Saila*) 1996tik. *CAYCIT, Zientzia eta Teknika Ikerketarako Aholku Batzordeko* ebaluatzailea 1987tik 1990era. La Sorbonne (Paris V René Descartes) Unibertsitateko Irakasle bisitaria 1994-1995 ikasturtean. *EUROTYP, Europako Hizkuntzen Tipologia Ikertzeko Programako* kide iraunkorra. EHUko *Unibertsitateko Irakasleko Batzordeko* kidea da 1992tik.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elko bazkidea elkarte berriri abiatu zenetik. Hizkuntza eta Literatura saileko idazkaria 1987an eta saileko lehendakaria 1987tik 1994ra. Eusko Ikaskuntzen XI. Kongresuko partaide izan zen: *Kultura antolabide berriak, Euskal Herria eta Europa*.

Argitalpenak

Estudio estructural del euskera de Ondarroa, Durango, 1978; *Soziolinguistika: hizkuntza eta gizartea Euskadin*, Bilbo, 1986; *Soziolingüística*, Madril, 1988; 1985etik Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak argitaraturiko bost liburukietatik *-Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-* lautan esku hartu du. Halaber, elkarlanean, nazioarteko partaidetzaz buruturiko sei liburutan esku hartu du. Ehun artikulu inguru argitaratu ditu euskaraz, espainieraz, frantsesez eta ingelesez. Hona horietariko batzuk: "L'accent basque: observations et hypothèses", *La Linguistique Revue International* (1978), 55-77. orr.; "Euskal Prosodiaz", *Euskera* (1981), 380-396. orr.; "Structure des formes verbales finis en basque", in *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* (1998), 152-193. orr.



RUIZ OLABUENAGA, José Ignacio

[Urduña (Bizkaia), 1929.12.30]

Tel. 944425829 Fax. 944425832

E-mail: jruiiz@orion.deusto.es

Soziologian doktorea (New Yorkeko Fordham Unibertsitatea), bai eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Euskal Herriko Unibertsitatean. Soziologia katedraduna Deustuko Unibertsitatean (Bilbo). Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikorako Kabineteko zuzendaria, Euskal Soziologoek Elkarteko lehendakaria eta CIINDES S.L. Soziologia Kabineteko zuzendaria.

Irakasle gonbidatua izan da Euskal Herriko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Valladolidekoan, Valentziakoan eta hainbat Udako Unibertsitateetan (Santander, Sevilla eta Donostia).

INGEBAko Bazkide Sortzailea eta RSBAP, ASV, ISA eta IAPC-eko kidea. *Lurralde* eta *Inguruak* aldizkarietako Zuzendaritza eta Idazketa Batzordekoa.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Komunikabideak saileko lehendakaria izan zen 1978tik 1984ra.

Argitalpenak

Haren ikerkuntza jarduerak hiru alor nagusi hartzen ditu: Antolaketaren soziologia, ikerketaren metodologia kualitatiboa eta hauteskundeetako soziologia.

Argitalpenetariko batzuk: *Euskararen Borroka*; *Plano electoral de Euskadi*; *Paulo Freire: Concientización y Andragogía*; *Sociología de las organizaciones*; *Sociología electoral de Euskadi*; *Clases sociales y aspiraciones vascos*; *Violencia y ansiedad social en el País Vasco*; *Estilos de vida e investigación social*; *Métodos de investigación cualitativa*; *La descodificación de la vida cotidiana*; *Inmigración Vasca*; *El extranjero en Europa*; *La juventud liberta*.



SOTA ABURTO, Manuel de la (Txanka)

[Getxo (Bizkaia), 1897.07.29 - Getxo, 1979.12.16]

Areetan jaio zen eragin handiko eta industria ondare handiaren jabe zen familia abertzale baten altzoan. Haren aitona, Alejandro Sota Alvarez (1820-1909), Somorrostroko Alkatea izan zen. Haren aita, sir Ramón de la Sota Llano (1857-1936), politikoa eta enpresari nabarmena izan zen. XIX. mendearan amaieran, Euskal Herriko gizarte foruzalea bere inguruan bildu zuen, nahiz eta arian-arian gizarte hori Arana Goiri anaien talde abertzalearekin bateratu zen. Bestalde, Europako ontzi-konpainia garrantzitsuenetariko bat sortu zuen, *Sota y Aznar*, Eduardo Aznar bere lehengusuarekin.

Manuelek gutxienez bi anaia, Ramón eta Alejandro, eta bi arreba, Begoña eta María de los Dolores, izan zituen. M^a de los Dolores (1893an sortua) José Vilallonga Medina, Villalongako Kondearekin (1892-1967) ezkondu zen; José Vilallonga hau Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrekoa izan zen. Ramón (1887-1978), Bizkaiko Diputazioko lehen Ahaldu Nagusi abertzalea (1917-1920) eta familiaren ondasunen oinordekoa, Sofia Mac-Mahon-ekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten. Alejandro (1891-1965), Fuensanta Povedarkin ezkondua, kazetari ospetsua zen eta *Excelsior* agerkaria sortu zuen.

Manuelek Zuzenbidea ikasi zuen Salamanca eta Cambridge-ko unibertsitateetan eta azken horretako irakaslea izan zen zenbait urtez. Bizkaira itzulirik, burujabetza osoaren aldekoekin batu zen. Eli Gallasteguiaren adiskidea zen eta harekin eta José María Ucelayekin batera alderdiaren propaganda antzerkia bultzatu zuen. Halaber, euskal olerkia landu zuen. Gerraren ondorioz erbestera izan zen eta Gallasteguiarekin ados egonagatik ere, José Antonio Aguirre lehendakariarekin lan egin zuen leialki. Behin gerra amaiturik, Miarrizeko Etchepherdia etxera itzuli zen eta hantxe bizi izan zen hil arte bere anaia Ramónekin. Gerra ondoren Euskaltzaina izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Bilboko Athletic-eko Presidentea zela, 1932an Eusko Ikaskuntzako Kirolak saileko Batzordekide izendatu zuten eta, harez gero, Elren Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen gerra piztu arte. 1948ko Miarrizeko Eusko Ikaskuntzen VII. Kongresuaren antolatzaileetariko bat izan zen. Batzorde Iraunkorrean sartu aurretik ere. Sota familiaren protagonismoa Elkartearen, antza denez, gaur ezagutzen dena baino garrantzitsuagoa izan bide zen. Izan ere, Primo de Riveraren urte zailetan, haren aita, sir Ramón, "Elkartearen diruzko euskarririk sendoena" izan zen.

Argitalpenak

La vieja que pasó llorando. Leyenda de primavera inspirada en el Kathleen-Ni Howlihan, del poeta irlandés W. B. Yeats, (euskaraz eta gazteleraz), Bilbo, 1933. *Libe. Melodrama histórico original de Jelalde. Desarrollo y adaptación dramática*, Bilbo, 1934. *La última hora. Alegoría en un acto eta Gosemin (Hambre). Meditación en un acto*, Bilbo, 1935. *La democracia vasca*, Santiago de Chile, 1944. *Yanki hirsutus. Pequeñas conversaciones sin importancia sobre los habitantes del*

nuevo mundo anglosajón, Buenos Aires, 1949. *Ramón de la Sota y Llano, 1857-1936*, Bilbo, 1957. Beste hainbat egilerekin batean, *Diccionario Retana de autoridades de la Lengua Vasca*, Bilbo, 1976. San Cristobal, M.ren obraren hitzaurrea, *Sangre redentora*, Bilbo, 1934.

Hainbat aldizkaritan idatzi zuen: *La Gaceta Literaria*, *Revista de Occidente*, *Litoral*, *Hermes*, *Euskerea*, *Vida Vasca* eta beste. *Pyrenaica* mendi aldizkaria zuzendu zuen.

Bibliografia

El BILBAO de Alejandro de la Sota, Bilbao, 1970. LOPEZ, C., *Primer Quién es Quién en Vizcaya, Diccionario de Vizcainos, naturales o adoptivos, de destacada proyección pública en distintas actividades y profesiones*, Bilbo, 1975, 350-351. orr. HARITSCHELHAR, J., "Nécrologie. Ramón et Manuel de la Sota", *Bulletin du Musée Basque*, 1980, 221-222. orr. LOPEZ, C., *Cien Vascos de proyección universal*, Bilbo, 1980, 519-524. orr. ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, VIII. ESTORNES, I., *La construcción de una nacionalidad vasca. El Autonomismo de Eusko-Ikaskuntza (1918-1931)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1990. CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herria*, Donostia, 1991, III, 247-251. orr.

J.A.M.A.



URABAYEN GUINDOERENA, Leoncio

[Arakil (Nafarroa), 1888 - 1968]

Arakilen jaio zen 1888an, laborantza jatorriko familia batean. Haren aita, Bonifacio María, Nafarroako Diputazioko basozaina zen. Haren anaia Félix (Ultzurrun - Nafarroa, 1883.06.10 - Madril, 1943.02.08) garaiko eleberrigilerik ohartuenetariko bat izan zen. Leoncio 1921ean Rosario Cascanterekin († 1937) ezkondu zen eta bi haur izan zituen harekin, Marta eta Miguel. Rosario hil ondoren, Josefa Barasoainekin († 1946) ezkondu zen.

Leonciok bi urte zituela, familia Iruñera aldatu zen. Lehen ikasketak bertan egin zituen, Udaleko Eskoletan Félix Serrano maisurarekin. Irakasle horrek *Escuela Normal*-ean sartzeko prestatu zuen (1903). Eskola horretako ikasketak Arte eta Lanbideetakoekin batera egin zituen, Udaleko Musika Akademiara ere joaten zelarik. Maisu titulua lorturik, Diputazioko enplegatua izan zen 1914a arte. Urte horretan Madrilgo Goi Mailako Irakasle Eskolan sartu zen oposizio bidez eta bertan jarraitu zuen karrera amaitu arte (1917), bere promozioko lehena gertatu zelarik. Ondoren Burgosko *Escuela Normal*-eko katedra bat beretu zuen. 1918an Nafarrora itzuli zen, Burgosko plaza Iruñeko beste batez trukatu eta gero. Iruñean Irakasle Eskolako irakaslea izan zen, bai eta zuzendaria ere 1934-1936 bitartean.

Lanaz bestalde, politikan jardun zuen. Hala, 1921etik 1923ra Iruñeko Udaleko zinegotzia izan zen Santiago Cunchillos lagunarekin batera, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrekoa hura ere. Euskal abertzaletasunaren aldekoa, arian-arian Alderdiaren jarreretatik aldenduz joan zen, integristegizat jotzen baitzituen, eta Jesús Sarria, Bilboko *Hermes* aldizkariaren zuzendariaren burubideetara hurbidu zen. 1927. urteko urrirako Euzko Alderdi Jeltzaleko militante izateari utzia zion eta bere jarduera ikerkuntza eta irakaskuntza alorretara bideratu zuen. Bere baitan liberalismoa eta euskaltzaletasuna bildu zituen pertsona zen, baina bietako ezein alboratu gabe.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrekoa izan zen elkarrearen sorreratik beretik. Diruzaina eta Irakaskuntza saileko Batzordekidea izan zen, lehen karguan 1921a arte eta bigarrean 1923a arte iraun zuelarik. Elkarrekin graduazio ondoko prestakuntzari lagundu behararen alde azaldu zen eta, Leoncioren esker, 1921ean beka eta laguntza politika abiatu zuen Eusko Ikaskuntzak; horren ondorioz, ondoko urtean dozena erdi bat gazte Dinamarka, Belgika, Ingalaterra, Frantzia, Suitza eta Alemanian egon ahal izan ziren. 1924tik 1925era, Leoncioren geografiari buruzko lanak finantzatu zituen Elk. Dena den, 1927an laguntza amaitu zen, alde batetik dirubide handirik ez zelako eta baita Batzorde Iraunkorrekoko beste kide baten, Telesforo Aranzadiren, jelskortasun profesionalagatik. Hezkuntza sistema hobetzeko premia arduraturik, bi irakurketa liburu idatzi zituen, euskaraz bata eta erdaraz bestea, nahiz eta azkenean ez ziren argitaratu. Bestalde, Euskal Herriko Udal Administrazioaren Batzarrean esku hartu zuen udalerririk txikietakoa irakaskuntzari buruzko lan batekin, bai eta Eusko Ikaskuntzen I. eta II. Kongresuetan ere, lan banarekin: "El maestro en la escuela vasca" eta "Esbozo de un programa destinado a fomentar la cultura popular y las enseñanzas especiales en el País Vasco".

Argitalpenak


Oroz-Betelu. *Monografía geográfica*, Madril, 1916. *El Dique. Novela*, Iruñea, 1924. *Una interpretación de las comunicaciones en Navarra*, Donostia, 1927. *La Casa Navarra*, Madril, 1929. *Geografía humana de Navarra. La Vivienda*, Madril, 1929-1932, bi libk. *Atlas geográfico de Navarra*, Iruñea, 1931. *La Geografía humana. Sus límites. Su contenido*, Madril, 1934. *El panorama de la geografía humana*, Madril, 1935. *La Catedral de Pamplona*, Zaragoza, 1946. *La tierra humanizada*, Madril, 1949. *Los puentes de Pamplona*, Iruñea, 1951. *Biografía de Pamplona*, Iruñea, 1952. *La antropogeografía, la geografía humana y la cuarta geografía*, Iruñea, 1955. *Una geografía de Navarra*, Iruñea, 1959.

Artikuluak idatzi zituen hainbat aldizkaritan, hala nola *Boletín de la Comisión de Monumentos de Navarra*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *Hermes* eta *Munibe*.

Bibliografía

GRANJA, J., "Leoncio de Urabayen y la Sociedad de Estudios Vascos", *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXX, 2, 1985, 353-384. orr.; AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, IX; ESTORNES, I., "Leoncio Urabayen y la regeneración del tejido cultural vasco", *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 1989, XXXIV, 365-382. orr.; FLORISTAN, A., "El pensamiento geográfico de Leoncio Urabayen", *Príncipe de Viana*, 1992, 195. zk.

J.A.M.A.



URBELTZ NAVARRO, Juan Antonio

[Iruña, 1940]

Azken hogeita hamar urteotan Euskal Herriko kultura tradizionalaren alorrean garatu du bere jarduera. 1959an Donostiako Goizaldi taldean dantzatzen hasi zen eta hartan jarraitu zuen 1965a arte. Zuzendaritza Batzordeko postu guztiak ezagutu zituen talde horretan eta 1965ean taldeko arte zuzendaria izan zen. 1966an Argia taldean sartu zen eta egun talde horretako zuzendaria da. Argia talderako hainbat dantza eta doinu bildu ditu, bai eta jazki tradizionalak ere, eta dantza tradizionalen inguruko ikuskizunak, hala nola "Zortziko" eta "Muriska". Aranzadi Elkarteko etnomusikologia saileko burua eta San Telmo Museoaren Batzorde Iraunkorreko kidea. Irakasle gisa jardun du hainbat ekitalditan: Gipuzkoako Aldundiko Dantza Monitoreentzako Ikastaroak, *Grat de S. Gérard*-eko (Bélgica) *Stage d'été* eta Amsterdameko *Folklorist Dancers Theatre*.

Jarduera Eusko Ikaskutzan

Folklore saileko lehendakaria 1978tik 1994ra.

Argitalpenak

Dantzak. Notas sobre las danzas tradicionales de los vascos, Bilbo, 1978; *Danzas de Guipúzcoa-Gipuzkoako dantzak*, Donostia, 1978; *Alardeak*, Donostia, 1995; *Música militar en el País Vasco: el problema del Zortziko*, Iruña, 1989. Halaber, hitzaurrea idatzi zuen Alfredo Feliú Corcuerearen obran, *Tradiciones y costumbres del País Vasco*, Donostia, 1987.

URIARTE ZULUETA, Manuel María

[Bilbo, 1932.11.30]

Senatua. Talde Popularra
Plaza de la Marina Española, 8
28013 MADRIL
Tel. 915381216. Fax 915381587



Zuzenbide ikasketak eginik, Lizentziatu titulua lortu zuen. Gainera, Frantziako Zibilizazioan diplomatu zen Toulouseko Institutu Katolikoan. Estatuaren abokatua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Zerbitzuen Ikuskatzailea, Gobernuko Presidentziako Idazkari Orokor Teknikoa, Industria eta Energia eta Lurralde Administrazio Ministerioetako Idazkariordea, Senadorea Arabaren aldetik. Halaber, hainbat erakundetako aholkularia izan da: *Instituto Nacional de Industria, Instituto de Crédito Oficial, Banco de Crédito Local, Empresa Nacional Bazán de Construcciones Navales Militares, Telefónica eta Almacenes y Depósitos Aduaneros S. A.*


Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1996an Arabako Lehendakariorde hautatu zuten; harez gero, kargu horri dagozkion lanak burutu ditu.

Argitalpenak

Los problemas internacionales en el Impuesto sobre las Sucesiones, 1972. El Fuero de Ayala. Su regulación en la Ley de Derecho Civil del País Vasco, 1995.

"¿Cortes de Castilla en Vitoria?", Revista de las Cortes Generales, 1997.



URKIZU SARASUA, Patri

Santa Isabel, 33, 2º int. 3
28012 MADRIL
Gurutze Santuaren plaza, 4, 1
20100 LEZO
Tel. 943527224


Filologia Erromanikoan lizentziatua Salamancako Unibertsitatean 1970ean, Euskal Filologian doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean 1987an (Koldo Mitxelena zuzenduriko tesia). 1990etik UNEDeko irakasle titularra da. 1990ean Euskaltzain urgazle izendatu zuten. 1989tik 1993ra HEGATS literatura aldizkariaren koordinatzailea izan zen. UNEDeko bi aldizkaritako Idazketa Batzordekoa: *Revista Iberorrománica de Poesía y Pensamiento Poético SERTA* eta *Revista de las Lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*. Bestalde, hainbat sari jaso ditu olerki, saio eta narrazio sailetan: Miguel de Unamuno (1968), narrazioa; Pio Baroja (1972), narrazioa; Gipuzkoa Saria (1974 eta 1975), saioa; Irun Hiria eta Premio Nacional de Crítica (1984), olerkia; Durangoko Udala (1986), saioa; Irun Hiria (1988), saioa; Mikel Zarate (1991), saioa; Becerro de Bengoa (1994), saioa; Koldo Mitxelena (1996 eta 1998), saioa.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Hizkuntza eta Literatura saileko lehendakaria da 1995etik.

Argitalpenak

Saio, olerki, narrazio, antzerki-lan eta itzulpenen artean berrogei liburutik gora argitaratu ditu. Horien arteko zenbait aipatuko ditugu hemen: *Literatura eta kritika*, Donostia, 1970; *Euskal teatroaren historia*, Donostia, 1975; *Lengua y literatura vasca*, Donostia, 1978; *Etsipenez. Jon Chahoren memorioizunak*, Donostia, 1984; *Piarres Lafitte, Euskal Literaturaz*, Donostia, 1990; *Introducción a la filología vasca*, Madril, 1991; *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak (1811-1858)*, Bilbo, 1992; *Gramática de la lengua vasca*, Madril, 1994; *Exiliatuok ez gara inongoak*, Gasteiz, 1995; *Juan Ignacio Iztueta Vocabulario vascuence*, 1996; *Historia del teatro vasco*, 1996; *Anton Abbadiaren koplarien guduak 1851.1897*, Donostia, 1997; *Zuberoako irri-antzerkia. Recueil des farces charivariques basques*, Baigorri, 1998.



URQUIJO IBARRA, Julio Gabriel Ospin

[Deustu (Bizkaia), 1871.04.03 - Donostia, 1950]

Deustuko "La Cava" etxaldean jaio zen 1871ko apirilaren hiruan, familia aberats baten baitan. Aitaren aldeko aitona, Serapio Dionisio (1809-1882), Errege Eskribaua, Notario publikoa, Bilboko Ahalduna Gernikako Batzar Nagusietan eta Bilboko Udaleko Ohorezko Idazkaria; 1837an bigarren aldiz ezkondu zen María Luisa Goicoechea-Beascoechearekin (1816-1847). Nicasio Adolfo aita (1839-1895), Zuzenbidean lizentziatua, Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Dekanoa, Bilboko Entzutegiko Ordezko Magistratua, Udaleko Erregidorea eta Gorteetarako Diputatua; 1865ean María del Rosario Felisa Ibarra Arambarrekin (1846-1875) ezkondu zen, Ibarra familia ahaltsuko kideak ziren Gabriel María eta María del Rosarioren alabarekin alegia. Rafaela arreba hiltzean (1843-1900), Rosariok iloben ardura hartu zuen bere gain.

Juliok sei anaia izan zituen. Haietatik hiru nabarmendu ziren. Adolfo Gabriel Francisco Xavier Práxedes (1866-1932), Urquijoko Kondea, Bizkaiko Diputazioko Lehendakaria eta Historiako Akademiako kide urgazlea. Jose María (1872-1936), abokatuza eta politikan jardun zuen eta nazioarteko turismoa bultzatzen ahalegindu zen. Julio Donibane-Lohizunen ezkondu zen Vicenta Olazabal Alvarez de Eulaterekin. Vicentaren aita Tirso Olazabal (1842-1921) zen, Carlos VII.aren konfiantzazko gizona. Donibane-Lohizunen egon ziren Lehen Mundu Gerra hasi artean.

Bilboko Institutuan ikasi zuen 1882. urtetik eta han hasi zen hizkuntzalaritzaz arduratzen. Ondoren Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Goi Mailako Ikasketetarako Ikastetxean (1887-1892) eta Salamancako Unibertsitatean lortu zuen lizentziatura, zeren eta, Deustukoa zentro ofiziala ez zenez, bertako ikasleak lizentziatura-azterketa unibertsitate ofizial batean egitera beharturik zeuden. Deustuan hebraierazko klaseetara joan zen ikasle libre gisa; irakaslea Julio Cejador Frauca zen, Astarloaren jarraitzailea, baina Juliok ez zion sineste handirik eman. 1903an Abbas Hilmi Egiptoko Kedive-k Medjidich-eko Ordenaren Ofizial Handiaren titulua eman zion, aitonen seme gisa Carlos VII.ari lagundu zionean herrialde hartarako bidaiaria batean. Gainera, Carlosek Urquijoko Kondea izendatu zuen. 1909an Historiako Errege Akademiaren gutun-kide izendatu zuten. 1918an, Euskararen Akademia sortzean, Euskaltzain Sortzaile Oso izendatu zuten eta bertako Artxibozain eta bibliotekaria izan zen gerora.

1907an *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (RIEV) edo *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria* sortu zuen. Hamalau urte geroago, Eusko Ikaskuntzaren baitan zientzia aldizkari baten premia planteatzerakoan, Urquijok berea utzi zion elkarteari; ondoko urtetik aurrera Elren agerkari ofiziala izan zen eta Urquijok haren zuzendari izaten jarraitu zuen. 1923ko abenduaren zortzian *Caballero de la Orden de la Legitimidad Proscrita* titulua eman zioten. 1924ko maiatzaren 21ean, Bonn-eko Unibertsitateak Honoris Causa Doktore izendatu zuen. *Real Academia de la Lengua Españolako* kide osoa izan zen (izendapena 1927.03.10, karguaz jabetzea 1929.11.24). 1931n Gorteetako Diputatu hautatu zuten *Minoría vasco-navarra*-ren aldetik. Gipuzkoako Aldundiak probintziaren semetzat hartu zuen (1942.02.08) eta hilabete geroago Bizkaikoak Seme Bikain izendatu zuen. Gerraren ondoren, Julioren kultura jarduera Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte berreratuari guztiz loturik geratu zen; 1943ko apirilaren hamabian elkarteko Lehendakari izendatu zuten. 1949ko abuztuaren 17an Espainiako gobernuak Alfonsito X.aren Gurutzea eman zion.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzako kidea izan zen, 1918ko sorreratik 1936ra arte. 1918an Lehendakariorde izendatu zuten eta kargu horretan jarraitu zuen 1930ean dimititu zuen arte. Hala ere, Batzorde Iraunkorrean jarraitu zuen, Hizkuntza saileko Batzordekide zelako. 1933an sail horretako Batzordekide izateari utzi zion, baina RIEV aldizkariaren zuzendaria zenez Batzorde Iraunkorrean jarraitu zuen. 1919an etnologia eta etnografiari buruzko inkesta bat moldatzen lagundu zuen. Orobat, gauzatuko ez zen Gerra Zibilei buruzko Erakusketaren (1927) antolaketa batzordekoa izan zen.

Argitalpenak

Un catecismo vascongado de 1759, Paris, 1906. *Publicaciones vascongadas del doctor labor-tano Joannes d' Etcheberri (1712), con una introducción y notas por Julio de Urquijo e Ibarra*, Paris, 1907. *Los Refranes vascos de Sauguis traducidos y anotados por Julio de Urquijo e Ibarra*, Paris, 1908. *Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca. Discurso pronunciado en el Congreso de Oñate el 3 de septiembre de 1918*, Bilbo, 1918. *El refranero vasco. Tomo I. Los refranes de Garibay*, Donostia, 1919. *Un juicio sujeto a revisión. Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia*, Donostia, 1925. *La cruz de sangre. El Cura Santa Cruz. Pequeña rectificación histórica*, Donostia, 1928. *Los Amigos del País, según cartas y otros documentos inéditos del siglo XVIII*, Donostia, 1929. *Discursos leídos ante la Real Academia en la recepción pública de D. Julio de Urquijo e Ibarra el día 24 de noviembre de 1929*, Donostia, 1929. *Del teatro litúrgico en el País Vasco. La Passion Trobada de Diego San Pedro, representada en Lesaca en 1566*, Donostia, 1931.

Artikulu ugari argitaratu zituen hainbat aldizkaritan, hala nola *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *Euskal Etnalea* eta *Euskalerrriaren Alde*. Bai eta egunkarietan ere, hala nola *Diario de Navarra*, *El Correo de Guipúzcoa*, *El Pensamiento Navarro*, *El Pueblo Vasco* (Donostia eta Bilbo), *Euzkadi* eta *La Gaceta del Norte*.

Bibliografía

AREITIO, D., "Urquijo y su triple personalidad", *El Correo Español*, 1949-VIII-14. HOMENAJE a Don Julio de Urquijo e Ibarra, Donostia, 1950-1951. AROCENA, F., "Don Julio de Urquijo e Ibarra", *Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1950, 375-376. pp. ARALAR, J., "Don Julio de Urquijo e Ibarra", *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, 1950, I, 176-180. orr. VILLASANTE, L., "Don Julio de Urquijo y el problema de la unificación del euskera literario", *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, 1971, V, 25-46. orr. MICHELENA, K., "Urquijo y la Sociedad de Estudios Vascos", *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, 1971, V, 47-66. pp. LEKUONA, M., "En homenaje a Don Julio de Urquijo. Sesión de la Academia de la Lengua Vasca en Bilbao", *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, 1971, V, 67-71. orr. URQUIJO OLANO, J. R., "Semblanza biográfica de Don Julio de Urquijo", *Estudios de Deusto*, XX, 1972, 183-191. orr. LOPEZ, C., *Primer Quién es Quién en Vizcaya, Diccionario de Vizcainos, naturales o adoptivos, de destacada proyección pública en distintas actividades y profesiones*, Bilbao, 1975, 372-374. orr. LOPEZ, C., *Cien Vascos de proyección universal*, Bilbao, 1980, 561-566. orr. AMEZAGA, E., "Los Urquijo", *La Hoja del Lunes*, 1981-XI-23. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbao, 1987, IX. ARANA MARTIJA, J. A., *Julio Urkixo (1871-1950)*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, 1993.

J.A.M.A.

URZAINQUI MINA, Tomás

[Iruñea, 1949.11.17]

Avda. Conde Oliveto, 27, 7º ezk

31002 IRUÑEA

Tel. 948220402 Fax. 948220384

E-mail: turzainqui@laley-actualidad.es



Zuzenbidea ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean eta egun doktoretza egiten ari da Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Pirinioetako Zuzenbidearen inguruan. 1968-1969an Etniker taldean sartu zen. Abokatu lanean hainbat arazotan esku hartu du: Salba Dezagun Belagoa kanpaina; Nafarroaren autonomia uraren gainean; komunalen defentsa; batzarren, auzoen biltzarren, onkena, quincena eta veintena direlakoan demokratizazioa eta iraupena; ingurugiroaren defentsa eta hondakinen erreziklajea. Administrazio eta hirigintzari buruzko diktamen, txosten eta aholkuak burutu ditu hainbat Udal, Kontzejju, Haran eta Mankomunitaterentzat (hogeita hamar baino gehiago).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elren 1978ko batzarreko partaide izan zen eta lehendakariorde hautatu zuten 1987an, bai eta 1991n eta karguan egon zen 1995a arte. Hainbat ekitaldi eta lanetan esku hartu du: Luis Oroz Zabaletaren omenaldia, Gamazadaren Jardunaldiak, Nafarroaren Konkistaren 475. urteurrena, Toponimia bilketa, 1841eko Lege Paktatuaren 150. urteurrena, Nafarroako Margaritari buruzko Jardunaldiak, Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenari buruzko Jardunaldiak.

Argitalpenak

Historia, zuzenbidea, ondarea eta ekonomia ukitu ditu bere ikerlanetan: *La Navarra marítima*, Iruñea, 1998; "Biografía del jurista navarro D. Francisco Salinas Quijada", *Lekuona Sariak Bilduma* 11 (1997); "Encuesta Etnográfica en la Villa de Urzainqui I eta II", *CEEN* 19-20 (1974-1975); *Los comunales en la Cuenca de Pamplona*, Iruñea, 1977; "Los comunales en Navarra", *Navarra abundancia*, 1978; "Los comunales en el Urbanismo", *Homenaje a Luis Oroz Zabaleta*, 1986; "Repercusión de la Conquista de Navarra en el campo del Derecho y Sistema Jurídico propio", *475 Aniversario de la Conquista de Navarra*, 1989; "Sistema jurídico y Tribunales en Navarra", *El Tribunal Superior de Justicia de Navarra*, 1989; "Los libros de Abolengo", *Revista Jurídica de Navarra*, 1991; "El Derecho vasco en la Encrucijada Europea", *Eusko Ikaskuntzen XI. Kongresua*, 1991; "Navarra y el concepto jurídico de un estado de derecho", *Pregoia* 1996; "La estética en el derecho de Navarra", *Etnografía Museoko Aktak*, 1997.

Gainera artikulua ugari argitaratu ditu hainbat egunkaritan: *Diario de Navarra*, *Navarra Hoy*, *Diario de Noticias*, *Egin* eta *Deia*.



VALVERDE LAMSFUS, Lola

[1941.12.31]

Euskal Herriko Unibertsitatea
644 Posta kutxa
48080 BILBO
Tel. 946012000

Historia Modernoan eta Gaur egungo Historian lizentziatua Nafarroako Unibertsitatean 1975ean. Doktoretza 1992an lortu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultateko irakaslea 1990etik (Gaur egungo Historia Departamentua) eta unibertsitate horretako irakasle titularra 1992tik. Demografia historikoa, familia, emakumea eta haur zurtzak ukitu ditu nagusiki bere ikerlanetan.


Saioak aldizkariaren idazketa batzordekoa eta Eusko Ikaskuntzaren Historia eta Geografia Saileko Koadernoak aldizkariko Zuzendaria. Halaber, *European Local and Regional Comparative History Series* (EHUko Gaur egungo Historia Departamentua) bildumaren eta RIEVeke Idazketa Batzordekoa da.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1990etik 1992ra Historia saileko idazkaria izan zen, eta 1994tik 1996ra Historia eta Geografia saileko lehendakaria. 1995etik Gipuzkoako lehendakariordea da. Tokiko Historia Jardunaldien antolaketan hartu du parte eta horietako III. eta IV. Jardunaldietan beraietako mahaiburu izan da. Bestalde, *Arnaut d'Oihenart eta bere garaia* jardunaldien antolaketa batzordeko burua izan da. *Antoine d'Abbadie (1897-1997)* Nazioarteko Kongresuaren zientzia batzordeko kidea.

Argitalpenak

Historia de Guipúzcoa, Donostia, 1984; "Rentería: demografía y sociedad (1888-1905)", *Orso* (1985), 29-33. orr.; "Gipuzkoa historian", in *Euskalerría*, Donostia, 1985; "El abandono y la exposición de niños en la segunda mitad del siglo XVIII y comienzos del XIX. Situación y reformas en la inclusa de Pamplona", *Primer Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX*, Iruñea, 1986; "Illegitimacy and Children Abandonment at Basque Country in Modern Age", *Poor Women and Children in the European Past*, Londres, 1992; *Entre el deshonor y la miseria. Infancia abandonada en Gipuzkoa y Navarra, siglos XVIII y XIX*, Bilbo, 1995; *Revista Euskara* aldizkariaren facsimilaren argitalpena eta sarrera, Donostia, 1996.



VELEZ DE MENDIZABAL AZKARRAGA, Josemari

[Aramaiio (Araba), 1949.09.27]

Enpresa Zientzietan lizentziatua 1972an eta Ekonomia Zientzietan 1978an. 1975etik 1994ra Arrasateko *Unión Cerrajera S.A.* enpresan lan egin zuen eta bertako zuzendaria izatera iritsi zen. 1994tik *Eusko Ikaskuntzako* gerentea da. 1981ean *Euskal Idazleen Elkartearen* sortzaile eta lehen idazkaria izan zen eta 1985ean elkarte horretako lehendakari izendatu zuten. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko sailburuordea 1983tik 1985era. Azken hogeita bost urteetan euskal komunikabideetako jardunari ekin dio, bai telebistan eta irratian eta bai prentsa idatzian ere. 1983an Euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak, bai eta 1987an Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak bazkide izendatu zuen. 1998an Aramaioko Udalak Seme Kutun izendatu zuen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1994tik Eusko Ikaskuntzako Gerentea da.

Argitalpenak

Sebero Altube, 1979; *Iokin Zaitegi*, 1981; *Laiopean kantari*, 1984; *Pedro Ignazio de Barrutia*, 1984; *Zeu zara, Carmen*, 1984; *Euskal Idazleen katalogoa*, 1986; *Nire aitaren etxea*, 1987; *Amuarrantza*, 1988; *Sixties*, 1990; *Yehuda*, 1992; *Nire haurtzaroko Arrasate*, 1995; *Moskuko gereziak*, 1996; *Gerardo López de Guereñu*, 1996; *Gaizka Barandiaran*, 1997; *Samurai berria*, 1998. Bestalde, zazpiehun artikulua baino gehiago ondu ditu, gehienak euskaraz, Euskal Herriko aldizkari eta egunkarietan.



VILALLONGA MEDINA, José (Vilallongako Kondea)

[Sevilla, 1892 - 1967]

Sevillan jaio zen 1892an familia industrial aberats batean. Ramón de la Sotaren alaba zen María de los Dolores alabarekin ezkondu zen (1893-). Emakume hau Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kide zen Manuel de la Sotaren arreba zen.

Ez zuen unibertsitate ikasketarik. Begikotasuna agertu zuen euskal nazionalismoaren alderako.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1932an Irakaskuntza bereziak saileko Batzordekide izendatu zuten, eta harez gero Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kide izan zen. Lehen Irakaskuntza eta Euskal Unibertsitatea Batzordeetako kidea izan zen eta oinarri batzuk idatzi zituen Euskal Herriaren unibertsitate auzia konpontzeko; Elk onartu egin zituen oinarri horiek. Halaber, 1927rako aurrikusitako Gerra Zibilean Erakusketa prestatzeko Batzordekoa izan zen. Bestalde, Jesús María Leizaolarekin Euskal Herriko maparen aurkibidea burutzeko lanetan jardun zuen. Orobat, txosten-emaile izan zen Elebitasunari buruz Elkarteak antolatutako Kongresuan, Donostian eta Bilbon (1931ko abuztuak 25-26 eta 28-29 hurrenez hurren).

Bibliografia

ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983.

J.A.M.A.

YANKE GREÑO, Germán

[Bilbo, 1955.06.21]

El Mundo del País Vasco
Bilbao-Galdácano errepidea, 20
48004 BILBO
Tel. 944739100 Fax. 944730208
E-mail: opinion.pv@el-mundo.es



Zuzenbidea ikasi zuen Nafarroako eta Euskal Herriko Unibertsitateetan. 1976an ikasketak zabaltzeari ekin zion Europako Ekonomia Komunitatearekin zerikusia duten gaietan Lovainan (Belgika) eta Amsterdamen (Holanda) 1977-1978an. 1979an Europako integrazioaren azterketa eta sustapenari eskainitako *Instituto Salvador de Madariaga* eratu eta zuzendu zuen. 1986an, Euskal Herriko kultura eta eztabaida intelektuala sustatzeko helburua zuen *Instituto Vasco de las Artes y las Letras* izeneko sortu zuen unibertsitate irakasle eta idazle talde batekin eta bertako buru izan zen bost urtez. Haren agintaldian institutu horrek liburu bilduma bat eta *Reverso* aldizkaria argitaratu zuen. Bilboko Bidebarrietako Bibliotekan egoitza duen *Miguel de Unamuno Dokumentazio Zentroa* kudeatzen du.

XX. mendeko espainiar poesian espezializatua da eta horri buruzko mintegiak zuzendu eta klase zein hitzaldiak ematen ditu Kentucky-ko Unibertsitatean 1988tik eta Bucknell University-n 1993tik.

Zenbait egunkaritan lan egin du: *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, *La Gaceta del Norte* eta *Deia*. Egun, *El Mundo* egunkariko zuzendariordea da eta Argitalpen Batzordekoa. *Arbola* eta *Pérgola* aldizkarietako zuzendaria izan da, eta iritzi-emailea *Radio Nacional* eta *Radio Euskadi*-n.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Komunikabideak saileko lehendakaria da 1991tik, saila berrantolatzeari ekin dio eta Saileko Koaderno berria abiarazi du.

Argitalpenak

Olerkari gisa ibilbide luzea burutu du. Poesia liburuen artean hauek aipatuko ditugu: *Album de Agujeros*; *Furor de Bilbao*; *Estación del Norte*; *Obra poética completa*. Halaber, hainbat saio argitaratu ditu: *De Bilbao como una de las Bellas Artes*; *Los poetas tranquilos*. Ikerketa artikuluen artean: "Los nietos de Unamuno", "La verdad en el pozo", "La figuración irónica".



YBARNEGARAY, Jean

[Uharte-Garazi (Behe Nafarroa), 1883 - Paris, 1956.04.25]

Uharte-Garaziko familia aberats batean sortu zen. Zuzenbidea Paris eta Bordeleko unibertsitateetan ikasi zuen. Donapaleun jarri zuen abokatu bulegoa, bai eta Baionan geroago. Gazte-gaztetatik politikan sartu zen eta guztiz emaitza onekin, Diputatu hautatu baitzuten aho batez hainbat aldiz 1914tik bigarren mundu gerra bitartean. Lehen mundu gerran Bilbo bisitatu zuen eta zenbait hitzaldi eman zion Alderdi Jeltzaleko gazteriari. 1924an frantses eskuin muturreko *Jeunesses patriotes* erakundeko Buruorde izendatu zuten; hogeita hamargarren urteetan, faszismoaren aukera egin zuen eta *Croix de Feux* eta La Rocque jeneralak 1936an sorturiko *Parti social français* taldeetako kide izan zen.

Francoren altxamenduaren alde jarri zen erabat eta Frantziako neutralitatea, edo berdin dena, Francoren sostengua, defendatu zuen. 1940an PSFren ordezkari izan zen Reynaud-en gobernuan, Estatu Ministro gisa. Gainera, Pétain-en gobernuan esku hartu zuen, bere izenean soilki alderdiak uko egin baitzion gobernuan izateari. Antzinako Gudularien eta Frantses Familiaren Ministroa (1940.06.10 - 1940.07.12) eta Estatuaren Ministro Idazkaria Gazteria eta Familiarentzat (1940.07.12 - 1940.09.6). 1940ko irailean gobernu berrantolatzean, gobernutik kanpo geratu zen. 1944an naziek atxilotu eta Planze-ra (Tirol) erbesteratu zuten; urtebete eta lau hilabete eman zuen bertan. Atxiloketa horri esker ez zuten filofaszismoaren salaketapean kondenatu eta, Justiziako Goi Auzitegiak epaitu arren (1946.03.18), aske geratu zen. 1955eko apirilean Tixier Vignancourt eskuindar muturrekoaren zerrendako bigarren aurkeztu zen hauteskundeetan, baina ez zuten hautatu. Euskal pilotaren zalea, kirol horretako Frantziako Federazioa sortu zuen (1921).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen, zeren eta 1921ean Lehendakariorde izendatu baitzuten. 1924an berriro hautaturik gertatu zen eta lau urte geroago Michel Leremboure-k ordezkatu zuen. Eskualtzaleen Biltzarrak Axularri egindako omenaldian esku hartu zuen (1925.09.17).

Bibliografia


ESTORNES, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia, 1983. JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA, J. C., *De la derrota a la esperanza: Políticas vascas durante la segunda guerra mundial (1937-1947)*, doktore tesia, 1998.

J.A.M.A.

ZABALA IBARBIA, Xabier

[Ordizia (Gipuzkoa), 1951.10.05]

Pagoetako Parke Naturala
Nekazaritza eta Inguru giro Saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoako plaza, z/g
20004 DONOSTIA
Tel. 943835389 eta 943482075 Fax. 943431154



Biologia Zientzietan lizentziatua Oviedoko Unibertsitatean (Leongo Biologia Zientzien Fakultatea). Eguno eta Historiaurreko mikrougaztunen inguruan burutu du gehienbat bere ikerketa jarduera. Barandiaran eta Altunaren ondoan, arkeologia indusketa askotan hartu du parte (Lezetxiki, Goba, Ekain, Arenaza, Erralla, Amalda). 1980an J. Altuna eta J. M. Merinok zuzenduriko taldeko kidea izan zen Ekaingo aztarnategiaren ikerketan. 1981ean Eusko Jaurlearitzak ikerketa beka bat esleitu zion "Euskal Herriko historiaurreko aztarnategietako mikrougaztunak" aztertze-ko. 1979tik 1990era Biologia eta Natura Zientzien Didaktika gaiak irakatsi ditu Donostiako Eliz Barrutiko Irakasle Eskolan eta 1985az geroztik, Gipuzkoako Aldundiko Pagoetako (Aia) Parke Naturaleko Natura Eskola kudeatzen du. 1978tik 1983ra bitartean Aranzadi Zientzi Elkarteko zuzendaritza batzordeko kidea izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Natura Zientziak saileko lehendakaria izan zen 1986tik 1995era. 1987an, Eusko Ikaskuntzen X. Kongresuaren kariaz, "Inventario de las Colecciones Naturalísticas del País Vasco" izenburuko elkarlan bat bultzatu zuen Natura Zientziak sailetik; lan hori Saileko koadernoan 6. zenbakian eman zen argitara.

Argitalpenak

"Contribución al reconocimiento del *Micromys minutus* (Mammalia, Rodentia) en el Catábrico", *Munibe* (1973), 39-44. orr.; "Los micromamíferos del yacimiento prehistórico de Ekain, Deba (Guipúzcoa)", *El yacimiento prehistórico de la cueva de Ekain*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1984; "Inventario de colecciones naturalísticas del País Vasco", *Cuadernos de Sección-Ciencias Naturales* (1990); "Estudios vascos en los recursos extraescolares de educación: Museos y otras iniciativas de difusión cultural y científica", *Eusko Ikaskuntzen XII. Kongresua*, Gasteiz, 1993, 159-164. orr.; "La conservación de la naturaleza en la Comunidad Autónoma del País Vasco", *RIEV* (1997), 325-341. orr.



ZABALA URIARTE, Aingeru

[Bilbo, 1949.04.21]

Ciudad Jardín, 7

48007 BILBO

Tel. 944455589

Bizkaiko Foru Artxiboa

María Díaz de Haro, 11

48013 BILBO

Tel. 944207692 - Fax. 944276344

E-mail: Aingeru.Zabala.Uriarte.@Bizkaia.net

Deustuko irakaslea 1974tik 1999ra. La Lagunako Unibertsitateko irakasle gonbidatua (1990-1999), bai eta Master eta Graduazio-ondoko ikastaro anitzetako irakaslea Ondarearen Kontserbazioari dagokionez, Espainiako eta kanpoko hainbat unibertsitatetan.

Foru Artxibozaina eta Bizkaiko Foru Aldundiko Historia Ondarearen Zerbitzu Burua, *Federación Española del Centro Internacional para la Conservación del Patrimonio* (CICOP) elkargoko Lehendakariordea, bai eta beste hainbat erakundetako kide: Bilboko Arte Ederretako Museoko Batzordea, Euskal Museo Arkeologiko, Etnografiko eta Historikoa, Euskadiko Trenbideko Museoa Azpeitian, Donostiako Untzi Museoa. Halaber, KOBIE eta Bidebarrieta aldizkarietako Idazketa Batzordeko kidea, Euskadiko Monumentu Ondareko Batzordekoa eta Eusko Jaurilaritzako Historia eta Arte Ondareko zuzendari ohia (1980-1983) da, bai eta Guggenheim Museoko Partzuergoaren Administrazioiko kidea (1993-1998).

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako bazkidea da 1979ko maiatzaren 31tik. Euskal Herriko Dokumentazio Iturriak Bildumako Idazketa Batzordekoa. Eusko Ikaskuntzen X. Kongresuko Aholkularitza Batzordeko kidea: *Artxiboak, Bibliotekak eta Museoak* (Iruñea, 1987). 1994ko abenduaren 17tik Euskal Herriko Dokumentazio Iturriak Bildumako Zuzendaria da. Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko Akademia Batzordeko kidea, 1994ko abendutik.

Argitalpenak

Comercio y tráfico marítimo del Norte de España en el siglo XVIII, bi libk., Donostia, Haranburu, 1983; *La Arquitectura Naval en el País Vasco durante el siglo XIX. Monumentos de Bizkaia*, Bizkaiko Foru Diputazioa, 3 libk., Bilbo, 1987; *Mundo urbano y actividad mercantil en Bilbao 1700-1810*, BBK, Bilbo, 1994; *Les basques continentales et péninsulaires à l'époque de la découverte de Terranova*, Les traditions maritimes de Québec, Quebec, 1985; *Devoctions religieuses des marins biscayens à la fin de l'ancien régime à travers le nom des navires*, Foi Chrétienne et Milieux Maritimes (XV-XX siècles), Paris, 1989; *L'apprentissage de la pêche pour les jeunes 'terrestres' aux XVIe-XVIIe siècles* in *L'aventure maritime, du golfe de Gascogne à Terre-Neuve*, Paue, 1993, Editions du CTHS, 1995; *The consolidation of Bilbao as a Trade Centre in the Second Half of the Seventeenth Century* in *Research in Maritime History* 15, Newfoundland-Kanada, 1998.

Bestalde, hainbat artikulu argitaratu ditu talde-lanean egindako obra anitzetan eta aldizkari espezializatuetan.



ZARAGÜETA BENGOTXEA, Juan

[Orio (Gipuzkoa), 1883 - 1974]

Orion (Gipuzkoa) sortu zen. Aita sorterriko sendagilea zen.

Juanez apaiz ikasketak egin zituen Gasteiz eta Zaragozako Apaizgaitegietan. Teologia eta Zuzenbideko lizentziaturak lortu zituen Zaragoza eta Madrilgo unibertsitateetan. Ondoren bere prestakuntza jarraitu zuen Lovainako Unibertsitate Katolikoan, bertan Mercier kardinalaren ikasle kutuna izan zelarik. Madrilen finkatu zen eta han Madrilgo Irakasle Eskolako eta Kontzilio-Apaizgaitegiko Katedraduna izan zen, bai eta Errege Kaperako funtzionarioa, Moral eta Politika Zientzien Errege Akademiako Betiereko Idazkaria eta Pariskoaren kidea ere. 1959an Frantziako Institutuko kide izendatu zuten, haren aurretik ohore hori soilki Gregorio Marañón eta José Gascónek jasoa izanik. Xabier Zubiri haren diszipulua izan zen. Egungo espainiar filosofiaren aita-tzat jotzen dute.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Elko Batzorde Iraunkorreko kide izan zen 1920tik gerra zibila hasi arte, bai eta Irakaskuntza Bereziak saileko Batzordekidea ere 1934tik. Batzordekideak hautatzeko orduan bazkideen partaidetza handiagoa nola arautzea aztertzeko sorturiko batzordean esku hartu zuen (1930). Idazkari Kudeatzailearen kargua sortzearen aurka azaldu zen 1933an, Barandiaran eta Echegarayekin batera. Madrilgo unibertsitateko Filosofia eta Letretako fakultatean euskarari eskainitako katedra baten sorrera bultzatu zuen (1935). Euskal Unibertsitate bat sortzeko proiektu bat idatzi behar zuen Batzordeko kide izan zen.

Argitalpenak

Introducción general a la Filosofía, Madril, 1909. *La philosophie de Jaime Balmes*, Lovaina, 1910. *Modernas orientaciones de la Psicología experimental*, Madril, 1910. *La Universidad Católica de Lovaina*, Bartzelona, 1910. *Caracteres fundamentales de la enseñanza superior o universitaria*, Madril, 1915. *El estudio del niño para la cultura nacional. Conferencia*, Bilbo, 1920. *Necesidades de la Filosofía como enseñanza superior o universitaria*, Zaragoza, 1925. *La reacción realista en la Filosofía Norteamericana*, Madril, 1925. *La crisis del Régimen Constitucional*, Madril, 1925. *Los rasgos fundamentales de la Psicología tomista*, Madril, 1925. *Lengua española*, Madril, 1925. *El cardenal Mercier: su vida y su orientación doctrinal*, Madril, 1927. *El concepto católico de la vida según el cardenal Mercier*, Madril, 1930, 2 libk. *Pedagogía de la religión*, Madril, 1940. *La intuición en la filosofía de Henry Bergson*, Madril, 1941. *El problema de la clasificación de las facultades del alma*, Madril, 1942. *El lenguaje y la Filosofía*, Madril, 1945. *Una introducción moderna a la Filosofía escolástica*, Madril, 1946. *Escolástica y filosofía cristiana*, Madril, 1947. *Filosofía y Vida*, Madril, 1950, 1952 y 1954, 3 libk. *Pedagogía fundamental*, Bartzelona, 1953. *Vocabulario filosófico*, Madril, 1955. *Problemática del bien común*, Madril, 1955. *Los veinte temas que he cultivado en mis cincuenta años de labor filosófica*, Madril, 1958. *Estudios filosófi-*

cos, Madril, 1963. Adrián Loyarterekin lankidetzan, *Crónicas de las ciudades de San Sebastián y Fuenterrabía. La catástrofe de San Sebastián en 1688 y el hecho milagroso del Cristo de la Mota*, Donostia, 1963. *Espiritualidad cristiana*, Madril, 1967. *Curso de Filosofía: I Lógica, II Cosmología y Antropología, III Ontología y Ética*, Madril, 1968.

Artikulu ugari ondu zuen hainbat aldizkaritan, hala nola *Boletín de la Sociedad Bascongada de Amigos del País* eta *Anales de la Real Academia de Ciencias Sociales, Morales y Políticas*, bai eta egunkarietan ere, ABCn bereziki.

Bibliografía

AROCENA, F., "Don Juan Zaragüeta, miembro del Instituto de Francia", *Boletín de la Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 1959, XV, 339-340. orr. AROCENA, F., "Don Juan Zaragüeta y nosotros", *Boletín de la Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 1963, XIX, 174-175. orr. ANASAGASTI, P., "Figuras vascas. Juan Zaragüeta", *Arantzazu*, 1972, LII, 380-386. orr. LOPEZ, C., *Cien Vascos de proyección universal*, Bilbo, 1980, 625-628. orr. AIZARNA, S., "El profesor Cruz Alberich glosó la figura del filósofo oriotarra Juan Zaragüeta", *El Diario Vasco*, 1984-XII-28. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbao, 1987, X. CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herría*, Donostia, 1991, IV, 252-255. orr.

J.A.M.A.

ZUFIAURRE GOYA, José

[Beasain (Gipuzkoa), 1935.08.23]

24 Posta kutxa
20200 BEASAIN
Tel. 943880622



1951tik 1956ra bitartean delineaizio industrialia ikasi zuen Arte eta Lanbideen Eskolan. 1977-1978an Zuzendaritza eta Antolaketa titulua eskuratu zuen Ikasketa Aplikatuetakoko Goi Ikastetxean (Bartzelona) eta 1982-1983an, Marketing-en Diplomatu titula Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioaren Goi Eskolan (Madril).

Hamahiru urtez lan egin du delineatzaile postuan Beasaingo metalurgia batean, lau urtez salmenta buru izan da bi metalurgiketan, bai eta salmenta sustatzailea zerbitzu enpresa japoniar batean. Hogeita bat urtez sukurtsaleko zuzendaria eta teknikoa izan da Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzian eta Gipuzkoa Donostia Kutxan gero. 1992an jubilatua zen.

1978an Etniker-Gipuzkoa taldean sartu zen J. M. Barandiaranen eskutik eta orduan abiatu zituen etnografia ikerlanak, Euskal Herriko Etnografia Atlasaren argitalpena zuzendurikoak gehienbat.


Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1990etik 1993ra Elko Diruzainordea izan zen. 1982an Eusko Ikaskuntzaren Jose Migel Barandiaran Etnografia Beka jaso zuen ikertaldekoa zen eta bere gain hartu zuen Beasaingo datuen ardura.

Argitalpenak

1971n J. M. Barandiaranen aholkuei jarraituz, Aralar Mendialdeko artzaintzari buruzko lan bati ekin zion; lan hori Eusko Folklore Urtekariaren 26. alean eman zen argitara. Harez geroz, Etonografia Ikerkuntza alorreko larogei lanetik gora argitaratu ditu hainbat aldizkaritan: *Eusko Folklore Urtekaria*, *Eusko Ikaskuntzako Antropologia eta Etnografia Saileko Koadernoak*, *Cuadernos de la Etnología y Etnografía de Navarra, NARRIA, Beasain Festivo, Goierritarra eta Pyrenaica*.

Gaur arte lau liburu argitaratu ditu: *Cruceros, cruces, picotas y santutxus en Gipuzkoa; Historia de los nombres de las calles de Beasain; Monografía Etnográfica de Beasain; Indices temáticos y alfabéticos de artículos y de fotografías de la revista anual de Beasain Festivo entre los años 1922 y 1995*.



ZULAICA ARREGUI, José Gonzalo (*P. José Antonio de Donostia o de San Sebastián*)

[Donostia, 1886.01.10 - Lekaroz (Nafarroa), 1956.08.30]

1886ko urtarrilaren hamarrean jaio zen Donostiako Idiakez kaleko bostean, merkatari familia batean. Haren aitak José Antonio zuen izena. Ama 1942ko martxoaren 19an hil zen. Hamaika senidetariko bigarrena zen José Gonzalo.

Lehen ikasketak Marianisten Ikastetxean egin zituen, lehenbizi Marina kalean eta Aldapetan gero. Lehenengo komunioa 1895eko abenduaren zortzian egin zuen. Donostian, eskolara joaten hasi aurretik musikarekiko interesa erakusten zuen eta solfeo, biolina eta pianoa ikasi zituen Eleuterio Iburguren, Toribio Múgica eta Bernardo Gabiolarekin. 1896an aitak Lekarozko Komentu eta Ikastetxera bidali zuen. Joaquín de Llevaneras aita kaputxinoak sorturiko ikastetxe hartan aprobetxamenduz ikasi zuen batxilergoa anaia nagusiarekin batera, bai eta lehen musika urratsak abiatu ere Ismael Echezarra irakaslearekin. Hamaika urtetan hasi zuen musikagile karrera, *La Diana* nobizioen orkestarako transkripzioak egitean, berauek barneko ikasleak esnatzen baitzituzten Eguberriko Bazkoetan. 1901ean amaitu zuen batxilergoa eta hilabete gutxiren buruan kaputxinoen nobiziatuan sartu zen. 1902ko martxoaren 19an A. José Antonio erlijio izena hartu zuen, ikastetxearen sortzailearen gogoia betez, modu horretara eskertu nahi baitzion José Gonzaloren aitari ikastetxeari ekarritako laguntza handia. Boto nagusiak egin eta presbitero ordenaturik (1908.12.19), lehen meza esan zuen Donostiako portuko kaperan (1909.01.10). 1908an Bartzelonara joan zen eta han Enrique Granados ezagutu zuen eta adiskideak egin zituen: Pedrell, Apeles Mestres eta beste zenbait poeta katalan. Udaldiak bere musika prestakuntza osatzeko aprobetxatzen zituen eta 1909 eta 1915.ekoetan Silos eta Besalú monasterioetan egon zen musika gregoriarra aztertzen.

1918an ordenako nagusiek irakasle zereginenez askatu zuten bere musika prestakuntza zabal zezan. Aurrenik Madrilera aldatu zen, eta Parisera gero (1920ko urtarrilaren erdian). Han *Schola Cantorum*-ean ikasi zuen Guridi eta Usandizagarekin batera; Ravelen gomendioz Eugenio Coolsoyengana jo zuen ikasketak sakontzera. Baztango Arraiozen euskal herri musikarekin egin zuen topo eta 1911tik heriotzaraino kanta horiek biltzen ibiliko zen: Baztanen hasieran, Sara aldean gero eta, hondarrean, Nafarroa eta Zuberoa osoan barna. 1918an jadanik 1.200 kanta bilduak zituen, nafarrak haietarik 800en bat. Metodoa hobetuz joan zen eta musikaz gain hainbat gauza biltzen zituen: ipuinak, tradizioak, superstizioak, errezetak eta are otoiz paganoak ere.

Gerra hastearekin, haren nagusiek Frantziara aldatu zuten, Tolosako Komentura. Gero hilabete batzuk eman zituen Parisen eta 1940ko ekainean Mont-de-Marsan-era etorri eta urtebete egon zen hiri horretan. Azkenik, Baionara bidali zuten harik eta 1943ko apirilean Lekarozera itzuli zen arte. Urte horretan berean Bartzelonara joan zen eta han *Instituto Español de Musicología*n lan egin zuen bederatzit urtez; Higinio Anglés zuzendari zuen institutu hura *Consejo Superior de Investigaciones Científicas* erakundearen mende zegoen. Urtean 9.000 pezetako soldata jasotzen zuen, nahiz eta 1952ko ekainean 12.000ra igo zioten. 1953ko maiatzean utzi zuen hango lana eta Lekarozko Komentura erretiratu zen, ikerketa eta lan txokora. Bertan hil zen hiru urte geroago. Aita Casto Inza Arbeok (A. Jorge de Riezu) jarraitu zuen haren lana eta obra osoa argitaratu

zuen hamabi liburutan. Izan zuen diszipulu ugariaren artean Javier Bello Portu Orkestra Zuzendaria zegoen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzako Musika saileko batzordekidea zenez, Batzorde Iraunkorreko kide izan zen 1926tik gerraren hasiera arte. Zendua zen Juan Carlos Gortazarren ordezkari hautatu zuten. Aita Donostiak euskal herri musikaren alde buruturiko jarduerak ospea eta prestijioa ekarri zizkion Eusko Ikaskuntzari.

Argitalpenak

De música popular vasca, Bilbo, 1918. *Cómo canta el vasco*, Bilbo, 1921. *Euskel-Eres-Sorta. Cancionero vasco*, Bilbo, 1922. *Eleiz-Abesti-Sorta*, Paris, 1925. *Gure Herria. 23 chansons populaires basques pour chant et piano*, Paris, 1928. *Notas breves acerca del txistu y de las danzas vascas. Conferencia*, Bilbo, 1933. *La música en las escuelas vascas*, Donostia, 1934. *Música y músicos del País Vasco*, Donostia, 1951. *Flora y fauna en la canción popular vasca. Conferencia leída a la Sociedad Amigos de los Jardines de Barcelona, el 29 de febrero de 1952*, Bartzelona, 1953. *Elizako euskel-abestiak*, Gasteiz, 1954. *El Motu Propio y la canción popular religiosa. Conferencia dada en el Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián, el día 12 de diciembre de 1954*, Donostia, 1955. *Historia de las danzas de Guipúzcoa, de sus melodías antiguas y de sus versos. Instrumentos musicales del Pueblo Vasco*, Zarautz, 1956.

Artikulu ugari argitaratu zuen hainbat aldizkaritan, hala nola *Boletín de la Sociedad Bascongada de Amigos de los País*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *Boletín Americano de los Estudios Vascos*, *Yakintza*, *Vida Vasca*, *Euskalerraren Alde* eta *Gure Herria*.

Bibliografia

GARRIGA, G., "José Antonio de Donostia, O.M.C., músico vasco", *BIAEV*, 1956, VII, 211-213. orr. LABAYEN, A. M., *BSVAP*, 1956, XII, 341-344. orr.; 1957, XIII, 77-79. orr. SAGARDIA, A., "El Padre José Antonio de San Sebastián", *Vida Vasca*, 1958, XXXV, 73-77. orr. AROCENA, F., *BSVAP*, 1950, VI, 104. orr.; 1959, XV, 347. orr. EPPHERRE, G., "Le Père Donostia", *Gure Herria*, 1960, XXXII, 321-329. orr. LAGARRALDE, P., "Une grande figure de musicien basque", *Gure Herria*, 1960, XXXII, 330-352. orr. DASSANCE, L., "Le Père Donostia et Gure Herria", *Gure Herria*, 1960, XXXII, 375-379. orr. BELLO, J., "El padre Donostia", *Muga*, 1980, 8. zk., 62-68. orr. ZUFIA, R., "Aita Donostia. A la luz de Jorge Riezu", *Muga*, 1980, 8. zk., 69-73. orr. *HOMENAJE de la Sociedad de Estudios Vascos. Cuaderno de la sección de Música*, 3. zk., 1986. AMEZAGA, E., *Autores vascos*, Bilbo, 1987, X. CANTON, B., DIAZ, N. eta DE PABLO, C., *Gizonak. Los forjadores de Euskal Herria*, Donostia, 1991, IV, 263-267. orr.

J.A.M.A.



ZUMALABE CASTRO, Olatz

(Donostia, 1948)

Lehen ikasketak ikastolan egin zituen Elbira Zipitria andereñoarekin. Bederatzi urterekin Frantses Eskoletara pasa zen eta oinarrizko batxilergo biak, espainiarra eta frantsesa, burutu zituen bertan. Hamabost urte zituela, Bordelera aldatu zen eta han kanpotarrentzako ikasketak egin zituen Letretako Unibertsitatean.

Donostiara itzulirik frantsesezko klaseak eman zituen Santo Tomas Lizeoan. Dekorazio eta delineazio ikasketak egin eta zenbait arkitektoarekin lan egin zuen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1978tik Eusko Ikaskuntzako Idazkari Nagusia zen Agustín Zumalaberi, bere aitari, lagundu zion Idazkaritza lanetan. Gaur Elko Idazkari Teknikoa da.



ZUMALABE MENDIBURU, Agustín

[Donostia, 1913.04.28 - Paris, 1981.03.08]

Merkataritza irakaslea. Gerra piztu ondoren, Donibane Lohizunera aldegin behar izan zuen. Bertan, Eusko Jaurlaritzak Ziburuko Hotel Reginan ezarritako ikastetxeko zuzendaria izan zen, modu horretara iheslarien familietako haurrek klaseak har zitzen. Gipuzkoara itzulirik, merkataritza ikasketa akademia bat sortu zuen bere sorterrian. 1958tik berriro atzerrira joatera beharturik, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OIT) aditu gisa hasi zen lanean, Tunisian gehienbat. Franco hil ondoren OITean jubilatuta eta Donostiara itzulirik, Eusko Ikaskuntza berriro martxan jarri zuen taldekoa izan zen.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

1934an Bernardo Estornés Lasa ordezkatu zuen Elko Bulego Buru lanetan, titularra gaixotasun-bajarekin egon zen aldian. Ondoren bulego lana egiten jarraitu zuen Estornésekin harik eta gerrak guztia eten zuen arte. 1978an Eusko Ikaskuntza berriro martxan jartzeko lanei ekin zien, 1936ko Batzorde Iraunkorreko kideetarik bizirik zeuden sei lagunekin batera: Barandiaran, Garate, Lekuona, Irigaray, Irizar eta Irujo. Elko Idazkari Nagusi hautaturik, postu horretan jarraitu zuen hil arte.

Argitalpenak

Juegos y deportes. Libro de oro, Bilbo, 1935.

Hainbat aldizkaritan idatzi du: *Argia*, *Tierra Vasca*, *Irrintzi* eta *Yakin*.



ZUMALDE ROMERO, Iñaki (*José de Lizarralde, Jon Irizar, Izeta eta Iñaki de Olakua*)

[Oñati (Gipuzkoa), 1926.02.03]

Oñatin jaio zen 1926an. Nagusiki tokiko historia ukitu du bere ikerkuntza eta dibulgazio jardueran, literatura unibertsaleko gaiak ere landu dituelarik.

Jarduera Eusko Ikaskuntzan

Historia-Geografia saileko Lehendakaria izan da 1980tik 1985era.

Argitalpenak

Las ermitas de Oñate, Oñati, 1953. *Historia de Oñate*, Donostia, 1957. *Ensayos de historia local vasca*, Donostia, 1964. *Oñate*, Donostia, 1970. *Vergara*, Donostia, 1970. *Las danzas del Corpus de Oñate*, Donostia, 1974. *Oñate-Aranzazu*, Gasteiz, 1983. Jerardo Elortza eta Juan Madariagarekin elkarlanean, *Oñati eta Gipuzkoaren bategitea. La unión de Oñati y Gipuzkoa*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1996.

Hainbat aldizkaritan idatzi du: *Aranzazu*, *Arco*, *Boletín de la Biblioteca Municipal de Oñate*, *Boletín de la Cofradía Vasca de Gastronomía*, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, *Índice*, *Itsmo*, *La Quincena*, *Munibe*, *Nuestro tiempo*, *Ohitura*, *Oñate*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *Seminario Católico* eta beste.

Bestalde, hainbat artikulu idatzi ditu *Deia* egunkarian baleen arrantza eta Oñatiko dantzei buruz.